

Busturia (1916–1937): Berrezarkuntza,
diktadura, II. Errepublika eta Gerra Zibila

Busturia (1916–1937): Restauración,
dictadura, II República y Guerra Civil

Xabier Herrero Acosta





Busturiko Udala

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



Lankidetzan

66

Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza,
diktadura, II. Errepublika eta Gerra Zibila

Busturia (1916-1937): Restauración,
dictadura, II República y Guerra Civil

Xabier Herrero Acosta



Azaleko argakia / Procedencia de la fotografía de cubierta:

Busturiko Udala / Ayuntamiento de Busturia

Herrero Acosta, Xabier

Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza, diktadura, II. Errepublikak eta Gerra Zibila = Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil / Xabier Herrero Acosta [itzulpena gazteleratik euskarara Lidia Jiménez Galván]. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2019.

399 or. : ir. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 66)

ISBN: 978-84-8419-291-6

I. Herrero Acosta, Xabier II. Bilduma III - Tit.

Eusko Ikaskuntzak eta Busturiko Udalak liburuaren egileari bere lana eskertzen diote, liburuan azaltzen diren irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte; horrek, ez duen esan nahi bere gain hartzen dituztela.

Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Busturia muestran su agradecimiento al autor de este volumen, respetan todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que las asuman.

ISBN: 978-84-8419-291-6

L. G.: SS 990-2019

Fotocomposición, impresión y encuadernación: Michelena artes gráficas. Astigarraga (Gipuzkoa)

BUSTURIA (1916-1937): BERREZARKUNTZA, DIKTADURA, II. ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA

ATARIKOA	19
1. INGURUNE FISIKOA, BIZTANLERIA ETA KULTURA	21
1.1. Jatorri etimologikoa, topografia, hidrografia, klima eta landaretza	21
1.2. Alderdi sozialak	22
1.2.1. Hizkuntza	22
1.2.2. Erlijioa	23
1.2.3. Jaiak	24
1.2.4. Musika	25
1.2.5. Kirol-jarduerak	27
1.2.6. Irakaskuntza	28
2. BERREZARKUNTZATIK ERREPUBLIKARA DIKTADURA BATETIK IGAROTA	31
3. II. ERREPUBLIKA BUSTURIAN (1931-1936)	40
3.1. Udala Errepublika garaian	40
3.1.1. Udal-hauteskundeak	40
3.1.2. Gora (Euskal) Errepublika!: Apirilaren 14a eta lehen udala	41
3.1.3. “Batzorde Kudeatzaitetik” “herriaren” udalera.	44
3.2. Hauteskunde orokorrak Errepublika garaian (1931-1936)	50
3.2.1. 1931	50
3.2.2. 1933	52
3.2.3. 1936	53

3.3. Alderdi politikoak eta indarkeria politikoa	56
3.3.1. Euzko Alderdi Jeltzalea	56
3.3.2. Errepublikanoak	62
3.3.3. Indarkeria, asaldura eta probokazio politikoa Busturian	63
3.4. Estatutu-lehia Busturian	66
3.4.1. Aurrekariak	66
3.4.2. Autonomia Estatutua	67
4. BUSTURIA GERRA ZIBILEAN (1936-1939)	73
4.1. 1936Ko uztailak 18: Tokiko Defentsa Batzordetik Tokiko Defentsa Batzarrera	73
4.2. Euzko Jaurlaritza	80
4.2.1. Euzko Jaurlaritzaren sorrera	80
4.2.2. Busturiar bat Euzko Jaurlaritzan: José María Ucelay Uriarte	83
4.2.3. Tokiko Defentsa Batzarraren deuseztapena Busturian	87
4.3. Errepresio errepublikanoa	88
4.3.1. Udal-garbiketa	88
4.3.2. Indarkeria politikoa, miaketak eta atxiloketak	91
4.3.3. Erruak “ordaintzea”: Busturiko Batzar Kalifikatzailea	97
4.3.4. Euzkadiko Herri-auzitegia	102
4.4. Herriko milizietatik Euzkadiko Gudarostera	103
4.4.1. Boluntarioak edo halabeharrezko soldaduak?: mobilizazioa eta deialdiak	103
4.4.2. Busturiarrak euskal batailo nazionalistetan	115
4.4.3. Busturiarrak Fronte Popularraren unitateetan	119
4.4.4. Busturiarrak milizia anarkistetan	123
4.4.5. Busturiarrak Euzkadiko Gudarosteko unitate erregularretan	123
4.4.6. Eskola militarrik	125
4.4.7. Itsas-frontea	128
4.4.8. Hildakoak eta desagertutakoak	136
4.4.9. Desertoreak	138
4.5. Eguneroko bizitza Gerra Zibilean	139
4.5.1. Errefuxiatuak	139
4.5.2. Irakaskuntza	145
4.5.3. Bonbardaketak	150

4.5.4. Fronte isildua: merkataritza-ontzidia	155
4.5.5. Itsas polizia	161
4.5.6. Errazionamendua	162
4.5.7. Gerrako industriak	168
4.6. Gerra <i>Busturialdera</i> heltzen da: Sollube mendiaren konkista Añetutik igaroz	170
4.7. <i>Hilabete gutxirako izango da: erbestea</i>	183
4.7.1. “Atzo sartu zen oinutsik, gaur egingo da nagusi”: udalerrriaren ebakuazioa	183
4.7.2. Atzerrira bidalitako haur busturiarrak	188
4.7.3. Erbestea	190
4.7.4. <i>iDefensar Euzkadi es defensar Catalunya!</i>	194
Laburdurak eta siglak	197
Bibliografia, Artxiboak eta baliabide elektronikoak	200

Busturiko lan honen helburua da tokiko erakundeen bilakaera politikoa aztertzea Berrezarkuntzatik Gerra Zibila amaitu arte. Bertako bilakaera instituzionala ahaztu barik, ikerketa II. Errepublikarekin eta Gerra Zibilarekin lotutako udalerriko hainbat alderdi sozialetan zentratzen da, hala nola ideologia ezberdinen ezarpena, gatazka sozialak, mobilizazio militarra, erbestea edo errepresioa.

Giltza-Hitzak: Tokian tokiko historia. Busturia. Busturialdea. Berrezarkuntza. Primo de Riveraren diktadura. II. Errepublika. Gerra Zibila.

Este trabajo sobre Busturia tiene como objetivo el análisis de la evolución política de las instituciones locales desde la Restauración hasta el final de la Guerra Civil. Sin olvidar esta evolución institucional a nivel local, el estudio se centra en diversos aspectos sociales relacionados con la II República y la Guerra Civil en el municipio como la implantación de distintas ideologías, la conflictividad social, la movilización militar, el exilio o la represión.

Palabras Clave: Historia local. Busturia. Busturialdea. Restauración. Dictadura de Primo de Rivera. II República. Guerra Civil.

Ce travail sur Busturia vise à analyser l'évolution politique des institutions locales, depuis la Restauration jusqu'à la fin de la Guerre Civile. Sans oublier cette évolution institutionnelle au niveau local, l'étude met l'accent sur divers aspects sociaux liés à la Seconde République et à la Guerre Civile dans cette commune, tels que les différentes idéologies, les conflits sociaux, la mobilisation militaire, l'exil et la répression.

Mots-Clés : Histoire locale. Busturia. Busturialdea. Restauration. Dictature de Primo de Rivera. IIème République. Guerre Civile.

**Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza,
diktadura, II. Errepublika eta Gerra Zibila**

Xabier Herrero Acosta



ATARIKOA

Monografia hau, zeinaren atarikoak atsegin handiz idatzi dudan, Eusko Ikaskuntzaren eta Busturiko Udalaren arteko elkarlanari esker duzue esku artean. Izan ere, haien indarrak batu, eta Gerra Zibilak eta osteko diktadura frankistak Busturian eragin zuten garai historiko tristea toki-ikuspuntutik aztertzeko ikerketa-beka bat diruz hornitu eta kudeatu zuten.

Xabier Herrero Acostak —bereziki eskertu nahi dizkiot bere eskuzabaltasun, ahalegin eta interesa— lan bikaina egin du, eta haxe dugu emaitza: Gerra Zibilak eta errepresio frankistak gure udalerrietan eragindako guztiaren azterketa zehatz-zehatza. Monografia hau oinarri, etorkizuneko belaunaldiak dokumentuak biltzeko eta Busturiko errealitatea ezagutzeko parada izango dute: nolakoa zen bizimodua altxamendu militarra jazo aurretik, zer-nolako giroa izan zen Gerra Zibilak iraun bitartean, eta zelako errepresioa egikaritu zuten agintari frankistek udalerria konkistatu ostean.

Era berean, Udal honetako Memoria Historikoaren Batzordeak eginiko lana eskertu nahi dut. Bertan, zinegotziak eta busturiarrak bat eginda aritu dira liburu hau aurrera atera eta biktimen oroitzapena ez dadin ahantzi, duela hamarkada batzuetatik Ispilluetan haien omenez altxaturiko monolitoaren aurrean omentzen ditugun horiena, hain zuzen.

Lan honetan, Errepublikako urte onak ezagutuko ditugu, hezkuntza, kultura, kirola, euskara eta abar bultzatu zireneko garai hura; jakingo dugu, orobat, nola zapuztu zituen Gerra Zibilak aurrerapen haiek guztiak.

Historiako lehenengo Euzko Jaurlaritza Gernikan jaino zen, 1936an, Gerra Zibil bete-betean Errepublikako Gorteek onartu zuten Autonomia Estatutuaren ondorioz. Bederatzi hilabete eskas iraun zuen, Francoren armadak Bizkaia konkistatu zuenean, 1937ko ekainean, deserri luzera behartu baitzuen.

Bilbo erori zenean, 1937ko ekainaren 19an, Ipar frontearen amaieraren hasiera izan zen Errepublikarako, eta euskal abertzaletasunaren aldeko borrokaren porrota.

Espero dut egungo irakurleek gure historiako garai triste bati buruzko lan zehatz eta atsegingarri honetaz gozatzea.

Aitor Aretxaga
Busturiko alkatea

1. INGURUNE FISIKOA, BIZTANLERIA ETA KULTURA

1.1. Jatorri etimologikoa, topografia, hidrografia, klima eta landaretza

Ez da ezagutzen Busturiaren jatorri etimologikoa, euskaraz *Busturije* o *Busturi* da. Hala ere, jatorri hori ezagutzeko grinak hainbat proposamen ematera eraman die Koldo Mitxelena, María Victoria de Gondra y Oráa, Juan Ramón de Iturriza, Jaime de Kerexeta edo Jacinto Gómez Tejedor (Ramos Larriba, 1997) bezalako intelektualei. Koldo Mitxelenaren arabera Busturia "*Bost Uri*" esamoldetik dator, hau da, Axpe, San Bartolomé, San Cristóbal, Altamira eta Paresi bost auzoak oinarritzat hartuko lituzkeena (Mitxelena, 1955; Gondra y Oráa, 1990; Ramos Larriba, 1997). Izen bera duen merindadean dago, gaur egungo Busturialdeko eskualdean, eta lau kilometrora dagoen Gernika-Lumoko barruti judizialaren barruan dago. Busturia aipatutako auzoek, edo herrixka txikiek, osatu dute. Gernikatik Bermeora doan errepideari jarraituz, lehen agertzen den auzoa San Cristobal da, eta bere ezkerrean, Arrietarako norabidean, Altamira dago. San Bartolomé eta Axpe auzoak iparralderago daude, Errege Bide zaharraren bi aldeetan. Busturiko elizatea Sukarrieta eta Arteagaren mugakide da ekialdean; hegoaldean, Murueta eta Errigoitirena; mendebaldean, Bermeo eta Arrietarena; iparraldean, Sukarrieta, Mundaka eta Bermeorena (Ramos Larriba, 1997).



Busturiko Axpe auzoko ikuspegi orokorra 1919. urtean. Lehen planoan, ezker aldean, Axpeko Andra Mari eliza ageri da beste eraikinen artean (Iturria: Busturiko Udala).

Busturia kokatzen da Gernikako itsasadarretik pixkanaka altxatzen doan topografia batean, hau da, kostako lerro baxu eta hondartsu batetik Sollube mendiraino (663 m). Mendi honen eta kostaldearen artean lurzorua bertikaltasuna nahiko areagotzen duten beste zenbait mendi daude: Ikazgarei (433 m), Gomez Korta (407 m) eta Añetu (360 m). Aurkituko ditugu, batez ere, padura eta mendi-eremuak eta muino txikien artean sartutako ibar estuez osatutako erdiko eremu bat. Ibaiei dagokienez, Murueta eta Busturiko jurisdikzio-mugen artean, Altamirako auzotik, Mape, Busturia eta Sollube izenak jaso dituen ibai batek urak isurtzen ditu. Eskuinaldetik, eta ia Altamiratik hedatzen den lautada alubialaren hasieran, Gorbea edo Oxinbalzaga dago. Iparralderago, Axpetik, Errekaetxe edo Apartola izeneko erreka txiki batek itsasadarreko sarrera batean isurtzen ditu bere urak. Sollubeko maldetan jaiotzen diren ibaiak laburrak, azkarrak eta ez oso emaritsuak dira (Ramos Larriba, 1997).

Busturiko klima ozeanikoaren aldaera bat da. Eurien banaketa erregularra da urtean zehar, neurrizko tenperaturak daude eta udan tenperaturak freskoak dira. Ez dago oszilazio termiko handirik urtarotetan. Klima honen ondorioz Kantauri erlaitzean ohikoa den landaretza dago: baso hostogalkorrek eta otalurrak (Ramos Larriba, 1997).

1.2. Alderdi sozialak

1.2.1. Hizkuntza

1916an, eskola nazionaleko maisu batek, Melquiades Pinedo izenekoa, adierazten zuen zein zen hizkuntza nagusia Busturiko elizatean. Bere lanari buruz zera esaten zuen:

“... (su labor era)... altamente patriótica de difundir el idioma castellano, sin herir los sentimientos de los que opinan que solo debe hablarse el vascuence, hasta el punto que son muy contados los niños que no pueden expresarse en el hermoso idioma de Cervantes a pesar del carácter de aldea que predomina en esta anteiglesia y de que fuera de los actos oficiales, no se emplea otro idioma que el vascuence”¹.

Nazionalizatzeko lan hori zenbait hamarkada lehenago hasi zen, euskal nazionalismoaren ideologoa zen Sabino Arana Goirik Busturiko maisua zen Victor Bilbao Goiriri idatzi zizkion gutunek adierazten zuten bezala, zeinetan haurrek euren artean euskara erabiltzea debekatzeko asmoz “eraztunaren metodoa” erabiltzea aurpegiatzen zion².

1928an *Euzkadi* egunkari jeltkideak hurrengo albistea argitaratzen zuen:

“No cabe duda que la deseskeurización del pueblo vasco es alarmante; el descenso es bien notorio en cualquier villa o aldea vasca; en Guernica, ya casi el habla popular es el castellano; de Mundaca se puede decir otro tanto; Durango, la villa de Astarloa, apenas se distingue en su verbo de Valladolid; en Bermeo, Deva y en otros importantes poblados, el núcleo euskeldun se ha reducido a un grupo de amantes vascos” (*Euzkadi*, 1928/12/16).

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa. Udal Atala. Busturia 0107/001.

2. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia. Arana Goiri Anaien Funtsa. K seriea. 05 kutxa. 24; 25. Karpeta; 18. kutxa. 11. karpeta.

Euzkadiren albistea “deseuskerizazioari” buruz gehiegikeria argia baldin bada ere, egia da horrezkero gaztelaniak herriaren bizitza politiko eta administratiboaren zati handi bat bete zuela, erlijioa oraindik ukitu gabe. Hainbeste erabiltzen zen euskara ezen Eusko Ikaskuntza elkartea 1931-1932 ikasturtean elebitasuna sartzen saiatu zenean, bai udal eskoletan bai udaletatik laguntzaren bat jasotzen zuten eskoletan, Busturiko Udalak hurrengo adierazi zuela:

“considerando que este pueblo es eminentemente euskaldun, en sus escuelas debe cursarse el castellano como asignatura en todos los grados, siendo el euskera el idioma vehículo de la enseñanza, en la forma prevista por el proyecto de Estatuto Vasco”³.

Azkenik, aipatuko dugu Udalak diru-laguntza txikiak eman zizkiela euskararen alde eta euskal kulturaren aldeko giroa sortzearen alde lan egiten zuten elkartei⁴.

1.2.2. Erlijioa

Herriaren jainkozaletasunaren adierazgarria erlijio-arkitektura da. Bai Axpeko Santa María eta San Miguel elizek bai baselizek ideia hori baieztatzen digute. Axpeko Santa María eliza nagusiaren erreferentzia zaharrena XI. mendekoa da, ziur aski penintsulako iparraldean daudenen ezaugarri antzekoak dituen eraikin prerromaniko bat. XIV. mendean eliza berriro eraiki eta handitu zuten. Hala ere, gaur egun eskaintzen digun irudia 1520an hasi eta 1927an bukatu zen eraikuntza-prozedura baten azken emaitza da. San Miguel eliza, Altamira auzoan, parrokia da 1952tik, baina 1630etik existitzen da. Lehen Axpeko Santa María parrokiari atxikita zegoen eta, are lehenago, eraikuntza oso desberdina zuen eta baseliza bat zen. Gune garrantzitsu bat zen prozesioak eta errogatibak ospatzeko orduan. Elizateak errogatibaren bat antolatzen zuenean euria eskatzeko lehorte garaietan prozesioa eliza nagusitik irteten zen Errosarioko Ama Birjinaren irudiarekin, Murueta Andra Mari baselizara heltzen zen, non meza bat ematen zen, eta gero prozesioak San Migueleraino jarraitzen zuen. Bederatzi egun igarotzen zituen San Miguelen, non meza, arrosario eta salbea egunero ematen ziren, eta gero eliza nagusira itzultzen zen (Ramos Larriba, 1997).

Juan Ramón de Iturrizaren arabera Busturiko Axpe elizatean bederatzi baseliza zeuden: Kurtzio, San Mames, San Bartolome, San Kristobal, San Miguel, Pareziko Andra Mari, Murueta Andra Mari, San Martin eta Erremedioko Ama Birjina (Iturri Azcarraga, 1985). Azken hirurak Muruetan zeuden, baina lehen Axpeko Andra Mari parrokiara atxikita zeuden. Pareziko Andra Mari baseliza da zaharrena, urrutiena eta altitude handienera dagoena. Bere deitura Elurretako Andra Mari, baina “Parezi edo Bareziko Andra Mari” esaten dute herrian. Bi prozesio egiteko ohitura zegoen, lehena apirilaren 25ean eta bigarrena irailaren 2an. San Kristobal baseliza izen bereko auzoan dago, Gernika-Bermeo errepidetik hurbil eta Mape ibaiaren ondoan, eta San Kristobal eta San Nikolas deiturak ditu. Jaia uztailaren 10ean zen, San Kristobalen eguna dena, baina aitzinean San Nikolasen jaia ere ospatzen zen abenduaren 6an. Gaur egungo San Bartolome baseliza, izen bereko auzoan eta Axpe auzora doan herriko bidearen ondoan dagoena,

3. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

4. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

ez da jatorrizkoa zen bera. Baseliza honetan ere bi deitura zeuden eta San Bartolome zein Magdalena izenpekoa zen, baina lehenengoa deitura nagusi bihurtu zen. Jaia abuztuaren 24an zen, San Bartolomeren egunean. Egun horretan meza abestua eta erromeria bat egiten ziren. Kristo Gurutzatuaren baseliza, “*Kurtzio*” izenarekin ezagutzen ohi dena, Axpe auzoan dago eta baliteke Pareziko baselizarekin batera zaharrena izatea. “*Humilladero*” (kurutze-toki) motako baseliza bat da. Mota honetako baselizak herrien sarreretan altxatzen ziren, errepide zaharretan eta elizetatik hurbil. Jaia irailaren 14an da, Kurutze Santuaren Gorespen egunean (Ramos Larriba, 1997).

1.2.3. Jaiak

Bere erlijiozko arkitekturan adierazitako erlijio-sentimenduari lotuta udalaren jaieguna daude: Kandelario, San Blas, Corpus Christi, San Kristobal, Santiago, Santa Ana, Pareziko Andra Mari, San Lorenzo, San Miguel, Itsasoko Ama Birjina eta San Bartolome. Udalarentzat ere jaiak bi taldetan banatu ziren: herriarentzat garrantzitsuak zirenak, San Kristobal eta Santiagorenak adibidez, eta garrantzi gutxiago zituztenak, hala nola Santa Ana, Pareziko Andra Mari, Itsasoko Ama Birjina eta San Bartolomerenak. Jai batzuek, San Bartolomerenak adibidez, “*Anguizco-zeley*” plazan ospatzen zirenak, Udalak derri gorrez ospatu beharreko izaera edo izaera ofiziala eskuratu zuten 1913an, eta hurrengo igandean errepikatu behar ziren eta egon zitezkeen beste jaien artean gailentzen ziren, izen bereko auzoan bi erromeria bakarrik zeudelako urte osoan. Jai hauek erlijio kutsu handi bat izan arren, Udala erlijiozko ekitaldietara eta ekitaldi profanoetara elkarte bateratu bezala joaten zen, Guardia Zibilak edo Miñoiek zaintzen zuten ordena publikoaren nahasmenduak eragozteko.

Primo de Riveraren diktadura baino lehen Guardia Zibila kuartel-etxe bat egiten saiatu zen 1919an, soilik Udala, partikular bat edo udalerrriaren jurisdikzioaren barruan zegoen erakunde bat kuartel-etxearen gastuak doan ordaintzera prest egotekotan. Lecumberri alkatea horren alde agertu zen ondokoa hartzen baitzuen kontuan: “*los buenos servicios que en todo tiempo presta el cuerpo de la Guardia civil tanto para conservar el orden público como para proteger a las personas y propiedades*”. Baina Arguinzoniz eta Luzarraga zinegotziek miñoien kuartel-etxe bat egokiagoa izango zela uste zuten⁵. Aldiz, eusko jeltzaleek argi uzten zuten hurrengoa: “*los forales, por ser del país, son los más llamados para mantener el orden en las romerías*”⁶. Hala eta guztiz ere, aipatutako kuartel-etxea ez zen inoiz eraiki.

Jai handiak animatzeko Udalak Bermeo edo Gernika bezalako hurbileko herrietako Musika Bandak kontratatzen zituen, ospakizun txikiagoetara Galiziako musikari ibiltari edo dultzainero bezalako musika-taldeak joaten ziren bitartean. Jakina, Busturiko musika-elkarteko banda ezin zen jaitsi ekitaldi hauen ospakizunetatik. Aldi berean, Julián Borda Lejarza, 1908tik udal-danbolindaria zena, jaialdi hauetara joaten zen giroa alaitzera, eta ez zuen zerbitzu hau Busturian bakarrik ematen. Hurbileko herrietatik egiten zuen ibilbidearen adibide bat 1916ko uztailaren 2an daukagu, San Pedrorren ohorean Txatxarramendi uhartean (Sukarrieta) egin zen ospakizunean. Egun horretan Busturiko

5. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001.

6. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0090/001.

danbolindariak Cuencako Erregimentuaren Musika Bandarekin jo zuen, Lecumberri eta Luzarraga zinegotziak kontra egon arren, Mundakako Udala ekitaldi honen aurka zegoe-lako partikular batek ordaindutako eta antolatutako ekitaldia zelako, “kanpoko” musikarekin gainera, eta Udal mugakideak irain bezala har zezakeelako udal-danbolindaria joatea giroa alaitzera⁷.

Musika-bandetatik aparte, Udalako ordain-aginduek adierazten dute janaria, ardoa, limonada edo garagardoa saltzeko postuak ezartzen zirela. Suziriak ere jaurtitzen ziren Udalaren kontu. Suzirien jaurtiketak garrantzia ez duela dirudien arren, Udalaren bilera batzutan 1921eko San Lorenzo eta Itsasoko Ama Birjinaren festetan Udalaren kontu suziriak ez egoteak auzotarren artean sortu zituen keak tratatu ziren. Gainera, 1921ean ere, Udala eta Busturiko bandaren arteko gatazkaren ondorioz Udalak Gernikako musika-banda kontratatu zuen San Kristobal eta Santiagoren jaiegunak animatzeko hurrengo urteetan zehar. Jakina, Gernikako Musika Bandaren eskakizunak egurrezko oholez egindako kiosko bat eraikitzea eta argiteria elektrikoa instalatzea izan ziren. Argiteria elektrikoari esker erromerien ospakizunak luzatu egin ahal izan ziren. Dena den, Udalak bete beharreko ordutegiak ezarri zituen neurrigabekeriak saihesteko. Azkenik, aipatu beharrekoa da lehen danbolindariak eta atabalariak animatzen zituzten erromeria askotarako errepublikako garaian Busturiko beste udalerriko musika-bandak kontratatzen hasten hasi zirela Udalaren laguntza ekonomikoarekin, San Bartolome edo Elurretako Andra Mariren erromerietarako, adibidez.

Busturian azpimarratzekoak diren beste jaialdien artean aurki dezakegu, Udalaren 1915eko abuztuaren 22ko dekretuaren ostean, Manuel María Arroategiren hariztian hileko azken igandean hileru egiten zen abereen azoka, Axpeko eskolaren ondoan zegoen hariztian egun berean egiten zen erromeriarekin batera⁸. Abereen azoka honen garrantzia ez zen bere merkataritza-izaeragatik bakarrik, inguruko abeltzain eta nekazarien topagunea ere bazen, eta bertan zuzenean eragiten zieten gaiei buruz hitz egin zezaketen gero erabakitakoaren arabera jarduteko⁹. Hala ere, ekitaldi honek gazte gutxi izan zituen 1921ean eta 1932rako zenbait urte zeraman ospatu gabe.

1.2.4. Musika

1916an Benito Ciarreta eta Casiano de Abiña auzotarrek, Busturiko musika-elkartea- ren ordezkari gisa, udal musika-banda bat sortzeko ahalegin handiak egin zituzten. Herriko banda hau poliki-poliki eratzeko asmoarekin, elkarteak laguntza eskatu zion Udalari bere atrilaren erabilera eta musika-taldea eratzeko/mantentzeko dirua eskatuz¹⁰. 1916ko *Corpus Christia* ospatu zen arte udal elkarteak ez zion Udalari eta elizako kabildoari lagundu erlijiozko ospakizuna zela eta, dena “*lehen aldiz eta bat-bateko borondatez*”¹¹. Honi esker Busturiko Udalak laguntza handiagoa eman zion

7. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0107/001.

8. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0107/001.

9. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0105/001.

10. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0105/001.

11. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0105/001.

musika-elkarteari, adibidez, Axpeko haur-eskola nazionalaren ondoan zegoen lokal bat utzi zion Román Cearretak eta Tiburcio Ugartek ordezkatzan zuten “Busturiko musika-bandari”, urteroko diru-laguntza ematen zion edo udalerriko jaialdi pila animatzeko kontratatzen zuten¹². 1921. urtera arte udal-bandak Gernikakoa ordezkatu zuten herriko festa guztietan Udalarekin zuten akordioaren zioz. Baina Busturiko musika-bandak ez zuten aurrera egin eta kanpoko musikariak kontratatu behar izan zituen, baina Udalak ez zuten bandarekin urtero adosten zuten diru-kopurua baino gehiago eman nahi¹³. 1921etik aurrera ez dakigu zein izan zen Busturiko musika-elkarteak egin zuten lana, baina baliteke desegina egotea Errepublika heldu baino lehen Udalaren laguntza osoa galdu ondoren.



Musika Bandaren irudia zuhaitzez inguratutako toki batean, instrumentuak eskuetan dituztela (Iturria: Busturiko Udala).

Herriko jai-giroetan musika-instrumentu berriak sartzeak dantza modu berriak ekarri zituen, ikuskera tradizionalenen aurka egiten zutenak: “*un inmundo organillo, corros de ciegos y una Banda de música, sienta anualmente sus teales el baile agarrado, y la inmoralidad está a la orden del día*” (Euzkadi, 1922/07/28). Udaletik EAJko abertzaleek biraderadun organoa debekatu nahi zuten hurrengo arrazoia zela eta: “*por ser el toque*

12. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0105/001.

13. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001.

de ese instrumento inmoral y perturbador de las buenas costumbres vascas, siendo así que, no siendo en Busturia, no se conoce se haya permitido en ningún pueblo vascongado"¹⁴. Hala ere, saihesteko egin ziren ahaleginek ez zuten aurrera egin eta instrumentu berriek alaitu zituzten herriko jaiegunak, hala nola Jazz Bandak, Pianotoxa edo Gramola.

Ekitaldiak udal-danbolindariak eta atabalariak alaitu ohi zituzten. Udal-danbolindariak Julián Borda Lejarza izan zen 1908tik, lanpostua lehiaketa bidez irabazi zuena, eta udalerriko pregoilari izendatu zuten Busturiko Udalako akordioaren bidez 1932ko apirilaren 17an. Lehenago aipatu dut ez zuela Busturian bakarrik jotzen, urtero gertuko herrietako jaialdietan jotzeko eskatzen baitzioten, Muruetan edo Sukarrietan adibidez. Udal-atabalaria Errepublika garaian Mario de Borda Abiña izan zen, postura ezbeharrez iritsi zena 1930ean bitarteko moduan zegoen atabalariak postua utzi zuenean¹⁵. Lan egiteko baldintzak 1933an ez dirudi hoberenak zirenik, esaten baitzen egungo atabalariak erabiltzen zuen danbolina erabilgaitza zela, oso egoera txarrean baitzegoen, eta berri bat behar zela San Blas, Santiago eta abarren erromeriak alaitzeko¹⁶. Jakina, udal-danbolindariak beste instrumentu batzuk ere jotzen zituen, txistua adibidez. Horrela frogatu zuen gutxienez 1928an Urduñan egin zen *txistularien* bilerara joan zenean¹⁷.

1.2.5. Kirol-jarduerak

Busturiko gazteak lehiatsuak ziren eta euskal pilota eta bere aldaerak ziren bertako kirolei ekiten zieten. Hala ere, 1927an frontoia oso egoera txarrean zegoen, konponketak egin arren oso zoru malkartsua baitzuen, eta baliteke horregatik busturiarrek arreta jartzten hastea Bizkaian hamarkada gutxi zeramatzatzen kiroletan (*Euzkadi*, 1927/05/08; 1929/02/27; *La Tarde*, 1929/02/26). 1927an kirol berri batek haien arreta erakarri zuen:

“Gaur aurkitzen dira Axpe inguruan ostikolari oso bikañak; neri iruditzen zait bizimodua ateratzeko moduko mutillak dirala, zanko luziak, gorputz lerdena, indarrez gogor, begial: argi, eta kantzareko ikara gixi; euren artian barrundaria baidabil beintzat; bitxabal gustiak eurentzat dituez. Udala'k orrentzat ¿ezin leike tokiera bat aurkitu? ¡Merezi leukie!” (*Euzkadi*, 1927/02/26).

1928rako futbol-zelaiaren eraikuntza atzerakorik ez zuela zirudien arren, Ispiluetako zelaiaren obrak bukatu ziren lehenago, tenis-zelai bat eraikiz. Kirol hori zale asko bereganatzen ari zen gazteen artean 1928an (*Euzkadi*, 1928/07/08; *El Noticiero Bilbaíno*, 1928/06/13).

14. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0090/001.

15. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

16. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

17. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

Busturiko futbol-taldea osatuta zegoen 1924tik eta Izaro bezalako taldeak garaitzen zituen baloia ukitzeari dagokionez. Hala ere, bai gazteak beste herrietara joateagatik bai zituzten lanengatik, jokalarri garrantzitsuenak desagertzen ziren. Gazteek behar bezala entrenatzea nahi zuten arren, ez zuten futbol-zelai egokirik eta hondartzan jokatu ohi zuten itsasbehera aprobetxatuz (*Euzkadi*, 1927/05/08; *El Liberal*, 1928/06/19). Gainera, herri mugakideen aurka hainbat futbol-partidu jokatzeko talde bat hautatzearen, partidu bat antolatu zen Axpe eta Altamirako taldeen artean talde berriaren jokalarriak aukeratzeko (*Euzkadi*, 1927/05/17).

1935ean futbol-zelai bat eta talde bat existitzen ziren Axpen. Honela, Busturiko *Beti-Bizkor Clubak* Deportivo Bermeanori partidu bat jokatzeko erronka egin zion aipatutako auzoko "Ibai-alde" zelaian. Taldea hurrengo jokalarriek osatzen zuten: J. Borda, H. Borda eta Lecumberri; L. Esquíbel, G. Ezquíbel Uriaguereca; A. Ibarreche, F. Ibarreche, Landabaso, Aguirre eta Garmendia (*Excelsius*, 1935/06/20).

Beste kirol batzuk ere aurki genitzakeen Busturian, hala nola estropadak, oinezko lasterketak, mendizaletasuna, atletismoa, txirrindularitza edo boxeo. Herrian boxeo-borrokaldiren bat dokumentuetan agertzen den arren, Busturia eta boxeoaren arteko lotura garrantzitsuena New Yorken bizi zen busturiar batean zetzan. Valentín Aguirre garaiko *pisu astun* baten boxeo-karrerari lotuta zegoen babesle bezala: Paulino Uzcudun Eizmendi. Ameriketara bizi zen arren, ez zuen inoiz bere jaioterria ahaztu eta maiz bisitatzen zuen edo txekak bidaltzen zituen lagunei eta miresleei opari gisa oturuntz garestiak egiteko (*Euzkadi*, 1928/01/01; 1930/07/24; 1930/11/09; *Excelsius*, 1932/07/31; 1935/11/15; *La Tarde*, 1932/08/27; *El Noticiero Bilbaíno*, 1932/08/31; 1934/10/04; 1935/11/14; *El Nervión*, 1935/11/14).

1.2.6. Irakaskuntza

Busturiko herritarrek lehen letren irakaskuntza jaso zuten erregulartasunarekin José Apraiz Arrospe elizain eta organistak bere aberastasunaren zati bat horretara zuzendu zuenetik 1793an. XIX. mendeko bigarren erdira arte eta XX. mendeko lehen urteetara arte bertako agintariak ez ziren arduratu herriari irakaskuntza-zerbitzuak eta eraikinak emateaz. Nola ez, neskek jasotzen zuten irakaskuntza irakurmena, idazmena edo kalkulutik baino harago zegoen. Kristau-jakinbidea, sukaldaritza, kantua, jostintza, brodatzea eta lisatzea ikasten zuten (Ramos Larriba, 1997).

Iraultza militarra gertatu baino lehen Busturian sei ikastetxe existitzen ziren, bi Axpeko auzoan zeuden, mutikoen eskola nazionala¹⁸ eta nesken eskola-patronatua¹⁹, beste bi Altamirako auzoan zeuden, Altamirako mutilen eta nesken eskola nazionala²⁰, eta,

18. Manuel María Arroteguik inauguratu zuen 1866an San Bartolomeko auzoan.

19. Nicolas Domingo Arroteguik eratu zuen 1892ko abenduaren 10ean eta bertako fundazio batek kudeatzen du: Arrotegui Fundazioa.

20. Bi eskolak 1900eko urriaren 17an eratu ziren.

azkenik, San Bartolomeko probintzia eskola mistoa²¹ eta Parezikiko auzo-eskola mistoa²². Ikastetxe zerrenda honetan ikus daiteke hezkuntzak zuen garrantzia Errepublika garaian. Auzoko eskolei dagokienez, Errepublika heldu baino lehen izapideak egin ziren Parezin mota honetako eskola bat egiteko. Gainera, 1925ean, Udalak udal-altxor eskasa arintzeko asmoarekin Altamirako udal eskola auzoko eskola bihurtzeko saiakera egin zuen, baina porrot egin zuen. Espainiako Errepublika aldarrikatzean Altamirako udal-eskolaren nazionalazioa 1933an errealitate bat zen. 1932tik 1933ra bi ikastetxe berri sortu ziren udalerrian: San Bartolomeko probintzia-eskola mistoa, Larrazabale ere deitua, eta Parezikiko auzoko eskola mistoa.



Larrazabaleko eskolaren inaugurazio eguneko ekitaldiak (Iturria: Busturiko Udala).

Errepublika aldarrikatu ondoren hezkuntzaren kontrolak eskuratu zuen garrantzia Busturiko lehen udal errepublikanoan batzordeak eratzen ari zirenean ikus daiteke. Une horretara arte aho batez eratzea erabakitzen ziren hiru batzordeei Heziketa Publikorako Batzordea gehitu zitzairen. Lehen udalaren politika laster ikusi zen eta Lehen Hezkuntzako Tokiko Batzarrean irakasleek arrazoirik gabeko faltak derrigorrez azaltzeari buruzko erabakiak hartzen hasi zen. Gainera, beste herrietako haurrei une hartako udal-eskolan emandako klase partikularrak kentzen ziren, herriko haurrei eskola orduetan emandako

21. Auzotarrek eraiki zuten mailegu pertsonalen eta herriaren harpidetzaren bidez Larrazabaleko auzoan, eta 1932ko maiatzaren 29an eratu eta inauguratu zen.

22. Auzotarrek eraiki zuten mailegu pertsonalen eta herriaren harpidetzaren bidez, eta 1933ko irailaren 18an eratu eta inauguratu zen.

irakaspen partikularrak eteten ziren, eta gainera, Udalaren baimen bat eskatzen hasi zen irakaspen horiek emateko. Hala ere, mota horretako neurriek ez zuten eragin handirik izan eskolara joatea hobe zedin eta, beraz, Udalak tutoreei isunak ezartzea erabaki zuen eskolara arazorik gabe falta zenean²³.

Axpeko nesken patronatuak eskola maila gehien zituen, bost, eta ondoren eskola nazionalak zihoazen, lau maila izatera heldu baitziren. San Bartolomeko probintzia-eskola mistoak eta Parezikiko auzoko eskola mistoak maila gutxienak zituzten, hiru lehenengoan eta bi bigarrenean. Eskolak landa-ingurune batean zeuden, “*mugapeko muturreko etxebizitzetatik*” edo “*azken etxebizitzetatik*” kilometro batetik bi kilometrora zeuden.

Nahiz eta ikastetxe gehienei dagokienez ibilbidean haurrentzat arriskurik ez zegoen, herriko ibaiak hain hurbil egotea arriskua zen haientzat. Hala ere, Altamirako eskola nazionalen irakasleek herriko beste auzoetan ez zeuden arazoak zituzten: tabernak, putzu beltz bat edo Altamirako ospitalean (eltxoen iturria) bizi ziren auzotarren higiegi falta.

Axpeko haurren eskola nazionalak jolastoki ireki bat edo lorategi bat ez izan arren, bali-teke bat edukitzea eskolako aurrealdea mugatuz eta itxitura eskolako alde batetik hedatuz. Ez zuen toki estalirik edo antzekorik haurrak egun euritsueta babestu ahal izateko. Altamirako auzoan eskolen jolastokia herriko plaza zen, eta euria ari zuenean eliz ataria erabiltzen zuten. Aldi berean, San Bartolomeko probintzia-eskola mistoan gertuko plaza bat erabiltzen zuten jolastoki bezala eta Parezikiko auzoko eskolan gertuko zelai bat. Bi eskolek gertuko frontoiek erabiltzen zituzten jolastoki gisa ekaitz egunetan.

Eskolen azpiegiturei dagokienez, bakoitzak gutxienez berogailu bat zuen ikasleentzat, Axpeko nesken patronatuaren eskola izan ezik, honek bi baitzituen. Edateko uraren iturriei dagokienez, bakarrik zuten ur punturen bat nesken patronatuaren eskolek, Parezikiko auzoko eskolak eta San Bartolomeko probintzia-eskola mistoak. - Jakina, eskoletako bizitza kulturalen eskualde-kantak eta haurrentzako kantak, gazteleraz edo euskaraz, kirol-jolasak eta “*neskentzako jolas egokiak*” ziren ikasleen gogokoena. Euskararen erabilerari dagokionez, lehenetasunez erabiltzen zen eskola guztietan²⁴. Hurrengo taulan ikus daitezke aipatutako ikastetxeak eta zuzentzen zituzten irakasleak 1936ko uztailaren 18ko iraultza militarra baino lehen:

Zentro Pedagogikoa	Irakaslea
Altamirako nesken eskola nazionala	Pascuala Arriaga Bengoechea
Altamirako mutilen eskola nazionala	Sebastián Santos Blanco
Parezikiko auzoko eskola mistoa	María Igarzabal Aguirre
Axpeko mutilen eskola nazionala	Luis Bonifacio Cano Esteban
Axpeko nesken patronatu-eskola	Sofía Vizcaíno Sagaseta
San Bartolomeko probintzia-eskola mistoa	Obdulia Rementería Ispizua

(BFAAH. Udal Atala. Busturia 030/005; 0030/011; 030/020).

23. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0089/001.

24. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/011.

2. BERREZARKUNTZATIK ERREPUBLIKARA DIKTADURA BATETIK IGAROTA

Bizkaiko landa-mundua iragazgaitz eta erreakzionario agertu zen hemeretzigarren mendeko liberalismoak aurrera egitearen aurrean. XIX. mendearen bukaeran euskal nazionalismo jaioberria bere lekua topatzen hasten zen tokiko mapa politikoan. 1915eko hauteskundeetan hautagaien kopurua hautatu behar ziren zinegotzigoen kopuru bera zen, beraz, 1915eko azaroaren 7an hurrengo zinegotziak izendatu ziren 29. artikulua- ren arabera: Antonio Urresti e Ispizua, Leocadio Astoreca Arrien, Eulogio Solay Bilbao, Antolín Luzárraga Learreta eta Celestino Lecumberri Uriarte²⁵. Zinegotziak aldarrikatu eta gero, 1916ko urtarrilaren 1ean Udala eratu zen, bete behar ziren karguak lehendik hitzartuta zituen bozketa egin ondoren.

Busturiko Udala (1916ko urtarrila-1918ko urtarrila)

Alkate presidentea	Eulogio Apraiz Maruri	
Lehen alkateordea	Plácido Erezuma Gomeza	
Bigarren alkateordea	Antolín Luzárraga Learreta	Eusko-espainiarra
Errejidore sindiko kontu-hartzailea	Domingo Olano Mendizábal	
Errejidore sindiko kontu-hartzailea	Antonio Urresti Ispizua	
Zinegotzia	Celestino Lecumberri Uriarte	
Zinegotzia	Leocadio Astoreca Arrien	
Zinegotzia	Eulogio Solay Bilbao	
Zinegotzia	Isidro Arróspide Omagogeascoa	Nazionalista

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0105/001).

Udalaren hiru batzordeen osaketa erabakitzeko orduan ere ez zen borrokarik egon udalaren kideen artean²⁶. 1917ko azaroaren 15ean hiru zinegotzigo erabakitzeko bozketa egin zen aurkeztutako bederatzi kandidaturen artean. Hauteskunde hauetan hautesleen %59,03k parte hartu zuen, eta botoei dagokienez emaitza parekoak izan ziren independente bezala aurkeztu ziren hautagaien eta nazionalisten artean. Horrela izanda ere, lehenengoek %3,43 boto gehiago lortu zituzten *jelkideekin* aldentuta²⁷. 1918ko urtarrilaren 1ean udalbatza berria eratu zen. Udaleko kide batzuk kargua utzi behar zuten bitartean, beste batzuk kargua hartzen zuten hurrengo biurtekorako.

25. AR00299/062.

26. Ogasun Batzordea Plácido Erezuma Gomeza, Antonio de Urresti Ispizua eta Antolín Luzárraga Learreta jaunek osatzen zuten. Herrizaintza Batzordea Eulogio Apraiz Maruri, Eulogio Solay Bilbao eta Isidro Arróspide Omagogeascoa jaunek osatzen zuten. Sustapen Batzordearen buruak Domingo Olano Mendizábal, Leocadio Astoreca Arrien eta Celestino Lecumberri Uriarte jaunak ziren.

27. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0023/001.

Busturiko Udala (1918ko urtarrila-1920ko urtarrila)

Alkatea	Hermeregildo Lecumberri Uriarte	Independentea
Lehen alkateordea	Pablo Urquiza Arróspide	Independentea
Bigarren alkateordea	Isidro Arróspide Omagogeascoa	Nazionalista
Prokuradore sindiko kontu-hartzailea	Antolín Luzárraga Learreta	Eusko-espainiarra
Ordezko prokuradore sindiko kontu-hartzailea	Manuel María Aizpuru Echevarría	Independentea
Zinegotzia	Celestino Lecumberri Uriarte	
Zinegotzia	Leocadio Astoreca Arrien	
Zinegotzia	Eulogio Solay Bilbao	
Zinegotzia	Juan Antonio Arguinzóniz Porturas	Nazionalista

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0107/001).

Udal honen kide batzuen filiazio politikoa ezagutzen ez den arren, karguak esleitzean eman ziren botoen banaketari esker jakin dezakegu bakarrik bi *jelkide* heldu zirela udalaren kide izatera. Litekeena da seinalatuta ez daudenen filiazio politikoa monarkikoa edo “eusko-espainiarra” izatea, hau da, tradizionalista. Dena den, ezin dut ziurtasun osoz baieztatu. Ez zen 1918ko urtarrilaren 6ra arte aho batez erabaki udalaren batzordeen kopurua hirukoa izan behar zenik, eta batzorde horietan ez zuen udalerriko nazionalista batek ere parte hartu beste indar politikoek egin zuten negoziazio politikoa zela eta²⁸.

1920ko otsailaren 12ko udal-hauteskundeetan 5 zinegotzi hautatu behar ziren aurkeztutako 16 hautagaien artean. Udal-hautesleen partaidetza %59,32koa izan zen eta hautagai nazionalisten eta “eusko-espainiarren” (tradizionalistak) emaitzak oso parekoak ziren berriz. Hiru hautagai “eusko-espainiarrek” zinegotzigoa lortzen zuten bitartean botoen %55,31 eskuratu ondoren, bi *jelkide* izendatu ziren berriro udalerriko zinegotzi bezala²⁹. Udal berria 1920ko apirilaren 1ean eratu zen. Aurreko udalaren kide batzuek kargua utzi behar zuten eta, aldi berean, beste batzuk zinegotzi kargua hartzen zuten. Lanpostuez jabetu ondoren Busturiko Udala hiru independente, hiru eusko-espainiar eta hiru nazionalistek osatzen zuten. Udaleko karguak ezartzeko bozketa egitean, EAJko nazionalistek “eusko-espainiarrek” bi independenteen laguntzarekin zuten gehiengoari aurre egin behar izan zioten. Bi independenteak Hermenegildo Lecumberri Ubillas eta Manuel María Aizpuru Echevarría izan ziren. Dударik gabe, eusko-espainiarrek alkate-tza eta bi alkateorde karguak negoziatu zituzten, bai aipatutako independenteen trukean prokuradore sindiko kontu-hartzaile eta ordezkari prokuradore sindiko kontu-hartzaile postuak emanda.

28. Ogasun Batzordea Hermeregildo Lecumberri Ubillas, Pablo Urquiza Arróspide eta Juan Antonio Arguinzóniz Porturas jaunek osatzen zuten. Herrizaintza Batzordea Antolín Luzárraga Cearreta, Eulogio Solay Bilbao eta Celestino Lecumberri Uriarte jaunek osatzen zuten. Sustapen Batzordea Manuel María Aizpuru Echevarría, Eulogio Solay Bilbao eta Celestino Lecumberri Uriarte jaunek osatzen zuten.

29. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0023/001.



Busturiko gizonen taldea Axpen. Aurretik atzera eta ezkerretik eskubira: Félix Undabarrena, Policarpo Astoreca, Juan Pablo Gorriño, Hermenegildo Lecumberri, Vicente Gorriño (idazkaria), Antolín Luzarraga, Nicolás Learreta (aita), Marcelo Mendia (sendagilea), Francisco Arteché, Norberto Valencia (aguazila); Mendeletzeko Elexgaray, Juan Lequerica, Alejandro Alegría, Izaguirre, ezezaguna, Alejo Andicoechea, Bilbao, Luciano Achirica, Santos Bilbao, Nicolás Learreta (semea), Félix Chertudi, Eusebio Díez Llanos (maisua); Achiricakoa, Pablo Elexgaray, Vicente Achirica, Federico Ormaechea, ezezaguna, Modesto Urresti, Olano eta Emilio Iraculis (Iturria: Busturiko Udala).

Busturiko Udala (1920ko apirila-1922ko otsaila)

Alkatea	Antolín Luzárraga Learreta	Eusko-espainiarra
Lehen alkateordea	Domingo Zorrozuá Aldama	Eusko-espainiarra
Bigarren alkateordea	Segundo Elguezábal Bilbao	Eusko-espainiarra
Prokuradore sindiko kontu-hartzailea	Manuel María Aizpurúa Echevarría	Independentea
Ordezko prokuradore sindiko kontu-hartzailea	Hermeregildo Lecumberri Ubillas	Independentea
Zinegotzia	Juan Antonio Arguinzóniz Porturas	Nazionalista
Zinegotzia	Marcelino Cigorraga Oleaga	Nazionalista
Zinegotzia	Pablo Urquiza Arróspide	Independentea
Zinegotzia	Isidro Arróspide Omagogeascoa	Nazionalista

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001).

Udaleko hiru batzordeen eraketa 1920ko apirilaren 4an erabat hitzartua zegoen “eusko-espainiarren” eta bi independenteen artean. Hiru batzordeen buruak hautagai

“eusko-espainiarrak” izan ziren eta gainera batzorde bakoitzean bokal bat zuten, eta beste bokal karguak Hermeregildo Lecumberri eta Manuel María Aizpurua independenteen eskuean geratu ziren. Pablo Urquiza Arrospeide independentea eta EAJko nazionalistak kanpo geratu ziren gehiengoari aurre egiteko boto nahiko lortu ez zutelako³⁰. Udalean zegoen tentsio politikoa errealitate bat zen eta horrela adierazi zen Udala eratu eta gero egin zen lehen batzaraldian. Juan Antonio Arguinoniz jeltxidearen hitz errepikakorren aurrean “*has gaitzen ondo, ondo amaitzeko*”, alkate ohi eta orain Ordezko prokuradore sindikoa zen Hermeregildo Lecumberri independenteak aurrekoari leporatu zion txarto hastea, helburu ona ez zuten liskarrak sustatuz, horrela egin baitzuen alkatea izan zen 27 hilabetetan eta, gainera, aurpegiatu zion zinegotzi izan behar ez zuela. Tentsio hau hurrengo batzaraldietara hedatu zen³¹. Gatazkak eta desakordio politikoa Udalan gero eta handiagoak ziren legegintzaldi bakoitzean, oso aktiboa zen gutxiengo nazionalistak eraginda.

1922ko otsailaren 9an lau zinegotzi hautatu behar ziren tokiko hauteskundeetara aurkeztutako hamalau hautagaien artean. Hautesleen %67,14ko partaidetzarekin, aurreko hauteskundeetan baino %7,82 handiagoa zena, hautagai monarkikoen garaipena euskal nazionalistengan oso boto gutxigatik izan zen. Antzeko dinamika batek funtzionatu zuen udalerrian aurreko toki-hauteskundeetan eta 1918, 1919 eta 1920ko hauteskunde orokorretan, hautesleen partaidetza antzeko batekin, non nazionalisten eta monarkikoen artean boto-ezberdintasuna minimoa zen³². EAJk haiekiko zuen tartea murriztea lortu zuen, monarkikoen udalerrian zituzten emaitza ia berdinak lortu arte³³. Hala ere, hiru monarkiko eta bi *jeltxide* izendatu zituzten zinegotzi. 1922ko apirilaren 1ean udal berria eratu zen, hiru monarkiko, hiru “eusko-espainiar” eta hiru euskal nazionalistekin, eta karguak monarkikoen eta “eusko-espainiarren” artean banatu ziren.

Busturiko Udala (1922ko otsaila-1923ko urria)

Alkatea	Francisco Arteche Izaguirre	Monarkikoa
Lehen alkateordea	Domingo Zorrozuía Aldama	Eusko-espainiarra
Bigarren alkateordea	Felipe Orbe Mendiola	Monarkikoa
Errejidore sindikoa	Fermín Landa Lezámiz	Monarkikoa
Ordezko errejidore sindikoa	Antolín Luzárraga Learreta	Eusko-espainiarra
Zinegotzia	Segundo Elguezábal Bilbao	Eusko-espainiarra
Zinegotzia	Paulino Apraiz Ordorica	Nazionalista
Zinegotzia	Juan Antonio Arguinóniz Porturas	Nazionalista
Zinegotzia	Marcelino Cigorraga Oleaga	Nazionalista

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0090/001).

30. Ogasun Batzordea Segundo Elguezábal Bilbao, Domingo Zorrozuía Aldama eta Hermeregildo Lecumberri Ubillas jaunek osatzen zuten. Herrizaintza Batzordea Antolín Luzárraga Learreta, Manuel María Aizpurúa Echevarría eta Segundo Elguezábal Bilbao jaunek osatzen zuten. Sustapen Batzordea Antolín Luzárraga Learreta, Manuel María Aizpurúa Echevarría eta Hermeregildo Lecumberri Ubillas jaunek osatzen zuten.

31. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001.

32. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ01996/030; AJ02002/004; AJ02005/036.

33. BFAAH. Udal-erregimena eta Hirigintza. AR00326/008.

EAJko nazionalistak aurreko Udalaren hiru batzordetatik kanpo geratu ziren, baina lege-gintzaldi honetan Marcelino Cigorraga Oleaga eta Paulino Apraiz Ordorica jeltzaleak bokalake izan ziren Herrizaintza eta Sustapen Batzordeetan, hurrenez hurren³⁴. Dena den, *jelkideek* tokiko indar politikoen aurka gutxiengoan jardun zuten, eta horrela adierazten dute 1922an proposatu zuten hainbat moziok, erakusten baitute

“su disgusto por el proceder del Alcalde Presidente de esta Corporación, por el hecho de no conceder la palabra a los Concejales (*nacionalistas vascos*), para discutir asuntos antes de someter a su votación, negando también constar en acta las explicaciones de los votos; negar o no conceder la palabra al dar lectura al acta de la sesión anterior para aclaraciones o rectificaciones del acta, no accediendo se someta a votación y en los casos que accede a verificar la votación no consignando las aclaraciones ni suplicaciones de los votos”³⁵.

1923ko irailaren 13an Kataluniako Kapitain Jenerala, Miguel Primo de Rivera, matxinatu egin zen eta García Prieto presidente zuen Espainiako gobernuaren kontra estatu-kolpea egin zuen. Honela, Berrezarkuntzaren deskonposizio politikoa eta soziala larderiaz itxi zen. Gobernu legitimoak dimisioa aurkeztu ondoren Alfonso XIII. erregeak Gorte Nagusietarako hauteskundeak deitu nahi izan ez zituen, erregeak berak Primo de Rivera Gobernuko presidente izendatu zuen. Modu honetan sortu zen Direktorio Militarra. Honek konstituzioa eten zuen, udalak desegin zituen, alderdi politikokoak debekatu zituen eta “somaten” izeneko hiri-milizia sortu ziren. Udalak funtsezkoak ziren administrazio publikoa saneatzeko eta jauntxokeriarekin bukatzeko. Horregatik, 1923ko urriaren 2an, Bermeoko Guardia Zibilaren postuaren komandantearen presidentetzapean (komandantea Virgilio Martín Hurtado zen), Direktorio Militarrari buruzko 1923ko irailaren 30eko Errege Dekretua betearazteari ekin zen eta Udaleko zinegotzi guztiek kargua utzi behar izan zuten. Jarrain, presidentek zinegotzi izendatu zituen bokal kideak ziren León Cearra Ispizua eta Miguel Antonio Hormaechea Lartitegui, bai eta zergadun handienak ziren Gabriel Learreta Acillona, Hermeregildo Lecumberri Ubillas, Celestino Borda Lejarza, Claudio Achirica Zabala, Alejandro Alegría Rentería, Eusebio Odiaga Monasterio eta Norberto Izaguirre Lejarraga. Bakoitzak sei boto emanez, agertu ziren guztienak, Udala eratuta geratu zen inolako desakordiorik gabe.

1923ko urriaren 6an batzordeak hiru izan zitezten ezarri zen berriz eta ez zen arazo handirik egon batzorde horiek egituratzeko unean. Udaleko bederatzi kideek hiru batzordeen bederatzi postuak euren artean banatu zituzten, batzorde bakoitzak presidente bat eta bi bokal baitzituen³⁶. Ordezkapen formula honek jauntxoek praktika zaharrekin bukatu nahi zuen Direktorio Militar baten itxura administratibo eta

34. Ogasun Batzordea Felipe Orbe Mendiola, Domingo Zorrozueta Aldama eta Antolín Luzárraga Learreta jaunek osatzen zuten. Herrizaintza Batzordea Francisco Artecheta Izaguirre, Antolín Luzárraga Learreta eta Marcelino Cigorraga Oleaga jaunek osatzen zuten. Azkenik, Sustapen Batzordea Antolín Luzárraga Learreta, Fermín Landa Lezámiz eta Paulino Apraiz Ordorica jaunek osatu zuten.

35. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0090/001; Busturia 0109/001.

36. Ogasun Batzordea Claudio Achirica Zabala, Celestino Borda Lejarza eta León Cearra Ispizua jaunek osatzen zuten. Herrizaintza Batzordea Gabriel Learreta Acillona, Modesto Izaguirre Lejarraga eta Miguel Antonio Hormaechea Lartitegui jaunek osatzen zuten. Sustapen Batzordea Hermeregildo Lecumberri Ubillas, Alejandro Alegría Rentería eta Eusebio Odiaga Monasterio jaunek osatzen zuten.

birsorkuntzailea indartzen zuen. Gainera, ikus daiteke Udalean zegoen tentsio politikoa larderiaz lasaitu zela. Horrezkero Udalaren aktetan ez ziren agertu hitz egiteko *jelkideek* egin zituzten etengabeko eskaerak, hitz egiteko ezeztapenak haiek parte har ez zezaten edo protesta modu bezala aurreko batzaraldien aktei ematen ez zitzaien onarpena.

Busturiko Udala (1923ko urria-1924ko martxoa)

Alkate-presidentea	Gabriel Learreta Acillona
Lehen alkateordea	Hermeregildo Lecumberri Ubillas
Bigarren alkateordea	Claudio Achirica Zabala
Errejidore sindikoa	Alejandro Alegría Rentería
Ordezko errejidore sindikoa	Celestino Borda Lejarza
Zinegotzia	Miguel Antonio Hormaechea Lartitegui
Zinegotzia	Eusebio Odiaga Monasterio
Zinegotzia	León Cearra Ispizua
Zinegotzia	Modesto Izaguirre Lejarza

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0109/001).

1924ko urtarrilaren amaieran, Bermeoko Guardia Zibilaren postuaren sarjentuak txosten bat bidali zion Gobernuaren Ordezkariori. Txosten honen arabera, Bermeo, Mundaka, Busturia eta Bakioko Udaletako zinegotzi guztiak monarkikoak ziren, Ekintza Monarkikoaren Ligan zeuden edo independenteak ziren. Gainera, Gernikako eskualdean indarren polobitasuna zegoela, Ekintza Monarkikoaren Liga eta Euskal Elkarte Nazionalistaren artean, eta hautesle “aldakor” eta “arduragabeak” zeudela adierazten zuen, eskaintzaile onenari bere botoa emateko gai zena. *“En síntesis: la opinión del que subscribe es creer que solamente hay dos partidos, “Antinacionalistas” y “Separatista” y una multitud de personas inconscientes que con cualquier promesa de pocas pesetas se inclinan a una u otra parte sin escrúpulo alguno en su conciencia”* (Ramos Larriba, 1997)

Udal Estatutua onartzean, 1924ko martxoaren 8an, udal antolaketa eta administrazio berriak ezarri ziren Berrezarkuntzaren jauntxokeriarekin amaitzeko: *“el nuevo Estado para ser democrático ha de apoyarse en municipios libres”*. Bokal Kidetuen Batzordea deuseztatu zen eta udalak bere osotasunean ordezkatuko zuen. Kargugabetu ziren zinegotzi sindikoak Alejandro Alegría Rentería eta Celestino Borda Lejarza izan ziren. Gainera, gobernadore zibilak Miguel Antonio Hormaechea Lartitegui, Eusebio Odiaga Monasterio eta Modesto Izaguirre Lejárraga kargutik kendu zituen sinatzen ez jakiteagatik. Udalerriko biztanleen kopurua zela eta zinegotzigoen kopurua batean handitu behar zenez, Julián Olano Amparán, Alejo Andicoechea Orbe, Juan Bautista Apraiz Maruri eta Juan Lequerica Elesgaray izendatu ziren. Alkateak eta alkateordeak izendatzeko bozketa berriak egin gabe, diktadurako bigarren udala berretsi zen. Aipatu beharra dago Udal Batzorde Iraunkorra edo Administratiboa eratu zela, alkateak eta bi alkateordeek osatzen zutena, ordezko alkateordeen laguntzarekin beharrezkoa zenean.

Busturiko Udala (1924ko martxoa)

Alkatea	Gabriel Learreta Acillona
Lehen alkateordea	Hermeregildo Lecumberri Ubillas
Bigarren alkateordea	Claudio Achirica Zabala
Ordezko lehen alkateordea	Alejandro Alegría Rentería
Ordezko bigarren alkateordea	Celestino Borda Lejarza
Zinegotzia	Julián Olano Amparán
Zinegotzia	Alejo Andicoechea Orbe
Zinegotzia	Juan Bautista Apraiz Maruri
Zinegotzia	Juan Lequerica Elesgaray
Zinegotzia	León Cearra Ispizua

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0109/001).

1926an diktadurak bere behin-behinekotasunari uko egin zion eta sistema politiko berri bat ezartzeko bidean zegoen. Ez zen nahikoa Direktorio Militarren politika onartzea, bere proiektuari laguntza aktiboa ematea ere eskatzen zen. Laguntza hori 1924tik eman zen Batasun Patriotikoarekin, esparru politikoan diktadurarekin gero eta pisu handiagoa lortzen ari zen elkarte bat. Direktorio Militarrek ez zuen erakunde politikoen antzekoa zen beste erakunde bat sortu nahi, *“para que, con iguales defectos y con idénticas protestas de la opinión sana del país, viniese a suceder a las oligarquías derrumbadas en la gobernación del Estado”*. Horretarako, Direktorioak udal bizitza onera ekartzeko erabili nahi zuen Batasun Patriotikoa elkarte bezala ulertu behar da edo *“una Asociación de hombres de buena fe, apolíticos o políticos, que no se hayan contaminado con los vicios pasados y que gobiernen con notoria honorabilidad”*³⁷. Biziki maite zuten *“Patria, que, convencidos de la obligación que tienen de cumplir con los deberes de ciudadanía, se opongan y eviten la vuelta de los procedimientos políticos que desaparecieron al advenimiento del Directorio”*³⁸.

Busturiko Batasun Patriotikoa antolatzean, herriko agintariak bilera batera deitu zieten Batzorde Antolatzaile bat eratu behar zuten pertsoneri, *“de reconocida honradez y prestigio sin distinción de ideas y pertenecientes a todas las clases sociales”*. Gobernuko agintariak ahaleginak egin zituzten Batzorde honetan ideia eta klase sozial guztiak ager zitezen, talde politiko edo sozial batek ere nagusitasunik eduki ez zezan, eta pertsona bat ere legez kanpoko elkarte baten kidea izan ez zedin, adibidez EAJrena. Beraz, hurrengoari uko egin beharko zioten: *“sus etiquetas y compromisos de partido y en lo sucesivo no acatarán más órdenes de las emanadas de la Unión Patriótica”*.

37. Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala. PS Bilbao. 197. karpeta. 01 Txostena.

38. MHZD. PS Bilbao. 197. karpeta. 01 Txostena.

Tokiko propaganda egin ondoren, bai mitinetan bai prentsan, zale nahiko lortu zituzten bilera bat antolatzeko, gero batzorde bihurtuko zena. 1924ko uztailean bilera bat egin zen Busturian BPren tokiko antolaketa eta propaganda sail bat eratzeko. Sail honetan adostu ziren BPren presidente, presidenteorde, idazkari eta bokalen izendapenak, hurrenez hurren: Gabriel Learreta Acillona, Hermeregildo Lecumberri Ubillas, Alejandro Alegría Rentería, Antolín Luzárraga Learreta eta Felipe Orbe Mandiola busturiarrak. Herrietako ordezkariekin Barruti Judizialaren Batzordea osatzen zen eta burua Gobernu Ordezkari bat zen. 1924ko urriaren 21ean Busturiko BPk 33 afiliatu zituen Gernikako Barruti Judizialean zeuden 2.362 afiliatuen artean³⁹.

Afiliatuei zegokienez, defendatzen zutenaren transkripzio on bat Alejandro Alegría Renteríaren hitzak dira, BPren idazkaria eta une horretan Busturiko Udalaren Erregidore sindikoa. Udalaren batzaraldi batean esan zuen:

“que lamentaba que se suscitaran en el seno de la Corporación municipal ciertas discordias basándose en los intereses de partido ya sea blanco o negro; y considerando que el pueblo es huérfano y como tal debe estar bajo el cuidado de sus tutores, en este caso los Concejales, había que laborar solo y exclusivamente por una buena y honrada administración prestando al efecto unos a otros la más eficaz cooperación”⁴⁰.

Dudarik gabe, BPko kideak armadan eta erlijioan egonkortasun elementuak ikusten zituzten ordenako pertsonak ziren, eta horrela zela agerian geratu zen Busturiko Udaleko Batzorde bat Garellanora joan zenean gazte batzuen banderaren zina ikustera edo Bilboko Jesusen Bihotzaren monumentuaren inauguraziora⁴¹.

Gobernu Ordezkaria zen Luis L. Pandoren presidentetzapean, 1926ko azaroaren 17an gobernadore zibilaren gutun bat irakurri zen. Honen aginduz Udalean jarraitzen zuten zazpi zinegotziei kargua kendu zitzaientzen, Gabriel Learreta Acillona alkate ohiaren eta Hermeregildo Lecumberri Acillona alkateorde ohiaren dimisioen ondoren geratzen ziren bi lanpostu hutsak betetzeko. Jarraian Udal osoa eratu zen eta bozketa egin zen postuak esleitzeko.

Udala ez zen aldaketarik gabe egon 1930ean hurrengo eratu zen arte. Esaterako, 1926an Juan Antonio Arguinzóniz eta Francisco Esquíbel izendatu zituzten Udaleko kargu hutsak betetzeko, eta karguen artean aurki daiteke bigarren alkateordea zen Rufino de Fraduak dimititzean geratu zena (*Euzkadi*, 1926/11/26).

39. MHZD. PS Bilbao. 197. kutxa. 01; 02; 03. Txostena.

40. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0109/001.

41. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0111/001; 0109/001.

Busturiko Udala (1926ko azaroa)

Alkatea	Sinforiano Iparaguirre Garciarena
Lehen alkateordea	Antonio Araluzea Aldámiz Echevaría
Bigarren alkateordea	Rufino Fradua Arandia
Ordezko lehen alkateordea	Manuel Apraiz Goiricelaya
Ordezko bigarren alkateordea	Donato Goitia Marcaida
Zinegotzia	Martín A. Echevarría Arribalzaga
Zinegotzia	Diego Arancua Cearra
Zinegotzia	Ciriaco Celaya Hormaechea

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0110/01).

1930eko urtarrilaren 30ean Primo de Rivera erori ostean, Berenguer jeneralaren gobernu konstituzio-egoerara itzultzen hasi zen. Normalizazio instituzionalean funtsezko pieza bat diktaduraren toki-korporazioak desegitea izan zen. Ordezkapena egiteko eredu misto bat aukeratu zen, 1930eko otsailaren 6an dekretu bidez onartu zena, eta nahastuen zituen 1923 baino lehen hautatuak izan ziren zinegotziak eta zergadun handienen zerrendetatik hautatuak izan zirenak.

1930eko otsailaren 25ean zinegotzi berriak aldarrikatu ziren eredu berriari jarraituz. Biztanle kopuruaren arabera herriari hamar zinegotzigo zegozkion Estatutuaren 45. artikuluen arabera eta hiru zinegotzi legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, hau da, hamahiru guztira, erdibanatu ezin zen kopurua. Zazpi zinegotzigo herriko zergadun handienei eman zitzaizkien, hau da, udalerriri zegozkionen erdia gehi bat. Gainontzeko zinegotzigoak betetzeko hautagaiak hautatu ziren 1917, 1920 eta 1922ko udal-hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera. Zinegotziak izendatu eta hurrengo egunean ez ziren denak joan alkatea hautatzeko bozketara. Hala ere, joan ziren bederatzi zinegotzietatik aho batez aukeratu zuten Segundo Elguezábal Bilbao alkate. Zinegotziak izendatu eta hirugarren egunean bi alkateordeak izendatu zituzten, eta Segundo Elguezábal Bilbao alkatearekin batera Busturiko Udal Batzorde Iraunkor azkenetako bat osatu zuten⁴².

42. Busturia 110/001.

Busturiko Udala (1930eko otsaila)

Alkatea	Segundo Elguezábal Bilbao	1920ko zinegotzia	Eusko-espainiarra
Lehen alkateordea	Domingo Zorrozuía Aldama	1920ko zinegotzia	Eusko-espainiarra
Bigarren alkateordea	Juan Antonio Uribe Undabarrena	Zergaduna	
Zinegotzia	Gabriel Learreta Acillona	Zergaduna	
Zinegotzia	Antolín Luzárraga Learreta	Zergaduna	Eusko-espainiarra
Zinegotzia	Cipriano Arteche Galdona	Zergaduna	
Zinegotzia	Hermeregildo Lecumberri Ubillas	Zergaduna	Independentea
Zinegotzia	Remigio Bilbao Apraiz	Zergaduna	
Zinegotzia	Román Cearreta Urrutia	Zergaduna	Nazionalista
Zinegotzia	Francisco Arteche Izaguirre	1922ko zinegotzia	Monarkikoa
Zinegotzia	Fernín Landa Lezámiz	1922ko zinegotzia	Monarkikoa
Zinegotzia	Felipe Orbe Marcaida	1922ko zinegotzia	Monarkikoa
Zinegotzia	Paulino Apraiz Ordorica	1922ko zinegotzia	Nazionalista

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0110/001).

Errepublikari aldeko aldeko kideak aldatu egin ziren. Zergadun handienek ez zuten interesik udal hauek parte hartzeko eta ezintasun fisikoak jarri zituzten aitzakia gisa dimisioa aurkezteko. Gutxienez zergadun handienetatik hiruk dimisioa aurkeztu zuten 1930eko martxoan baino lehen, Gabriel Learreta Acillona eta Hermeregildo Lecumberri Ubillas tartean zeudelarik, eta beste bat gehitu behar da zinegotzi ohien zerrenden arabera. Honela, Florentino Hormaechea Bilbao, Ángel Arróspide Omagogeascoa eta Martín Lotina Goyenechea Uriarte zergadun handienek, Juan Antonio Arguinzóniz *jelkideak* zinegotzi ohi gisa egin zuen bezala, parte hartu zuten Udalean. Hala ere, dimisio eta aldarrikapen kate luze baten hasiera besterik ez zen, eta Udalaren eraketa 1930eko apirilera arte luzatu zen. Honela, hainbat auzotar zinegotzi izendatu zituzten, hala nola Juan Manuel Olarra Bilbao, Emeterio Rementería Arribalzaga, Marcelino Cigorraga Oleaga edo Felipe Aguirre Ateca⁴³. Labur esanda, Espainiako Errepublika heldu arte ikus daiteke nola Busturiko landako hautesleak mugitzen ziren monarkia tradizional foruzalearen eta nazionalismo sabindarraren artean, batez ere nagusi zen jauntxokeriari esker,

3. II. ERREPUBLIKA BUSTURIAN (1931-1936)

3.1. Udala Errepublika garaian

3.1.1. Udal-hauteskundeak

1931ko otsailaren 14an Berenguerren gabinetean erori zen honek Gorteetarako hauteskundeak egiteko saiakera egin zuelako, indar politikoak oro har aurka zeuden bitartean.

43. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0089/001; 0110/001.

Berehala eratu zen Aznar almirantearen presidentetzapean monarkiaren azken gobernu-a, udal-hauteskundeak antolatu zituen inoiz egingo ez ziren legegintza-hauteskundeen aurreko pauso bezala.

Martxoaren 16an *Gaceta de Madrid* egunkarian 1931ko apirilaren 12an udal-hauteskunde orokorrak egitea agintzen zuen dekretu bat argitaratu zen, 1930ean indarrean zegoen hautesle-eroldaren arabera eta 1907ko hauteskunde legean ezartzen zena arabera (*Gaceta de Madrid*, 1931/03/16). Lege honek barrutiz barrutiko gehiengoko ordezkari sistema bat ezartzen zuen, boto pluraleko forma batekin diputatu edo zinegotzi bat baino gehiago zuten barrutientzat, gutxiengoen sarrera ahalbideratuz. Bat baino gehiago hautatzeko kasuetan eta lau arte, hautesleak hautatu behar zuen kopurua baino bat gutxiagoren alde bozkatzeko eskubidea zuen, bi gutxiagoren alde lau baino gehiago hautatzen baziren, hiru gutxiagoren alde zortzi baino gehiago baziren eta lau gutxiagoren alde hamar baino gehiago baziren (Hernández Lafuente, 1981). 1931ko martxoaren 29an Busturiko hautesle-eroldaren udal-batzordeak hauteskunde-mahaiak osatuko zituzten presidentea eta laguntzaileak izendatu zituen 1931ko apirilaren 12ko zinegotzien hauteskundeetarako⁴⁴. EAJko udal-batzordeak Busturian bere afiliatuei deitu zien Víctor Bordaren alargunaren etxean egingo zen bilera batera, inoiz egingo ez ziren hauteskunde batzuk prestatzeko asmoarekin (*Euzkadi*, 1931/03/29).

1907ko hauteskunde-legeak hurrengo ezartzen zuen 29. artikuluan:

“En los distritos donde no resultaren proclamados candidatos en mayor número de los llamados a ser elegidos, la proclamación de candidatos equivale a su elección y les releva de la necesidad de someterse a ella” (de la Granja, 2008).

Udal-hauteskundeak izan baino lehen, 1931ko apirilaren 5ean Bizkaian existitzen ziren 116 udaletatik 56 udal eratu ziren 29. artikulua betez, eta horien artean Busturiko udala zegoen (*Euzkadi*, 1931/04/07; 1931/04/08; 1931/04/09; *La Tarde*, 1931/04/07; *El Noticiero Bilbaino*, 1931/04/08). 29. artikulua botoa kendu zion Espainiako hautesle-leen bosten bati eta Euskadiko ia laurden bati (de la Granja, 2008). Arrazoi honengatik EAJk aurkeztu zituen hamar hautagaiak, Paulino Apraiz Ordorica eta Isidro Arróspide Omagogeascoa zinegotzi ohiek proposatuta Iparreko barrutian, eta Marcelino Cigorraga Ugalde eta Juan Bautista Amunategui zinegotzi ohiek proposatuta Hego barrutian, Udal berriaren zinegotzi izendatu zituzten hutsik zeuden hamar postuak bete behar zirelako⁴⁵. Busturia biztanle gutxiko udalerrri baten adibide argi bat zen, Bizkaia landatarraren hautesle- adierazpena zena, Errepublika garaira arte ezkerreko alderdien aurka iragazgaitza izan zena, 1931ko apirilean euskal nazionalistek hartu zutena eta EAJk ia guztiz monopolizatu zuena errepublika urteetan erregimen frankista heldu arte.

3.1.2. Gora (Euskal) Errepublika!: Apirilaren 14a eta lehen udala

1931ko apirilaren 12ko hauteskundetan hiri nagusietan Alderdi errepublikanoen garaipenak Alfonso XIII.aren erorketa eta bi egun geroago Errepublika aldarrikatzea ekarri zuen, eta boterea Donostiako Hitzarmenetik sortutako “iraultza-batzorde” batek hartu zuen,

44. BFAAH. Udal-erregimena eta Hirigintza. AR00335/132.

45. BFAAH. Udal-erregimena eta Hirigintza. AR00336/019.

gero Behin-behineko Gobernu bihurtuko zena. Garaiko egunkariak ez dute informazio-rik ematen Busturian egindako Errepublikaren aldarrikapenari buruz, ziur aski udaletxean “*Ondeó la bandera nacionalista juntamente con la republicana*” (*Euzkadi*, 1931/04/15), Bizkaiko zati handi batean gertatu zen bezala *Euzkadi* egunkari nazionalistaren arabera. Dударik gabe, ikurrina eta hiru koloreko bandera bata bestearen ondoan jartzeak Getxoko euskal alkate nazionalista José Antonio de Aguirrek hasitako proiektu politikoaren baieztapena eta errebindikazioa zekartzan, eta une hartan erregimen berriaren huts legala eta barneko ezegonkortasuna aprobetxatu nahi zen autonomia asmoak burutzeko, Euskal Errepublika bat aldarrikatuz Iberiar Federazioaren estatu kide bezala.

1931ko apirilaren 16an, Udaleko batzarraldian, kargua utzi zuen Segundo Elguezábalek alkatearen aurrean. Udaleko idazkariaren aurrean ere, hautatutako zinegotziak azaldu ziren: Francisco Esquíbel Lejarza, Román Ciarreta Urrutia, José Anastasio Uriaguereca Araluzea, Rufino Fradua Arandia, Felipe Uriona Calzada, Fermín Apraiz Goiricelaya, Nicolás Gárate Amunategui, Ciriaco Echevarría Uribe, Manuel Apraiz Goiricelaya eta Diego Arancua Cearra⁴⁶. Zinegotzi karguaz jabetu ondoren, Udal berria eratzeko bozketa egin zen eta emaitza hau izan zen:

Busturiko Udala (1931ko apirila)

Alkatea	Ciriaco Echevarría Uribe
Lehen alkateordea	Francisco Esquíbel Lejarza
Bigarren alkateordea	Diego Arancua Cearra
Errejidore sindikoa	Román Cearreta Urrutia
Ordezko errejidore sindikoa	Manuel Apraiz Goiricelaya
Zinegotzia	Nicolás Gárate Amunategui
Zinegotzia	Felipe Uriona Calzada
Zinegotzia	Fermín Apraiz Goiricelaya
Zinegotzia	José Anastasio Uriaguereca Araluzea
Zinegotzia	Rufino Fradua Arandia

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0089/001).

Karguak hautatzeko bozketetan ez zen desakordiorik egon. Hautatutako kargu bakoitzak bere alderdiko kideen aldeko 10 botoak lortu zituen. Eta aho batez ere hautatu ziren batzordeak, bai eta batzorde bakoitzaren presidentea eta bokalak. Lau batzorde ezarri ziren: Ogasuna, Herrizaintza, Sustapena eta Heziketa Publikoa⁴⁷. Azkenik, azpimarratu

46. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0089/001.

47. Ogasun Batzordea Ciriaco Echevarría Uribe, Francisco Esquíbel Lejarza eta Nicolás Gárate Amunategui jaunek osatzen zuten. Herrizaintza Batzordea Ciriaco Echevarría Uribe, Fermín Apraiz Goiricelaya eta Román Ciarreta Urrutia jaunek osatzen zuten. Sustapen Batzordea Felipe Uriona Calzada, Rufino Fradua Arandia eta Manuel Apraiz Goiricelaya jaunek osatzen zuten. Azkenik, Heziketa Publikorako Batzordea Ciriaco Echevarría Uribe, Diego Arancua Cearra eta José Anastasio Uriaguereca Araluzea jaunek osatzen zuten.

behar da Udalak aldaketak izan zituela bere osaeran administrazioko hurrengo hilabeteetan zehar. Anastasio Uriaguereca Araluzea zinegotzi gordailuzain izendatzeaz gain⁴⁸, Nicolás Gárate Amunategui zinegotziak bere dimisioa aurkeztu zuen Zaragozara joan behar izan zuelako, Udalak onartu zuen dimisioa, hain zuzen ere⁴⁹.

Busturiko lehen Udal errepublikanoa aldarrikatu zen egun berean, Udalak Errepublikako Behin-behineko Gobernuko presidenteari, Niceto Alcalá Zamora, telegrama bat bidaltzea erabaki zuen herriak hautatu zituen Busturiko Udaleko zinegotziek Errepublikaren etorrera onez hartzen zutela jakin zezan. Dena den, Udala gobernu berriari atxikitzea ez zuen esan nahi euskal nazionalistek proiektu autonomikoari uko egiten ziotenik, bereziki adierazi baitzen Udalak hurrengo eskatzen zuela: “*reclama reconocimiento personalidad República Vasca con derecho gobernarse libremente*” (Euzkadi, 1931/04/18).

Erregimen berriarekin ados zeudela ere adierazi zuten Alfontso XIII.aren erretratu Udaletxeko ekitaldi-aretoetik kentzeko erabakia hartuta, baita Altamirako plazatik bere izena zeramatzen plaka kenduta ere⁵⁰. 1931ko apirilaren 26ko batzarraldian Errepublikako Behin-behineko Gobernuko presidentetzak eskerrak emanez bidali zuen telegrama bat irakurri zen, Udalak bidalitakoari erantzuna zena. Gainera, batzarraldi horretan, Udalak erabaki zuen Altamirako plazak “*Plaza de los Vascos*” izendapena jaso zezan, ondorengo batzarraldietan “*Jaun Zurijaren Zelaya*” izendatu zuena. Horrela adierazi behar zen behintzat Altamirako eskolaren hegoaldeko fatxadan jarri zen plakan. Eskola horri, gainera, monarkiako ezaugarriak zituen armarria kendu zitzaion⁵¹.

Orain arte ez dugu ezer esan Busturiko tradizionalista edo nazionalista ez den eskuinari buruz. Udalerriko aurrekari politikoak ezagunak izanda ere, ez zuen hautagairik aurkeztu Udal berriaren egoteko. Honen arrazoia da hautagai hauetako asko EAJra afiliatu zela edo ez zelako aurkeztu zetorren marko politiko berria kolokan zegoelako. Busturiko Juan de Uribe jaunak, “*discípulo de Sabin y fiel compatriota*”, EBBri hurrengo idatzio zion:

“una vez mas nos quieren pisar a los que somos fieles y sostenemos nuestra palabra; recurro ande (*sic*) V. como superior del partido que obra como lo hubiera hecho nuestro llorado maestro Sabin (g.b.); (...) todo lo que sucede en el *batzoki* aspetarra de Busturia (...) y acordamos (...) que todos aquellos que an (*sic*) sido fieles, que se pongan como jefes y todos los arrepentidos serian azmitidos (*sic*) como socio, pero dicho somatenista Sinforiano de Yparaguire propusimos que no desempeñaria ningun cargo por haber dicho palabras ofensivas a nuestro partido en una reunión que tuvimos que yo no asisti como buen patriota por que no podía soportar que uno que juro defender a Primo de Rivera y que antes de Primo de Rivera nunca a sido nacionalista; pero el 19 hemos tenido la reunion para nombrar los jefes del partido y quisieron en esa reunion nombrar a los que no an (*sic*) sido fieles, y nos costo defender pero al fin defendimos todos para poner los fieles, menos uno que es el que mas delito tiene, por que propusieron que ese señor somatenista habia que ponerle de tesorero protestamos (...) solamente por las cosas que dijo en la reunion anterior, todos los disparates que un nacionalista

48. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

49. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

50. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

51. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

no lo puede tolerar, y V. como jefe del partido juzgará como hubiera juzgado Sabin, si dicho señor puede desempeñar el cargo o no esto le pido un patriota que se despide (...)”⁵².

Hala ere, EAJko kideen arteko barneko desadostasunek agerian utziko dute ezberdintasun ideologikoa Sabinen “dizipuluak” eta aberkide “leialak” diren eta ez diren zinegotzien artean. Ez dira ahaztu behar alderdiak horrezkero bizi zituen joera ezberdinen zatiketak eta bateratzeak. Busturiko *Uri Buru Batzarreko* txosten batean, 1932ko abenduaren 29an, 29. artikulua arabera eratu zen Udala desegin baino denbora gutxi lehenago, “Zinegotzi ez nazionalistak” epigrafearen azpian Diego Arancua Cearra, Manuel Apraiz Goiricelaya, Felipe Uriona Calzada eta José Garateren izenak idatzi ziren⁵³.

3.1.3. “Batzorde kudeatzailetik” “herriaren” udalera

Errepublikak aldarrikatu ondoren Niceto Alcalá-Zamoraren Behin-behineko Gobernuaren 1931ko maiatzaren 8ko dekretuak aipatutako 29. artikulua indargabetu zuen. 1931ko ekainaren 28an Gorte Konstituziogileetara egin ziren hauteskundeetatik atera zen Gobernuak 1933ko apirilaren 23an udal-hauteskundeak egitea erabaki zuen, artikulua horren arabera eratu ziren udal guztiak berritzeko asmoz. Arrazoi honengatik aipatutako artikulua arabera hautatu ziren zinegotzi guztien kargu-uztea agintzen zuen lege bat onartu zuen 1932ko abenduaren 20an, eta hamar egun geroago Udal Batzorde Kudeatzaileak sortu zituen beste lege bat onartu zuen, udal horiek 1933ko apirilaren 23ra arte zuzenduko zituztenak. Ciriaco Echevarría Uribe alkatearen Udal jeltokideak, 1932ko abenduaren 20ko legearen baldintzak betetzen zituzteenez, kargu guztiak utzi behar izan zituzten. Abenduaren 30eko legearen 3. artikulua ezartzen zuen bezala, Udaleko zinegotziek kargua utzi ondoren Batzorde Kudeatzaile bat eratu behar zen, eta udal bizitza zuzenduko zuen Udal berri baterako hauteskundeak egin arte.

Batzorde Kudeatzaile hau horrela eratuko zen: “*por tres gestores, que serán: un funcionario, un contribuyente y un obrero*” (*Gaceta de Madrid*, 1933/01/06). Batzorde Kudeatzailea sortzeko izapideak Busturiko Udaleko idazkariak gainbegiratu zituen, egin-kizun hau Bizkaiko gobernadore zibilak bere esku utzi baitzuen. Batzorde Kudeatzailea eratuko zuten ordezkarien hautaketa horrela egiten zen:

“los contribuyentes y los obreros designarán, por medio de sus agrupaciones respectivas constituidas legalmente con anterioridad a la aprobación de esta Ley, la persona que ha de representarles en el Municipio. (...) Los elegidos sabrán leer y escribir; no tendrán más de treinta años de edad ni menos de la edad electora, y no habrán ejercido cargos en la localidad (...) La representación del Estado recaerá en los funcionarios de uno u otro sexo que existan en la localidad (Maestros, empleados de Correos, Telégrafos y Obras Públicas y sanitarios que no pertenezcan a la Corporación municipal). En el caso de que existiera más de un funcionario, se elegirá siempre el más joven” (*Gaceta de Madrid*, 1933/01/06).

1933ko urtarrilaren 28an hurrengo hauek izendatu zituzten Batzorde Kudeatzailearen kide: Eusebio Díez Llanos (funtzionarioa), Miguel Bilbao Mendiola (zergaduna) eta Pedro Orbe Calzada (langilea). Egun berean alkatea hautatzeko bozketa egin zen, aipatutako

52. MHZD. PS Bilbao. 130. kutxa. 04. txostena.

53. MHZD. PS Bilbao. 203. kutxa. 08. txostena.

legeak adierazten zuen bezala. Miguel Bilbao Mendiola Batzorde Kudeatzailearen alkate izendatu zuten bi botoekin, boto zuri baten aurka. Eusebio Diez Llanos eta Pedro Orbe Calzada batzordearen bokalak izan ziren (*Euzkadi*, 1933/01/28)⁵⁴. Dena den, Pedro Orbe Calzada bokalarek Batzorde Kudeatzaileari idazki bat bidali zion, 1933ko martxoaren 19an idatzita, karguari uko eginez. Bertan esaten zuen denbora faltagatik ezin zuela lana behar bezala bete. Batzorde Kudeatzaileak gobernadore zibilarri bidaltzea erabaki zuen, eta badirudi honek ukoa onartu zuela Pedro Orbe kargua utzi behar izan ez zuelako 1933ko apirilaren 23ko udal-hauteskundeetan ondoren⁵⁵.

1933ko apirilaren 23an, lehen aldiz emakumeen botoarekin Espainian, 29. artikulua- ren bidez 1931ko apirilaren 5ean eraturako udalak ordezkatzeko hauteskundeak egin ziren. Hurrengo hauteskundeak prestatzeko unean tokiko ezkerreko elementuek antikerikalismo argi bat erakutsi zuten (*El Liberal*, 1933/04/09). Gainera, Busturiko Elkarte Sozialista, ziur aski 1931ko apirilaren 14tik aurrera sortua, Bilboko mitin handi batera joan zen 1933ko apirilaren 9an, zeinean Indalecio Prieto lider sozialista karismadunak parte hartu zuen (*El Liberal*, 1933/04/11). Udalerrian ere egin ziren gutxienez ezkerreko hauteskunde-propagandako bi ekitaldi. Horietako bat 1933ko apirilaren 16ko mitina izan zen, eta bertan parte hartu zuten Juanita Moralesek⁵⁶, José Gorostizak⁵⁷ eta Ambrosio Garbisuk⁵⁸. Kontzentrazioa Ekintza Errepublikano alderdiak, Alderdi Erradikal Sozialistak eta Alderdi Sozialistak antolatu zuten. Dena den, *El Liberal* egunkariak geroago argitaratuko zuenaren arabera, Busturiko eta Mundakako mitinetan Emilia Rojo eta Juanita Morales bakarrik egon ziren, eta autoetaraino jende asko lagundu zien Errepublika eta bere ministroen alde goraka arituz. (*El Liberal*, 1933/04/16; 1933/04/19; *El Noticiero Bilbaíno*, 1933/04/18). Hurrengo mitin errepublikano-sozialista 1933ko irailaren 22an izan zen eta hizlariak Emilio Díaz Chapartegui⁵⁹, Jesús Nuñez eta Jacinto D. Montellano izan ziren (*El Liberal*, 1933/04/20).

54. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

55. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

56. Miraballeseko erradikal sozialista.

57. Abanto eta Zierbenan jaioa. Enplegatua. Euskal Federazioaren ordezkaria izan zen PSOEren XI. Biltzarrean 1918an eta Bilboko ASrena 1931ko Ohiz Kanpoko Biltzarrean. La lucha de clases egunkariaren zuzendaria izan zen eta Bizkaiko Federazio Sozialistaren Zuzendaritza Batzordeko kidea izan zen. 1936an PSOEren konpromisario izendatu zuten Bizkaia-hiriburuko barrutian Errepublikako presidentea aukeratzeko. Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzako Lan Saileko Idazkari Orokorra izan zen. Txileko Santiagon erbesteratua, hainbat zuzendaritza-kargu bete zituen Espainiako Elkarte Sozialistan.

58. Ezker Errepublikanoaren kidea, Azañaren alderdiaren buruzagia Bizkaian. Bilboko Udaleko zinegotzia izan zen. 1934ko irailean atxilotu zuten Prieto buru zuen Zumarragako Biltzarrera zihoanean. 1936an Bilboko barrutiak konpromisario izendatu zuen presidentea aukeratzeko. Gerra Zibilean Bizkaiko Hornidurarako Komisarioa izan zen Eusko Jaurlaritzan. Frantziara erbesteratu egin zen, eta atzerrian zegoen Eusko Jaurlaritzako sailik gabeko sailburua izan zen 1952tik 1965ean hil zen arte.

59. Bilbon jaioa. 1894an jaio zen. Oso gazte egin zen militante errepublikano, 1918an Gorteen barrutiko batzorde errepublikano kidea zen. Afiliatuta egon zen Bizkaiko Alderdi Errepublikano Autonomora, Ekintza Errepublikanoa eta Ezker Errepublikanoa. 193an Ekintza Errepublikano probintzia-batzordeko kide izateko hautatu zuten. 1931ko apirilaren hauteskundeetan Bilboko Udaleko zinegotzi izateko hautatu zuten. 1934an zinegotzi kargua kendu zioten ekonomia ituna eta autonomia defendatzeagatik, baina postua berreskuratu zuen 1936ko otsailean Fronte Popularrak garaipena lortu ondoren.

EAJko nazionalistek ere hauteskunde-propagandako ekitaldiak egin zituzten. Irailaren 22ko mitin errepublikano-sozialistarekin batera, EAJko afiliatuek Ispiluetako zelaian egin zen ekitaldira joan ziren, Juan Manuel Epalza, Sorne de Untzeta eta Luciano de Ozerin nazionalistek antolatuta zutena: “*!En pie, abertzales de Busturia! !Todos unidos el próximo domingo a la brega electoral! !Bien lo merecen nuestro Dios y nuestra única patria, Euzkadi!*” (*Euzkadi*, 1933/04/20).

EAJko hautagai bezala iparraldeko barrutiagatik hurrengoak aurkeztu ziren: Andrés Cearreta Urrutia, Doroteo Calzada Ispizua, Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao, Juan Antonio Arguinzóniz Porturas eta Fernando Bilbao Torrótengui. Barruti beragatik errepublikano izendapenarekin hurrengoak aurkeztu ziren: Manuel Legarreta Urriaga, Mariano Santamaría, Florencio Bilbao Aguirre eta Andrés Iráculis Basterrechea. Bere aldetik, hegoaldeko barrutiak hurrengo hautagai nazionalistak izan zituen: Fermín Apraiz Goiricelaya, Rufino Arróspide Omagogeascoa, Carmelo Llantada Uriaguereca eta Paulino Apraiz Ordorica. Barruti honengatik ere hautagai aurkeztu ziren Eugenio Uriarte Aberásturi eta José Inchausti Apraiz sozialistak eta Miguel Bilbao Mendiola eta Martín Ugalde Arróspide errepublikanoak⁶⁰.

Busturiko hegoaldeko barrutian bozketa egitera joan ziren hautesleen kopurua ez dakigu, baina iparraldeko barrutian hautesleen %67,90ak botoa eman zuen udal-hauteskundeetan, Euskal Herriko batesbestekoa baino pixka bat txikiagoa⁶¹. Udalerriko hauteskudeen emaitzei dagokienez, botoen %71,41 EAJrentzat izan zen, errepublikanoak bigarren indar bezala geratu ziren botoen %25,73 lortu ondoren eta, azkenik, sozialistek botoen %2,85 lortu zuten⁶². Hauteskundeak ez ziren guztiz lasaiak izan, Erasoko Guardiak Busturira joan baitziren Larrabetzutik Mundakara zihoan autobusean Bilbotik ailegatu zen ezkertiarren talde batek gehiegikeriak egin ez zitzaizkien eragozteko, Etxebarrin bezala, non hautetsontzi bat apurtu zuten, edo Sopelan, Berangon edo Ondarroan bezala, non gatazkak ere egon ziren (*Euzkadi*, 1933/04/25; 1933/04/27; 1933/04/30).

Landa-munduan hauteskunde hauetan eskuinak izan zuen nagusitasun izugarria eta ezkerren ahultasuna azpimarratu ditu José Luis dela Granja historiagileak. Aipatzen du ere euskal landa ez zela errepublikanoa eta oso ondo mugatuta zegoela, Bizkaia eta Gipuzkoa jelkideak zirelako eta Araba eta Nafarroa tradizionalistak. Gainera, euskal mapa espainiarretik ezberdindu egin zen, bai boto nazionalistaren garrantziari bai eskuinaren pisu handiagoari dagokionez (de la Granja, 2008).

1933ko maiatzaren 10ean Batzorde Kudeatzailearen kideek karguak utzi zituzten “*herriak*” hautatutako Udal berri bat eratzeke. 1933ko apirilaren 23ko hauteskudeen emaitzen ondoren hurrengo pertsonak joan ziren Busturiko Udaletxera: Andrés Cearreta Urrutia, Doroteo Calzada Ispizua, Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao, Juan Antonio Arguinzóniz Porturas, Fernando Bilbao Torrontegui, Fermín Apraiz Goiricelaya, Rufino Arróspide Omagogeascoa, Carmelo Llantada Uriaguereca, Paulino Apraiz Ordorica

60. MHZD. PS Bilbao. 223. kutxa. 02. txostena.

61. MHZD. PS Bilbao. 180. kutxa. 06. txostena.

62. MHZD. PS Bilbao. 180. kutxa. 06. txostena.

eta Manuel Lejarreta Urriaga⁶³. Karguak izendatzeko bozketa egin ondoren Busturiko “*herriko*” Udala eratuta geratu zen.

Busturiko Udala 1933ko apirilaren 23ko hauteskundeen ondoren

Alkatea	Juan Antonio Arguinzóniz Porturas	Nazionalista
Lehen alkateordea	Carmelo Llantada Uriaguereca	Nazionalista
Bigarren alkateordea	Fermín Apraiz Goiricelaya	Nazionalista
Errejidore sindikoa	Paulino Apraiz Ordorica	Nazionalista
Ordezko errejidore sindikoa	Andrés Cearreta Urrutia	Nazionalista
Zinegotzia	Doroteo Calzada Ispizua	Nazionalista
Zinegotzia	Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao	Nazionalista
Zinegotzia	Fernando Bilbao Torrontegui	Nazionalista
Zinegotzia	Manuel Lejarreta Urriaga	Errepublikanoa
Zinegotzia	Rufino Arróspide Omagogeascoa	Nazionalista

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001).

Udaleko eta adostu ziren hiru batzordeetako karguak izendatzeko bozketa egiterakoan, EAJko kideek ez zuten arazorik izan gehiengo oso argi bat zutelako⁶⁴. Udaleko errepublikano bakarra, Manuel Lejarreta Urriaga, boto zuria eman zuen lehen erabakietan, agian euskal nazionalismoari erakusteko ezkerren laguntza izango zutela gobernatzeko.

Lehen batzaraldian, 1933ko maiatzaren 14an, “*herriaren*” Udal berria Batzorde Kudeatzailearen Estatutuaren alde Bilboko Udalak egindako kudeaketei atxiki zitzairen eta, gainera, 1839ko urriaren 25eko legearen kontra protesta egiteko mozio bat aurkeztu zen. Mozioan hurrengo hau eskatzen zuten aipatutako legeari dagokionez: “*los poderes de la República la declaren ilegítima y sin aplicación en Vizcaya, con todas las consecuencias jurídicas que de esta declaración hayan de derivarse*”⁶⁵.

1934an gatazka sozial eta politikoak bere larritasun handienera iritsi ziren Euskadin. Euskal udalek, nazionalisten eta errepublikano-sozialisten laguntzarekin, Samper erradikalaren gobernuari aurre egin zioten, azken honek bere alderdiaren eta eskuinaren laguntza zuela. Arrazoi nagusia izan zen eskuinak Ekonomia Itunari egin zion eraso. Samperren Gobernu, eskuinarekin batera, zuzenean bildu nahi zituen errenta eta luxu gaineko zerga berriak, Aldundiekin itundu gabe, eta ardoaren kontsumoa desgrabatu

63. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

64. Ogasun Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Juan Antonio Arguinzóniz Porturas, Rufino Arróspide Omagogeascoa, Doroteo Calzada Ispizua eta Andrés Cearreta Urrutia. Herrizaintza Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Carmelo Llantada Uriaguereca, Fernando Bilbao Torrontegui, Feliciano Cenarruzabeitia Bilbao eta Manuel Lejarreta Urriaga. Sustapen Batzordea hurrengoek osatzen zuten: Fermín Apraiz Goiricelaya, Paulino Apraiz Ordorica, Andrés Cearreta Urrutia eta Fernando Bilbao Torrontegui.

65. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

nahi zuten. Horrekin Euskadiko tokiko eta probintziako ogasunak porrot egingo zuten, haien diru-sarrera erdia baino gehiagotan murriztuko zelako. Batzorde Kudeatzaileak, gobernuak izendatzen zituzenez, ez zuten Ekonomia Ituna defendatzen. Arrazoi honengatik udalerriak Ekonomia Ituna babesteko antolatu ziren.

Bilboko alkateak udalerriei deitu zien 1934ko uztailaren 5ean egingo zen biltzarrera, non “Ardoaren Estatutuaren” aplikazioa eta Ekonomia Itunaren babesa eztabaidatuko ziren, hemen esaten den bezala: “*adoptar los acuerdos procedentes para la legítima defensa de nuestro régimen especial de Concierto Económico con el Estado*”. Lehen alkateordea, Carmelo Llantada, Busturiko ordezkari bezala joan zen biltzar horretara eta bertan Busturiko ordezkari izendatu zuten Udalerrien Batzorderako. Batzorde hau udalerrri guztien bitarteko ordezkaria izango zen Ituna babesteko zuten betiko batzorde bat lortu arte⁶⁶. Bitarteko batzordea eratu ondoren 1934ko abuztuaren 12a ezarri zen betiko batzordea osatuko zuten zinegotziak hautatzeko, eta betiko batzordearen xedea adierazi zen: “*Comisión permanente en defensa del Concierto económico y de la autonomía municipal*”.

Euskadiko gobernadore zibilek abuztuaren 12ko hauteskundeak legearen kontrakoak zirela aldarrikatu zuten eta bozketa egitekotan alkateak zigortuko zituztela mehatxu egin zuten. Hori egiteko argudioa zen hauteskudeekin legez kanpoko probintzia-batzorde kudeatzaile bat hautatu nahi zela legearen arabera egindakoa baliogabetzeko (de la Granja, 2008). Hauteskunde egunean segurtasun-indarrek udaletxeak hartu zituzten bozketak eragotzi nahian. Busturiko Udalaren 1934ko abuztuaren 12ko batzarraldian, idazkariak komunikatu zuen gobernadore zibilak alkateei jakinarazten ziela axolagabetasunean erortzen zirela legez kontra aldarrikatu zen bozketa bat baimentzen bazuten. Busturiko bozketa birritan saiatu ziren egiten, baina berehala Mundakako postuko miñoien kaboak alkatea eta lehen alkateordea atxilotu zituen, eta ohiz kanpoko batzarraldi biak aipatutako indar armatuak derrigorrez bukatu zituen⁶⁷. Mundakako postuko miñoiei dagokienez, hurrengoa adierazi zen: “*guardaron la corrección debida a los componentes del Ayuntamiento de Busturia, dentro de lo que permitían las instrucciones recibidas que tenían que cumplir forzosamente*”.

1934ko abuztuaren 13an bi atxilotuak Gernikako espetxetik irten ziren, eta hiru ordu geroago deklarazioa egin zuten alderdiko instrukzio-epailearen aurrean (*Euzkadi*, 1934/08/14). Juan Antonio Arguinzóniz Porturas eta Carmelo Llantada Uriaguerecari desobeditze-delitu bat egotzi zieten eta kargugabetu zitzaizela agindu zen⁶⁸. Irailaren erdirako bien aurka hasitako prozesatze-autoak artxibatuta eta eraginik gabe geratu ziren (*El Noticiero Bilbaíno*, 1934/08/25; 1934/09/08; 1934/09/12; *La Tarde*, 1934/09/08; 1934/09/12; *El Liberal*, 1934/09/08).

1934ko abuztuaren 19ko batzarraldian, Busturiko Udala legez kontraktotzat jo ziren hauteskudeei buruzko erabakiak hartzen saiatu zen, eta idazkariak ohartarazi zuen legez kontrako egintzetan eroriko zirela bozketa egiten bazen. Udalak erabaki zuen akta-liburuan Fermín Apraiz, Paulino Apraiz, Andrés Cearreta, Doroteo Calzada,

66. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

67. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

68. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

Fernando Bilbao eta Rufino Arróspide jaunek sinatutako gutun bat kopia zedin, non egun hartan gertatutakoa azaltzen zen. Bertan esaten zuten udaletxeko batzarraldia eten ondoren, indar publikoek eragotzi baitzuten alkatea eta lehen alkateordea atxilotuz, bigarren alkateordearen presidentetzapean eta ezbeharreko idazkari bezala José María Gogeochea Uriarte auzotar eta abokatuak jardunez, segurtasun-indarrek eragotzi zituzten jarraipena zen batzarraldi bat egin zela. Gorago aipatu ditugun sinatzaile guztiek bozkatu zuten Florencio Basterrechea (Bermeoko zinegotzia, EAJ), Félix Gaubeca (Mungiako zinegotzia, EAJ), Julio Bareño (Gernikako zinegotzia, EAJ) eta Mariano Viguri (Gernikako zinegotzia, IR) jaunek osatutako hautagai-zerrendaren alde, Gernikako barrutian irabazlea izan zena⁶⁹. Gainera, bi egun geroago zinegotziak atxilotuak izan ziren, *Euzkadí* egunkari nazionalistaren informazioaren arabera (*Euzkadí*, 1934/08/14).

1934ko irailaren 7an Ercoreca, Bilboko alkate errepublikazalearen zirkular bat heldu zen Busturiko Udalera. Bertan adierazten zen irailaren 4ko bilera batean Euskadiko Batzorde Betearazleek⁷⁰ Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko udal guztien dimisioa erabaki zutela. Idazkariak aipatutako zirkularra betearaztea eta eraginkor egitea legez kontrakoia zela ohartarazi ondoren, Busturiko Udalak “*Gobernuak eta bere agenteek euskal lurraldean egindako irainak eta bidegabekeriak*” aipatu zituen: atxilotetak, Batzorde Kudeatzaileak “*matxinatuak eta legez kontrakoak*” deklaraztea, “*bidegabeko indarreko eta bortxakeriako egintzak*” Zumarragako biltzarrean bildu nahi izan zutenen kontra⁷¹, “*Euskadiko eta Kataluniako parlamentariak eta Gernikako herriak jasan zuten begirunerik eza, herri horretara egin zuten bisitan, Zumarragako biltzarrera joan ostean*” eta, azkenik, Gasteizko udala kargugabetzea eta gobernuak izendatutako Batzorde Kudeatzaile batez ordezkaztea. Arrazoi horiengatik jarraian aipatzen direnek aldi berean uko egiten zitoten Udalean zuten karguari: Fermín Apraiz, Paulino Apraiz, Andrés Cearreta, Fernando Bilbao, Doroteo Calzada, Manuel Lejarreta eta Rufino Arróspide (*La Tarde*, 1934/09/08)⁷².

1934ko irailaren 12an *El Liberal* egunkariak argitaratu zuen Bizkaiko gobernadore zibilak erregearen laguntzaile ohiari, Venancio Nárdiz Alegriari, eskatu ziola Bermeo eta inguruko udaletan karguak hartu nahi zituzten boluntarioak eman zitzaizkien. Baina ez zuen lortu Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Forua edo Busturian dimititu zuten zinegotzien karguak inork bete zitzaizkien, “*herrikideen beldur zirelako*” (“*por miedo a los paisanos*” jatorrizko testuan). (*El Liberal*, 1934/09/12). Guztiek batera egindako dimisioagatik gobernadore zibilak, emandako aparteko ahalmenekin, Batzorde Kudeatzaileak izendatu behar izan zuen, hurrengo bitarteko zinegotziek osatuko zutena: Justo Oreja Lecumberri (abizen bereko diputatuaren lehengusua), Nicasio Orueta Inzunza, Antolín Luzárraga Learreta,

69. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

70. Udalerrien arteko batzordeek batzorde betearazleak izendatu zituzten haien baitan, eta batzorde hauen batuketan Euskal Herriko Batzorde Betearazle Iraunkorra izan zen.

71. 1934ko irailaren 2an, ordena publikoko indarrek okupatuta zuten Zumarragara udal-batzorde gehienak joan ziren, nahiz eta poliziak batzuk atxilotu edo mehatxatu zituen Zumarragara joan ez zitezkeen. Biltzarrera joan ziren EAJko diputatuak eta Prieto, eskuineko euskal diputatuak eta Azaña izan ezik; ERCko hamalau parlamentari eta federal eta USCko batzuk; TGCKo euskal bokal nazionalista; *El Socialista* egunkariaren zuzendaria; Estella, Tafalla eta Baztango alkateak, eta euskal zinegotzi asko. Hartu zuten erabaki bakarra izan zen protesta bizia adieraztea gobernuak euskal udalei egindako gehiegikeriengatik (de la Granja, 2008).

72. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

Fermín Landa Lezámiz, Rufino Fradua Arancia eta Pablo Urquiza Arróspide (*Euzkadi*, 1934/09/19). Hala ere, 1934ko irailaren 17an Udaleko idazkariak deitu zienean, gobernuak izendatutakoek esan zuten osasun txarragatik, lanagatik edo aje ugariengatik bitarteko zinegotziak izateari uko egiten ziotela⁷³.

1936ko otsailean Fronte Popularrak irabazi arte, zigortutako zinegotziak eta alkateak ez ziren indultatu eta birgaitu. 1936ko otsailaren 22an, Juan Antonio Arguinzóniz alkatearen presidentetzapean, epai irmoan karguak betetzeko gaitasunik gabe geratu ziren zinegotziei, Busturiko herriak hautatu izan zituenak, kargua berriz eman zitzaie. Fernando Bilbao Torrontegui, Jesús Apraiz Goiricelaya, Paulino Apraiz Ordorica, Andrés Cearreta Urrutia, Doroteo Calzada Ispizua, Manuel Lejarreta Urtiaga eta Rufino Arróspide Omagogeascoa, herriak hautatutako zinegotzi amnistiatuak, bilerara joan ziren. Busturiko Udalak laster adierazi zuen hurrengo: *“la satisfacción producida por el acto de justicia mediante el cual se ha dado al País Vasco la reparación de restituir en sus puestos los Ayuntamientos de elección popular”*.

Batzarraldi honetan Udalak Ekonomia Itun Administratiboa eta udal-autonomia babes-tearen aldeko jarrera berresten zuen udal arteko batzordeak eratuz. Herriaren udalek legegintzaldia bukatu zutenez, udal-hauteskunde berriak egiteko ordua zen. Azkenik, Udalak gobernuari eskatzen zion Euskal Estatutuaren onarpena sar zedin, Gasteizko Batzarrean herrialdeko udalek onartu izan baitzuten, 1933ko azaroan plebiszitua izan baitzen eta Gorteen iritzia eman baitzuten. Ez zen protesta eta errebindikazioa falta hurrengo gaiaren inguruan: *“derogación de la ley de 25 de octubre de 1839, destructora de la libertad originaria de nuestro pueblo contra cuya vigencia se mantiene constante protesta”*⁷⁴.

3.2. Hauteskunde orokorrak Errepublika garaian (1931-1936)

3.2.1. 1931

Erregimen errepublikanoa konstituzio batekin sendotzeko nahiak gorte konstituziogileak hautatzeko deialdia ekarri zuen. *Gaceta de Madrid* egunkariaren arabera, hauteskunde hauek gobernuaren 1931ko maiatzaren 8ko dekretuak aratu zituen, hauteskundee-tan ustelkeriak eragozteko asmoz 1907ko hauteskunde-legea aldatu zuena. Aldaketa garrantzitsuenak hurrengoak ziren:

- Gizonen adina botoa emateko murriztu egin zen 25etik 23 urtera.
- Monarkiaren izen bakarreko barruti txikiak probintziako barruti handiek ordezkatu zituzten, ehun mila biztanletik gora zituzten hiriekin batera.
- Bigarren buelta egiteko aukera aurreikusten zen. Diputatua izateko emandako botoen %20 baino gehiago lortu behar zen. Hautagai batek ere %20 horretara iristen ez bazen, bigarren buelta bat egin beharko zen hautaketa gehiengoak egin zezan.

73. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001; 0023/003.

74. 1936/03/08.

- Boto mugatuko zerrenden sistema hartzen zen.
- Emakumeak eta elizgizonak hautagaiak izan zitezkeen.

Hauteskunde egunak prestatzeko erakunde politikoek afiliatuak deitu zituzten hauteskundeei buruz hitz egiteko. Hori egin zuen bloke errepublikano-sozialistak, bere hauteskunde-batzordearen asmoa azpimarratzen baitzuen mitinak egiteko probintzia osoan zehar. Horretarako, Busturia bezalako herri txikien biztanleei erregutu zieten aipatutako batzordearengana joan zitezten hauteskunde-egunak oso garrantzitsuak zirelako: “*suma importancia para la consolidación de la República*” (*El Liberal*, 1931/06/14).

1931ko hauteskundeetan ezkerreko kanpaina Errepublika defendatzean eta Lizarrako Estatutuari eraso egitean oinarritu zen. Prietok estatutu hori antiliberala eta klerikala zela esan zuen, eta Eusko Ikaskuntzak egindako estatutu proiektu baten alde egin zuen, zuzenketa txiki batzuekin. Eskuinari dagokionez, EAJK Elkarte Tradizionalistarekin batera lan egin zuen, karlismoaren hiru adarrak adiskidetu ondoren, Alfontso XIII.aren monarkia iraungiaren euskal katolikoak erakartzeko eta Lizarrako Estatutua defendatzeko asmoz. Euskal landa gizartearen ezaugarriak ziren katolikoa, gutxi sekularizatu eta eskuinekoa izatea, hau da, errepublikanoa ez izatea. Errepublikak garatutako erlijio-politikak nazionalismoa eta karlismoaren arteko elkartasuna sendotu zuen, bai eta erregimen errepublikano berriarekin etsaitasuna ere⁷⁵. Santiago de Pablo, Ludger Mess eta José Antonio Rodríguez Ranzek Euskadi eta Nafarroan “*bunker*” katoliko bat egiteko saiakera ikusten dute koalizio honetan, gizarte-ordena babesteko Espainiako Errepublikaren politika laizistaren kontra (de Pablo, Mees y Rodríguez Ranz, 1999). Hitz batez, hauteskundeei buruzko eztabaida hauteskunde hauetan autonomia- eta erlijio-kontuei buruz izan zen, Lizarrako Estatutuan burutu ziren kontuak, hain zuzen ere, eta hauteskundeei izaera plebiszitario bat bereganatu zuten bi kontu hauei dagokienez.

Hauteskunde hauetan Busturiko hautesleen %63,50ak hartu zuen parte, hau da, Bizkaiko lurralde eta bere hiriburuarekin aldentuta herrian %15 hautesle gutxiagok erabaki zuen botoa ematera joatea (de la Granja, 2008). EAJK eta CTk osatzen zuten eskuineko koalizioak botoen %47,26 jaso zuen. Adierazgarria da koalizio honetan Jose Antonio Agirre eta Francisco Basterrechea jeltokideak izan zirela emandako boto guztien %44,7 jaso zutenak, eta gainontzeko botoen %2,56 bakarrik jaso zuela Marcelino Orejak, Comución Tradicionalista alderdikoa. Beste alde batetik, ezkerrek emaitza ona atera zuen herrian PSOEkoek botoen %25,91 lortu zutelako eta Ekintza Errepublikanoak %26,33. Beste hainbat alderdi politikoen artean Euskal Ekintza Nazionalista (ANV) zegoen, emandako botoen %0,50 baino gutxiago lortu zuena⁷⁶.

75. Politika antikerrikalari dagokionez, hurrengo ekintzak azpimarratu behar dira: komentuen erretzea Madrilan eta beste zenbait hiri espainiarretan, Gasteizko apezpikua (Múgica) Espainiatik botatzea, Toledoko kardinal primatua (Pedro Segura) egozte, Gasteizko bikarioa (Justo Echeguren) atxilotzea, Jesusen konpainia desegitea Deustuko Unibertsitatea itxiz, erlijioa eskoletan irakastea debekatzea, erlijio-kongregazioei buruzko legea onartzea edo Bilboko Jesusen Bihotza eraisteko ezkerrek egin zuen saiakera.

76. BFAAH. Gobernu eta eliza-kontuak. AJ02068/005; AJ02019/007.

Gorte Konstituziogileak hautatzeko 1931ko ekainaren 28an egin ziren hauteskundeetan errepublikano-sozialistek irabazi zuten Espainian, baina emaitza Euskal Herrian eskuinteko koalizioaren aldekoa izan zen (EAJ, Comución Tradicionalista eta katoliko independenteak), hamabost diputatu lortu baitzituen ezkerreko bederatzien kontra. Dena den, garaipena ez zen izugarria izan, errepublikano-sozialistek irabazi baitzuten lau hiriburuetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrri industrialetan, Arabako Errioxan eta Nafarroako Erriberan. Azpimarratu behar ditugu ere bakarrik aurkeztu ziren ANV eta PCEn porrotak, lehenengoa Bizkaian eta bigarrena Gipuzkoan eta Bilbon.

1931ko urriaren 4an Bizkaia-probintziako barrutian bakarrik eragina izan zuten hauteskunde partzialak egin ziren. Hau gertatu zen eskuinak Nafarroan kandidatura egiteko formagatik ekaineko hauteskundeetarako. Nafarroako eskuinek betoa jarri zioten Manuel Aranzadiri, *Napar Buru Batzarrak* proposatu zuen nazionalista, eta horrek Jose Antonio Agirre bere ordezkoa izatea ekarri zuen. Nazionalista garrantzitsu hau hautatua atera zen ekainean Bizkaia-probintzia eta Nafarroagatik, eta diputatu akta bati uko egitera behartu zuten. Jose Antonio Agirrek Bizkaiaagatik diputatuta izateari uko egin zionez, botazioa berriz egin behar izan zen plaza hutsa betetzeko. Hauteskunde hauetan udal-hautesleentzako partaidetza %29,54koa izan zen, 1931ko ekainean izandakoa baino txikiagoa. Udalerriko botoen %97 Manuel Robles Aranguiz jeltokideak lortu zuen⁷⁷.

3.2.2. 1933

1931ko ekainean egin ziren Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeekin aldentuta, 1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorrek garrantzi historikoagatik nabarmenduko zen lege-aldaketa bat izan zuten. Lege-aldaketa hau emakumeen sufragioa sartzean zetzan (1931ko konstituzioaren 35. art.) eta hautesleentzako kopurua bikoitza baino gehiago izatera igaro zen. Hauteskunde-legearen aldaketa ere kontuan hartu behar da, 1933ko uztailaren 27koa, 1931ko maiatzaren 8an behin-behineko gobernua onartutako dekretua aldatu zuena. Aldaketa honek bigarren buelta bat egiteko aukerak handitu zituen, diputatu izateko emandako botoen %40 lortu behar baitzen, 1931n eskatzen zen %20ren ordeiz. Baldintza hori bete ezean, bigarren buelta bat egingo zen.

Hurrengo hauteskundeak prestatzean, 1933ko azaroaren 19an, tokiko ezkerrekoek Busturiko Zentro Errepublikanoan (baliteke 1931ko apirilaren 14aren ostean sortu izatea) mitin bat egin zuten, José L. de Latorre, Arcocha eta Luciano Sorroulla hizlariekin (*El Liberal*, 1933/11/10). Bizkaiko probintziako barrutiko Ekintza Errepublikanokohautagaiek ere, Ernesto Ercoreca Regil eta Joaquín Bustos Apoita, Busturia bisitatu zuten (*El Liberal*, 1933/11/15). Azkenik, aipatu behar dugu egunkarietako monarkiaren aldekoek herrian jauntxokeria praktikak egitea leporatu zietela:

“Nos consta de una manera cierta que los agentes electorales de la nefasta Piña se dedican a recorrer los caseríos de Busturia, Luno y otros pueblos próximos a Guernica, coaccionando de la manera miserable peculiar en estos sujetos, a los que dábamos ya por desaparecidos, y que actúan por orden expresa del señor Gandarias, con la consigna de que hay que trabajar como en los mejores tiempos en favor de la candidatura monárquica. Como suponemos que el señor gobernador no tendrá la menor noticia de esto, se lo decimos nosotros para su

77. BFAAH. Gobernua eta eliza-kontuak. AJ02068/015.

conocimiento, a la vez que recomendamos a los labradores que no hagan caso a quienes, siendo sus verdugos, les van a pedir el voto" (*El Liberal*, 1933/11/10).

Hauteskunde hauek multipolartzat jotzen ziren eskuina koalizioan aurkezten zelako anti-separatismoan, antimarxismoan eta abarrean oinarritutako programa politiko batekin eta, aldiz, EAJ erdian jartzen zelako doktrina demokristau, autonomia-estatutu eta erlijio katolikoaren defentsarekin. Hirugarren polo bat ezkerria izan zen, bi taldez osatuta zegoena: lehen taldea PCE zen, estatutuari uko egiten ziona burgesa zelako, nahiz eta gero autodeterminazioa eskatzen zuen Euskadirako, baita independentzia ere; eta bigarren taldean 1931ko konstituzioa eta Azañaren gobernuaren lana defendatzen zuten gainontzeko alderdiak zeuden.

Hauteskunde hauetan hautesleen kopurua ia ez zen %2an ere handitu 1931ko ekainean egindako Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeekin aldentuta. Hala ere, emakumeen sufragioa onartzeak Euskal Herriko hautesle-errola %119 handitzea ekarri zuen, eta Busturiko kasu zehatzean %203,27 handitu zen. Honek esan nahi du 1933ko urriaren 4an egin ziren Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan hautesleen mobilizazioa pixka bat handitu zela, baina 1931n egindakoekin aldentuta botoa eman zuten biztanleen kopurua bikoitza baino handiagoa izan zela. 1933ko urriaren hauteskundeetan Busturian botoa eman zutenetatik %48,25 inguru emakumeak izan ziren⁷⁸.

Udalerriko hauteskunde-emitzek EAJren garaipen argi bat erakusten dute, guztira %63,25 boto lortu baitzuten, Renovación Española eta Comución Tradicionalista alderdiek osatutako eskuineko koalizioarekin konparatuta, botoen %16 lortu baitzuten. Beste alde batetik, Ekintza Errepublikanoak lortutako emaitza azpimarratu behar da, gainontzeko botoen %20,75 lortu baitzuen. Nahiz eta emakumeen botoak Renovación Española eta Comución Tradicionalista eskuineko alderdiei mesede egin zien dirudien, funtsezkoa izan zen ere EAJren emaitza eztabaida ezina ulertzeko⁷⁹.

Laburbilduz, hauteskunde horietan EAJk bere historia luzeko emaitza onenak lortu zituen Bizkaia eta Gipuzkoan, baita Araban ere, Nafarroan ez bezala. Eskuinak zazpi aulki lortu zituen Nafarroan eta bakarra Euskal Herrian. Ezkerraren porrota hauteskunde hauetan gobernuaren higaduraren, hautesleen zatiketaren eta, neurri txikiago batean, emakumeen botoaren erruz izan zen. Espainian ere ezkerrek porrot egin zuen eta garaipena lortu zuten zentroak (Lerroux-en Alderdi Erradikala) eta eskuinak (Gil Robles-en CEDA). Azken honek bigarren bihurtzekoan gobernatu zuen (de la Granja, 2007).

3.2.3. 1936

Hauteskunde hauei zegokion legedia aurrekoa arautu zuen berbera izan zen, 1933ko uztailaren 27ko legea, zentro-eskuineko gorteek ez zirelako lege berri bat onartzeko gai izan 1935ean zehar. Hauteskunde hauek Portela Valladaresen gobernuak iragarri zituen 1936ko otsailaren 16rako eta 1934-1935eko gobernu erradikal-zedistekin haustea zekarten, zentroa bata bestearen aurka zeuden bi aldeen arbitro bihurtu zedin.

78. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02080/018.

79. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0023/037; Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02080/018.

Parlamentuan zentroko diputatuen gutxiengo bat sartzea lortu behar zuen, baina gutxiengo horrek polarizazio politikoa arintzeko eta eskuinak gobernua erregimen autoritario baterantz bideratu ez zezan bermatzeko handi samar izan behar zuen. Hauteskunde hauek bipolarrak izan ziren estatuko alde gehienetan, eskuineko koalizioak eta Fronte Popular izeneko ezkerreko koalizioak bata besteari aurka egin baitzioten, baina Euskal Herrian hiru aldeko dimentsioa hartu zuten EAJ borrokan sartu baitzen.

1936ko urtarrilaren amaieran Busturiko EAJko udal-batzordeari, inguruko beste udalerrien artean, Gernikako batzokian egin zen bilera batera deitu zioten hauteskunde-batzordea zela eta (*Euzkadi*, 1936/01/31). EAJko abertzaleek iragartzen zuten 1936ko otsailaren 9rako hauteskunde-propagandaren ekintzak hasiko zirela Busturian Altamirako eskoletan mitin bat eginez. Nahiz eta hizlarien izenak hainbat aldiz aldatu ziren, azkenean hurrengo hizlari euskaldunak joan ziren: Andoni Ruiz de Asua, Ogoñope eta Lino Argintxona (*Euzkadi*, 1936/01/30; 1936/01/31; 1936/02/09; *El Noticiero Bilbaíno*, 1936/02/09; 1936/02/11). Udalerriko bi batzokiek, 1931n sortu izan zirenak, propaganda-armategi oso bat erabili zuten, eta egun batzuk geroago Axpen egingo zen kontzentrazio baten iragarpena gehitu zen, non Vicente de Biteri, Esteban Urkiaga eta Lino Argintxona bezalako hizlariak parte hartuko zuten otsailaren 8an (*Euzkadi*, 1936/01/31; *El Noticiero Bilbaíno*, 1936/02/09). Azkenik, azpimarratuko dugu Busturiko udal-batzordea *Bizkai Buru Batzarreko* kide batek bisitatu zuela, Hauteskunde-propagandako Batzordeko kide batez eta barrutiko hainbat hautagaiez lagunduta. Beste herri batzuen artean, hurrengoak bisitatu zituzten: Forua, Sukarrieta, Murelaga... (*Euzkadi*, 1936/02/14).

Fronte Popularreko hauteskunde-batzordeak Gernikako Herriko Etxean otsailaren 2an egingo zen bilera bati deitu zien hurrengo herrien hauteskunde-batzordeen ordezkariak: Ibarrangelu, Forua, Elantxobe, Ereño, Arteaga, Kortezubi, Mendata, Muxika, Zugastueta, Murueta, Busturia eta Ajangiz (*El Liberal*, 1936/02/01). Ezkerraren propaganda laster agertu zen Busturian. Otsailaren 8an egin zen mitin nazionalistarekin batera, Fronte Popularrak beste bat egin zuen non hizlariak Pedro López Arechaga, David Tudea eta Fermín Santos izan ziren (*El Liberal*, 1936/02/05). Hurrengo egunean beste mitin bat egin zuten Altamirako auzoan, Gorriño etxean, eta hizlariak Ángel Orrantia, Agustín Zapirain eta Ambrosio Garbisu izan ziren (*El Liberal*, 1936/02/07; 1936/02/08; *El Noticiero Bilbaíno*, 1936/02/11). 1936ko otsailaren 12an Fronte Popularreko eta EAJko propaganda ekintzak errepikatu ziren udalerrian, eta hizlariak Fronte Popularren alde Juan Soloaga (euskaraz) eta David Tudea izan ziren. Altamiran Sollubepe nazionalistak eta Vicente Etxezarragak parte hartu zuten (*Euzkadi*, 1936/02/09; *El Liberal*, 1936/02/11).

EAJko nazionalistek eskuinari botoak lortzeko kalumnia, gezurra eta jauntxokeria-praktikak erabiltzea leporatu zioten. *Euzkadi* egunkariak argitaratu zuen Ibarra etxeko ikuskatzailea Busturian egon zela merkataritzako ontzidian ontziratuta zeuden langileen senideak hertsatzen. Kandidatura monarkikoaren aldeko botoa eskatzen zien, eta ematen ez bazuten, ontziratuta zeudenak kaleratuko zituela mehatxu egiten zuen. Antzeko hertsapena egin zuen Palmira Arróteguik Busturiko hainbat baserrian, egunkari nazionalistaren hitzetan (*Euzkadi*, 1936/02/16). Eztabaida politikoa autonomia-kontuak berriro zuzentzen zuela, EAJ ez zuen zalantzarik izan iraultzaren aurkako mintzaira erabiltzeko eta eskuin katolikoaren botoa bilatzeko. Baina eskuinak ezkerrarekin batera joateaz akusatzen zuen EAJ eta, ondorioz, iraultzailea izateaz.

1936ko otsailaren 16ko kanpainan hautesleen %68,89k hartu zuen parte Busturian, Bizkaia-probintziako barrutian baino %9 inguru gutxiago. Hala ere, partaidetza %3,33 igo zen 1933ko azaroaren hauteskudeekin aldentuta. Botazioetan emakumeen botoa ehuneko txiki batean igo zen, %2,84⁸⁰.

Nahiz eta EAJK, guztira botoen %62,02 lortuta, udalerriko lehen indar politikoa izaten jarraitu zuen, gorte konstituziogileetarako azken hauteskudeekin alderatuta boto batzuk galdu zituen. Honen ondorioz eskuineko beste alderdi batzuk, Comución Tradicionalista edo Renovación Española adibidez, 1933ko azaroaren 19ko hauteskudeekin aldentuta emaitzak hobetu zituzten, %3,95 boto gehiago lortuz. Dena den, harrigarria da ikustea ezkerreko alderdiek udalerrian emaitza txarrenak lortu zituztela Fronte Popularreko hauteskudeetan, PSOEek eta Batasun Errepublikanoak botoen %7,02 lortu baitzuten⁸¹.

Udalerrian Fronte Popularrak emaitza txarra izan zuen arren, ezkerreko koalizioa garaile argia izan zen 1936ko otsailaren hauteskudeetan Espainian. EAJK hauteskunde-atzerapen bat jasan zuen, bere jarrera politiko berriak kontrako bi blokeen artean bakartu baitzuen. Eragina izan zuten ere katoliko neutroen laguntzaren galerak, eskuinak haien katolikotasuna zalantzan jarri baitzuen, estatutu-geldialdiak eta alderdiaren barneko kontraesanek, eskuineko ideologia zuen alderdi batean ezkerak egiten zuen antzeko praxia ikusten baitzen (de la Granja, 2007).

Bizkaia, Araban eta Gipuzkoan, 1933ko uztailaren 27ko hauteskunde-aldaketarako legearen arabera, ez ziren diputatua izateko beharrezkoak ziren botoak lortu. Ondorioz bigarren buelta bat egin zen 1936ko otsailaren 23an, zegokion hauteskunde-propagandarekin (*Euzkadi*, 1936/02/25). Bigarren bueltan partaidetza %3,96 jaitsi zen Busturiko azken hauteskundearen ondoren, nahiz eta emakumeen botoa %2,78 igo zen. Bigarren bueltaren emaitzek lehenengo bueltarenak baieztatu zituzten, boto kopuruetan oso aldaketa gutxi eta garrantzi gabekoak egon baitziren⁸². Bigarren buelta honek EAJren boterea berretsi zuen Euskadin eta Fronte Popularraren garai-pena Espainian.

Azkenik, Errepublikako presidente berria izendatzeko konpromisarioak hautatzeko 1936ko apirilaren 26an egin ziren hauteskundeak aipatu behar dira. Prietoren proposamenari jarraituz Gorteek Errepublikako presidentetza kendu zioten Alcalá Zamorari. EAJKo diputatuek kargugabetzearen alde bozkatu zuten Fronte Popularrarekin batera; aldiz, eskuina abstenitu egin zen. Apirilaren 26an konpromisarioak hautatu ziren, zeinek, diputatuekin batera, Espainiako estatuburua hautatuko zuten. EAJK eta eskuinek abstenitzea erabaki zuten bitartean, Nafarroan Iraultzakontrako Blokeak hautagai bezala aurkeztu zituen Comución Tradicionalista alderdiko presidentea eta sei foru-diputatu. Ezkerrek elkarrekin aurkeztu ziren: Euskadiko probintzietan “kopora joan” ziren etsairik ez zutelako, eta “gehiengoak lortzera” joan ziren Nafarroan, non 1936ko otsailaren hauteskudeetako kandidatura errepikatzen zen eta Blokeari aurre egiten zioten (de la

80. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02093/032; AJ02095/004; Udal Atala. Busturia 0023/036.

81. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02093/032; AJ02095/004; Udal saila. Busturia 0023/036.

82. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02097/020; AJ02099/011.

Granja, 2008). Partaidetza hauteskundeetan oso txikia izan zen, hautesleen %6,55ek inguru bakarrik eman zuen botoa, eta honen %17,94 emakumeek eman zuten. PSOEk eta IRk botoen %79,54 lortu zuten⁸³.

3.3. Alderdi politikoak eta indarkeria politikoa

3.3.1. Euzko Alderdi Jeltzalea

Euzko Alderdi Jeltzalea oso indar garrantzitsua izan zen udalerrian XIX. mendearen amaieran sortu zenetik. Izan ere, EAJko ideologo handi eta bakarra, Sabino Arana Goiri, 1900eko otsailaren 2an ezkondu zen Busturiko baserriar xume eta eskolagabe batekin: Nicolasa Achicallende Iturri. 1882an Sabino Arana karlismotik nazionalismora igaro zen bere anaia Luisen eraginez, eta hamabi urte geroago lehen gune nazionalista sortu zuen Bilbon, *Euzkeldun Batzokija*, non lehen aldiz igo zen Arana anaiek diseinatutako euskal entseina. Urte bat geroago Euzko Alderdi Jeltzalea eratu zen eta Sabino bera izan zen bere presidentea. 1895eko irailaren 12a baino pixka bat lehenago, *Euzkeldun Batzokija* ixteko aginduarekin, Bizkaian eratu zen lehen gune nazionalista funtzionatzen hasi zen, Busturiko herrian, eta *Euzkeldun Batzokija* eta gero lehen erakunde nazionalista izan zen. Aipatutako jazarpena hasi zenean, era erdi klandestinoan funtzionatu eta erakundearen bandera ezkutatu behar izan zuen (une hartan existitzen zen bandera bakarra), itxiera oso denbora gutxigatik Bilbokoaren ondoren izan baitzen. Arana Goiri anaiek Busturiko jaiak aprobetxatu zituzten, 1897ko irailaren 8an, meza bat antolatzeko eta bertan San Inazioren Martxa abesteko. Aurreko gauean Busturiko ikurrina Kafranga (Canala) baserrian jarri zuten baina goizean Guardia Zibilak kendu zuen (*Euzkadi*, 1935/07/14)⁸⁴.

“*Busturitar Batzoki*” berriaren inaugurazioa 1919ko apirilaren 27rako aurreikusten zen. Inaugurazioan hurrengo ekintzak egingo ziren: Busturia eta inguruko herrietako jeltkideek kantatutako Meza Nagusian bandera bedekintzea, Ángel Arrien parrokoak areto berria bedekintzea, oturuntza bat eta euskal erromeria bat. Hala ere, Busturiko alkateak ez zuen festa egiteko baimena eman eta atzeratu egin zen jakinarazpen berri bat egin arte (*Euzkadi*, 1919/04/13; 1919/04/26; 1919/05/11). Izaera politiko hutsa zuten jardueretatik aparte (harpidetzak hartzea, omenaldietara joatea, izaera politikoko hitzaldiak ematea), Busturiko batzokiak kirol- eta kultura-jarduera garrantzitsuak garatu zituen, azken kasu honetan euskal antzerkiak eta erromeriak antolatuz (*Euzkadi*, 1919/03/02; 1919/03/03; 1919/10/29; 1921/05/08; 1921/11/20; 1922/09/19). Azkenik, kirolagatik euskal jeltzaleek zuten zaletasunak, batez ere mendizaletasunak, EAJko busturiarrek ingurunean ibilaldiak egitera eraman zituen ondoko herrikideekin batera. 1921eko urrian mendigoizaleen talde bat sortu zen Busturian, *Goizian-Goiz* izenekoa, eta Bakiora egin zen ibilaldi batean egin zuen aurkezpen ofiziala. Ibilaldi honetan mendigoizaleen taldearen aurrean *biribilketa*⁸⁵ alaiak eta euskal musika jotzen zituzten bi klarinetista eta danbor bat zihoazen. Gainera,

83. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02120/019; Udal Atala. Busturia 0023/036.

84. ANV-EAA. Arana Goiri Anaiei Funtsa. K seriea. 05. kutxa. 24. karpeta.

85. Kalejirak.

banderak arreta erakarri zuen bere arte-lanagatik eta originaltasunagatik. Atzealde berde baten gainean eta mutur batean eguzki bat nabarmentzen zen eta bertatik bost izpi ateratzen ziren goiko alderantz, non txiki-txiki bikruziferoa agertzen zen. Argi-sorten artean bost izar zeuden elkarri lotuta Busturia osatzen zuten bost auzoak sinbolizatzen (*Euzkadi*, 1921/10/04).



Jagi-Jagi taldeko mendigozaleen argazkia. Hauen artean, ezkerretik hasita bigarrena, Tomás Uriarte ageri da (Iturria: Busturiko Udala).

Primo de Riveraren diktadura baino lehen EAJk 1921ean lehen zatiketari aurre egin zion, *Comunión Nacionalista Vasca* (autonomistak/forizaleak) eta *Aberri* (independentistak) alderdietan banatuz. Primo de Riveraren diktadura heldu zenean Guardia Zibilak gazteen aretoak, batzokiak eta aberri-elkarteak miatu eta itxi zituen, dekretu “*anti-separatista*” betez, CNVk jarrera pasibo eta epela mantentzen zuen bitartean. Gainera, Espainiaren batasunaren kontrako delituak Epaitegi Militarrek epaituko zituzten, sinbologia abertzalea debekatu zen eta euskal probintziak zatiketa administratibo berri baten azpian jarri ziren. Urte hauetan nazionalistek kultura-, erlijio- eta kirol-ekintzak erabili zituzten jarduera politikoa ezkutatzeko “*erregionalismo osasuntsutzat*” jotzen zen joeraren barruan (de Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999). Badirudi hori izan zela Busturiko mendigozaleen taldea ez desegiteko arrazoia, bere jarduerak aurrera egin baitzuen Errepublika garaian.

1930eko irailaren 16an EAJ berriz bateratzeko biltzarra egin zen Bergaran. 1931ko apirilaren 14tik aurrera marko politiko berri bat zabaltzean EAJk inoiz baino indar handiagoa zuen. Modu horretan, gune nazionalista baten inaugurazioa Busturian berehala egin zen. 1931ko abuztuaren 2an *Euzkadi* egunkariak jakinarazi zuen Busturiko batzokia abuztuaren 9an inauguratuko zela, Altamirako auzoan, Abando eta Gaminizko batzokiekin batera (*Euzkadi*, 1931/08/02). Egunkari jeltkideak argi utzi zuen herrian alderdiaren oinarria, eta nazionalismoarena orokorrean, landa eremuan eta baserritarraren irudian zetzala. Altamirako batzokiak ehun kide inguru zituen egunkari beraren arabera (*Euzkadi*, 1931/08/05). Inaugurazioaren egunean ekintza ugari egin ziren eta erlijioa, kultura, kirola eta erreibindikazio politikoa bateratu ziren: txistularien biribilketa, alderditik joan ziren beste toki-batzordeak hartzea, herriko emakumeek eta Bilboko euskal gaztedia kantatutako meza ospetsua, aretoa eta bandera bedeinkatzea, Bermeoko txikien taldeek dantzatutako aurrekuak eta ezpata dantzak eta gorulariak, batzokian egindako oturuntza, baieztapen nazionalistako mitin bat eta, bukatzeko, bertsolariak eta euskal erromeria. Oihu honen bidez, “*!Vasco: la patria te llama, escucha su voz en estos momentos! !No faltéis ni uno solo!*”, herritarrek mobilizatzen ziren (*Euzkadi*, 1931/08/05; 1931/08/06; 1931/08/07; 1931/08/08; 1931/08/09; *La Tarde*, 1931/08/07). Inaugurazio ekintzetan ez ziren falta inguruko herrikideak, Bermeoko *Beti-Gazteko* edo Gernikako *Txara-Txara* taldeetako mendigoizaleak adibidez, edo azken herri honetako batzokiaren abeslariak eta Mundakako gune nazionalistara afiliatutakoak, eta horrela Busturian egin ziren ekintza hauek “izugarriko garrantzia” izan zuten (“*extraordinaria importancia*” jatorrizko testuan) eta jende hau joateak “inaugurazioari ospea eman zion” (“*dieron realce a la inauguración*” jatorrizko testuan). (*Euzkadi*, 1931/08/07; 1931/08/08; 1931/08/10). Inguruko kideen bisitak gero busturiar jeltkideek itzultzen zituzten, eta horrela adierazten dute Arrieta, Hondarribia edo Fruizera egindako martxak, bakoitzari zegokion batzokia inauguratzean, edo Eibarko *Aberrri-Etxea* inauguratzeko ekintzara egindako martxa (*Euzkadi*, 1932/06/09; 1932/07/20; 1933/05/31; *Euzkadi*, 1935/08/25).



Tomás Uriarteren argazkia 1935. urtearen inguruan mendigoizalez jantzita (Iturria: Busturiko Udala).

Emakume jeltkideari dagokionez, Busturian Bizkaiko lehen batzokia inauguratu zenean XIX. mendearen bukaeran, emakume batek ikurrinari musu eman zion inaugurazio hartan eta Sabino Aranak zera esan zuen profetikoki: “*Si las mujeres comienzan amando a la patria, pronto liberrarán*” (*Euzkadi*, 1933/06/12). Errepublika garaian EAJk bere artikulazio politikoa aldatu zuen herrian. *Euzko Gastetxu Batza* atala sortu zen, *gastetxu* izenez ezagutuko zirenak, eta emakume jeltkidearen antolaketa politikoa 1922an sortu zen *Emakume Abertzaile Batzaren* inguruan egin zen, baina bere gailurra Errepublika garaian

izan zen, Primo de Riveraren diktaduran ere jazarria izan baitzen. Zenbait aurrekari dau- den arren, 1908ko “*euskal arropategia*” edo 1921eko *Begoñako Amaren Sorospen Batzorde Abertzalea* adibidez, *Ambrose V. Martin O’Daly* irlandarraren hitzaldia izan zen emakumeak mobilizatu zituena, Euskadin emakume nazionalen erakunde bat sortzeko proposamena eginez, *Cumann na mBan* erakunde irlandarraren antzera. *Sinn Fein*-eko herrikide irlandar bat zen eta Busturian hitzaldi bat ematera iritsi zen Errepublika garaian (*Euzkadi*, 1932/07/05). Emakumeek ohituren, kulturaren eta euskararen moralala eta erlijioa mantentzeko funtsezko oinarria izan behar zuten.

1931ko azaroaren hasieran, *Euzkadi* egunkariak jakinarazi zuen tokiko *Emakume Abertzale Batza* antolatzeko asmoz, Altamirako auzoko emakume guztiei eskatzen zitzaizela batzar batera joatea. Mitinetatik ere deialdiak egiten zitzairen herriko emakumeei Batza eratzen joan zitezten. 1931ko abenduaren 3an Altamirako *Emakume Abertzale Batza* eratu zen, eta 1932ko ekainerako 62 afiliatu zituen eta presidentea Eugenia Cearra zen (*Euzkadi*, 1931/11/11; 1931/11/15; 1931/12/16)⁸⁶. Baina 1932ko uztai- laren 24ra arte emakumeek ez zuten bere elkartearen inaugurazioa handitasunez ospatu mendigoizaleen tokiko taldearen partaidetza izan zuen ekitaldien programa bate- kin. Ekitaldiak auzo bereko batzokia zabaldu zenean egin zirenen antzekoak izan ziren: izaera abertzaleko berbaldiak, biribilketa alaiak, meza, erakunde herrikideen batzordeen abegia, Iñaki Deuna abestea, ezpata dantza, oturuntza eta euskaraz egindako mitinak. (*Euzkadi*, 1932/07/21; 1932/07/31).

1931ko abenduaren 20an idatzitako gutun batean José María Gogeoascochea *jelki- deak* hurrengo adierazi zion *Bizkai Buru Batzarrari*: “*Estando ya muy adelantados los trámites para la constitución del Batzoki de Busturia (barrio de axpe), celebramos ayer la Junta general para la elección de la Junta Directiva*”⁸⁷. Honek esan nahi du 1931ko abenduaren 19tik Axpeko batzokiaren batzordea eratuta egon zela. Hala ere, ez zen aur- kezpen ofizialik egin ia urte bat igaro arte, noizean behin jardueraren bat antolatu arren. *Euzkadi* egunkariak argitaratu zuen 1932ko irailaren 2an hiru euskal gun e abertzale inauguratuko zirela: *batzokia*, *Euzko Gastetxu Batza* eta *Emakume Abertzale Batza*. Ekitaldiak orain arte aipatutakoen antzekoak ziren: Gonbidatutako eta bertako banderen bedeinkazioa, mezak egitea, ohorezko aurrekua, ezpata dantza, gorulariak, oturuntza, mitina Ispiluetako zelaian Bizkai Buru Batzarreko kideekin, bertsolariak eta euskal erro- meriak (*Euzkadi*, 1932/09/25; 1932/10/01; 1932/10/03; 1932/10/04)⁸⁸.

Udalerrian bi batzoki zeuden arren, Casiano de Abiña abertzaleak zera adierazi zion BBBri:

“Busturia-Axpe y Busturia-Altamira que todo ello es un pueblo, no hay mas diferencia, que, Axpe y Altamira son dos de los barrios de un pueblo que se hallan bastante separados del uno al otro, asi es que las dos liquidaciones recibidas en esa últimamente son tanto como de Axpe y Altamira de dos en total y cuando hay alguna cosa nueva se avisará ha esa oportunamente”⁸⁹.

86. MHZD. PS Bilbao. 210. kutxa. 08. txostena.

87. MHZD. PS Bilbao. 190. kutxa. 03. txostena.

88. ANV-EAA. Ekarpem Pertsonaleko Funtsa. 1089. kutxa. 01. karpeta.

89. MHZD. PS Bilbao. 209. kutxa. 04. txostena.

Hau da, gune independenteak ziren udal-artikulazio politiko jeltzalearen barruan, baina, alderdiaren administrazioari begira, gune bakar bezala funtzionatzen zuten. Aipatutako gutunak honela jarraitzen zuen:

“Cuando escriban a Juan Oxinaga y a un servidor no hace falta poner en la dirección ni Axpe ni Altamira (somos dos que no vivíamos en el barrio de Altamira) ni al mismo Carmelo Llantada que no viven en el barrio de Altamira si no en el de San Cristóbal”.

Honek idatziz jasotzen du Busturiko beste auzoen jeltzaleak, San Kristobalekoak edo San Bartolomekoak adibidez, bi guneetara afiliatuta egon zirela. 1934. urtean nazionalismoak 169 afiliatu izan zituen batzokira, eta horietatik %54,44 Axpen afiliatuta zeuden. Gainera 162 emakume egon ziren militatzen EABn, eta Axpeko erakundeak horietako %61,72 izan zituen. Azkenik, *Euzko Gastetxu Batzak* 130 afiliatu zituen urte berean, eta afiliatu horien %50,76 neskatokak ziren⁹⁰.

Eusko Langileen Alkartasuna sindikatu jeltzaleak ere toki-elkarte bat eratu zuen Busturian. 1934ko ekainaren 11n Félix de Barrenechea Bilbaok, Gernikan bizi baina Eraikuntzako Industriako presidenteordeak, batzokian bilera bat egiteko baimena eskatu zion Busturiko alkateari Eusko Langileen Elkarte eratzeko xedearekin⁹¹. Bi egun geroago Eusko Langileen Elkarte eratu zen Asensio Elguezábal Amunátegui jeltzalearekin presidente gisa⁹². ELAko Eraikuntzako toki-elkarteen federazioa sortu eta gero, 1934ko apirilaren 8an, toki-elkarte berriak sortu ziren Busturiko bezalakoari gehituz (*Euzkadi*, 1934/03/25; 1935/12/11). Jakina, Busturia bezalako landa-eskualde batean, ezin zen falta *Euzko Nekazari Bazkuna* toki-elkarte, 1935eko uztailaren 7an sortua eta aurrekari bezala Busturiko Nekazari Elkarte zuena (*Euzkadi*, 1935/07/05; 1935/07/10; *La Tarde*, 1935/07/06)⁹³.

Garaiko EAJko kideen katolizismoa ezin da zalantzan jarri, batez ere kontuan hartzen badugu gai erlijiosoak eta politikoak nahasten zituzten ekitaldien kopurua, lan honetan aipatu dugun bezala Busturiko toki-guneak inauguratzean egiten ziren ekitaldiak azaldu ditugunean. Ekitaldi hauetan elizbarrutiko apezpikuari ere telegrama bat bidali zitzaion: “*Euzko Batzokija, Emakume Abertzale Batza y Gastetxus de Busturia, en el día de inauguración de sus respectivos Batzokis, saludan a su buen y amado prelado*” (*Euzkadi*, 1932/10/04). Horrela, udalerrian Sabino Aranaren “*arimarengatik*” mezak egitea alde horren adierazpen handiena izan zen (*Euzkadi*, 1931/11/27; 1931/07/28; 1931/11/29; 1932/11/23; 1934/11/18). Eta gauza bera esan dezakegu indarkeria politikoaren ondorioz hildako Busturiko herrikideengatik egindako mezei buruz, non jeltzaleak martiri mailara jasoak izan ziren, orokorrean erlijio kutsuekin (*Euzkadi*, 1931/10/02; 1931/10/06; 1934/11/18).

90. MHZD. PS Bilbao. 209. kutxa. 04. txostena; 249. kutxa. 08. txostena; 126. kutxa. 01. txostena; 126. kutxa. 01. txostena.

91. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0031/053.

92. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0031/054.

93. MHZD. PS Bilbao. 249. kutxa. 08. txostena.

Errepublikako urteetan Altamirako eta Axpeko batzokietan euskal historia eta politikari buruzko mitinak eta hitzaldiak eman ziren, EAJko afiliatu ospetsuen partaidetza-rekin (*Euzkadi*, 1931/11/08; 1931/12/30; 1932/01/16; 1932/06/04; 1932/06/26; 1932/06/23; 1932/07/05; 1932/07/21; 1932/09/29; 1932/09/30; 1932/09/30; 1932/12/18; 1932/12/06; *La Tarde*, 1931/12/07; 1932/10/01; 1931/12/05). Gainera, harpidetza ugari zabaltzen zituzten hurrengoak finantzatzeko: hondamendi naturalengatik kalteak izan zituzten afiliatuak, istripuak, beste toki-erakundeen banderak edo, beste askoren artean, alderdiko preso politikoak, Andoni Garmendia busturiarren kasua zen bezala (*Euzkadi*, 1933/06/22; 1933/07/07; 1933/08/18; 1933/09/30; 1934/06/08; 1935/02/10).



1936 urtean Gernikan ospatutako Aberri Eguna zela eta Busturialdeko kontzentrazio-deialdian elkartu zen lagun taldearen argazkia kalean (Iturria: Busturiko Udala).

Edozein une egokia zen erreibindikazio politikoak egiteko eta EAJren xedeak defendatzeko. Hori zen, adibidez, *Agate Deuna*⁹⁴ eguna ospatzearen arrazoia, non sexu bietako gazteak herrian zehar ibiltzen ziren abesti tradizionalak kantatzen eta alderdia defendatzen. Adibidez, emakumeek 1935ean bildutako dirua EAJko preso politikoak laguntzeko

94. Deuna Agateren bezperan, otsailaren 5aren aurreko eguna, ohitura da Euskal Herrian, Nafarroan eta Iparralden Deuna Agateren abestia kantatzera irtetea.

eman zuten (*Euzkadi*, 1933/02/12; 1934/02/04; 1935/02/10; 1935/02/14). Azkenik, tokiko abertzaleek ekitaldi politikoak, kulturalak eta kiroletakoak nahasten zituztela argi ikus daiteke, adibideak ugariak baitira: euskal erromerien antolaketa, egunkari aber-tzaleen banaketa, herriko jaietan nazionalismoko berezko musika sartzea, antzerki-lan-nak egitea edo ibilaldiak antolatzea (*Euzkadi*, 1932/05/05; 1932/05/13; 1932/09/29; 1933/02/12; 1934/02/04; 1935/02/10; 1935/02/14; 1934/03/27; 1935/05/30; 1935/08/25; 1936/06/30)⁹⁵.

3.3.2. Errepublikanoak

1931ko apirilaren 14an Errepublika aldarrikatzean, laster antolatu ziren ezkerren lehen elkarteak Busturian. Tokiko elkarten eraketa egiaztatu ondoren eta 1931ko ekai-naren 28ko hauteskundeetara aurkeztuko zen Bizkaiko probintziaren barrutiko ezkerren hautagaiaren aurre-bozkaketa zela eta, tokiko elkarte errepublikanoei eskatu zitzaie-n (*Busturikoa* barne) bozketa horren akta (*El Liberal*, 1931/06/21). Hau da, 1931ko ekai-naren 21a baino lehen bazegoen herrian Elkarte Errepublikano Erradikal Sozialista bat. Garrantzitsua da azpimarratzea *El Liberal* egunkariak egiten zuen zehaztasuna alderdiari buruz, *Euzkadi* egunkariak argitaratutako berriei erantzuna emanez: “*Dése cuenta dicho señor de que ellos son “socialistas” y nosotros “radicales socialistas”; fjese en el ape-lido*” (*El Liberal*, 1932/04/27; *Euzkadi*, 1932/04/24).

Alderdi Errepublikano Erradikal Sozialistaren (PRRS) III. Aparteko Kongresu Nazionalean, Madrilen egin zena, banatu ziren alderdiaren joerari jarraitu nahi ziotenak, Gordón Ordasek ordezkatuak, eta Alderdi Errepublikano Erradikal Sozialista Independentea izena hartu zutenak, Marcelino Domingori jarraituz. Azterketa sakon baten ondoren, Busturian aho batez erabaki zuten independentean sartzera. Francisco Gorriño Guarrochena presi-dentearen arabera, erabaki honen arrazoia hurrengoan zen: “*(la escisión era el) verdadero espíritu democrático de la República española*”. PRRSko Bizkaiko Batzorde Betearazle osoak 1933ko urriaren 11n egin zuen aparteko bileran “Alderdi Erradikal Sozialista Independentearen Probintzia-Batzorde Betearazlea” bitarteko izaeraz eratzea erabaki zen, probintziako tokiko elkarte guztiek PRRSren diziplinatik banatzea, III. Kongresuaren erabakiak ez obeditzea eta independente egitea onartu zutelako, afiliatuen %80arekin. Honek probintzian alderdia berrantolatzea ekarri zuen. Hau izan zen Bizkaiko Elkarte Erradikal Sozialista Independenteen Kongresu Probintziala urriaren 22rako iragartzearen arrazoia, hurrengo gaiak eztabaidatzeko asmoz: probintziaren etorkizunerako anto-laketa, diputatuak aukeratzeko hauteskundeak, euskal estatutua, Aldundiaren politika eta, azkenik, Batzorde Betearazlearen behin betiko eraketa (*El Liberal*, 1933/10/14; 1933/10/15; 1933/10/20).

Ekintza Errepublikanoa, Alderdi Errepublikano Erradikal Sozialista Independentea eta Erakunde Errepublikano Galego Autonomoa alderdien deuseztapenarekin (bakoitzaren presidenteak Manuel Azaña, Marcelino Domingo eta Santiago Casares Quiroga zirela, hurrenez hurren), Ezker Errepublikanoa sortu zen 1934ko apirilaren hasieran. 1934ko

95. MHZD. PS Bilbao. 126. kutxa. 01. txostena; 149. kutxa. 01; 02; 03. txostena; 176. kutxa. 01; 05; 06; 07. txostena; 179. kutxa. 03; 05. txostena; 209. kutxa. 04. txostena; 209. kutxa. 04. txostena; 210. kutxa. 08. txostena; 166. kutxa. 10. Txostena. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0031/007.

ekainean PRRSiko tokiko elkarteak Bizkaiko gobernadore zibilarri eskatu zion Ezker Errepublikanoa Busturian eratzeari buruz eztabaidatzeko baimena, urte bereko irailerako jadanik eratuta zegoena Mariano Zabala presidente zela⁹⁶.

Busturian segidako erakunde errepublikanoen jarduera politikoa, Alderdi Errepublikano Erradikal Sozialista, Alderdi Errepublikano Erradikal Sozialista Independentea zein Ezker Errepublikanoa izan, jeltkideek egindakoa baino askoz txikiagoa izan zen. Busturiko errepublikanoek garrantzi handiagoa zuten ondoko herrietan egiten ziren ekitaldietara joaten ziren, eta ez zuten berezko ekitaldi askorik egiten toki-mailan. Ezagutzen diren herriko ekitaldien artean 1932ko apirilean egin ziren lagunarteko izaera zuen dantza bat eta mitin bat daude, eta azken honetara sartzeko afiliatutartela beharrezkoa izan zen (*El Liberal*, 1932/02/20; 1932/02/21; 1932/04/27). Tokiko errepublikanoen atxikimenduak eta protestak telegrama forman ezin ziren falta. Adibidez, PRRS Revillaren kontra ezarritako kanpaina abertzalearen kontra azaltzen zen, zeina gobernadore zibilak “gehiegikeria probokatzaileren, erreazio separatistaren eta Errepublikaren etsaien” aurka (“*desmanes provocadores reacción separatista enemigos de la República*” jatorrizko testuan) jarduten zuela defendatzen iristen zen, eta, aldi berean, Manuel Azaña eta Luis Belloren askapenaren ostera haien aldeko txera eta sinpatia erakusten zituen. Telegrama horiek argi uzten dute errepublikanismoa eta sozialismoa euskal nazionalismora pixkanaka hurbiltzen direla (*El Liberal*, 1933/08/15; 1935/01/02).

3.3.3. Indarkeria, asaldura eta probokazio politikoa Busturian

Espainako Errepublikaren garaian indarkeria politikoa ez zen errealitate ezezagun bat izan Busturiko biztanleentzat. Herrian idatziz jaso zen indarkeriako lehen ekintza Altamirako batzokia inauguratu zenean gertatu zen. Adierazpen nazionalistaren mitina egiten ari zenean gertatu zen, inaugurazio ekitaldietan, *El Liberal* egunkariaren arabera herriko udal-maisuak, Eusebio Mendoza Foruria, hizlarien kontra hitz egin zuenean eta bertan zeuden jeltkideek jipoitzea erabaki zutenean:

“no había pronunciado diez palabras, una horda vascorromana se echó encima del maestro, agarrándole por el cuello y dándole de patadas, mientras otros píos vaticanistas lo insultaban groseramente (...) El maestro había votado a favor de la candidatura republicanosocialista. A raíz de ello, el Ayuntamiento nacionalista quiso darle un voto de censura, fundándose en que un maestro no debía hacer propaganda de ideas políticas. La jugarreta no prosperó, porque se denunció públicamente la absurda pretensión, según saben los lectores de EL LIBERAL. El epílogo ha sido inicuo atropello indicado” (*El Liberal*, 1931/08/14).

Altamiran eta beste inaugurazio baten erdian, oraingoan EABko lokaletakoa, errepublikanoak probokazio politikoan sartu ziren. *Euzkadi* egunkariak azaldu zuen herrikoak ez ziren pertsona batzuk, auzoko biztanle errepublikano/sozialista batzuekin batera, jeltkideak gogaitzen saiatu zirela akordeoi batekin bertan azalduz dantza “lotuak” jotzeko. Hala ere, emandako baimena euskal erromeria baterako zen, jeltzaleek eurek egiten

96. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0031/009; 0031/054.

zutena, eta otoi-deira arte iraungo zuten. *Euzkadi* egunkari jelkideak hurrengo esaten zuten gertaerari buruz:

“Pero el caso no es éste; el caso era y es de siempre molestar, y, francamente, que una minoría discorra con los pies y se empeñe en llevar a todo el mundo por senderos extraviados, sin razón ni explicación alguna y simplemente porque sí, es no lo toleran ni lo tolerarán los nacionalistas de Altamira. Que conste así y que cada cual respete las ideas de los demás, siempre y cuando que estas ideas se desarrollen en el terreno de la razón” (*Euzkadi*, 1932/07/28).

Garrantzia izan zuten beste gertaera bat Larrondo izeneko tokian gertatu zen, Busturian, non Muruetatik itzultzen ziren zenbait gaztek, mitin errepublikano-sozialista batera joan ondoren, hainbat tiro entzun zuten. Tiro hauen ustezko egile bezala León Torrezuri eta Tomás Uriarte atxilotu zituzten, biak abertzaleak. Dena den, ez dirudi lotura zegoenik atxilotuen eta gertaeraren artean. “Erasotuek” ez zuten salaketarik egin eta herriko maisua gatazka konpontzeko artekaria izan zen. Dirudenez, errepublikanoek tiroak entzutean euren aurkako eraso zela pentsatu zuten eta tiroak oso hurbil entzun zituztela dirudi bakarrik (*El Liberal*, 1931/10/24; *El Noticiero Bilbaíno*, 1931/10/24; 1935/11/25; *Euzkadi*, 1931/10/24). *Euzkadi* egunkariak interes politikoa ikusten zuten gertaera horretan eta hau adierazten zuten:

“Mientras el lunes ningún vecino escuchó disparos, ahora parece que al día siguiente sí. ¿No habrá detrás de estas idas y venidas ninguna maniobra política por parte de algún elemento que parece empeñado en sacar del suceso consecuencias interesadas?” (*Euzkadi*, 1931/10/26).

Bermeora joan zirenean kamarada sozialistei omenaldi bat egiteko, bertaratu zirenek zenbait gehiegikeria jasan zituzten, eta horien artean kontatzen zen Busturiko batzokitik Gernikako Gaztedi Sozialistaren auto bati harriak bota zirela, eta kide bat buruan zauritua izan zela. Eta Ventako auzoan Catalina Sangrador banderari sozialistari makila batekin eraso zioten eta besoan zauritu zuten. Sozialistak mehatxari eta erronkari agertzen ziren gertaera hauen aurrean:

“Si las autoridades no quieren entender de ciertos movimientos de esta gente cerril, despótica, que con una bandera nacionalista puede permitirse todo atropello, puede ocurrir, y será próximamente, que también otros hijos de vecino hagan uso de la justicia catalana (*violencia política, pistolismo*), y veremos quién sale ganando” (*El Liberal*, 1932/06/19; 1932/07/28).

Eraso gehienak ezkerren eta EAJko abertzaleen artean izan ziren arren, Busturian politikaren ondorioz zenbait eraso egon ziren benetan oinarri ekonomikoa ezkututzen zutenak. *El Liberal* egunkariaren arabera, Euskal Ekintza Nazionalistako Anacleto Ortueta ospetsuak Salustiano Arróspide auzokideari eraso egin zion Busturiko Udaletxeko korridorean, eta zenbait lesio eragin zitkion. Benetako arrazoia ez zen politikoa. Duela hamabost urte Ortuetak, Gernikako barrutiagatik diputatua izateko hautagai bezala aurkeztu zena, eragile nazionalistei bazkari ugari enkargatu zituen Francisco Gorriño eta Salustiano Arrópideren jatetxeetan. Bazkarien dirua ez zen inoiz ordaindu eta Udaletxean egin zen auzi batera Ortueta joan zenean, bi gizonek zor zen dirua eskatu zioten. Solasaldiak gehiagora egin zuten eta Anacleto Ortueta Salustiano Arróspide jotzen hasi zen (*El Liberal*, 1933/03/05).

Azkenik, esango dugu 1933ko apirilaren 23an toki-hauteskundeak egin zirenean udalerrian istiluak egon zirela. Goizean goiz Apeko bi hautesleketan “mehatxuzko airea zuten pertsona exotikoak” (“*elementos exóticos y con aire amenazador*”) jatorrizko testuan bertaratu ziren, herriko pertsona batzuekin batera, eta botoa emateko prest zuden euskal hautesle nazionalistak iraintzen hasi ziren. Hautetsontziak itxi bezain laster jardun zuten. San Bartolomeko eskolan sartu ziren, herriko pertsonek zuzenduta, eta *Euzkadi* egunkariaren galdera hurrengoa zen: “*¿Qué pretenderán? ¿Tal vez romper las urnas?*”. Erasoko Guardiak Busturian azaldu ziren Larrabetzutik Mundakara zihoan autobusean Bilbotik ailegatu ziren “gorriek” gehiegikeriak egin zituzaten eragozteko, Etxebarrin bezala, non hautetsontzi bat apurtu zuten, edo Sopelan, Berangon edo Ondarroan izandako antzeko gatazkak eragozteko. Hauteskunde hauetan EAJK udalerrian emaitza eztabaida ezina lortu zuen arren, berotasunak ez zuen kalea hartu. Jelkideek asaldura gorde zuten eta batzokian bildu ziren iritzia trukatzeko asmoz. Bermeo eta Zorrotzako mendigoizaleak, Basterrechea diputatuaren laguntzarekin, zelatan egon ziren “herriaren bakea asaldatzen” (“*turbar la paz del pueblo*”) jatorrizko testuan) saiatu ziren “pistoletako demokraten” aurrean (“*demócratas de pistola*”) jatorrizkoan). Euskal abertzaleek hurrengoa esan zuten garaipenari buruz: “*no nos sorprendió nada; la esperamos hace mucho tiempo, y nosotros las manifestaciones y fiestas las llevamos por dentro*”. 1933ko apirilaren 27an ere Erasoko Guardiaren bi kamioi agertu ziren baimenik ez zuen ekitaldi politiko jeltzale bat egingo zelako, eta azkenean ez zen egin. (*Euzkadi*, 1933/04/25; 1933/04/27; 1933/04/30; 1933/05/02; *El Noticiero Bilbaíno*, 1933/04/28).

Ez dago indarkeria edo agitazio politikoaren berririk Busturiko elizatean 1934ko urriko iraultzan. Hala ere, Busturialdean aipatzea merezi duten gertaerak gertatu ziren. Bermeoko karabineroek, mugimendu iraultzailea irauten zuten bitartean, Konpainiako David Aznares Casanovas kapitainarekin eta kontzentrazioaren tenientea zen Ángel López Alonsorekin bat eginez, herri honetako iraultzaileengandik jasandako erasoari aurre egin zioten urriaren 10eko gauean. “Trebetasun, ausardi eta pairamen izugarriekin” liskartiak menderatzeko gai izan ziren (“*extraordinario acierto, valor y abnegación*”) jatorrizko testuan). Liskartiek herritik ihes egin zuten, giroa baretu zen, eta herrian ez zen ordena publikoa berriz asaldatu, bidaiariak garraiatzeko autobus bat iraulia eta errea izan zedin eragotziz⁹⁷.

Indarkeria honen adierazgarri izan ziren ere jelkideek gatazka politikoen ondorioz hildako herrikideen omenez egindako mezak. Hor daukagu José Etxearriaren “arimarengatik” egindako meza. José Matikon zuen etxera bakarrik zihoala, eta handik ez oso urrun, pistolari talde bat bere atera heldu zen eta bere kontra su egin zuten, euskal abertzalea zelako, eta gauaren iluntasuna aprobetxatu zuten ihes egiteko (*Euzkadi*, 1931/08/02). Goizian Goiz edo EAB bezalako Busturiko talde abertzaleek bere aldeko mezak finantzatu zituzten, eta beste hainbat afiliatuk gauza bera egin zuten Matikon, Burtzeñan, Deustun, Algortan edo Balmasedan (*Euzkadi*, 1931/08/04; 1931/10/02; 1931/10/06).

97. MHZD. PS Bilbao. 204. kutxa. 13. txostena.

3.4. Estatutu-lehia Busturian

3.4.1. Aurrekariak

Errepublikak Busturira heldu zenean ikusi dugu nola Udalak, 1936ko apirilaren 16ko batzaraldian, euskal errepublika aintzatestea eskatu zuen, bere burua askatasun osoz gobernatzeko eskubidearekin⁹⁸. Desio politiko hauek Errepublikak heldu baino lehen ikus daitezke, baita Primo de Riveraren diktadura baino lehen ere. Hori adierazten du 1917an Eulogio Apraiz alkatea udalerriko ordezkari bezala Bizkaiko udalerrri guztien batzar batera bidaltzeko aho batez hartu zen erabakiak, hurrengo xedearekin: “*ver reflejadas de un modo directo en los sentimientos del País, en orden de una amplia autonomía*”. Udala hurrengo erabakiari atxiki zitzaion:

“al acuerdo adoptado por las Diputaciones vascas en el memorable acto colectivo realizado en Vitoria el día 16 de julio último, de elevar un mensaje a los Poderes públicos en el que se hace petición de una amplia autonomía para el País vasco”⁹⁹.

1918tik aurrera ikus daiteke Udaleko akta-liburuetan nola tokiko euskal nazionalismoaren zenbait pertsona ospetsu, hala nola Juan Antonio de Arguinzóniz, Celestino Lecumberri Uriarte, Marcelino Cigorraga edo Isidro Arróspide, etengabe agertzen ziren Udalaren aktetan 1839ko urriaren 25eko legeari, eta geroko xedapenei, protesta egiteko mozioak aurkezten, haien ustez lege horrek zera egiten baitzuen:

“arrebato al País vasco peninsular su originaria libertad y de modo particular contra el R.D. de 29 de Octubre de 1841 que ahogó, al amparo de la ley antes citada, la vida municipal de Bizcaya, Guipuzkoa y Alaba, al disponer que nuestros Ayuntamientos se organizaran con arreglo a las leyes y disposiciones de la monarquía española”¹⁰⁰.

Haien esanetan legea honelakoa zen: “*abolitaria de la personalidad y soberanía política de los Estados Vascos*”. Eta eraso egiten zien euskal subirotasunaren oinarritzko printzipioei¹⁰¹. Mozio horiek hurrengo urteetan eskaera ugari hartzen hasi ziren, hala nola nahitaezko soldadutza kentzea eta borondatezko edo ordaindutako batengatik aldatzea edo Marokoren aurkako gerra bukatzea¹⁰². Argi dago Udalean oposizioak euskal aber-tzaleek gutxiengoan aurkeztutako mozioei uko egiten zietela edo zuzenketak onartzen zituztela, Segundo Elguezábal zinegotziak ezarritakoa bezala:

“El Concejal que suscribe propone se vote a favor de la siguiente enmienda.- Es anhelo de Vizcaya la reintegración de sus fueros y reitera al Gobierno su ardiente deseo de restaurarlos, sin quebranto de la unidad española, derogando al efecto cuantas leyes y disposiciones se opongan a ello, bien entendido que se adopten dichas facultades a las actuales necesidades y conveniencias de Vizcaya, en armonía a las facultades del Estado español”¹⁰³.

98. 1936/04/16.

99. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0107/001.

100. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0107/001.

101. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001.

102. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001.

103. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001.

Ildo berean zebilen Manuel María Aizpurúa zinegotzia, foruak berreskuratu nahi zituelako baina Espainiako batasunaren barruan¹⁰⁴.

Antzinako pribilegioak defendatzeko egin ziren eta Busturiko Udalaren partaidetza izan zuten ekintza kolektiboen artean, Bilboko alkate nazionalistak, Mario de Arana, Busturiko Udala gonbidatu zuen 1918ko abenduaren 15ean egingo zen bilera batera, Bilboko Udaletxean, hurrengoa defendatzeko: “*las veneradas instituciones de este noble señorío, actualmente canceladas*”¹⁰⁵. Bilera honetara Busturiko ordezkari gisa Hermeregildo Lecumberri Ubillas alkatea eta Celestino Lecumberri Uriarte zinegotzia joan ziren. Mario Aranari alkate kargua kendu ondoren, Busturiko Udalak Mario Aranaren omenez diru-kopuru bat ematea erabaki zuen, Mundaka, Sukarrieta eta Bermeoko udalek bezala, aipatutako bileran foruak berreskuratzea eta udalerrien autonomia defendatzeagatik. Plaka entregatzeko ekitaldira Celestino Lecumberri Uriarte zinegotzia joan zen Aranak jaso zuen omenaldian 1919ko irailaren 14an¹⁰⁶.

Primo de Riveraren diktaduran (1923-1930) ez dut euskal foruen defentsaren dokumentu-frogarik aurkitu. Dirudenez hurrengoa argi zegoen:

“Ninguna dictadura digna de su nombre puede permitirse la aplicación de conceptos como los de descentralización y autonomía, incompatibles con la existencia misma de su espíritu, pues entrañan una disminución del poder dictatorial” (Ben Ami, 1983).

3.4.2. Autonomia Estatutua

Errepublika aldarrikatu eta gero Busturiko alkatea Bizkaiko gobernadore zibilarekin bildu zen apirilaren amaieran azken honek foruak berreskuratzeko lan egin zezan¹⁰⁷. José Antonio Agirrek Euskal Errepublika aldarrikatzean porrot egin zuela errealitate bat zen. Honek posibilismo batera eraman zuen EAJ, estatutu baten bidez; autonomia-estatutu bat idatziko zen eta gero Gorte Konstituziogileek onartuko zuten. Estrategia hau burutzeko EAJK arrazoi historikoak, foru-tradiziokoak eta legitimitate demokratikokoak argudiatu zituen, mugimendu municipalista delakoa bultzatzeko. Estrategia hau Udalek autonomia-estatutua idatzeko eta onartzeko zuten eskumen eksklusiboaren defentsan zetzan.

Maiatzaren erdialdean Busturiko Udalak Mundaka, Getxo, Bermeo eta Elorrioko alkateen idazki bat jaso zuen, “Udalen Kanpaina” izenekoa, mugimenduari atxikita zegoen ala ez jakiteko. Udalak hurrengoa azpimarratu zuen:

104. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0090/001.

105. Bilboko alkatetzaren dekretu batek Bizkaiko udalerrien bilera bat iragarri zuen autogobernu politikoa eskatzeko. Hainbat istilu egon ondoren gobernadore zibilak kargua kendu zion Arana alkateari, eta 1918ko abenduaren 20an Gabino Orbe Usabanderas izendatu zuten alkate.


106. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0108/001.

107. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

“todos y cada uno de ellos (*zinegotziak*), como buenos vascos que son, sienten vivísimo anhelo de recobrar nuestras perdidas libertades, aspirando unánimemente a la reintegración de nuestros fueros”.

Gainera, Udalak Eusko Ikaskuntzara eskakizun bat bidaltzea erabaki zuen, hauek estatutua idatz zezaten euskal udalerrien nahiei jarraituz, eta kontsulta zabalduz alderdi politiko eta pertsona ospetsuen artean¹⁰⁸.

1931ko udaberrian, EAJk karlisten laguntzarekin zuzentzen zuen udalerrri eusko-nafartarren mugimenduak, hiriburu handiak gabe hauek ezkerreko izaera zutelako, Estatutu proiektu bat idaztea eskatu zion Eusko Ikaskuntzari, eta honek Euskal Estatuaren Estatutu Orokorra egin zuten maiatzean. Estatutu honek Errepublikak eta Euskal Herriaren ikuskera federala zuen, ez zegoen banaketa argirik botere betearazlea eta legegilearen artean, sufragioa zeharkakoa zen eta Vatikanorekiko harremana Errepublikaren eskuetan uzten zuen (de la Granja, 2007). Ezkerrak politika honi eman zion erantzuna Errepublikak sendotzea izan zen arazo autonomikoen aurka eta argi utzi zuen helburuak bideratzeko gai izango zen bakarra bloke errepublikano-sozialista zela, eta haiena ez zen ekimen autonomiko guztiei ezetz esan zieten (de Pablo, Mees y Rodríguez Ranz, 1999).



Busturiko Udalak aho batez erabaki zuen Ciriaco Echevarría Uribe alkatea Lizarran egingo zen udalen batzarrera bidaltzea¹⁰⁹. Gainera, bilera horretara Busturiko Francisco Cearreta Goiri txistularia ere joan zen, arrazoi honengatik: “*por cuanto el chisti (sic) y tamboril representan indudablemente la tradición, la costumbre típica de nuestro pueblo, en la gran Asamblea del País*”. Berarekin batera Román Cearreta erregidore sindikoa joan zen udalerriko estandartearekin¹¹⁰. Lizarrako biltzar honetan ELAko estatutuak lau zuzenketa izan zituen, EAJk eta Comución Tradicionalista alderdiak proposatutakoak: eskubide politikoak egikaritzeko Euskal Herrian jaio ez zirenek bertan bizi behar zituzten urteak bitik hamarrera igo ziren; Euskal Herriak Errepublikari era eztabaidaezinean eta borondatez ematen ez zion guztiaren gainean euskal herriak subiranotasuna edukiko zuen; euskararen arauketa hezkuntzan eta, azkenik, euskal estatuaren erreserba elizarekiko harremanetan (de Pablo, Mees, Rodríguez Ranz, 1999). Zuzenketen xedea argi zegoen: Errepublikaren politika laizistari aurre egitea. Zuzenketa hauek onartzean Lizarrako Estatutua jaio zen, eskuinaren proiektua eta Gorte Konstituziogileetara

108. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

109. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

110. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

joateko hauteskunde aliantzaren oinarria. Bai EAJ bai Comución Tradicionalistaren iritziz foruak berreskuratzeko pauso bat zen (de la Granja, 2007). Hala, 1931ko ekaineko hauteskundeetan ezkerren hauteskunde propagandak Errepublika defendatu zuen eta Lizarrako Estatutuari eraso egin zion. Prietok estatutu hori antiliberala eta klerikala zela esan zuen, “*Gibraltar vatikanista*” bat sortu nahi zuela, eta Eusko Ikaskuntzak egin zuen estatutuaren proiektua defendatu zuen, zuzenketa txiki batzuekin (de la Granja, 2007).

1931ko irailaren 22an alkate eusko-nafartarrek Lizarrako Estatutua eman zioten behin-behineko gobernuaren presidenteari, une horretan Alcalá Zamora, eta hiru egun geroago 1931ko konstituzioa onartu zen. Ciriaco Echevarría Uribe alkatea Busturiko Udalaren ordezkari bezala joan zen gainontzeko ordezkariekin batera¹¹¹. Konstituzioari dagokionez, estatu bateratu edo federala izateko aukeraren aurrean, estatu integral izena zuen eredu eklektiko bat hartu zuen, egungo autonomien estatuen aurrekaria izango zena. Ez zuen estatu bateratuaren aukera hartzen monarkiarekin identifikatzen zelako eta Lehen Errepublikak oroitzen txarra zekarrelako. Horregatik, konstituzioak eskualdetan bana zitekeen estatu bat aurreikusten zuen, bi probintzia motekin: botere zentralaren menpe geratzen zirenak eta eskualde autonomoak eratzen zituztenak. Eskualde autonomoa eratzeko udalen gehiengoaren adostasuna behar zen, gero eskualde horretako hautesle-zerrendaren bi herenek baiezkoa eman behar zuten erreferendum batean eta Gorteek gehiengoz onartu behar zuen. Eskakizun hauek argi uzten dute 1931ko konstituzioaren asmo autonomista eskasa zela (de la Granja, 2007).

Gainera, 1931ko hauteskundeetatik sortu ziren ezkerreko gorteek Lizarrako Estatutua proiektu eginezinetzat jo zuten bere izaera klerikalagatik. Bere geldiketa arrazoi politikoengatik izan zen, ez juridikoengatik (de la Granja, 2007). Espainiako parlamentu batek ezin zuen estatutu proiektu bat onartu estatutu hori parlamentua osatzen zuen gehiengo errepublikano-sozialistaren funtsezko printzipio eta uste sendoen kontra joaten zenean, eratzeko unean euskal ezkerre baztertu zenean eta erregimen errepublikanoaren etsaien laguntza izan zuenean (de Pablo, Mees y Rodríguez Ranz, 1999).

Gorteetan zeuden gutxiengo eusko-nafartarren diputatuak (sei EAJkoak, bost karlista eta lau katoliko) ez ziren konstituzioa bozkatu zen egunean egon, 1931ko abenduaren 9an. Hurrengo egunean Gorteetara itzuli ziren eta nazionalistek Niceto Alcalá Zamora aukeratu zuten Errepublikako presidentea izateko, baina karlistek ez zuten egin eta hori izan zen EAJ eta karlisten arteko lehen desadostasuna (de la Granja, 2007). Gertaera honek eraketa beratik zegoen desadostasun ezkutua adierazi zuen. Konfesionaltasun katolikoak eta erregimenaren orientabide antiklerikalari egindako aurkaritzak kohezio elementuak izateari utziko zioten, zailtasun handiz bateragarriak izan daitezkeen bi proiektu politiko erakutsiz. Gainera EAJk erregimen errepublikanoaren joko-arauak onartu zituen (de Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999).

Azañaren gobernuak Indalecio Prietok idatzitako dekretu bat promulgatu zuen non proiektu autonomikoa Aldundien Batzorde Kudeatzaileei eskatzen zitzaie, eta hauek izango zuten eskumena estatutua onartzeko prozesu bat idazteko eta ezartzeko, 1931ko konstituzioaren legaltasunaren arabera (de Pablo, Mees y Rodríguez Ranz, 1999). Batzorde Kudeatzaile honek Busturiko Udalari, beste batzuen artean, 1932ko urtarilaren 31n egingo zen bilera batera deitu zion, eta bertan zehaztuko zen estatutua

111. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

probintzia guztietarako izango zen edo bakoitzak berea izango zuen. Berriz ere Ciriaco Echevarría Uribe alkatea aukeratu zuten bilerara joateko eta,aldi berean, Udalak hurrengo adierazten zuen: “*se hiciera constar que el deseo unánime de esta Corporación es que se proponga un solo Estatuto para todas estas provincias vascas*”¹¹². Batzorde Kudeatzaileen estatutua idazteko lau errepublikano, hiru sozialista, nazionalista bat, katoliko-fuerista bat eta independente bat egon ziren. Batzorde Kudeatzaileen proiektuak errepublikanoak, ez klerikalak eta autonomia gutxiagokoak ziren, Lizarrako estatutuarekin aldentzen baditugu. Demokratikoagoa zen ere, politikoki etorkinak bazterten ez zituelako eta sufragioa zuzena zelako. (de la Granja, 2007).

Autonomia politikoa lortzeko aukeraren aurrean, eskuineko koalizioa bitan banatu zen. Alde batetik EAJko euskal nazionalistak ditugu, Alcalá Zamorari lagundu ziotenak Errepublikako presidentea izan zedin, konstituzioa onartu zutenak eta estatutuaren idazketa Batzorde Kudeatzaileekin batera egin zutenak. Beste alde batetik, karlistek ez zuten modu inplizituan Errepublika aintzatesten Alcalá Zamorari botoa emateari uko egin ondoren. Gainera, karlistek jadanik arma politiko bezala erabili ezin zen autonomia batengatik interesa galdu zuten, eta Batzorde Kudeatzaileek egindako hainbat estatutu-proiektuen aurka irmoki azaldu ziren, laguntza ere ukatuz.

Busturiko Udalean euskal-nafartar herriaren estatutu-proiektuaren kopia bat jaso zen, udalek 1932ko ekainaren 19ko Iruñeko Batzar Orokorrean onartu zezaten, eta aho batez erabaki zen Ciriaco Echevarría Uribe alkatea herriko ordezkari gisa joango zela aipatutako batzarrerara¹¹³. Eskuineko koalizioaren haustura batzar honetan gertatu zen, CTk Batzorde Kudeatzaileen estatutua Nafarroan aplikatzearen aurka bozkatu zuenean, probintzia honetan estatutuaren porrota eraginez. Araban ere aurkakotasun arrakastatsu bat izan zuen, baina ez Bizkaian edo Gipuzkoan. Haustura eta gero, eskuineko koaliziotik bi alderdi konfesional atera ziren, baina aurkako proiektu politikoekin. CTk antiautonomismo, autoritarismo eta Errepublikaren aurkako kolpe militarrentz aurrera egin zuen; EAJ, aldiz, autonomista izan zen, demokrazia sozialkristauaren eta Errepublikako markoan sartzearen defendatzailea (de la Granja, 2007). EAJk autonomismoa independentzia lortzeko lehen pauso bezala ulertu zuen, eta horrela adar erradikal-independentistak eta pragmatika autonomistak bakea egin zuten (de Pablo, Mees y Rodríguez Ranz, 1999).

1932ko urritik 1933ra Euskal Herrian izan ziren istilu politiko bortitzek estatutu-proiektu berri bat arin eratzea eragotzi zuten. Nafarroak ez zuen proiekturik aurkeztu CT aurka agertu ondoren. Indarkeria giro horren adierazle dira Carmelo Llantada eta Rufino Arróspide zinegotziek aurkeztutako mozioak, hurrengo eskatzen baitzen: “[que cesaran las] *humillantes y abusivas detenciones gubernativas, decretándose la libertad inmediata de cuantos ciudadanos en Vizcaya la padezcan*”¹¹⁴. Denbora honetan EAJ eta ezkerren arteko harremanak epelak ziren eta hondatzeko bidean zeuden. Argi dago ez zituztela asmo berdinak partekatzen eta EAJk autonomia-prozesua kapitalizatzea bilatzen zuela. Dena den, honek ez zion estatutuari buruz ezkerak zuen jarrera oztopatzaile bati erantzuten, gobernadore zibilen politika antinazionalistari baizik (de Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999). Batzorde Kudeatzaileen bigarren proiektua, Nafarroa gabe

112. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0087/001.

113. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

114. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

eta ia aurrekoa bezala, euskal nazionalismoak eta ezker errepublikano-sozialistak sustatu zuten, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako udalek onartu zuten 1933ko abuztuaren 6an Gasteizko batzarrean (de la Granja, 2007). 1933ko uztailaren 22an Busturiko Udalak Batzorde Kudeatzaileek idatzitako estatutuaren kopia bat jaso zuen eta aipatutako batzarrera Juan Antonio Arguinzoniz alkatea joan zen Udalaren ordezkari gisa¹¹⁵. Hiru euskal probintzien Udalek estatutua onartu eta gero erreferenduma egin behar zen euskal herritarrek onar zezaten, eta erreferenduma 1933ko azaroaren 5ean egin zen, Azañaren biurtekoa amaitu ondoren eta legegintzaldi-hauteskunde bezperetan.

Erreferendumean udalerriak estatutuaren aldeko kanpaina handi bat bizi izan zuen eta kartelak 1933ko urriaren 24tik jarri ziren (*El Noticiero Bilbaíno*, 1933/10/24; *El Liberal*, 1933/10/27; *La Tarde*, 1933/10/27; *Euzkadi*, 1933/11/01). Gainera, estatutuaren aldeko propaganda-ekintzen artean azpimarratu behar dugu 1933ko urriaren 29an Gasteizen egindakoa, Mateo Benigno de Moraza arabar foruzalearen omenez, bertara Antonio Arguinzoniz Porturas alkatea eta Fernando Bilbao zinegotzia joan baitziren Busturiko Udalaren ordezkari gisa (*La Tarde*, 1933/10/30; *El Liberal*, 1933/10/31)¹¹⁶. Ekintza hauek aspaldian hasitako propaganda lan baten gailurra izan ziren. 1932ko ekainean Gernikako alkateak Aldundiko Estatutuaren Propaganda egiteko Batzordeak antolatutako bilerara gonbidatu zion Busturiko alkateari. Bilera honetan Bermeo inguruko lau herrien alderdi politikoek ordezkariak izendatu zituzten eta, tokiko batzordetan antolatuta, estatutuaren alde lan egin behar zuten propagandak eragin handiena izan zezan. Busturiko kasu zehatzean, batzordea Julio Mendietak eta Rodolfo Basañezek osatu zuten, errepublikanoak ordezkatzuz, eta nazionalisten ordezkariak Sinforiano Iparaguirre eta Román Cearreta izan ziren (*La Tarde*, 1932/06/11; *Euzkadi*, 1932/06/12)¹¹⁷.

1933ko azaroaren 5ean estatutuaren erreferenduma egin zen, interes handikoa zena Busturiko Udalarentzat, eta horrela adierazi zion Juan Antonio Arguinzonizek Herrizaintzako Ministroari telegrama batean:

“Rumor aplazamiento Plebiscito Estatuto causado enorme disgusto pueblo Busturia represento. En su nombre elevo vucencia deseo ferviente se celebre fecha acordada esperada jubiloso anhelo inmensa mayoría País. Salúdole respetuosamente. Alcalde”¹¹⁸.

Bozketaren partaidetzak eta emaitzek argi eta garbi uzten dute euskal nazionalismoak estatutuaren alde egindako iruzurrezko praktikak. Erreferendumean udal-hautesleek %97,51k parte hartu zuten, hau da, Busturiko hautesleetatik %31,95 gehiago joan ziren botoa ematera hilabete bat lehenago egin ziren Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeekin konparatuta. Busturian eman ziren botoen %97,51 estatutuaren aldekoak izan ziren eta aurkako botoak edo zuriak ez ziren %1era ere iritsi¹¹⁹. Partaidetza oso handia izan zen Bizkaian eta Gipuzkoan, baina oso txikia Araban. Eskuineko eta ezkerreko prentsak berehala salatu zituen iruzurrezko praktikak, “bolilleo” eta boto-emaielen ordezkarien bidez eginda, azken hauek kontu-hartzaileen faltak lagunduta eta geroago zenbait

115. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

116. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

117. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0088/001.

118. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

119. BFAAH. Gobernua eta Eliza-kontuak. AJ02279/003.

nazionalistek aitortu zutena. Estatutuaren aldeko emaitza txarrekin Araban CTK gauzatutako kontrol handiagoan dute erantzuna, alderdiak hauteskunde-mahaietan parte hartu zuelako bere afiliatuen bidez. Laburbilduz, erreferendumaren emaitza ofiziala 1931ko konstituzioak ezartzen zuen quorumaren gainetik egon zen, beraz, estatutua Gorteetan eztabaidatua izatera igaro zen (de la Granja, 2008). Gorteek behin betiko onar ezazaten, erreferendumaren emaitzak 1933ko azaroaren 12an eman ziren Gernikako fortu-etxean egindako ekitaldi batean, eta bertara Busturiko alkatea joan zen Udalaren ordezkari gisa¹²⁰.

Beste atal batean azaldu den bezala, 1933ko azaroaren hauteskundeetan EAJk bere historia luzeko emaitza onenak lortu zituen Bizkaian eta Gipuzkoan, baita Araban ere, Nafarroan ez bezala. Hala eta guztiz ere, Gorteetako egoera berriak, ezkerrearen porrotarekin eta zentro-eskuinaren garaipenarekin, hurrengo bi urteetan estatutu-proiektua geldituta egotea ekarri zuen, Alejandro Lerrouxen Alderdi Erradikala eta José María Gil Roblesen CEDAren gobernupean. EAJ *entente* adeitsu bat mantentzen saiatu zen Lerrouxen gobernuari laguntza parlamentarioa emanez. Halarik ere, abenduaren 21ean plebiszitatutako estatutua Gorteetan aurkeztu zen eta CTK Araba baztertzea proposatu zuen erreferendumean izan zituen emaitzengatik. Negoziazioen geldiketa erabatekoa izan zen diputatu nazionalistek alde egin zutenean Kataluniako Generalitatearekin elkartasuna adieraziz, 1934ko ekaineko laborantza-kontratuei buruzko legea zela eta (de la Granja, 2007).

Estatutu-prozesua ez zen berriz martxan jarri 1936ko otsailera arte, Fronte Popularreko ezkerrek garaipen argia lortu zuenean Espainian. Fronte Popularraren eta EAJren arteko batasuna argi geratu zen jeltzadeek Azañaren gobernuan eta estatutua bideratzeko batzordean jarritako konfiantza erakutsi zutenean (de la Granja, 2007). Batasun honek ez zuen esan nahi bi alderdi politikoen artean zeuden desberdintasunak desagertzen zirenik edo EAJk mundu katolikoarekin zuen harremana hautsiko zuenik (de Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999). Ezkerrearen eta jeltzaleen arteko ulermen onaren emaitza Arabako erreferendumaren emaitzak onartzea izan zen. Prieto sozialista presidentetzat eta Agirre nazionalista idazkaritzat zituen Gorteetako estatutu-batzordean berehala eztabaidatu zen Gorteetako osoko bileran onartu beharko zen testua. Testua 1936ko uztailaren aurkeztu zen Gorteetan eta onartu egin zen gerra hasi eta gero, 1936ko urriaren 1ean (de la Granja 2007). Juan Pablo Fusi historiagileak estatutu honi “ezkerreko estatutua” deitu zion, euskal nazionalismoaren eta sozialismoaren arteko adostasunari esker Gorteetako estatutu-batzordean eztabaidatzea erraztu baitzen. Horrek asko laburtu zuen euskal herritarrek berretsitako testua 1933ko azaroan, Prietok emandako eta Agirrek onartutako iritziei jarraituz (Fusi Aizpurúa, 1978). Fernando de Meeren iritziz Estatutua EAJ eskuinera ez hurbiltzeko Prietok erabili zuen tresna izan zen, altxamendu militarra jadanik prestatzen ari zen une batean (Meer Lecha, 1992).

Estatutu-borroka funtsezkoa izan zen 1936ko uztailaren 18ko altxamenduaren garaipena/porrota ulertzeko euskal lurraldeetan. Banaketa argi bat dago: alde batetik, errepublikaren aurkakoa diren eta gatazka sozial handiak dituzten Araba eta Nafarroa, non estatu-kolpe militarra finkatuta dagoen; eta beste alde batetik, Bizkaia eta Gipuzkoa, 1934ra arte borroka bortitzak izan zituztenak baina erregimen errepublikanoarekin lankidetzan ibili ondoren Fronte Populartik hurbil geratu zirenak (de la Granja, 2007).

120. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0091/001.

4. BUSTURIA GERRA ZIBILEAN (1936-1939)

4.1. 1936ko uztailak 18: Tokiko Defentsa Batzordetik Tokiko Defentsa Batzarrera

Espainiak XX. mendeko 30eko hamarkadan bizi zuen gizarteko eta politikako polarizazioak eta tentsioek altxamendu militar bat eragin zuten 1936ko uztailaren 18an. Estatu-kolpe klasiko bat bezala antolatu zena, hau da, hainbat garnizio militarren koordinazioaren bidez egiten zen kolpe militar azkarra, hiru urte iraun zituen Gerra Zibil bihurtu zen. Euskadin ezberdintasunak topa ditzakegu hiru lurraldeen artean. Araba matxi-noen kontrolpean egon zen hasieratik Gasteizko garnizio militarren matxinadari esker, Camilo Alonso Vega teniente koronelaren agintepean, eta eskuineko masa popularraren laguntza aktiboari esker, ezkerren pasibotasunaren aurrean. Donostiari dagokionez, Loiolako kuartelaren garnizioa eta hiriko hainbat gunetan babestu ziren eskuineko elementuak matxinatu arren, ez zen Gipuzkoako hiriburuaren eta probintziaren kontrola lortu ezkerreko sindikatuak antolatutako erresistentzia armatuari esker. Bizkaiari dagokionez, kolpe militarren porrota probintziako gobernadore zibilaren (José Echevarría Novoa) trebetasunari lotuta dago, matxinadarako deia Bilboko garniziora heltzea eragotzi baitzuen. Laburbilduz, bi zatitan banatutako Euskadi bat topatzen dugu. Bizkaia osoa eta Gipuzkoa osoa Espainiako Errepublikari leial mantendu ziren bitartean, Araba eta Nafarroa matxinatuekin bat egin zuten.

Kolpe militarren osteko Udalaren lehen batzarraldia 1936ko uztailaren 19an egin zen, goizeko 09:30etan, udaletxeko aretoan. Juan Antonio Arguinzóniz alkatearen mahaiburutzapean bertaratu ziren Vicente Gorriño Tribis-Arrospe idazkaria eta hurrengo zinegotzi abertzaleak: Carmelo Llantada, lehen alkateordea zena, Fermín Apraiz, Andrés Cearreta, Fernando Bilbao, Doroteo Calzada eta Feliciano Cenarruzabeitia. Egun horretako aktek adierazten duten egoera ez da larritasun handikoa, lehen borroka armatuak hasi ziren arren, eta lasaitasun orokor hori adierazten dute ere beste hainbat udalerriko akta-liburuek, Bermeokoak adibidez (Vargas Alonso, 2007: 60-61). Lehen borroka belikoen giro horretan, 1936ko uztailaren 14an egin zen aurreko barratzaldiaren akta irakurri eta onartu ondoren, Udalak Santiagoren jaei buruzko akordioak hartu zituen, hainbat faktura onartu zituen, udalerriko argiteria publikoaren kontratu berria kudeatzeko batzorde bat eratu zuen eta, azkenik, José María Ucelay Uriarteren gutun bat irakurtzeari ekin zion, udalak herriari ur-horniketa egokia emateko betebeharra adierazten zuena. Egun horretan aparteko batzarraldi bat egin zen, behi-aziendaren eta txerrien haragiengaineko zergen alokairuaren enkantea egiteko, azkenean hutsik geratu zena, baina ez zen matxinada militarri buruz ezer aipatu¹²¹.

1936ko abuztuaren 2ra arte ez zen azaldu Udaleko aktetan Estatuan bizi zen aparteko egoera, Otxandioren bonbardaketa zela eta. Batzarraldi honetan Udalak Espainiako Errepublikaren aurkako matxinada salatzen eta Otxandion gertatukoagatik atsekabea erakusten zuen:

“Protestar del levantamiento faccioso contra la República, provocado y sostenido por las fuerzas constituidas al servicio del Estado y elementos fascistas: envían una adhesión entusiasta

121. BUA. Akta-liburua. 1936/07/18.

a los Poderes Públicos y comunican al Alcalde de Ochandiano el dolor que en esta localidad ha causado el bárbaro atentado llevado contra aquel pacífico vecindario”¹²².

Otxandioko alkateak atsekabe hori honela eskertu zuen: “*en nombre de la Corporación que tengo el honor de presidir y de las familias de las víctimas inmoladas vandálicamente en el aciago día 22 de julio pasado*”¹²³.

Hala ere, Busturiko Udaleko aktetan adierazten den lasaitasunetik ezin da ondorioztatu udalerría eta bere bizilagunak erabat lasai bizi zirenik matxinada militarra gertatu eta Udalak salatu arte pasatu ziren 16 egunetan. Horren adierazgarri bat da, sei urte geroago ere, auzotarrek agintari matxinatuaren aurrean deklaratu behar izan zutenean, Busturiko biztanleek zehatz-mehatz gogoratzen zutela non eta zer egiten zeuden 1936ko uda hartan, matxinatuak armetan altxatu zirenean. Esaterako, Hermeregildo Gandarias Albizua auzokidea Pasaian zegoen, matxinada militarra izan baino hilabete bat lehenago *Lolita Artaza* merkataritza-ontzian heldu ondoren, non tripulatazaila bezala lan egiten zuen 1935eko martxoaren 20tik¹²⁴. Beste batzuk, Tomás Zuazua Porturas bezala, matxinada militarrek Avileseko portuan harrapatu zituen, *Víctor Chávarri* baporean ontziratuta egoteagatik. Bi egun geroago, portu berera heldu ziren José Fradua Basteguieta eta José Alberto Aguirre Alegría busturiarrak, *Fernando L. Ibarra* baporeko bigarren ofiziala eta agregatua zirenak, hurrenez hurren, eta José Alberto Aguirrek hurrengo adierazi zuen:

“Ilegados a Avilés desembarcó por temor a que lo detuvieran los rojos por no estar afiliado a ningún partido político del Frente Popular y encontrándose sin documentación vino a su casa en Busturia donde estuvo hasta el mes de Diciembre de 1936”¹²⁵.

Egun hartan Adolfo Elesgaray Asteinzua *Faustino R. San Pedro* baporean ontziratuta zegoen Bilbon, Enrique Ugalde Ormaechea Aberdeeneko portuan (Eskozian) zegoen bitartean, *Eolo* baporean¹²⁶. Militarrek matxinatu zirenean itsasoan zeuden beste batzuk hurrengoak izan ziren: Gregorio Esquíbel Retolaza, *Mari Elena* baporean; Ignacio María Ugalde Ugalde, *Iciar* baporean; Martín Cigorraga Ugalde, *Cabo Agustín* baporean bidaiariak eta zama Santosera (Brasil) eramaten edo, azkenik, Daniel Oleaga Aranguren, *Abodi Mendi* baporean Ingalaterratik Hego Ameriketara bidaiatzen¹²⁷. Auzokide batzuk nekazari-lanetan zeuden bitartean (“*dedicados a los trabajos de campo*” jatorrizkoan), Santiago Larreta Iturbe bezala, beste batzuk, Lorenzo Gogeoascochea Uriarte bezala, Bilbon klase partikularrak ematen jarraitu zuten¹²⁸. Hale ere, ziurrenik, herriko bizilagun gehienak 1936ko uztailaren 18ko kolpe militarrek haien etxeetan harrapatu zituen, Antonio Alegría Laucirica, Benito Zaldúa Retolaza, Esteban Zaldúa Retolaza edo

122. BUA. Akta-liburua. 1936/08/02.

123. BUA. Akta-liburua. 1936/10/05.

124. Ferroleko Itsas Artxiboa. 414/-41; 0/-40 kausa.

125. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 574/41; 610/41; 1080/40 kausak

126. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 634/43 kausa.

127. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 98/42; 1263/39; 171/40; 2560/40; 790/41 kausak.

128. Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra 97/37 kausa. Santander; ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 3/41 kausa.

Victoriano Llona Elguezábal eta Francisco Llona Elguezabalen kasuetan bezala. Azken bi hauek baimen-egoeran zeuden Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España S. A. (PYSBE) enpresaren *Tramontana* bakailao-ontzian arrantzan egiten baitzuten¹²⁹. Gainera, une horretan Busturian zegoen populazio udatiarra gehitu beharko litzateke. Ignacio Caballero Lorca, farmazialaria eta Bilbon jaio eta bizi zena, herrian zeuden udatiarretako bat zen kolpe militarra gertatu zenetik tropa matxinatuak sartu ziren arte¹³⁰. Patricio Escobalek honela deskribatzen zuen eskualdeko kostaldeko herrietako uda, bereziki Sukarrieta aipatzen zuelarik: “*una vida intensa en el verano, cuando acudían de Bilbao los veraneantes en busca del aire puro del mar y montaña*”. Aldiz, urteko beste urtaroretan, ia ez zegoen jenderik: “*el resto del año parecía una aldea silenciosa de carácter casi bíblico*” (Escobal, 2005: 284).

Kolpe militarren ondoren Bizkaia eta Gipuzkoako herrietan tokiko batzordeak eratu ziren, toki-mailan berdindu nahi zituztelako 1936ko uztailaren 23an sortu zen Bizkaiko Errepublikako Defentsa Komisaria Orokorra eta 1936ko uztailaren 27an sortu zen Gipuzkoako Defentsa Batzarra, bakoitza zegoen gobernadore zibilak zuzenduta zegoela. Data zehatza jakin ez arren, Busturiko herriak bere Tokiko Defentsa Batzordea izan zuen 1936ko uztailaren bukaerarako. Batzorde hau EAJko hiru abertzalek eta Ezker Errepublikanoko bi errepublikanok osatzen zuten, kolpe militarra aurretik herrian zeuden indar politikoak eta Espainiako Errepublikari leialak zirenak. Andrés Cearreta Urrutiak, EAJko zuzendaritzaren presidentea Busturian 1935etik, hurrengo kontakatu zuen:

“...(*él*)... asistió a la reunión en que se constituyó el Comité local de Defensa, tomando en ella el acuerdo de que dicho Comité estuviera integrado por Ciriaco Echevarría, Carmelo Llantada y Sinforiano Iparaguirre en representación del partido nacionalista, además de los representantes de Izquierda Republicana Policarpo Astoreca y Mariano Zabala”¹³¹.

Busturiko tokiko batzorde honen organigramari dagokionez, litekeena da lau batzordez, presidentziakoaz gain, osatuta egotea —Horniketa, Ordena Publikoa, Osasuna eta Defentsa—, antolaketa hori gertu dagoen Gernika herrian erabili baitzen (Echániz y de la Granja (zuz.), 1998: 282). Tokiko batzorde honen presidentea Policarpo Astoreca Bericua izan zen, Ezker Errepublikanoaren ordezkaria¹³². Hala ere, Udaleko zinegotzia eta *jeltzalea* zen Carmelo Llantada Uriaguereca Horniketa sailaz arduratzen zen, eta beste *jelkide* batek, Sinforiano Iparaguirre Garciarena, Defentsa saila hasieran eta gero Ordena Publikoko saila zuzendu zituen. Ciriaco Echevarría Uribe, EAJri afiliatuta zegoena, Ordena Publikoko sailaren bokala izan zen¹³³.

Gerrari lotutako gaiak, hala nola tokiko milizianoak antolatzea edo armak biltzea, Batzordeak eztabaidatu zituen Feliciano Cenarruzabeitia eta Andrés Cearreta zinegotzian hitzetan, beste hainbaten artean, eta gainera konfiskazioak eta alde ez zeudenei isunak ezartzea bezalako funtzioak ere bere gain hartu zituen. Doroteo Calzadak agintari frankistei adierazi zien Udala gai administratiboez arduratu zela bakarrik eta gerrako

129. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 133/42; 326/41; 365/45; 511/43; 727/42 kausak.

130. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

131. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bilbao.

132. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 12570/41 kausa. Bizkaia.

133. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 10812/39 kausa. Bizkaia; 780/37. Bizkaia.

gaiez Defentsako Batzordea arduratu zela, Fermín Apraiz edo Manuel Lejarretaren testigantzekin bat zetorren adierazpena zena. Fermín Apraizek hurrengo adierazi zuen: “*lo concerniente a la guerra y orden público incumbía al Comité local de defensa, en el que representaba al Ayuntamiento Carmelo Llantada, designado para ello por todos los miembros de la Corporación*”; Manuel Lejarretak adierazi zuen 1936ko uztailaren 18ko kolpe militarra hasi ondoren Defentsako Batzorde bat eratu zela, hurrengo funtzioekin:

“*asumió todo lo concerniente a la guerra, interviniendo el Ayuntamiento tan solo en cuestiones administrativas, (...) sin que en las sesiones que el dicente asistió se tratase de la imposición de multas o recogida de armas, sino tan solo asuntos administrativos*”¹³⁴.

Zaila den arren, bi agintari zeuden herrian kolpe militarren ondoren. Alde batetik, 1936ko hauteskundeen ondoren Udalean berriz ezarri ziren elementuekin osatutako udalbatza dugu; eta, bestetik, Tokiko Defentsa Batzordea dugu, Bizkaiko Errepublikaren Defentsako Komisaria Orokorra eta udalerriko erakunde politiko/sindikalen artean transmisioa egiten zuen erakunde nagusia zena. Udalak gai administratiboak bakarrik eztabaidatu zituela egia den arren, Fermín Apraiz zinegotziak esan zuen Busturiko Udaleko lehen alkateordea, Carmelo Llantada, Udalaren ordezkaria zela Tokiko Defentsako Batzordean, udalbatzako kideek postu horretarako izendatu baitzuten¹³⁵. Badirudi bi agintarien arteko funtzio banaketa hau argi zegoela. Hala ere, noizbait bi agintariek udalerriri eragiten zieten arazo berdinak eztabaidatu zituzten. Esaterako, Tokiko Defentsa Batzordeak Busturiko alkateari bidalitako jakinarazpen batean, 1936ko abuztuaren 7koa, adierazten zen komenigarria izango zela harpidetza bat zabaltzea “*askatasunaren alde borrokatzen ziren*” (“*que luchan por la libertad*” jatorrizkoan) milizianoen alde. Udalbatzak jakin zuenean, harpidetza zabaltzea aho batez erabaki zuen milizia armatuen beharrak asetzeko, 50 pezetako dohain batekin martxan jarriz eta laguntza eman zutenen zerranda bat bidaliz¹³⁶.

Tokiko Defentsa Batzorde honek etxebizitzak miatu zituen eta udalerrian eta inguruetan joera politikoaren arabera matxinatuen aldekoak ziren pertsonak kokatu eta atxilotzen zituen, joera hori ustezkoa zein aitortua izan, eta ez zen beharrezkoa delitu bat egitea horretarako. Elizateko gune estrategikoetan guardia zerbitzuak antolatu zituen, hornikuntza zibila kudeatu zuen, Gipuzkoako errefuxiatuei arreta eman zien, armak eta dirua bildu zituen eta kolpisten aurka armekin borrokatu nahi zutenen boluntarioak frontera joatea sustatu zuen:

“*comité que tenía amplísimas atribuciones, como lo demuestra el hecho que durante su mandato, intervino no solamente en el abastecimiento de la localidad y demás funciones administrativas, sino también en la dirección militar de las milicias locales, pues el director de dicho comité era el encargado de nombrar los turnos de guardia, proporcionaba el armamento y municiones, nombraba libremente los milicianos, etc. Además, dicho Comité imponía las sanciones pecuniarias a las personas desafectas al gobierno de Bilbao y ordenaba las requisas que se realizaron en el pueblo de mantas, radios, y algún edificio, etc.*”¹³⁷.

134. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bilbao.

135. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bilbao.

136. BUA. Akta-liburua. 1936/08/09.

137. EAA. AP-1089-01.

Bere jardueren artean arropa, tapakiak, autoak, prismetikoak, irriatiak edo eraikinak konfiskatzea zegoen, herriaren eta auzokide errefuxiatu berrien beharrak asetzeko. Laburbilduz, Tokiko Batzordearen lehentasunak ziren eguneroko bizitza normalizatzea, ordena publikoa mantentzea eta boluntarioak kokatzea/trebatzea. Ez naiz jarduera hauei buruz gehiago luzatuko dagozkien ataletan aztertuko direlako.

1936ko abuztuaren 12an Bizkaiko Defentsa Batzarra eratu zen eta bertan, José Echevarría Novoa, kolpe militarra gertatu baino lehen Bizkaiko gobernadore zibila zena, presidentetza eta Herrizaintzaz arduratu zen. Bizkaiko Defentsa Batzarra, Gipuzkoako Defentsa Batzarra bere lurraldean bezala, bere lurraldeko goreneko erakunde bihurtu zen eta biek bizitza politiko-administratiboa kontrolatzeko eta kudeatzeko asmoa zuten, une horretara arte uztaileko kolpe militarren ondoren sortutako tokiko agintari berriek zuzendu izan zuten. Horretarako, kolpe militarra gertatu eta ondorengo lehen asteetan udalek galdu zituzten eskumenak, Espainiako Errepublikaren alde zeuden alderdi politiko eta sindikatuen ordezkariak tokiko batzordeetan hartu zituztenak, erakunde berri batean inguratu ziren: Defentsa Batzar Orokorra.

Bizkaiko Defentsa Batzar Orokorra

Saila	Arduraduna	Ordezkaritza
Presidentetza	José Echevarría Novoa	
Herrizaintza	José Echevarría Novoa	
Defentsa	Paulino Gómez Sáiz	PSOE
Finantzak	Heliodoro de la Torre	EAJ
Osasuna	Juan Carlos Basterra	ANV (Euskal Ekintza Nazionalista)
Garraioak	Juan Astigarrabía	PC
Komunikabideak	Alfredo Espinosa	UR
Industria	Julio Jáuregui	EAJ
Lana	José Gorostiza	PSOE
Merkataritza eta Hornikuntza	Ramón María Aldasoro	IR
Gizarte Laguntza	Valle	CNT

(Iturria: *El Liberal*, 1936/08/13).

1936ko irailaren 9an, Bizkaiko gobernadore zibilak, une horretan Bizkaiko Defentsa Batzar Orokorren presidentea zena, adierazi zuen Udaleko Defentsa Batzarrak Bizkaiko Batzar Orokorren ordezkariak zirela udalerrri bakoitzean, eta beraz, Bizkaiko Batzar Orokorren isla leiala izan behar zutela eraketan eta funtzionamenduan. Gainera, José Echevarría Novoa adierazten zuen probintziako batzarra osatzen zuten alderdi politiko bakoitzaren kide banaz osatu behar zirela, probintziakoarekin batera era homogeneoan jardun zezaten. Udalerrri batean Defentsa Batzorde Orokorra osatzen zuten sindikatu edo talde politikoak legez eratuta ez baleude, Busturiko kasua adibidez, aipatutako sindikatu edo talde politikoek, bakoitzaren probintzia-batzorde betearazlearen bidez, udalerrri

horretako auzokidea zen afiliatu bat izendatu behar zuten Tokiko Defentsa Batzarrean ordezkaria izan zedin. Aipatu behar da UGT eta ELA sindikatuak ez zutela sailik izan Defentsa Batzar Orokorrean ordezkatzat jo zirelako, hurrenez hurren, PSOE eta EAJ alderdi politikoengatik. Hala ere, ahotsa eta botoa zuten Bizkaiko Batzar Orokorreko eztabaidetan. CNT sindikatuari, bere berezitasunarengatik alderdi politiko batek ere bere egin ez zuenez, Gizarte Laguntzako saila eman zitzaion (Chiapuso, 1978: 43).

Tokiko Defentsa Batzarrak ez ziren erabat eratutzat joko Bizkaiko Defentsa Batzar Orokorrearen osoko bileran onartuak izan arte. Horretarako, Gobernu Zibilaren aholkularitza juridikora kideen zerrenda bidali behar zen, bakoitzaren izen-abizen eta afiliazio politikoarekin. Zerrenda hori Batzar Orokorri jakinarazten zitzaion behin-betiko eraketa erabaki zezan. Tokiko Defentsa Batzar bakoitzaren presidentetza zegokion udalaren alkate-presidentearentzat izan zen, Juan Antonio Arguinzóniz Porturas Busturiko kasuan, eta batzarrean bere alderdi politikoa ordezkatzan zuenez ez zuten afiliatu berri bat izendatzeko eskubiderik, herrian indar politiko guztiak ordezkatzuta egon zitezten.

Tokiko Defentsa Batzarrek osoko bileren bidez funtzionatzen zuten, eta bilerak presidentea deitzen eta zuzentzen zituen. Presidentea ez zegoen kasuetarako, ordezkari bat izendatu behar zen batzarra eratzeko egin behar zen lehen bileran. Busturiko kasuan baliteke udaleko alkateordea izatea, Carmelo Llantada Uriaguereca hain zuten ere. Presidentea eztabaidak zuzentzen zituen eta erabakiak botoen gehiengo absolutuaz hartu behar ziren; bozketan berdinketa gertatuz gero Bizkaiko Batzar Orokorra hartzen zuen erabakia. Dagoeneko azaldu dut nola Tokiko Defentsa Batzarrak Bizkaiko Batzar Orokorra bezala antolatu behar ziren eginbeharrei dagokienez, eta gainera bere erabakiak Batzar Orokorra hartzen zituen erabakiak gauzatzean zeutzan edo bestela proposamenak ziren Batzar Orokorra onar zitzan, zenbait gai buruz aurretiko akordioak ez egotekotan. Edonola ere, Tokiko Defentsa Batzarrek ez zuten ahalmen autonomorik, eta bere ordezkartzaren izaera betearazpen atribuzioetara mugatuta zegoen, Batzar Orokorrearen erabakiaren eta Tokiko Batzarrak hartutakoaren arteko kontraesanak saihesteko.

Ez ditugu Tokiko Defentsa Batzarrak eta Udalak nahastu behar. Eraketa eta funtzionamendua ez ziren baliokideak izan, ezta haien atribuzioak ere. Defentsa Batzarrak gerra zibila bezalako ohiz kanpoko egoera batean sortu ziren, eta Administrazioak gerra kudeatzeko laguntza bezala erabili zituen. Udalen funtzio administratiboek zirauten gerrako lanak eragotzi gabe gauzatzen baziren eta eginkizun horretarako izendatutako funtzionario publikoek, zinegotziak edo kudeatzaileak, burutu behar zituzten. Arrazoi honengatik, Tokiko Defentsa Batzarrak eta Udalak oso erakunde guztiz ezberdinak ziren, funtzio ezberdinekin, baldin eta gerra lanek Batzarrei atribuzio gehiago ematen ez bazieten gerra-baldintzek eskatuta.

Orokorrean, Tokiko Defentsa Batzarrak eta Bizkaiko Batzar Orokorra Errepublikaren interesak babestu behar zituzten. Horretarako, agintari eskudunak une bakoitzean agindutakoa besterik ez zuten bete eta betearazi. Erregimenaren etsaien ekintza zuzen edo ez zuzenetatik herria defendatzeko konpromisoa hartu zuten, aurkako funtzionarioak edo susmagarriak salatuz, baina ez zuten inoiz inor atxilotzen aurretiko agindurik egon ezean edo edozein motako delitu edo falta bat egiten inor ustekabean harrapatu ezean. Gainera, Tokiko Defentsa Batzarrek, Bizkaiko Batzar Orokorrearekin koordinatuz, elikagaien eta farmaziako produktuen horniketa antolatu zuten herrietan. Tokiko Batzarrak

ere milizianoen eta boluntarioen instrukzio militarraz arduratu ziren, eta herri bakoitzean existitzen ziren arma partikularrak ere konfiskatu zituzten, jabeei emango zitzaien ordainagiriaren truke, jabeek lizentzia ez izatekotan izan ezik, kasu horretan salaketa eginez. Azkenik, guardia hiritarrak izendatzen eta kontrolatzen zituzten, eta konfiskatutako armez hornitzen zituzten, arma horiek ondasun kolektibo izaera eskuratzen baitzuten aparteko egoerak zirauen bitartean.

Busturiko Tokiko Defentsa Batzarraren sorrera-data eta eraketa zehatza ez dakidan arren, dagoeneko azaldu ditudan irizpide orokorretan oinarrituz, baliteke 1936ko abuztuaren bukaeran eratu izatea. Adibidez, Portugaleteko Tokiko Defentsa Batzarra abuztuaren 23an eratu zen eta Errepublikaren aldeko indar sindikal eta politiko guztiak osatzen zuten, UGT eta ELA sindikatuak barne (Tasio, 2012: 267). Hala ere, Tokiko Defentsa Batzar guztiak ez zituzten Errepublika defendatzen zuten talde politikoen eta sindikatuen ordezkariak izan. Bizkaiko Batzar Orokorra eratu ondoren, Deustuko Tokiko Batzarrak EAJ, ANV (Euskal Ekintza Nazionalista), PSOE, PC, UGT eta ELA taldeetako ordezkariak izan zituen (Sarrionaindia, 2012: 156). Elorrioko Tokiko Defentsa Batzarreko presidentea alkatea zen, eta lau nazionalistek eta bi sozialistek osatu zuten (Irazábal Aguirre, 2012: 45).

Kontuan izanda Elorriok 3.702 biztanle zituela 1936an, litekeena da Bizkaiko Batzar Orokorra osatzen zuten indar politiko eta sindikal guztiak ordezkariak ez izatea udalerri honetan, nahiz eta gobernadore zibilaren aginduan agertu sindikatuaren edo talde politikoaren batzorde betearazleak edozein auzokide afiliatu izendatuko zuela Tokiko Defentsa Batzordetan ordezkari gisa egoteko. Deustun ere ikus dezakegu IR, UR eta CNT taldeak Deustuko Tokiko Batzarretik kanpo geratu zirela. Hala ere, UGT eta ELA sindikatuek ordezkariak zituzten, nahiz eta Bizkaiko Batzar Orokorrean ez egon. Egoera honetatik ondorioztatzen dut gobernadore zibilaren agindua ez zela zehatz-mehatz bete, Bizkaiko Tokiko Batzarren eraketa eta funtzionamenduari dagokienez. Beraz, nire ustez, Busturiko kasuan Tokiko Defentsa Batzarra bakarrik osatu zuten EAJ eta IR-ko ordezkariak, ziurtasun osoz, eta, agian, ELA, PSOE eta UGTko afiliatuak. Gobernadore zibilak eman zituen Tokiko Batzarren eraketa eta funtzionamenduari buruzko aginduak argiak izan arren, Bizkaiko Batzar Orokorrean isla zehatza izan behar zutela esanez, badirudi Busturiko Tokiko Batzarrak ez zituela indar politiko eta sindikal guztiak izan eta, gainera, ez zituela jarduerak banatu Bizkaiko Batzar Orokorrek bezala. Begiraturako dokumentazioan deskribatzen diren jardueretatik Tokiko Defentsa Batzarreko zenbait sail ondorioztatzen dira: Presidentetza, Ordena publikoa, Defentsa, Finantzak, Garraioa, Gizarte laguntza, Merkataritza eta Hornikuntza.

Sail berri hauetan laguntzaileak beharrezkoak ziren: gidariak, eskribauak, zaindariak eta abar. Elorrioko Tokiko Batzarraren kasuan herriko 95 auzokide ari ziren funtzio hauek egiten. Bere aldetik, Durangok 10 laguntzaile, 10 gidari eta 71 miliziano izan zituen (Irazábal Aguirre, 2012: 45). Busturiko Tokiko Defentsa Batzarraren zerbitzuplean egon ziren busturiarrak hurrengoak izan ziren: Juan Antonio Arguinzóniz Porturas, Adolfo Borda Anguisola, Carmelo Llantada Uriaguereca, Gregorio Zabala Ugalde, Policarpo Astoreca Bericua, Eleuterio Basterrechea Lamiquiz eta Amadeo Uribe Asteinza. Dagoeneko aipatu dugu nola Juan Antonio Arguinzóniz Porturas Tokiko Defentsa Batzarraren presidentea izan zen, Busturiko alkatea baitzen. Adolfo Borda Anguisola eskribaua izan zen Gizarte Laguntza saileko bulegoetan. Alkateordea eta Udalaren ordezkaria zena Tokiko Batzordean, Carmelo Llantada Uriaguereca, horniduraren arduraduna izan zen, eta bere

zerbitzuean Policarpo Astoreca Bericua eta Gregorio Zabala Ugalde zeuden, azken hau gidari bezala¹³⁸. Eleuterio Basterrechea Lamiquiz eta Amadeo Uribe Asteinza busturriarrei dagokienez, biek zerbitzu armatuak eman zituzten ordena publikoa mantentzeko¹³⁹. Amadeo Uribe Asteinza berak hurrengo adierazi zuen: “*en los primeros días del movimiento era jefe de los gúdaris del pueblo*”¹⁴⁰. Azkenik, aipatzekoa da dirudienez Román Cearreta Urrutia eta Andrés Cearreta Urrutia jeltzaleek zerbitzu laguntzaileak eman zituztela Tokiko Defentsa Batzordean edo, are gehiago, sailen bateko zuzendaritzaren parte izan zirela¹⁴¹.



Amadeo Uribe Asteinza
(Iturria: marinavasca.eu).

4.2. Euzko Jaurlaritza

4.2.1. Euzko Jaurlaritzaren sorrera

1936ko otsaileko hauteskundeez geroztik EAJ eta sozialismo espainiarraren arteko harreman onek Araban egin zen Euskal Estatutuaren plebiszitua baliozkotzat jotzea ekarri zuten. Une horretan Estatutua Gorteetan onartzea arin eztabaidatzen hasi zen. Kolpe militarra hasita zegoela, Estatutuaren testua, euskal herritarrek 1933ko azaroan berretsi zutenaren laburpena zena, Gorteetako osoko bileran onartua izateko prest zegoen 1936ko uztailan, eta Gorteek 1936ko urriaren 1ean berretsi zuten. Gorteetan onartu ondoren, Euzkadiko Autonomia Estatutuaren lehen xedapen iragankorra betez, estatutuan agindutako hautespenaren presidenteak, Bizkaiko gobernadore zibila izan zena, 1936ko urriaren 5ean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko udaletan herritarrek hautatutako zinegotzietan deitu ziren, botoa askatasunez emateko egoeran baldin bazeuden, Euskal Herriko Behin-behineko Gobernuaren lehendakariaren hautaketara. Bozketa 1936ko urriaren 7an izan zen.

1936ko urriaren 6ko bilkura berezian Udalak jakinaren gainean zegoela adierazi zuen. Gainera, deialdi hori argitzeko, alkatetzak hurrengo mezu telegrafikoa jaso zuen:

“Gobernador civil a Alcaldes.- Aclarando instrucciones sobre convocatoria aparecida Prensa hoy para elección de Presidente Gobierno Provisional Euzkadi ese Ayuntamiento deberá extender prevención única para todos los Concejales de elección popular del mismo que se

138. BUA. Akta-liburua. 1936/11/29; CDMH. PS Santander O. 85. kutxa. 3-11 folioak.

139. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

140. EAH-AHE. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saileko Funtsa. Emigrazioa. Sorospen eta Laguntzetako Atal Iragankorra. 127. paper-sorta. 02 paper-sorta zenbakia.

141. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bilbao.

hallen en ejercicio certificando el número de votos obtenidos por cada uno y siendo portador de la citada prevención uno de los señores concejales”¹⁴².

Udalerrian zeuden dokumentu eta aurrekari guztiak begi-bistan izanda, askatasunez botoa emateko egoeran zegoen eta herriak hautatu zuen zinegotzi bakoitzeko lortutako botoen kopurua idatziz jarri zen. Udalak bidezko ziurtagiria ematea erabaki zuen, eramaila Juan Antonio Arguinzóniz izendatuz eta hurrengo eginez: “*disponiendo que todos y cada uno de los señores Concejales que integran este Ayuntamiento concurren al acto convocado a ejercer su honroso cometido a que han sido invitados*”¹⁴³.

**1936ko urriaren 7an botoa eman zuten Busturiko Udaleko kideak,
Euskal Herriko Behin-behineko Gobernuaren lehendakaria hautatzeko**

Abizenak, Izena	Kargua	Hautaketa data	Lortutako botoak	Filiazio politikoa
Arguinzóniz Porturas, Juan Antonio	Alkatea	1933/04/23	273	EAJ
Llantada Uriaguereca, Carmelo	Lehen alkateordea	1933/04/23	154	EAJ
Apraiz Goiricelaya, Fermín	Bigarren alkateordea	1933/04/23	155	EAJ
Apraiz Ordorica, Paulino	Errejidore sindikoa	1933/04/23	151	EAJ
Cearreta Urrutia, Andrés	Zinegotzia	1933/04/23	298	EAJ
Calzada Ispizua, Doroteo	Zinegotzia	1933/04/23	278	EAJ
Cenarruzabeitia Bilbao, Feliciano	Zinegotzia	1933/04/23	276	EAJ
Bilbao Torrontegui, Fernando	Zinegotzia	1933/04/23	273	EAJ
Lejarreta Urtiaga, Manuel	Zinegotzia	1933/04/23	162	ERREPUBLIKANOA
Arróspide Omagogeascoa, Rufino	Zinegotzia	1933/04/23	154	EAJ

(Iturria: Busturiko Udala).

Hauteskundeetarako lau hauteskunde-mahai eratu ziren Bilboko hirian: Bizkaiko Gobernu Zibilean, Bizkaiko Aldundiko bilkura aretoan, Bilboko Udaleko bilkura aretoan eta Bilboko Auzitegian. 9:00etan mahaiak eratu ondoren, hauteskunde-mahai bakoitzak osatzen zuten barrutien zinegotziek ahoz botoa ematen hasi ziren 10:00etatik aurrera. Mahai bakoitzaren idazkariak idatziz jasotzen zuen zinegotzi bakoitzak emandako botoa eta zinegotzi kargua lortzeko lortu zuen boto kopurua.

Busturiko Udalak bere botoa bigarren hauteskunde-mahaian eman zuen, Bizkaiko Aldundiko bilkura aretoan zegoena eta Rufino Laiseka sozialista mahaiburu gisa zuena. Azken hau Bilboko Udaleko zinegotzia zen eta Bizkaiko Aldundiko Batzorde Kudeatzailearen presidentea zen. Laguntzaile bezala Marcelino Monasterio, Bermeoko Udaleko alkatea, eta Ismael López, Gernika-Lumoko Udaleko zinegotzia zeuden. Mahai honen idazkaria Bizkaiko Aldundiko idazkari bera izan zen. Hauteskundeetan parte

142. BUA. Akta-liburua. 1936/10/06.

143. BUA. Akta-liburua. 1936/10/06.

hartzeko hondarrezko zakuz betetako korridore luzeak zeharkatu behar izan zituzten (jatorrizkoan “*atravesar largos pasillos cubiertos de sacos de arena*”), eta bilkura aretoan zinegotzi kopuru handi bat zegoen, hurrengoa itxaroten: “*esperan la voz del presidente de la Mesa para tomar parte en la votación*” (*Euzkadi*, 1936/10/08).

12:00etan, zinegotzi guztiak botoa eman ondoren, lehen zenbaketa egin zen. Bizkaiko Aldundiko mahaian 400 zinegotziek botoa eman ondoren, 84.598 botoen ordezkapena zutenak, Jose Antonio Agirre Lekube 84.498 boto lortu zituen eta Ramón de Madariaga 100 boto. Lau mahaietatik, honetan bakarrik lortu zuen Jose Antonio Agirre eta Lekube ez zen beste hautagai batek botoen bat (*Euzkadi*, 1936/10/08). Zenbaketa orokorra 1936ko urriaren 7ko 16:00etan izan zen, Bizkaiko Aldundiko bilkura aretoan. 291.471 botoek Jose Antonio Agirre Lekube jeltzalea Euskal Herriko Behin-behineko Gobernuaren lehendaritzara igo zuten. Hautaketa honen aurrean *Euzkadi* egunkariak hurrengoa esaten zuen:

“El pueblo vasco ve en la joven figura del destacado diputado nacionalista en las Cortes españolas el prestigio máximo del país, al que se le puede confiar el timón de la carta autonómica” (*Euzkadi*, 1936/10/08).

Zenbaketaren ondoren eta Euskadiko Behin-behineko Gobernuaren lehendakaria aldarrikatu ondoren, Bizkaiko gobernadore zibilak lehendakaritza-mahai bat era zedin proposatu zuen, foru-moduan eraturta, hau da, Estatutuak bere barnean hartzen zituen hiru euskal eskualde bakoitzaren bi botoz eraturta, eta bere presidentetzapean egongo zena Errepublikako Gobernuaren ordezkaria baitzen eta. Donostia, Tolosa, Bilbo, Mundaka, Laudio eta Amurrioko alkateak ere mahaiaren parte izan ziren, foru-ohiturari jarraituz. Batzar Etxea aldarrikatzeko toki bezala aukeratu zuten, zeina zinegotziz eta hainbat erakunde politiko eta sozialen ordezkariak beteta zegoen. Gernikako zuhaitzaren azpian lehendakariak hurrengo hitzak esan zituen: “*Jaungoikuaren aurrian apalik, Euzko lur ganian sutunik eta Bizkaiko Areitz aspijan asabaen gomutaz nire aginbidia zintzoru en betetia. Zin dagit*” (*Euzkadi*, 1936/10/08). Jarraian, Bizkaiko gobernadore zibilak hurrengoa esan zuen:

“En este momento, y bajo el roble de Gernika, en nombre del Gobierno de la República, hago entrega del Poder del País Vasco a su legítimo representante don José Antonio de Agirre y Lekube” (*Euzkadi*, 1936/10/08).

Lehendakariak bere lehendakaritzaren gobernuaren zerrenda irakurri zuen. Jose Antonio Agirre lehendakaria eta Defentsa saileko kontseilaria zen bitartean, beste *jelkide* batzuk sail garrantzitsuenetakoak hartu zituzten. EAJko abertzaleek Justizia eta Kulturako saila (Jesús María Leizaola), Herrizaintza (Telesforo Monzón) eta Ogasuna (Heliodoro de la Torre) zuten; PSOEko sozialistek Gizarte Laguntzako saila (Juan Gracia) eta Lan, Aurreikuspen eta Komunikazio saila (Juan de los Toyos) zuten. Beste alde batetik, URko errepublikanoek Osasun saila (Alfredo Espinosa) eta IRekoek Merkataritza eta Hornidura saila (Ramón María Aldasoro) hartu zuten; PCE-ko komunistek Lan Publikoen saila (Juan Astigarrabía) eta ANVko abertzale errepublikanoek Nekazaritza saila (Gonzalo Nárdiz). Gobernuaren osaketak Euskadiko pluralismo politikoa azaltzen zuen arren, ez zegoen bertan sindikatuen ordezkariak, nahiz eta ELA eta UGTko buruzagi garrantzitsuak kideak ziren (de la Granja, 2007). Ez zen CNTko kontseilaririk egon, kolpe militarren ostean Euskal Herrian eratu ziren erakundeetan edo Espainiako Errepublikako gobernuan ez bezala, azken honek zenbait kontseilari edo

ministro anarkista eduki baitzituen. EAJren ezetzarengatik gertatu zen hau, oroitzapen txarra gordetzen baitzuen CNTko jokaerari buruz gerrako lehen hilabetetan Gipuzkoan. EAJtik banandu zen EMB taldeak ere ez zuen parte hartu Euskal Herriko Behin-behineko Gobernuan, Euskadiren independentziaren aldeko euskal fronte nazionalista bat defendatzen zuelako, eta EAJ eta ANV kritikatzan zituen Fronte Popularrarekin egindako aliantzagatik (de la Granja, 2007).

Gertaera hau inflexio puntu bat izan zen Gerra Zibilean Euskal Herrian, eta Euskal Herriko historian nazio bezala, eta Busturiko Udalak ezin zien bizkarra eman gertaera hauei. Udalak hurrengo erabaki zuen:

“por unanimidad, felicitar efusivamente al Excmo. Sr. Don José Antonio de Aguirre y Lecube, por su exaltación a la primera magistratura del País Vasco, y a todos sus Consejeros del Gobierno provisional, expresándole la adhesión incondicional del Ayuntamiento”¹⁴⁴.

4.2.2. Busturiar bat Eusko Jaurlaritzan: José María Ucelay Uriarte

Kontseilariak hautatu ondoren, Euzko Jaurlaritza eratzen joango da dekretu ugariren bitartez, hasierakoak euskal behin-behineko gobernuko sailak eta kontseilariak eratzeko eta izendatzeko izan zirenak 1936ko urriaren 7an, eta jadanik lan honetan aipatu ditugunak (EHAA, 1936/10/09).

Euskal Autonomi Estatutuak ematen zizkion ahalmenen arabera, lehendakariak dekretuz eratu zuen Justizia eta Kultura saila. Jesús María de Leizaolaren merituak eta zerbitzuak aintzat hartuz, lehendakariak sail horren kontseilari izendatu zuen. Horregatik hurrengo agintzen zien agintari eta hiritarrei:

“a todas las autoridades y ciudadanos cumplan las órdenes que del mismo emanen en el ejercicio de las funciones que le son concedidas con arreglo a las leyes, prestando el debido respeto a su persona y autoridad”.

Justizia eta Kulturako kontseilariak batzorde juridiko-aholkulari bat sortu behar zuen, saileko titularraren presidetetzaren azpian, eta azken honek aipatutako batzordearen eta bestelako atalen kideak, idazkariak eta langileak izendatu behar zituen (EHAA, 1936/10/09).

1936ko urriaren 9an, kontseilariak José de Aretxalde Aranburu eta Alfredo Ruiz del Castaño jaunak izendatu zituen Justiziako Idazkari Orokorra eta Kulturako Idazkari Orokorra izateko, hurrenez hurren, bakoitza bere saileko kontuez ardura zedin (EHAA, 1936/10/10). Hurrengo egunetan, kontseilariak berak Ildefonso de Gurruchaga izendatzen zuen Arte Eder, Artxibo, Liburutegi eta Museoen Zuzendari gisa (EHAA, 1936/10/12). Ildefonso de Gurruchaga zuzendari bezala izendatu baino lehen, lehendakariak José María Ucelay Uriarte busturiarrarekin harremanetan jarri zen, Deustuko Unibertsitatearen ikasketak egin zuenetik ezagutzen zuena, eta galdetu zion Arte Ederretako Zuzendaritza Orokorren arduraduna izateko nor ikusten zuen egokiago:

144. BUA. Akta-liburua. 1936/10/18.

Ramón Aras Jáuregui edo Ildefonso Gurruchaga. Dirudienez, margolariak biak baztertu zituen adinagatik eta osasun txarragatik, eta obrak bil eta babes zitzakeen gazte bat izendatzea gomendatu zion. Busturiarren aholkuari kasu egin gabe, Gurruchaga zuzendari izendatu zuten. Hala ere, zuzendari gisa hamaika egun egon ondoren, 1936ko urriaren 22an Gurruchaga Euskadiko Fiskal Gorena eta Justizia Saileko aholkulari izendatu zuten. Arrazoi honengatik, urriaren 23an lehendakariak Arte Ederretako Zuzendaritza Orokorra Ucelayri eman zion, eta urriaren 26an izan zen izendapena, nahiz eta urriaren 9tik zuzendaritza horrentzat lan egiten zuten (Muñoz Fernández, 2010; 2015).

Kulturako atala, aipatutako idazkari orokorraren zuzendaritzapean, hiru Zuzendaritza Orokorretan banatu zen, bakoitza Zuzendari Orokor baten ardurapean: Oinarrizko Irakaskuntzako Zuzendaritza Orokorra, Irakaskuntza Ertaineko Zuzendaritza Orokorra eta Arte Eder, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Orokorra. Urriaren erdialdean, Euzko Jaurlaritzako Justizia eta Kultura saileko Kultura atal honetarako lan egiten zuten ere artxibo eta liburutegien ofizial bat eta bi gidari (Muñoz Fernández, 2015).

Altxor Artistikoaren babesa sailaren lehen jardueren artean zegoen, eta lehendakariak agindu zuen Justizia eta Kultura Sailak arte-lanak, liburutegiak, artxibategien dokumentuak, ondare artistiko, kultural eta historikoak katalogatzeko, babesteko eta gordetzeko beharrezkoak ziren arauak onartu behar zituela, hurrengo helbura lortzeko: *“a fin de preservarlas de los riesgos de destrucción inherentes a la guerra civil”* (EHAA, 1936/10/13). Eta hori izan zen Autonomia estatutuaren arabera aipatutako guztiak Euzko Jaurlaritzako eskumenak zirelako, jarraian zehazten den bezala: *“los servicios de Bellas Artes, Archivos, Museos, Bibliotecas y Tesoro artístico”* (EHAA, 1936/10/09).

Euzko Jaurlaritzak eratu baino lehen, Manuel Losada bezalako pertsona batzuk (orduan Bilboko Arte Ederretako Museoaren zuzendaria zena), museoak ixtea erabaki zuten ondarea salbatzeko asmoz (Zenbait egile, 2004: 50). Euzko Jaurlaritzak eratu ondoren, eta ondarea babesteko joerari jarraituz, Justizia eta Kulturako Sailak agindu bat argitaratu zuen non gerra eremuan zeuden notarioek eta erregistratzaileek protokoloak eta artxiboak Bilboko hiribildura eraman behar zituzten, hiribilduko protokoloen artxibozainak gorde zitzaizkien (EHAA, 1936/10/17). Artxiboak buruz erakusten zen ardurak argi geratu zen parrokiako artxiboak zaindu eta gordetzeari buruzko dekretu batean, Espainiako Errepublikak emandako 1936ko abuztuaren 28ko dekretu batek eragin zuena. Helburua argia zen, parrokiakoak babestu behar ziren artxibo zibilekin zuten elkarreraginengatik, eta horrela hurrengo egoera saihesteko: *“pudiera dar lugar a la simultánea destrucción de ambos, que es lo que precisamente se trata de evitar, por el carácter recíprocamente complementario de unos y otros”*. Horregatik, parrokiako erregistroak parrokoen edo haien ordezkoen zaindazapean jarraitzen zuten, eta haien zaindazapera itzuliko ziren une horretan ez zeudenak (EHAA, 1936/10/25).

Ikus daiteke nola Arte Ederretako Zuzendaritza berriaren ardurak arte-lan, artxibo eta liburutegi garrantzitsuak gerra frontetik babestea eta erretiratzea izan zen. Horrela, Ucelay, Julián Tellaechekoa margolariaren laguntzarekin batera —azken hau Arte Ederretako Zuzendaritza Orokorra atxikia egon zena BBB-k euskal parrokiaren altxor erlijiosoaren

zaindaria izendatu ondoren (Ucelay, 1978)—, Elgetaraino joan zen XV. mendeko Flandriako triptikoa Bilbora eramateko, eta Arespalditzara joan zen ere Ayala kantzilerraren eta bere emaztearen hilobiak lurrez betetako zakuez estaltzera. Ziortzako Kolegiataren artxiboa eta Markinako Munibe jauregiko Urquijo kondearen liburutegia lekuz aldatu zituen ere, eta Bilboko *Sociedad Bilbainako* Euskadiko liburutegia hor-matu egin zen Tomás Bilbao arkitektoaren laguntzarekin. Ez dugu ahaztu behar ondare arkitektonikoa Euzko Jaurilaritzaren politiken xedea izan zela, “*altxor artistiko eta kulturaren*” parte zelako, eta gobernuari jakinarazi behar zitzaion eraikinen eraispeneren zerrenda orokor bat ondarezko interesa zuten eraikuntza zibil edo erlijiosoak desagertzea saihesteko (EHAA, 1936/12/17).

Azaroaren erdialdean Justizia eta Kulturako kontseilariak Agindu bat eman zuen non, 1936ko urriaren 13an Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratutako dekretua betez, Euskadin zeuden erakunde guztiek Kulturako Idazkaritza Orokorrari hurrengoak jakinarazi behar zioten:

“objetos de interés científico-pedagógicos que existían en sus localidades respectivas, bien bajo su poder o custodia o del de entidades o personas particulares. Esta disposición alcanza, a su vez, a todas las obras de arte y objetos científicos que hayan sido trasladados durante el actual movimiento sedicioso, para, en este caso, proceder a la investigación de su paradero”.

Aldi berean, aipatutako erakundeek eragotzi behar zuten Arte Eder, Museo, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritzak jakin gabe eta Sailaren baimenik gabe obrak edo objektuak lekuz aldatzea (EHAA, 1936/11/20). Horretarako, Arte Ederretako Zuzendaritza museoen eta beste erakundeen zuzendariekin eta partikularrekin harremanetan jarri zen obrak zaintzeko eskaintza egiteko gerra zirauen bitartean. Dirudienez, hori egin zuten zenbait erlijio-gunek eta hainbat partikularrek. Hala ere, Uribitarteko gordetegi frankora zeramatzaten bitartean, objektu batzuk desagertu egin ziren, museoaren altzarien zati bat barne. Arte Ederretako Zuzendaritzak ere Bilboko arteko museoen fondoak toki seguru batera eramatea erabaki zuen, Arte eta Lanbideen Eskola eta Arte Ederretako Museoa milizianoen kuartelak eta errefuxiatuen aterpea baitziren (Muñoz Fernández, 2010; Ucelay, 1978).

Euzko Jaurilaritzak ezin zuen inola ere euskal kultura alde batera utzi. Gerra-inguru batean jaio zen arren eta euskal lurraldea askatzeko ahaleginak egin behar zituen arren, kultura bere politiken xedea izan zen. Horregatik, 1936ko abenduaren 14an Euzkadiko Kultura Kontseilua sortu zen, Euzko Jaurilaritzaren organismo aholku-emalea izan zena. Kontseilua Justizia eta Kulturako kontseilariak izendatu zituen 30 kidek osatu zuten, eta kontseilaria izan zen Kontseiluaren presidentea. Hobeto funtzionatzeko Kontseilua 6 ataletan banatu zen: Oinarrizko irakaskuntza, Irakaskuntza ertaina, Goi-mailako irakaskuntza, Irakaskuntza teknikoa, Euskal hizkuntza eta kultura eta Artxiboak, liburutegiak eta arte ederrak (EHAA, 1936/12/16). 1937ko urtarrilaren 28an Euzkadiko Kultura Kontseilua osatzen zuten atalak eratu ziren, eta Seigarren Atala osatu zuten Manuel Losada (Arte Ederretako Museoaren zuzendaria), Jesús Larrea (Arkeologia eta Etnografiako Museoaren zuzendaria), José Arrúe Valle (margolaria), Eduardo Gorosarri (irakaslea Bizkaiko Musika Kontserbatorioan) eta Volney Conde-Pelayo (liburuzaina). Kontseiluaren osoko bilkura kontseiluaren atal guztiak osatzen zuten jaunek osatzen zuten (EHAA, 1937/01/30).

Hala ere, 1937ko martxotik aurrera bonbardaketak areagotu ziren eta matxinatuak hurbiltzen joan ziren Bilbora Mola Jenerala Bizkaian egiten ari zen erasoaren zioz. Arrazoi honengatik Euzko Jaurlaritzak, Ucelayren erantzukizun eta gainbegiradapean, ondarte artistiko guztia Frantziara eramatea erabaki zuen. Hala ere, Losada Arte Ederretako Museoa hustearen kontra azaldu zen berme faltagatik, eta gerra bukatu arte Marciano Pérezekin batera obrak zaintzeko eskaini zuen bere burua, eta ziur aski horrela egin zuten tropa frankistak Bilbon sartu ziren arte. Haiekin Antonio Guezala margolaria egon zen, Arte Modernoko Museoaren patronatuko kidea zena, eta Parisera eraman ziren obrak zainduko zituela agindu zuen, hara joan baitzen hiriburua erori ondoren (Muñoz Fernández, 2010; AA. VV., 2004; Vélez, 1992; Mur Pastor, 1991).

Obren ebakuazioa itsasoz bakarrik egin zitekeen, eta bi bidalketetan egin zen Bilbo okupatu baino egun gutxi lehenago. Horietako bidalketa batean, ziur aski azkena izan zena 1937ko ekainean, *Axpe-Mendi* eta *Sea Bank* itsasontziek Arte Modernoko Museoko obrez betetako kutzak eta gobernuko ordezkariak eraman zituzten. Gainera, *Thurston* baporean gobernuaren artxiboak, urrea, baloreak, diruz eta banku-dokumentuz betetako kutzak, Eibarko piezak, armak, damaskinatuak eta liburuak garraiatu ziren (Muñoz Fernández, 2010; Pardo San Gil, 2004).

Jose María Ucelay Uriartek, Euzko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, Frantziako Arte Ederretako Zuzendaritza Orokorrekin hitzartu zuen ebakuatu ziren arte-lanak Pariseko Luxenburgoko Museoan ikusgai jar zitezela, Pariseko jendeak ikus zitzan gerra bukatu arte (Ucelay, 1978). Parisen Tellaeche Arte Modernoko Museoaren zuzendaria atzerrian izendatu zuten, Ucelay busturiarra Luxenburgoko Museoko erakusketa iraunkorraz eta Pariseko Nazioarteko Erakusketako (*“Exposition Internationale des Arts et Techniques”*) pabilioi espainiarreko euskal sailaren komisariotzaz arduratzen zen bitartean 1937ko apirilean, non busturiarraren margolanak zeuden (Muñoz Fernández, 2010; Martín, 1982; Alix Trueba, 1987). Nazioarteko erakusketa bukatu ondoren, euskal margolariek modu ibiltarian erakutsi zituzten euren lanak Europako hiri ugarritan, *Eresoinka* dantza eta musika taldearekin batera. Talde honi euskal margolariek lagundu zioten; adibidez, Ucelay eszenografiaz eta jantziez arduratu zen, bai eta harreman publikoetaz ere. Guezala margolariak ere eszenografia, dekoratu eta jantzien zenbait muntaia egin zituen, eta Tellaeche eta Arrúe bezalako artistek ere parte hartu zuten.



José Ucelay 1934. urtearen inguruan, Altamira auzoko inguruetan paseatzen aterkia eskuan duela (Iturria: Busturiko Udala).

1938ko abuztuan José María Ucelay Uriarte Londresen geratu zen *Eresoinkaren* emanaldi baten ondoren; Tellaeche, aldiz, Peruraino heldu zen 1952an eta Guezala, matxinatuek altxor artistikoa espoliatu zuela egotzi ostean, Bilbora itzuli zen 1940an (Kortadi, 1979; Mur Pastor, 1991). 1938an gobernu frankistak Uribitarteko gordetegi frankoaren obrak itzultzen hasi zen. 1940an militarrek Arte eta Lanbideen Eskola okupatzen zuten oraindik, eta Arte Ederretako Museoaren obrak hiriburuko hainbat probintzia- eta udal-bulegoetan sakabanatuta zeuden. 1939tik aurrera, Tellaeche, Euzko Jaurlaritza atzerriratuaren ordezkari gisa, 20 kutxa eman zizkion Juan de Irigoyen eta Ignacio María de Smithek osatzen zuten batzorde bati. Parisera ebakatu zen ondarearen beste zati bat autonomia-gobernuaren ordezkartzaren ardurapean geratu zen 1978ra arte (Muñoz Fernández, 2010; 2015; Alix Trueba, 1987; Ucelay; 1978; Barañano, 1981).

José María Ucelayk Ingalaterran erbesteratua egon zen denbora laburrean hainbat erretratu eta mural egin zituen, eta 1941ean erakusketa egin zuen Londresen. 1946an *Caronia* trasatlantiko ingelesaren aretoetarako lau panel handi egiteko enkargua jaso zuen, eta horietan itsas historiaren kontakizun bat garatzen da. Ordurako atzerritik itzulia zen eta 1940tik bere Chirapozuko etxean (Busturia) zegoen, non hil arte bizi izan zen.

4.2.3. Tokiko Defentsa Batzarraren deuseztapena Busturian

Tokiko Defentsa Batzarrek Euzko Jaurlaritzako Herrizaintza Sailaren dekretu batek desegin zituen arte funtzionatu zuten, 1936ko azaroaren 16an hain zuzen ere (EHAA, 1936/11/18). Gerra zibil bateko ezohiko baldintzetan jaiotzen ziren erakundeak, Errepublikaren aldeko erakunde politiko eta sindikalen ordezkartzak biltzen zituztenak gerra garaian administrazioari laguntzeko asmoz, bake garaian erakunde zibilei zegozkien lanak eta eginkizunak hartzen bukatu zuten. Honen zioz udalen jarduera administratiboan jaitxi egin zen, Busturiarena barne, eta orain funtzio guztiak berreskuratu behar zituzten. Aipatutako dekretuak adierazten zuen behin Bizkaiko Batzar Orokorra desagertuta, bere funtzioak Euzko Jaurlaritzak hartu zituelako, Tokiko Batzarrek ez zutela existitzeko arrazoirik. Arrazoi honengatik euskal udalen berehalako integrazio osoa dekretatu zen, eta herriak hautatutako zinegotziek karguetan jarraituko zuten kargugabetuak izan ez baziren. Gainera, gerraren defentsa eta laguntza-antolaketa beharrezko gaitasunak alkateek eta udalek eskuratzen zituzten (ordura arte Tokiko Defentsa Batzarrak egikaritzen zituzten), eta Euzko Jaurlaritzaren sailekin batera garatzen hasi zituzten Euskadik udal-mailan 1936ko uztailaren 18tik zuten dualtasun administratiboarekin bukatuz.

Busturiko Udalean, 1936ko azaroaren 29ko biltzarrean, alkateak aipatutako dekretua azaldu zuen, eta azaroaren 25ean jaso zen Euzko Jaurlaritzako Toki-administrazioaren Zuzendari Orokorraren agindu telegrafiko bat, dekretu hori betetzeko esanez, jakinarazi zuen ere. Biltzar honetan ere adierazten zen Juan Antonio Arguinzóniz Porturasek, Tokiko Defentsa Batzarraren presidente gisa, aipatutako Batzarrari jakinarazi behar ziola bere berehalako desegitea, eta ekintza hori akta batean jaso behar zen, non Tokiko Defentsa Batzordeak Antolín Luzárraga Cearreta auzokoari konfiskatu zizkion lokalen, merkantzia-biltegien eta garajearen entrega agertu behar zen. Dirudienez, garajeko autoak Palmira

Arrotegi auzokoarenak ziren: “*Palmira Arrotegiri, telefonoa moztu eta eduki zituen hiru automobilak kendu eta beharbada dirua ere eskatu ote zioten susmoa zegoen*” (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 332). Bilbon bizi baina udan behin-behineko egoitza elizatean zuen Federico Urrutia Ugarte izan zen estatu-kolpea gertatu bezain laster honakoa egin zuena: “*requisó los automóviles de la localidad a nombre del Ayuntamiento, coches que posteriormente fueron devueltos a sus propietarios hasta que los requisaron directamente los partidos*”. Hala ere, dirudienez berak saihestu nahi zuen auto horiek “gorriek” har zitzaten: “*al parecer iba encaminado a evitar que dichos vehículos fueran requisados por los rojos*”¹⁴⁵. Herriko milizianoak ordena publikoko agente bezala geratzen ziren, Segurtasuneko Zuzendaritza Orokorren ardurapean. Azkenik, Carmelo Llantada Uriaguerecak emandako hornidura zerbitzuak ordaintzeko, Udalak erabaki zuen udalaren ordezkari izendatzea elizate honetako Hornidura Sailaz arduratzeko¹⁴⁶. Herriko ordena publikoko agenteei dagokienez, Segurtasuneko Zuzendaritza Orokorra izendapenak egiten hasi zen, alkatearen proposamenei jarraituz, eta erakunde horren agintepean geratu ziren¹⁴⁷.

4.3. Errepresio errepublikanoa

4.3.1. Udal-garriketa

1936ko uztailaren 18an Errepublikari leialak ziren bi probintzietan udal-agintea eten egin zen eta eskuineko zinegotziak kargugabetu ziren, mugimendu iraultzailean parte hartu zutenei edo mugimenduaren aldekoak zirenei gertatu zitzaie bezala, eta Fronte Popularraren aldeko botere eta erakunde berriak agertuz joan ziren udal-mailako edo eskualde-mailako kudeaketaz arduratzeko. Bizkaiko Gobernu Zibilak ofizio bat bidali zion Busturiko alkateari 1936ko irailaren 3an, eta bertan azaltzen zen esplizituki udal-agintari biek zirela, Busturiko Udala eta Defentsa Batzarra, Gobernu Zibilari informazioa eman behar ziotenak estatuko, probintziako eta udaleko langileei buruz, finkoak zein ordezkari izan, Busturiko auzotarrak baziren eta Espainiako Errepublikaren etsai nabarmenak baziren¹⁴⁸. Eztabaida labur baten ostean Udalak erabaki zuen, aho batez, hurrengo jakinaraztea:

“atendiéndose estrictamente al espíritu y letra de la comunicación de la Secretaría General de Orden Público del Gobierno Civil de esta provincia, fecha tres de los corrientes, no existe en este Municipio ningún empleado notoriamente enemigo del Régimen”¹⁴⁹.

145. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

146. BUA. Akta-liburua. 1936/11/29.

147. BUA. Akta-liburua. 1936/12/27.

148. BUA. Akta-liburua. 1936/09/11.

149. BUA. Akta-liburua. 1936/09/13.

**Busturiko Udalaren administrazio-funtzionarioak, menpekoak,
teknikariak edo medikuak Gerra Zibilean**

Abizenak, Izena	Kargua
Gorriño Tribis-Arrospe, Vicente	Idazkaria
	Kontu-hartzailea
Cearreta Urrutia, Andrés	Gordailuzaina
Uriaguereca Araluzea, Antonio	Ariel-biltzailea
Arguinzóniz Urquiza, Anastasio	Arkitektoa
Hutsik	Botikari titularra
	Praktikantea
	Emagjina
Uribarrena Erezuma, Pedro	Albaitaria
Uriaguereca Araluzea, Antonio	Udaltzaina
	Ehorzlea
	Iturgina
	Lorezaina
Borda Lejarza, Julián	Danbolindaria
	Aldarrikaria
Iraculis Gorriño, Isidoro	Erloju publikoaren arduraduna
Echevarría, Teresa	Kale-garbitzailea
Mendieta Lezámiz, Julio	Sendagile titularra
	Osasun-ikuskatzailea

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

Busturian udala osatu zuten elementu guztiak Espainiako II. Errepublikaren aldekoak ziren bitartean, probintziako beste hainbat udaletan egoera oso bestelakoa zen. Esaterako, Portugaleten gobernadore zibilak 1934an udala eratu zuten eskuineko sei zinegotziei aldi baterako eginkizunak kendu zizkien erregimenaren aldekoak ez izatea-gatik edo etsaiak izateagatik, eta zinegotzi errepublikano bati gauza bera egin zion. Kasu honetan Portugaleteko Tokiko Defentsa Batzarra eskuineko zinegotziei eginkizunak kentzearen alde agertu zen, baina ez errepublikanoari kentzearen alde (Tasio, 2012). Arrigorriagaren kasuan, irailaren 18an udaleko idazkariari, telegrafo-ofizial bati, bi irakasle nazionalari eta Aldundiko bidezainen langileburu bati, beste hainbaten artean, eginkizunak kendu zizkieten (Ibarretxe eta Molinuevo, 2009: 100). Hala ere, Busturian jaiotako batek berrero bezala jardun zuen aldi honetan. Martín Bilbao Bilbao, Busturian jaioa, Zornotzako bizilaguna eta ELA tokiko erakunde sindikalaren presidentea zena, matxinada militarren ondoren udaltzain armatuaren zerbitzuak ematen hasi zen, Zornotzako Tokiko Batzordearen kidea izanik, eta gero Zornotzako Udalaren zinegotzi izendatu zuten. Martín Bilbaok batzorde garbitzaile batean parte hartu zuen:

“habiéndose llevado a cabo durante su permanencia en el seno de los citados organismos rebeldes algunas detenciones al parecer sin consecuencias y una destitución de un funcionario municipal que fue suspendido de empleo y sueldo”¹⁵⁰.

Tokiko administrazioa garbitzeko lan honen baitan Busturiko udal-epailearen kargugabetzea topatzen dugu 1936ko abuztuaren 1ean, Juan Pablo Gorriño Guarrochena izenekoa, baliteke ideologia tradizionalista izateagatik, Espainiako Errepublikaren aldekoak ez ziren udaleko beste fiskal eta epaileekin batera. Murueta bezalako hurbileko herrietan udal-mailako justizian kargurik kendu ez zen bitartean, Foruan udal-epailea, ordezkotza epailea eta ordezkotza fiskala kargugabetu ziren. Azkenik, Errigoitiko herrian, udaleko epaileari eta fiskalari, bai eta ordezkotzei ere, kargua kendu zieten erregimenari leialtasuna ez gordetzeagatik¹⁵¹.

Euzko Jaurlaritzak garbiketarekin jarraitu zuen, Justizia eta Kultura Sailak premia handiagorekin eskatzen zuen gaietako bat baitzen, hurrengoa lortzeko asmoz:

“pronta normalización de las funciones de la Justicia municipal, doblemente perturbadas por las presentes circunstancias y por la existencia en la misma de funcionarios notoriamente desafectos a Euzkadi y a la República, no pudiéndose, por otra parte, atendida la actual situación, seguir para los nuevos nombramientos ninguno de los procedimientos de elección popular o nombramiento libre por la Audiencia Territorial, hasta ahora puestos en práctica”.

Egoerak eskatzen zituen bizkortasuna eta bermeak bateratzen zituen prozedura berri bat egin zen. Arrazoi honengatik 1936ko urriaren 20tik aurrera kargurik gabe geratu ziren udaleko epaile eta fiskal guztiak, jarraian adierazten den bezala: “*todos los Jueces y Fiscales municipales, así como sus suplentes respectivos, en todo el territorio sujeto al Gobierno del País Vasco*”.

Eta horrez gain:

“a propuesta en terna de una Comisión formada por el Secretario General de Justicia, el Fiscal Superior de Euzkadi y el Presidente de la Audiencia Provincial de Bilbao, el Consejero de Justicia verificara los nombramientos de los Jueces y Fiscales municipales titulares y suplentes” (EHAA, 1936/10/22).

Justizia eta Kulturako kontseilariak, EAJkoa, 1936ko abenduaren 16an Bilbon emandako agindu batek hurrengo hauek izendatu zituen: Francisco Ormaechea Bilbao udal-epaile titular gisa; Eusebio Mendoza Foruria, ordezkotza udal-epaile gisa; Anastasio Arróspide Achicallende, udaleko fiskal titular gisa; eta Anastasio Aberasturi Goitia, ordezkotza udaleko fiskal gisa (EHAA, 1937/02/17). Hala ere, dirudienez izendapenek ez zuten Busturiko Udal Epategian eraginkortasunik izan 1937ko martxoak arte¹⁵².

Mesfidantza arrunta zen aparteko une haietan, edozein pertsona Espainiako Errepublikaren aldekoa ez izateaz susmagarri izan zitekeen. Hori izan zen Policarpo

150. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Espetxeak. 177. kutxa. 04. Txostena. AGMG (Gualajarako Artxibo Orokor Militarra) CCEP. 610. kutxa. 38133. txostena.

151. MHZD. PS Santander C. 19. kutxa. 12. txostena.

152. MHZD. PS Madril. 173. kutxa.

Astoreca Bericuaren kasua, Tokiko Defentsa Batzordearen presidentea eta Ezker Errepublikanokoa zena, eta Bermeoko Langileen Elkartearen Federazioak 1936ko azaroan egindako txosten batean agertzen zena, non Errepublikarentzat konfiantza gutxiko pertsona zela esaten zen Primo de Riveraren diktaduran hainbat kargu eduki zituelako Busturiko Udalean¹⁵³.

4.3.2. Indarkeria politikoa, miaketak eta atxiloketak

Udal-agintearen etenaldi honetan, udaletako langile administratiboak, menpekoak, teknikariak edo medikuak kentzeagatik, matxinadaren mugimenduan aktiboki parte hartu zuten edo bere aldekoak ziren langile probintziaz gain, Fronte Popularraren aldeko udaleko agintari eta erakunde berriak sortu ziren, dagoeneko azaldu ditugunak. Gipuzkoako Defentsa Batzarra eta Errepublika Defendatzeko Bizkaiko Komisaria Orokorra sortu arte (1936ko uztailaren 27an eta 1936ko uztailaren 23an, hurrenez hurren), kolpe militarren babesean sortutako tokiko erakunde edo batzorde hauek izan ziren pertsonak kokatu eta atxilotu zituztenak haien joera politikoaren arabera (ustezkoa zein adierazitakoa izan), ez delitu bat egiteagatik. Espetxeak inprobisatu ziren erai-kin erlijiosoetan, udaletxeetan edo erakunde politiko eta sindikalen lokaletan. Adibidez, Debako Defentsa Batzordeak Heraclio Echeverriaren atxiloketa agindu zuen Itziarren, eta gero Eibarko Batzordeari entregatu zion. Debako Batzordeak berak Luis Sierra komandante ohia atxilotu zuen Zumaiarako errepidean. Komandantea Debako Udaletxeko kartzela-geletan sartu zuten, eta zazpi egun geroago Batzordeko kideek Ordena Publikoko Komisariara eraman zuten, eta han galdeketa egin ondoren Ondarretako espetxera eraman zuten¹⁵⁴. Ciriaco Echevarría Uribe eta Sinfiorano Iparaguirre Garciarena jeltzaleak Ordena Publikoko Batzordearen buruak izan ziren Busturiko Tokiko Batzordea sortu zenetik. Ciriaco Echevarría Uribek esan zuenez: “(aceptó este cargo poniendo) como condición expresa que no se perseguiría a nadie por sus ideas políticas”. Gainera, hurrengo adierazi zuten: “que durante el tiempo en que el dicente (Ciriaco Echevarría) perteneció a ese comité no se efectuó ninguna detención y ningún registro domiciliar”¹⁵⁵. Sinfiorano Iparaguirre Garciarenak esan zuen batzordean eman zuten denboran atxiloketarik agindu ez zuela: “(no) ordenó ninguna requisita ni detención de persona alguna sino que por el contrario favoreció a aquellos que pudo”¹⁵⁶. Ildo beretik doa Joseba Agirrezkuenaga Zigorrage historiagilea:

“Uda zen legez, Sukarrieta eta inguruetan, udatiar pila zegoen, gehienak eskubitarrak faxismoaren zaleak. Arratsaldetan eleizara joaten ziren, Francoren aldeko otoitzak egiten. Batzuk detentatuak izan ziren, baina dirudienez herri mailan barik, Bilbotik agindua heldu zelarik. Busturian gerra garain inor ez zen detentatua izan. Juan Ojinagak, Errepublika garaian Busturiko batzokiko buruaren esanetan «pentsa be iñor detenidu bidanik» eta Arginzoniz alkateak esan ei zuen «ni alkate nasen artean esta gure errijen inor deteniduko» eta horrelako nahian zebiltzanei «zenok egin baiña nire isenien es» erantzun zien” (Agirrezkuenaga Zigorrage, 1987: 331-332).

153. MHZD. PS Santander O. 85. kutxa. 3-11 folioak.

154. MHZD. PS Bilbao. 112. kutxa. 09. txostena.

155. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 780/37 kausa. Bizkaia.

156. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 780/37 kausa. Bizkaia.

Hala ere, badirudi Busturiko herritarrek kolpe militarren ondoren Bizkaian sortu zen banaketa politikoko eta indarkeriako giroaren eragina jaso zutela. Demetrio Lecumberriren lekukotasunaren arabera, Urruchua ahizpen tabernan halakoak entzuten ziren:

“frases de incitación contra las personas afectas a la Causa de España, llegando inclusive a manifestar con ocasión de la toma de Irún que al que lo dijese había que cortar el cuello y así mismo que había que matar a todas las personas de derechas”.

Gainera, bere lekukotasunari jarraituz: “(allí se) *fraguó la lista de personas de derechas del pueblo de Pedernales que posteriormente fueron detenidas*”. Román Cearreta berak ere hurrengoa esan zuen:

“no es cierto que haya hecho manifestaciones de desafecho a España ni en contra de las derechas, (...) ha tenido disgustos en la localidad por defender a personas de esta significación, sucediéndole así con la mujer de Félix Muñoz, (...) que le reprochó duramente y le insultó porque no se tomaba una determinación radical contra las derechas”¹⁵⁷.

Darío Gómez Apraizek Bárbara Arangureni buruz (EABko presidentea izan zena herrian matxinoak sartu ziren arte) hurrengoa esaten zuen, zurrumurruetan oinarriturik:

“(en) sus conversaciones públicas y privadas se ha expresado en términos de incitación contra las derechas, habiendo oído decir el declarante a algunas personas que la citada Sra. era partidaria de que no se dejara vivo a un solo elemento fascista”.

Luis Santamaría Menchacaren lekukotasunak hurrengoa adierazten zuen: “*que en determinada ocasión (Bárbara Aranguren) dijo que a todos los fascistas había que matarlos*”. Dena den, Bárbara berak hurrengoa aitortu zuen: “*no es cierto haya incitado a la violencia a las personas de derecha ni haya dicho que había que matar a todos los fascistas*”¹⁵⁸. Azkenik, Federico Urrutia Ugarte, Bilbon bizi baina udan behin-behinekoko egoitza Busturian zuena, adierazi zuen nola Policarpo Astoreca bere izaera txarratik nabarmendu zen, hurrengoa esanez berari buruz: “(destacó) *por la violencia de su carácter y por las constantes amenazas que profería para las personas de derechas era uno de los más temidos por éstas*”¹⁵⁹. Busturiko herritarren artean zegoen banaketa politikoa argia zen. Emilio Saenz sendagilea, Portugaleten jaioa baina Bilbon bizi zena, Busturiko herrira heldu zen Bilboko hiribilduan gertatzen ari zen errepresiotik ihes eginez. Busturira heldu zenean herriko hainbat biztanlek saihesti zuten bere zaletasun politikoa ezagutzean¹⁶⁰.

Euskal herritarrek katolikoak izan arren, batez ere landa eremuan, Busturialdean ondare erlijiosoari eraso egin zioten Espainiako Errepublikarekin leialak ziren batzuk. Propaganda matxinoa aipatuko ez ditudan gertaera asko lapurreta edo eraikinen derri-gorrezko okupazio bezala aurkezten saiatu zen arren, hainbat ekintza herrietan tropak kuarteleratzeko beharrarengatik, euskal ondare higigarri erlijioso ebakuatzeagatik edo

157. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

158. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 541/37 kausa. Bizkaia.

159. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

160. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 780/37 kausa. Bizkaia.

matxinoen okupazioarekin gerra-xede bihurtuko ziren eraikinak suntsitzeagatik izan ziren. Dena den, antiklerikalismoaren erakusgai diren gertaerak azaldu behar dira ere, San Joseren irudiaren kontrako tiroak bezala Ibarurin edo Arrietako parrokiaren atea dinamitaz lehertzea bezala. Gertaera hauei beste batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola San Estebanen irudien suntsipena eta San Bizenteren mutilazioa Morgan (Gatibu Ohien Bizkaiko Ordezkaritza Probintziala, 1946: 120).

Bizkaian eta Gipuzkoan 1936ko uztailaren 18tik geroztik ordena publikoaren kontrola alderdi katoliko batek izateak, EAJk hain zuzen ere, antiklerikalismoaren erakusgarri ugari saihestea ekarri zuen, hala nola eraiketak, arpilatzeak, lapurretak edo eraikin erlijiosoaren eraketak. Adibidez, Antonio María Arriaga Anduiza teologiako ikaslea, agustindarra eta Busturian jaioa, 1936ko uztailaren 24an erail zuten Madril 32 urte zituela (Mata, 2013; Vicuña, 1945: 284). Martiri beatifikatu bihurtu zen 2007ko urriaren 28an. Dena den, Fredi Paia zalantzak ditu bere fusilamenduari buruz:

“Francoren aldeko beste busturiarra Antonio María Arriaga Anduiza izan zan. 1903ko abenduan jaio zan Altamirako auzoan. Osasun gitxikoa izan zan gaztetarik eta gorputza apurka paralizau eutsan gaisoa eukalako, ezin izan zan abade egin; lego izan zan. Escorialieko monastegian harrapau eban gerreak; gainerako erlijiosoakaz batera atxilotu eta Madrileko ospitale batera eroan eben. San Agustin hurrengo egunean ospitaletik atera eben veste laugaz batera, baina ez daukagu datu garbirik, fusilatu a la gaisotasinaren ondorioz hil zan. Edozelan be ospitaletik atera eta hurrengo egunean zabaldu eban bere heriotzaren barria erizain batek. Viva cristo rey aldarrika hil ei zan. Vatikanok kanonizau egin eban gerora” (Paia, 2005: 223).

Cesáreo Elesgaray Otazua, 32 urtekoa eta Busturian jaioa, 1936an hil zen ere, ziur aski Vallecasen fusilatua. Busturiar hau familia bizentiarren hildakoen artean zegoen Espainian eta kanonizazio prozesuan zegoen. 2017ko martxoaren 23an Frantzisko aita santuak bere martiriari buruzko dekretua baimendu zuen.

Antiklerikalismo giro honetan ere Tomás Berjemo Valenciano fraide agustindarraren eraiketa gertatu zen, 1936ko apirilaren 26an, Errigoiti eta Busturiaren artean. Guadalajarrar hau Euskal Herrira heldu zen Portugaleteko komentura bidali zutelako, haurren prestakuntzaz eta eskolatzeaz ardura zedin Santo Tomás de Villanueva fundazioaren doako eskoletan. Gerra Zibila hasi zenean komentua kuartel bihurtu zenez, Gernikako beste komentu batera joan babesaren bila. Bigarren komentu hau kuartel bihurtu zuten ere eta gudariekin eta milizianoekin bizitzen egon zen, gutxienez, 1937ko martxoak arte. 1937ko martxotik hil zen arte familia lagunaren etxeetan babestu zen. 1937ko apirilaren 25ean Bermeoko errepidetik irten zen Busturirantz beste erlijioso baten berri jakiteko. Soldadu batzuk atxilotu zuten eta agintari batek inori kalte egiteko gai ez zen errugabetzat jo zuen, baina beste batek zelatarizat jo zuen. Azkenean, Busturia eta Errigoitiren artean fusilatu zuten 1937ko apirilaren 26an, 44 urte zituela (Vicuña, 1945: 261, 284).

Lekuko batek azaltzen zuen nola Busturialdean jendea ezkututzen zen: “*hubo algunos (monárquicos y carlistas) que se escondieron, otros que sabíamos donde estaban escondidos y no fuimos a por ellos*”. Gernikako arkitektoak ere, Castor Uriarte izenekoa, adierazten zuen nola frankistak ezkututzen ziren: “*estaban ocultos en sus casas o en otros refugios eran protegidos por los nacionalistas, para que elementos incontrolados no cometieran algún desaguisado*” (Cava Mesa, 1996). Joseba Agirreazkuenagak ere hurrengo adierazten zuen:

“Horrela bada, frankisten aldekoak eta betidaniko eskubitarrak herritarren artean aurkitu eta jakin, faxista batzuk herrian ezkutaturik zeudela, eta inor ez zen detentua izan. Adibidez Palmira Arroategi eta bere senarra Gabriel Learreta, monarkiko eta eskubitar deklaratuak, beldurpean ikaraz bizi baziren (Gabrielek etxe atzeko orman eskilara bat eukan jarrita inor baletor handik mendira ihes egiteko) ez zuten inolako kalte pertsonalik jasan. Areago oraindik, Euskal Gobernuak baekian Busturian faxista batzuk ezkutaturik zeudela, ostatueta eta etxeetan. Adibidez Erramonaneko ostatuan denetarik zegoen eta Hipolito Alvarezek Durangoko abogadu bi gorderik izan zituen etxean («eurek bisirik atera eskero gero beren bisijien esen faltarik esteula eukingo») eta beste bost eskubitar, inor ez zela hil egin behar eta, Txukenen falanjista bat eta karlotak eta Jesusak Bilbao mehatxaturik egon zen enpresari bat ezkutatu eta Lagako ondartzara bidali zuten, milizianoak etxe inguruan miazten egon ziren bitartean. Horrez gainera, herriko mojak eskolatik bidaltzeko ahaleginak izan zirenean, Zearretarrak eta beste batzuk monjen alde atera ziren” (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 331-332).

Hain zuzen ere, atxilotetzez, erregistroez edo pertsona eskuindarrak, kolpe militarren aldekoak ez zirenak, kokatzeko eta atxilotzeko ikerketez betetako giro bortitza zuen gerra-testuinguru batean, herriko zenbait biztanle beste auzokideak edo hiri eremutik urrun babesa bilatzen zuten eskuindarrak babesten ahalegindu ziren. Demetrio Lecumberrik aitortu zuen matxinada militarren ondoren zenbait pertsona eskuindar hartu zituela bere etxean, Ramón Reparaz edo Antolín Luzarraga, adibidez, eta Carlota eta Jesusa Urruchua ahizpak zirela “*faxista*” deitzen ziotenak Errepublikaren aurka zeudenak etxean hartzeagatik. Dena den, Urruchua ahizpek ere aitortu zuten Bilboko zinegotzi monarkikoa izan zena, José Luis Olalde, euren etxean ezkutatuta eduki zutela, eta azken honek babeslekua utzi zuela ahizpen tabernara jende ugari joaten zela jakitean. Luis Olalde Olazarrek berak ahizpen aldeko lekukotasuna egin zuen, eta adierazi zuen 1936ko uztailaren 18tik zazpi egun egon zela ahizpen etxean eta utzi egin zuela Gernikako itsasadarraren beste aldean babeslekua aurkitu ondoren, Lagako hondartzan, eta babesleku hori ahizpek eurek eman ziotela eta han egon zela ahizpek salatu gabe: “(poniendo) *cuantos medios tuvieron a su alcance para que no diesen con su parado*”. Joseba Agirreazkuenaga historiagileak adierazten duen bezala, Hipólito Álvarez auzokoak ere bere etxean ezkutatuta eduki zuen Estanislao Orue Viguña, hilabete bat eta erdi, eta bere anaia José María Orue Viguña, zazpi hilabetez. Hipólitoren hitzetan bi gizonak jazarriak ziren eskuindarrak izateagatik (“*personas que eran perseguidas por su significación derechista*”) eta babesa eskaini zien gero ihes egin zezaten (“*huir al territorio nacional*”). Estanislao ordurako jazarpenak jasan izan zituen eta zenbait alditan atxilotuta egon zen Zumaian, Donostian eta Bilbon. José Mariari dagokionez, irailean “*Matilde*” ostatuan zegoen eta irailaren 22an Hipólitoren etxera joan zen, eta han ezkutatuta geratu zen 1937ko apirilaren 7ra arte, Bermeon itsasontzi bat hartu zuenean Donibane Lohitzunera joateko¹⁶¹. Gainera, Félix Chertudi Zabala bezalako herrikide batzuk hurrengo esaten zuten haien buruei buruz:

“*iniciado el Glorioso Movimiento Nacional y cuando dominaban desde el 18 de Julio al 30 de Abril de 1937, fecha de la liberación, permaneció muy vigilado por los elementos revolucionarios leales por estar fichado, tanto es así que le fue negado el control, y después pretendieron mi detención llegando la pareja de milicianos a mi propio domicilio, cosa que no lograron por hallarse escondido fuera de mi domicilio como medida preventiva hasta que la víspera de la liberación local*”¹⁶².

161. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

162. EAA. AP-1302-03.

Erregimenaren aldekoa ez izateagatik egiten ziren atxilotetak eta salaketak etengabeak izan ziren Errepublikarekin leiala zen lurralde osoan 1936ko uztailaren 18tik. Carmelo Llantada Uriaguerecaren aurkako gerra-kontseiluan Mundakako JONSetako FETaren tokiko buruzagiak azaldu zuen nola zinegotziak bere filiazio falangista eta jasaten ari zen jazarpena ezagutzen zuen, eta nola ez zuen arazorik izan zenbait alditan Bilbora joateko falangistarentzat garrantzi handia zuten kontuak tratatzera. Gainera, Carmelo Uriaguerecak falangista non ezkututzen zen jakinda ez zuen inoiz salatu: “no solamente no le denunció sino que incluso permitió conversaciones y discusiones que eran consideradas por las hordas rojas como crímenes de lesa-Patria”¹⁶³.

Ezin dut dudarik gabe senidetasuna ezarri, baina baliteke Julián Lecumberri Oreja, Ángel, Hermenegildo, María, Elena eta Margarita Lecumberri Oreja busturiarren anai-neba izatea, eta gizon hau errepublikanoek atxilotu zuten Donostian 1936ko uztailaren 29an Loiolako kuartelak entregatu zirenean, 3. Artilleria Erregimentuan sendagile bezala jarduten ari zela (Fronte Popularra, 1936/07/29). Gipuzkoako hiriburuko espetxeren batek igaro ondoren, ziur aski Ondarretako probintzia-kartzelatik edo Kursaalean gaitua izan zenatik, Bizkaira eraman zuten *Arantzazu Mendi* kartzela flotagarrian. Itsasontzi honetan egun batzuk preso igaro ondoren bere gatibualdia jarraitu zuen Euzko Jaurlaritzak Aingeru Zaintzaileen komentuan antolatutako kartzelan. Hemen zegoen 1936ko abenduaren 5ean askatasuna lortu zuenean¹⁶⁴.

Hala ere, lehenago aipatutakoagatik ere herrian gutxienez hiru atxiloteta egin ziren elizatean eta isun ekonomiko bat ezarri zen. Elías Miota Zuloagak, Durangon jaioa eta bertako biztanlea, odontologoa bera, adierazi zuen Durangoko bigarren bonbardaketa eta bi egun geroago Busturian zegoela eta Euzko Jaurlaritzaren aurka egoteaz akusatu zutela. Honen ondorioz 36 ordu egon zen atxilotuta, eta adierazpen-egilearen hitzetan, salaketa hori Urruchua ahizpek zuzendutako tabernan zegoen pertsonaren batek egin behar izan zuen, baina berak ezin zuela nor zen esan, agian ezagutzen zuen milizianoaren batek¹⁶⁵. Bilboko auzotarra Demetrio Marañón Arrónizek, 67 urtekoa eta ezkondua, adierazten zuen nola 1936ko abenduaren 13an atxilotu zuten Busturiko San Kristobal auzoan babestuta zegoenean:

“por una denuncia baja y vil, de CELIA LLANTADA, en contra de mi hijo Gabriel y del que suscribe, en la que afirmaba de hallarse mi hijo fuera del territorio legal, y que el abajo firmante había hablado mal de Aguirre y su partido, por cuyo motivo estuve detenido 12 días, exigiéndome la multa de 5.000.- pesetas (cinco mil) para mi libertad, como lo acredita el adjunto recibo, que suplico su devolución”.

Aipuan azaltzen den dokumentua Euzko Jaurlaritzako Bizkaiko Ordena Publikoko Komisariako Segurtasun Zuzendaritzakoa zen eta zehazten zuen 1936ko abenduaren 25ean Demetrio Marañónek ordaindutako isuna: “la cantidad de CINCO MIL PESETAS, importe de la multa impuesta por la Dirección General de Seguridad, por las razones que en la comunicación se señalan”. Isunaren arrazoia jarraian agertzen zen:

163. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1002/37 kausa. Bizkaia.

164. AHN. FC. Kausa orokorra. 1933. karpeta. 03. Txostena; EAH-AHE. Euzko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saileko Funtza. Idazkaritza Orokorra (Bilbo, Bartzelona, Paris). Idazkaritza. 55. paper-sorta. 11 paper-sorta zenbakia.

165. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

“en que el declarante había hablado mal de Aguirre por lo que se le imponía dos mil quinientas pesetas y otras dos mil quinientas pesetas por no estar su hijo Gabriel según ellos en territorio rojo”¹⁶⁶.

Bi atxiloketak Euzko Jaurlaritzaren garaian egin ziren arren, 1936ko urritik aurrera, nabarmendu behar dugu atxiloketa gehienak uztailean, abuztuan eta irailean egin zirela, atxilotuen joera politikoagatik eta ez delitu bat egiteagatik. Irailaren hasieran hurrengo gertatu zen:

“con ocasión de que unos elementos rojos vinieron al pueblo a detener y seguramente a marear a Antonio Lachiondo, el citado Urrutia evitó tal acto, llevando personalmente al detenido a Bilbao en su coche y volviendo a reintegrarlo al pueblo una vez solventado el asunto”¹⁶⁷.

Bizkaiko kasuan atxilotuak Gobernu Zibilera edo Zaintza Komisariara eramaten zituzten, eta han filiazioa eskatu ondoren eta espedientea egin ondoren Larrinagako Espetxe Probintzialera eramaten zituzten. Dena den, ondoko herrietako gatibuak Bilbora etengabe eramateagatik garai hartan hiriburuan zeuden presondegiak kolapsatzen hasi ziren: Larrinagako Espetxe Probintziala, Zaintza Komisaria eta Segurtasun Kuartela. Atxiloketa zentroetan presoek pilaketa areagotzen zihonez, abuztuan agintari errepublikanoek kartzela flotagarri gisa prestatu zituzten *Altuna Mendi* (abuztuak 4) eta *Cabo Quilates* (abuztuak 26) itsasontziak, Santanderreko *Alfonso Pérez* itsasontziaren aurrekariari jarraituz. Bihurtze hau ezin zen zaila izan *Altuna Mendi* itsasontzia kartzela flotagarria izan baitzen 1934ko urriko gertaeren ondorioz. Euzko Jaurlaritza eratu zenean, eta jeltkideak justizia eta ordena publikoari zegozkien sail garrantzitsuenak zituztelarik, gobernuak espetxe-itsasontzien presondegi-erregimen gogorari amaiera ematea erabaki zuen eta presoak berrantolatu zituen presondegi-esparru berriak eginez Galera Etxean, Aingeru Jagoleen komentuan edo Karmelo komentuan, denak Bilbon.

Busturian Elías Miotaren atxiloketaz gain, Jesusa eta Carlota Urruchua ahizpak agintari frankistek kondenatu zituzten 1937an herrian egindako atxiloketak eragiteagatik “*zurrumuru publikoaren*” arabera. Herriko auzotarrak eskuindarrak izateagatik atxilotu ziren arren, Euzko Jaurlaritzak atxilotutako presoek zerrendak, gerraostean argitaratu ziren errepresio errepublikanoari buruzko lanak eta Gatibu Ohien Bizkaiko Ordezkaritza Probintzialaren dokumentazioa begiratu ondoren, ez da aurkitu espetxe-itsasontzietan edo Euskadiko espetxe errepublikanoetan egondako edo hildako busturiarrik. José Echeandía *La persecución roja en el País Vasco* liburuan ematen duen herrien zerrendaren arabera, Busturialdeko herrietako gatibu hilak kopurua 12 pertsonakoa izan zen. Busturialdea osatzen duten udalerrien %25ak dauka errepresio errepublikanoaren ondoriozko hildako gatiburen bat. Hartzekoa da ikustea nola Bermeo edo Mundaka bezalako herriek, inguruko bi herri jendetsuenetakoak izanda, ez zuten hildako gatiburik; Gernikak, aldiz, lau hildako zituen, liburu honen arabera. Ezin ditugu alde batera utzi Muxikako udalerriak zituen lau hildakoak (Echeandía, 1945: 279-315). Hildako hauek guztiak egon arren, Carmelo Landa historiagileak adierazten zuen Busturialdean egindako errepresioa biguna izan zela biztanleen berezko idiosinkrasiaren ondorioz eta

166. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). Aurretiazko eginbideak 449/38. Bizkaia.

167. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

nazionalisten eta eskuindarren arteko lotura familiarren/erlijiosoen ondorioz, denak erkidego katoliko hegemoniko baten parte baitziren (Echániz eta de la Granja (zuz.), 1998: 305).

4.3.3. Erruak “ordaintzea”: Busturiko Batzar Kalifikatzailea

Lorenzo Sebastián García ondo azaltzen duen bezala, errepresio ekonomikoa Euskadi errepublikanoan Batzar Kalifikatzaile Zentralak (BKZ) egin zuen. Xede bikoitza zuen, Errepublikaren aurkako konspiratzaileak ekonomikoki zigortzea eta gerrak eragindako kalteen zati baten ordaina lortzea. Hori lortzeko Euzko Jaurlaritzak eratu zituen Batzar Kalifikatzaile Zentrala eta zegozkion tokiko Udal-batzar Ikertzaileak (UBI), Busturikoa bezala (Sebastián García, 1999).

Euzko Jaurlaritzak, Errepublikako Gobernuari kopiatuz, Batzar Kalifikatzaile Zentrala sortu zuen lehendakariaren dekretu baten bidez azaroaren 3an. *Lendakariaren* gobernuak hurrengo egitera prest zegoen:

“castigar en sus medios económicos a los fomentadores y participantes del movimiento faccioso, estimando incompatible la convivencia y el respeto de los derechos individuales de quienes, incapaces de someterse al régimen establecido por la mayoría, no han vacilado en rebelarse contra el mismo, provocando la terrible guerra que destruye y arruina toda la economía, buscando al propio tiempo en los bienes de aquéllos una compensación parcial de los enormes daños producidos por vesania y una aportación para cubrir las indemnizaciones debidas en justicia a los más perjudicados” (EHAA, 1936/11/07).

Eta bere helburua hurrengo zen:

“poder dar continuidad a la labor llevada a cabo con celo plausible por la desaparecida Junta de Defensa de Vizcaya, acoplando lo realizado por éste a las primeras actuaciones de la Junta Central Calificadora” (EHAA, 1936/12/20).

Horretarako, hurrengo erabaki zen:

“la expropiación forzosa, sin indemnización, a favor de la Hacienda del País Vasco, de todos los bienes radicantes en el territorio de Euzkadi pertenecientes en 18 de julio de 1936 a las personas naturales o sus cónyuges y a las cuales se declare por quien se determina, y previas los trámites que se fijan en este Decreto, que son responsables de haber intervenido o colaborado en el movimiento insurreccional contra la República” (EHAA, 1936/11/07).

Eta jabetza titulartasunez aldatzearen beldur zenez isunak eta konfiskazioak saihesteko, hurrengo ezarri zuen:

“Los contratos de enajenación o gravamen, por cualquier título, de algunos de esos bienes, realizados después del 18 de julio, podrán ser revisados y anulados si se demostrara que fueron formalizados con el fin de ocultarlos o eludir responsabilidades que pudieran llegar a corresponder a sus propietarios, pudiéndose imponer a quienes intervinieron en el contrato o lo facilitaron la responsabilidad solidaria de reintegrar el erario público el importe de la transacción o de lo que por virtud de la misma obtuvo el propietario de los bienes” (EHAA, 1936/11/07; Sebastián García, 1999).

Batzar Kalifikatzaile Zentralean Herrizaintza, Ogasun eta Nekazaritza sailen ordezkari bana zegoen, eta denak funtzionario baten presidentetzapean zeuden. Gero herri bakoitzean beste batzar bat eratu zen:

“una Junta investigadora, compuesta por un representante de cada uno de los partidos y organizaciones sindicales que están representados en el Gobierno provisional de Euzkadi, los cuales elegirán, por mayoría de votos, su presidente y secretario. (...) Las Juntas municipales investigadoras abrirán un expediente por cada una de las personas, vecinas o residentes en su término municipal, cuya actuación induzca a sospechar que está en convivencia con el movimiento faccioso, que lo ha preparado y ayudado, que lo estimula o favorece de cualquier manera, precisando los hechos concretos que se le atribuyan de cualquier manera, precisando los hechos concretos que se le atribuyan con las pruebas testificales o documentales que puedan reunir, elevando el expediente a la Junta Calificadora Central, con un informe en que se refleje su opinión respecto a sí el interesado debe ser declarado enemigo del Régimen (...), abteniéndose de cursas los expedientes de los que ningún cargo resulte contra los presuntos culpables” (EHAA, 1936/11/07).

Dagoeneko azaldu dugun bezala, udal bakoitzak bere UBla sortu zuen eta Bilbok, bere tamainagatik, batzar bat zuen barruti bakoitzeko. UBla guztira 133 izan ziren, eta haue-tatik 125 Bizkaian zeuden, 6 Araban eta 2 Gipuzkoan. BKZk zabaldutako espedien-teak 1.878 inguru izan ziren, eta gehienak UBlek hasi zituzten; gainontzekoak Gobernu Zibilak, Bizkaiko Defentsa Batzarrak edo auzitegiek hasi zituzten. Hauetako espediente batzuk UBlek hasitako zenbait ikerketez osatuta zeuden, jabetzak izateagatik hainbat udaletan sakabanatuta, eta UBlek espediente bat herriko zabaltzeko betebeharra zuten. Zenbait salbuespen daude ere eta espedienteak zabaltzen zitzaizkien hainbat pertso-nei batera, senar-emazteei, jaraunsleei, enpresei, itsasontziei, egunkariei... (Sebastián García, 1999).

Dekretua betez UBla 1936ko urriaren 7tik 10era sortu behar ziren, Euzko Jaurlaritzak emandako epeak baitziren. Hala ere, Lorenzo Sebastián García historiagileak esaten du epe hauek ez zirela inoiz bete eta gehienak abenduaren bigarren hamabostaldian eratu zirela. Ziur aski Busturiko UBla azken hauen artean egon zen. Ez dakigu bere egoitza non egon zen, edo non eratu zen, baina harrigarria da ikustea zer nolako tokietan kokatu ziren bestelako kasuetan: Tokiko Nekazaritza Sindikatuan Loion, Guardia Nazional Errepublikanoaren kuarteleko arma-aretoan Laudion, Exclusivas Prieto-Gardoqui enpre-san Deustun edo Ochoa tabernan Geltokiko barrutian (Sebastián García, 1999).

Baliteke UBlen osaketan aipatutako dekretuak agindutakoa ez betetzea: “*un representante de cada uno de los partidos y organizaciones sindicales que están representadas en el Gobierno Provisional de Euzkadi*”. Betekizun hori kasu batzuetan ez zen bete ordezkarien faltagatik, ziur aski Busturian gertatu zena, edo Agirrerren gobernuan parte hartzen ez zuten talde batzuk sartzeagatik, CNTren kasua, adibidez. Guztiek EAJren kide bat zuten eta ez zen arraroa alderdi bereko ordezkari bat baino gehiago aurkitzea (Sebastián García, 1999). Busturiko UBla presidentea Mariano Zabala Echevarría *jelkidea* izan zen eta bere idazkaria Eusebio Mendoza Foruria irakasle sozialista izan zen; gerra hasi baino lehen udalerriko indar politiko aktiboen ordezkariak ziren. Mariano Zabalar buruz, nazionalista bera, hurrengoak dakigu:

“fue miembro de la Junta Investigadora local en el pueblo de Busturia, cuyo cargo aceptó con el propósito, que cumplió, de favorecer en lo que pudiese a las personas de orden que

de otro modo hubieran sido objeto en sus bienes de incautación por aquella junta habiendo sido muy elogiado la actuación de este procesado en aquella Junta Investigadora por las personas afectas al Movimiento Nacional, que en cuanto al procesado, Eusebio Isaac Mendoza, que había ingresado en el Partido Socialista con el fin de que le repusieran en su cargo de Maestro, del que había sido destituido, aceptó el cargo de vocal de la Junta Investigadora que el anterior, y aunque no conste que su propósito fuera exclusivamente el de favorecer a las personas cuyos bienes podían ser objeto de incautación, es cierto que así lo hizo en bastantes ocasiones”¹⁶⁸.

Busturiko Udaleko Batzar Ikertzaileak espedientatutakoak

Abizenak, Izena	Data	Udaleko Batzar Ikertzailea	Salaketa
Arana, Víctor	1937/02/09	Busturia	“monarkikoa” eta “erreboltaria”
Allendesalazar, Emilia	1937/03/09	Busturia / Ajangiz / Gernika	“zalantzakoa” / “erreboltaria” / “erreboltaria”
Barandica, Manuel	1937/02/09	Busturia	“ez dakigu”
Zubiaga, Joaquín	1937/02/08	Busturia	“zalantzakoa”
Barrueta, Luis	1937/02/17	Busturia	“ez dakigu”
Larrumbide, Joaquín	1937/02/09	Busturia	“ez dakigu”
Acillona Llaguno, María	1937/02/10	Busturia	“monarkikoa”
Acillona Elorriaga, Francisco	1937/02/10	Busturia	“monarkikoa”

(Iturria: Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala).

Dokumentazioaren arabera Busturiko Udaleko Batzar Ikertzaileak bederatzia akusatu ikertu zituen, baina zortziren espedienteak lortu dit bakarrik. Aurreko taulan ikus daiteke nola ia espediente guztiak otsailean hasi ziren, Emilia Allende Salazarren aurkako espedienteak izan ezik, martxoan hasi zen bakarra izan baitzen. Beraz, Busturiko UBiren jardura 1937ko otsailean izan zen. Lorenzo Sebastián García historiagileak adierazten du UBI guztiak ez zirela hain aktiboak izan. Jardura handia izateagatik ezagutzen dituenak hurrengoak nabarmentzen dira: Zornotza, Amurrio, Basauri, Bermeo, Karrantza, Durango, Getxo, Gernika, Mungia, Urduña, Portugalete eta Bilbo-Aldundia, 40 espediente ireki baino gehiagorekin (Sebastián García, 1999). Adierazten duenez, irekitako espedienteen kopurua lotura zuzena du herriaren biztanleen kopuruarekin eta matxinoen kideko ideologiaren zaleekin. Horregatik, Busturia bezalako herri batean bederatzia espediente irekitzea ez da garrantzi gutxiko gauza kopuru hori aipatutako herri handietan bideratutakoekin konparatzen badugu.

Salaketa edo larrigarri guztietatik alderdi monarkiko batena izatea (alfontsinoak edo karlistak) UBIk ikertutako kasuen %63,49 izan zen, eta Busturiko kasu zehatzean %37,5 izan zen. Acción Popular, CEDA, Falange edo Unión Vascongada alderdietakoa izatea izan zen salaketa ohikoena, Primo de Riveraren diktaduran kargu bat izatea, 1934ko

168. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1002/37 kausa. Gipuzkoa.

urriaren iraultzaren errepresioan parte hartu izana edo 1936ko otsailaren hauteskundeetan hautagaiaren alde agertu izanarekin batera (Sebastián García, 1999). Filiazio politikoaren zioz bideratu ziren salaketa edo larrigarrietatik aparte, Busturian Víctor Aranaren kasua aurkitzen dugu, zeina “*erreboltari*” edo “*monarkikoa*” izateaz akusatatu zen, hurrengo arrazoirengatik:

“considerarle como carlista y en todas las elecciones votar la candidatura monarquica-tradicionalista, porque actualmente su hija y su yerno se encuentran detenidos en prisión atenuada, y por ser dicho señor de la misma calaña que sus familiares”¹⁶⁹.

UBlek auzipetu zituztenen generoari dagokionez, espedienteen %78,52 gizonenak dira. Espediente horietan emakumeak auzipetzen zituzten emazteak, alargunak edo oinordekoak zirelako, baina ez gertaeretan nahastuta zeudelako. Adinari buruz ez zen daturik ematen, egoera zibila alde batera uzten zen eta alargunen kasuan bakarrik argi gertzen zen egoera hori espedienteetan. Auzipetuen artean ere lotura familiarrik ikusten ziren (senar-emazteak, gurasoak eta seme-alabak, neba-arrebak, etab.). Auzipetuen lanbideak aztertzen badira, heterogeneotasun handia dago (Sebastián García, 1999). Busturiko kasu zehatzean auzipetuen %25 bakarrik ziren emakumeak, eta bi emakumeen adina bakarrik ezagutzen dugu: Emilia Allenderena (46 urte) eta María Acillona Llagunorena (22 urte). Egoera zibila Emilia Allenderen espedienteetan bakarrik suposatzen da, “*erlijioso*” izateagatik, gainontzekoetan ez da zehazten. Lanbideei dagokionez ez dakigu zein ziren, aipatutako erlijiosoarena eta Víctor Aranarena, sendagilea dela aipatzen delako, izan ezik.

Espedientatuen artean lotura familiarrik ikusten dira, María Acillona Llaguno eta Francisco Acillona Elorriagaren artekoa bezala, ziur aski lehengusuak baitziren. Busturiko UBk senide-loturak salaketak egiteko erabili zituen arren, Víctor Arana sendagilearen kasuan gertatu zen bezala, oro har badirudi salaketa honek ez zuela beste UBletan izan zuen bezain beste garrantzi. Modu honetan, Busturiko UBk bere ikerketak egitea nahiago izan zuen BKZri salaketa pasatu baino lehen. Hori izan zen Emilia Allende erlijiosoaren kasua, Busturiko UBk “*zalantzakoa*” zela esaten zuen bitartean, Gernikako UBk, aldi berean ikertzen ari zena, “*erreboltaria*” zela esan zuen, hurrengo arrazoirengatik:

“tener los mismos antecedentes que todos sus familiares ser una monárquica declarada y también esta Junta cree habrá ayudado al actual movimiento subversivo por encontrarse cuando estalló el movimiento en terreno faccioso. Esta Junta después de estudiar todos los expedientes de todos sus familiares y haberlos considerado como facciosos, cree que dicha señora se encuentra en las mismas condiciones que sus familiares”¹⁷⁰.

Ajangizeko UBk salaketa horri atxiki zen:

“visto el informe que se acompaña de la Junta Municipal Investigadora de Guernica, declara a la citada señora completamente facciosa al régimen que sostiene el Gobierno Provisional de Euzkadi”¹⁷¹.

169. MHZD. PS Bartzelona. 93. kutxa. 01. txostena.

170. MHZD. PS Bartzelona. 1415. kutxa.

171. MHZD. PS Bartzelona. 1415. kutxa.

Nekazaritza Sailak jarduera berezi bat izan zuen landa eremuetan baserrietako errentak konfiskatzeari zegokion guztiaz. Euzko Jaurlaritza eratzen ari zenean, lehendakariak hurrengo adierazi zuen:

“Regulará el arrendamiento como contrato social y facilitará el traspaso de la propiedad de las tierras y caseríos a sus cultivadores (...). Exigirá indemnizaciones económicas a cuantas entidades y personas hayan contribuido de una manera positiva al movimiento insurreccional” (EHAA, 1936/10/09).

Busturiko zortzi espedienteek jabeen eta maizterren arteko lehiarekin zerikusia dute, batez ere maizterrek jabeen errenta ordaintzerakoan sortutako irregulartasun legalekin. Azpimarragarria da jabeak ez zirela herrian bizi, Luis Barruetaren kasuan maizterrek ez zuten ezagutzen ere eta errentak banku bidez ordaintzen zituzten (“*sus rentas por Banco*”. jatorrizkoan). María Acillonaren kasuan izan ezik, gainontzeko jabeak Gernikan, Madrilan, Iruñean, Donostian edo Bilbon bizi ziren. María Acillonak jaso zuen “*monarkikoa*” izatearen salaketa berak bere maizterren kontra egindako ekintzetan oinarritu zen, eta Gabriel Apraizek eta Juana Apraizek adierazten zuten “Bustundui” finkaren jabeak, Francisco Acillona Elorriaga, honela jardun zuela:

“durante todo el bienio negro, nos anduvo de justicia en justicia para desahuciarlos, sin que nunca hayamos faltado a las obligaciones de buenos inquilinos, sino solamente por nuestras ideas republicanas, originándonos gastos que hoy en día tenemos por satisfacer a los que nos prestó en su ayuda en los juzgados”¹⁷².

Zalantzarik gabe, maizterren eta jabeen arteko tirabira gerra aurretik zetorren, *El Liberal* egunkariak adierazi zuen bezala 1935eko azaroan. Egunkari honek argitaratu zuen Busturiko herrian tramitatzen ari ziren etxegabetze kopuru handiaren aurrean, maizterren talde batek laguntza eskatu ziola Cirilo del Río diputatuari telegrama baten bidez. Telegramak horrela esaten zuen: “*queden sin efecto desahucios tramitación, evitando así miseria numerosas familias de este pueblo*” (*El Liberal*, 1935/11/28). Ziur aski, maizterrek egoera historiko berria aprobetxatu zuten egoera euren alde jartzeko, eta horregatik “*monarkikoa*” edo “*erreboltari*” bezalako salaketak egin zituzten agintari berriek iker zitzaten eta euren zegoen presioa arintzeko. Hori adierazten dute behintzat Busturiko UBik hartutako erabakiak, espedienteen %25ean “*zalantzazkoa*” edo “*ez dakigu*” terminoak agertzen diren. Maizterrek ez zekitena zen jabeen mendekua oso hurbil zegoela.

Espedientatu bat erregimenaren etsaitzat jotzea BKZren berariazko eskumena zen; UBlek salaketa eginda eta erabakita ematen zioten, eta gero BKZk ikertzen zuen. Salaketak babesteko Busturiko UBik lekukotasunak edo dokumentuak ematen ditu eta BKZk frogatzen du horiek ulertzeko duen modua argi dago:

“Datos, datos y datos- Todo esto es de una vaguedad imposible a utilizar”; “Esto no son hechos concretos”; “Esto no sirve para nada. Sin más datos no hacemos nada” “Con esto que nos cuentan no podemos hacer nada. Infórmense si paso a territorio faccioso”; “Si ignoramos todo porqué no seguimos ignorando hasta su nombre?”; “Más datos, que si no perdimos el tiempo y el dinero”¹⁷³.

172. MHZD. PS Bartzelona. 1415. kutxa.

173. MHZD. PS Bartzelona. 92. kutxa; 93. kutxa. 01. Espedientea; 1182. Kutxa; 1415. Kutxa; 1451. kutxa.

Honek esan nahi du Euskadi autonomoaren agintariek legea errespetatzeko ahaleginak egiten zituztela. Gerraren garapen berak ez zuen utzi irekitako ikerketa guztiak ixtea, baina Busturian bukatu ziren bi topatzen ditugu. Otsailaren 17an Luis Barrietaren kontrako espediente irekia itxita geratu zen, BKZk “ez dakigu” erabakia hartuz, eta 1937ko apirilaren 6an María Acillonaren kontrako espedientea ixten zen “*baliogabea*” zela esanez, salaketa frogatu ezin zelako.

4.3.4. Euzkadiko Herri-azitegia

Euskadi autonomoan legalki ezarritako azitegiak soilik egon ziren. Garrantzitsuena eta izaera aparteko bakarra Euzkadiko Herri Azitegia izan zen, gerrarekin zerikusia zuten delituak ikusteko eskuduna (sedizioa, matxinada, traizioa edo espioitza), eta zeinaren helburua errepresioa *juridikatzea* zen. Azitegi hau hiru magistratuk eta hamalau zintpekok osatzen zuten. Espainiako Errepublikaren aldeko euskal talde politiko eta sindikalen ordezkariak ziren, eta denak izendatu zituen, fiskalak barne, Justizia eta Kultura Saileko kontseilariak. Dirudienez, azitegiak justizia neurtua, kementsua eta bizkorra eman zuen, baina ankerkeriarik gabe eta berme prozesalekin (Landa Montenegro, 1998: 58).

Busturiari dagokionez Claudio Urrutia Alcortaren kasua dugu. Gerra-ikuskaritzako Bulego Nagusiak (Iparreko Armada) Claudio Urrutia Alcortaren kontrako eginbideak erantsita zituen ofizio bat bidali zuen Bilboko Epaitegi Dekano Berezira (Bilboko Herri Azitegiari lotuta), epaitegi horren eskumenekoak ziren delituak zirelako. Zibil bati etsaiarekin joatearen asmoa egotzen zitzaion, eta hori matxinadari laguntzeko delitua zenez, Euzkadiko Herri Azitegiari jakinazten zitzaion. Atxiloketa gertatu zen etsaiaren eremura ihes egiteko saiakuntza egin zuelako, 1937ko apirilaren 29ko 20:30etan Oka ibaia igeri eginez zeharkatuz, armada italiarra Busturian sartu baino aurreko egunean. Ihesaren aurrean, *Munguía* batailoien gudariak tiro egiten hasi ziren. Zauritua edo hilda izatearen beldurra izan zuenez, desertorea bere ihes saiakuntzatik kostaldera itzuli zen eta batailoiko agintariei errenditu zitzaion. Aipatutakoa, 31 urtekoa, Bilbon bizi zena baina 1936ko ekainaren 16tik Busturian uda pasatzen zuena, Larrinagako Espetxe Probintzian sartu zuten prebentziozko neurri bezala. Aurreko eginbideak delitua osatzen zuten gertaerak zituztenez, Herri Azitegiak sumarioa hastea eta beharrezko eginbideak praktikatzeko hastea erabaki zuen. 1937ko maiatzaren 9an Claudio Urrutia epailearen aurrean azaldu zen, eta esan zuen bere asmoa ez zela matxinoen eremura igarotzea, eta aurreko aitortpena sinatu izan bazuen izan zela egoeraren ziozko urduritasunagatik eta polizien temagatik. Argudiatu zuen ere ez zekiela beste ibaiertza etsaiaren eskuetan zegoenik eta bere asmoa ez zela inoiz ihesa izan. Prozesu judizial justu bat bermatzeko asmoz, *Munguía* batailoien komandantearekin harremanetan jartzeko saiakera egin zen, prozesatuak helmuga bezala zuen lurra errebolataria zen ala ez jakiteko. Baina izapide hauek 1937ko ekainaren 9an hasi ziren, Bilbo erori baino hamar egun lehenago, eta ez dakigu gatibuaren zoria matxinoak Bilbon sartu ondoren, prozesua epaia eman gabe geratu baitzen¹⁷⁴.

174. MHZD. PS Madril. 165. kutxa.

4.4. Herriko milizietatik Euzkadiko Gudarostera

4.4.1. Boluntarioak edo halabeharrezko soldaduak?: mobilizazioa eta deialdiak

1936ko uztailaren 18ko matxinada militarren ondoren Busturian Tokiko Defentsa Batzorde bat eratu zen, EAJ eta Ezker Errepublikanoko indarrez osatua, eta gerrari eta ordena publikoari buruzko kontu guztiak bere gain hartu zituen udalerrian. Izan ere, Sinforiano Iparaguire eta Ciriaco Echevarría jeltzaleek milizianoak antolatzeke lanak eta elizatean ordena publikoa kontrolatzeko lanak zuzendu zituzten¹⁷⁵. Kolpe militarra eza-gutu eta gero, EAJren lehen erreakzioa Bizkaian guardia armatuen eraketa agintzea izan zen, udalerrietan ordena bermatzeko asmoz, Errepublikako kontrolpean zeuden estatuko beste aldeetan gertatu ziren gehiegikeria iraultzaileak saihesteko (Vargas, 2001: 306). Román Cearreta auzokideak adierazi zuen Busturiko Defentsa Batzordearen lehen bileran udaletxean zeuden armak herriko milizianoen artean banatzeko erabakia hartu zela. Arma horiek udalerrian bildu ziren Juan Antonio Arguinzóniz Porturasen aginduaren ondoren, une hartan Busturiko alkate jeltzalea¹⁷⁶. Helburua argi zegoen: udaleko pikete armatuak antolatzea errepideak eta herrietako sarrerak eta irteerak kontrolatzeko, kontrolrik gabeko elementuen ekintzak saihesteko, etab. Eginkizun hauetaz arduratuko ziren lehen milizianoen artean, herriko EAJko lau afiliatu daude gutxienez: Antonio Alegría Laucirica, Eleuterio Basterrechea Lamiquiz, Amadeo Uribe Asteinza edo Juan Arróspide Achicallende.

Estatu-kolpea gertatu zenean Antonio Alegría Laucirica Busturian zegoen, eta lehen uneetatik miliziano bezala jardun zuen tokiko Batzordearen agindupean bere kinta mobilizatu izan zen arte¹⁷⁷. Dena den, Eleuterio Basterrechea Lamiquiz milizianoa beranduago hasi zen jarduera honetan, lehenago errefuxiatuei sukaldari bezala lagundu baitzien, eta gero izan zen bere herrian armak hartu zituenean Bermeo konkistatu arte. Bere kinta mobilizatu zutenean lubakien eraikuntzan parte hartu zuen denbora batez. Pablo Elesgaray Arróspide auzotarrak hurrengoa adierazten zuen Eleuterio Basterrecheari buruz: *“en cierta ocasión fue a su casa ya que se dedicaba a controlar el ganado y prestaba servicio en armas y le dejó tres chalas que tenía en su cuadra...”*. Baita esan zuen Amadeo Uribe Asteinza ikusten zuela eskopeta batekin baserrietan zehar abereak kontrolatzeko asmoz¹⁷⁸. Ziur aski denak EAJko zaintza taldekoak ziren Busturian, non Juan Arróspide Achicallende ere sartuta zegoen. Bizkaiko Batzar Orokorrak Juan Arróspideri egiten zizkion ordainketetatik ondorioztatzen denez, zaintza talde honek urte horretako uztailaren 20tik abuztuaren 22ra iraun zuen¹⁷⁹.

Orain arte udalerriko EAJren indarrei buruz hitz egin dugu bakarrik. Galdetu beharko genuke zer gertatzen ari zen Ezker Errepublikanoaren indarrekin. Ezkerreko alderdi politikoek eta sindikatuek propaganda garatu zuten ere eta Busturian sortutako unitate berrietan boluntarioak sartzeari erraztu zuten. Policarpo Astoreca Bericuak, Ezker

175. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 780/37 kausa. Bizkaia; 2633/37. Bizkaia.

176. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

177. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 511/43 kausa.

178. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

179. MHZD. PS Bartzelona. 475. kutxa. 17. txostena.

Errepublikanoren alderdikidea zena, adierazi zuen nola herriko gazteak antolatu zituen milizien parte izan zitezen eta nola oztopatu zion Mario Borda Abiñari, 17 urtekoa bera, milizietara sartzea bere adingabetasunagatik¹⁸⁰. Bi talde politikoek mobilizatutako indarrek elizateko Guardia Hiritarrak osatu zituzten. Talde hau tokiko ordena publikoa kontrolatzearaz arduratu zen eta Komisaria Orokorraren agindupean geratu zen, gero Defentsa Batzarrak ordezkaturako zuen erakundea. Ondoren Guardia Hiritarrek milizia borrokatzaileen osaketan parte hartu zuten, eta beste indar erregularrekin borroka fronteetara joan ziren. Bilbo kontuan hartu gabe, Bizkaiko Guardia Hiritarrek 1936ko uztaillean 4.000 gizon armatutik gora zituzten, eta erabiltzen zuten arsenalak gerrarako balio ez zuten ehiza-eskopetez osatuta zegoen gehienbat. Busturia, bai gizona bai armei dagokionez, asko nabarmendu zen. Zergatik ezberdintasun hau mobilizazio-mailan inguruko herriekin konparatuta? Seguruenik herrian hainbeste eskuindar egonda subertsio militarrek zekarren arriskuagatik, eta baita herriak berak ez izatea Guardia Hiritarrek bere gain hartu zituzten eginkizunak garatzeko gai zen tokiko segurtasun talderik. Busturialdean, Busturiko elizateak 65 guardia hiritar izan zituen, pistola/errebolber batekin eta 73 eskopetekin armatuta. Bermeok 4 guardia hiritar 4 pistolekin izan zituen, eta Gernikak 32 eskopetekin eta 5 pistolekin armatutako 37 guardia antolatu zituen. Guardia eta arma gehien lortu zuen bigarren herria, Busturiren atzetik, Mundaka izan zen: 42 guardia bi pistolekin, 33 eskopetekin eta errifle batekin armatuta (Echániz eta de la Granja (zuz.), 1998: 342).

Francisco Vargas Alonsok adierazi zuen 36ko gerran mugimendu militarri aurre egiteko Euskadin mobilizatu ziren indar politikoek ez zutela helburu politiko-sozial bakar batez zehaztutako bloke bat osatu. Espainiako Errepublikaren alde geratu ziren alderdiek edo sindikatuek euren borondatezko miliziak antolatu zituzten eta erakunde politiko-sindikal bakoitzak bere militanteen gaineko agintea zuen. Bizkaian, Euskal Ekintza Nazionalista (ANV) eta Euzko Mendigoixale Batza alderdiek euren miliziak eta milizien komandantziak izan zituzten, Fronte Popularreko beste alderdiek bezala (PSOE-UGT, JSU, PCE, IR eta UR) eta CNT-FAIko anarkistek bezala. Denak EAJtik banandu ziren eta “Milizia Bateratuak” izeneko erakundea sortu zuten, unitate errepublikano-ezkertiarren jarduera koordinatzea bilatzen zuena. Adibide argi bat José Recondo Arancua izan zen, tokiko Fronte Popularrak kontrolatzen zuen Astigarragako frontean 1936ko abuztutik gutxienez zerbitzua ematen zuen milizianoa¹⁸¹.

Lehen aipatutako erakunde politikoak eta sindikatuak izan ziren uztailaren 18tik lehen milizianoekin frontean jardun zutenak, 150 boluntario armatu ondoren. “Garellano” mendiko batailoien teniente koronela zen Joaquín Vidal Munárrizen agintepean irten ziren Gasteizerantz. 21ean beste zutabe bat irten zen Bilbotik Arabako frontierantz, aurrekoarekin bat egiteko, eta beste zutabe bat Donostiarantz joan zen Justo Rodríguez Rivasen agintepean. Azkenik, uztailaren 22an, beste zutabe bat Amurriora joan zen eraso-guardiez, guardia zibilez eta milizianoez osatuta, azken hauek batez ere CNTkoak zirenak. Unitate hauek guztiak hasieran Defentsarako Komisaria Orokorrak koordinatzen zituen. Gero Bizkaiko Batzar Orokorrak koordinatu zituen, burua Paulino Gómez Sáiz sozialista zelarik. Badirudi Amurrioko zutabearen boluntario bezala sartu zutela Domingo

180. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 780/37 kausa. Bizkaia.

181. MHZD. PS Bilbao. 64. kutxa. 02. txostena.

Izaguirre Iturbe, 2. mailako miñoia, lubakietan zerbitzua ematen egon baitzen bi hilabetez Orozkoko frontean (Ipiña, 2014: 778)¹⁸².

1936ko abuztura arte, EAJren militanteak eta jarraitzaileak Artxandan bildu eta gero, nazionalistek ez zioten boluntarioen trebakuntzari hasiera eman, eta une horretan etorkizunean infanteria batailoiak izango zirenak osatu zituzten. Une horretan gazte nazionalistak unitate milizianoetan sartzen hasi ziren *batzokietatik* zuzendutako udal-mobilizazioaren bidez. Mobilizazio hori Bizkaian BBBk kontrolatzen zuen *Sabin Etxetik* (Bilbo), burua Ramón Azkue zelarik (Vargas Alonso, 2001: 306-307). Busturiko auzotarra zen Darío Gómez Apraizek, Batzorde Kudeatzaile frankistaren presidentea zena, hurrengoa esan zuen Amadeo Uribe Asteinza jeltkideari buruz:

“ha sido uno de los que primeramente se alistó voluntario en las milicias separatistas haciendo constante propaganda entre la gente de la localidad para que se alistaran en las citadas milicias”.

Eta jarraitzen zuen:

“(era)uno de los elementos más acérrimos del nacionalismo de la localidad, exaltado y peligrosísimo y propagandista ferviente de los ideales que profesa, haciendo dicha propaganda en los términos más violentos”¹⁸³.

Román Cearreta jeltkideak ere hurrengoa adierazi zuen:

“(era)cierto que hizo propaganda para la recluta de jóvenes en la localidad por haberlo ordenado el partido, partiendo los boletines de inscripción en las milicias nacionalistas y diciendo a los presuntos voluntarios que de no hacerlo voluntariamente, sería peor para ellos, puesto que al ser llamados como forzosos tendrían peores puestos”¹⁸⁴.

Errepublikanismoak Euskadin, Batasun Errepublikanoak eta Ezker Errepublikanoak ordezkatzeko zutena eta udalerrian nahiko garrantzitsua zena, ez zuen alde batera egin elizatean gerraren gertaeren aurrean. Francisco Vargas Alonsok zera dio errepublikanoei buruz: “(fueron)valorados por el nacionalismo como individuos abiertos a colaborar en las tareas de Gobierno” (Vargas Alonso, 1994a: 60-61).

Gipuzkoan, Azpeitian sortutako Euskal Miliziak izan ziren okupatu zuten lurraldearen kontrol politiko-militarra gauzatu zuten lehen unitate nazionalistak, Fronte Popularreko kideen interferentzia gutxiarekin. Milizia horietan Eusko Langileen Alkartasuna (ELA), Euzko Nekazari Bakuna, Euzkadi Mendigoixale Batza eta Euskal Ekintza Nazionalistako (ANV) unitateak sartu ziren. Bizkaiari dagokionez, mobilizazio nazionalistak gudarrien lehen kuartelak Bilbon sortzea ekarri zuen. Iturribide kaleko Patronatuarena gailendu zen, bertan Arana Goiri batailoia antolatu baitzen. Hala ere, ez dugu nahastu behar unitate hau berriz sortutako *Arana Goiri* batailoiarekin, 1936ko urriaren bigarren astean lehenengoa desegin ondoren. Lehen batailoia gizon boluntarioek osatzen zuten, 1936ko urriaren 13ra arte ez baitzitzaien eman EAJko afiliatuei milizian derrigorrez

182. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 176/37 kausa. Bizkaia.

183. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

184. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

sartzeko agindua. Felipe Bediagak zuzendu zuen eta 480 gizoneko batailoiak lau konpainia zituen, bakoitzaren buruan kapitain bat zegoelarik (Goyoaga *et al.*, 2014: 38-39). Geroago errekrutatze eta instrukzio zentroa Bidarteko kuartelera eraman zuten, Deustun, Iturribideko instalazioak txiki gelditu baitziren boluntarioen kopuruaren aurrean. Gainera, beste hainbat kuartel sortu ziren Bizkaian eta berri batzuk agertu ziren, Eskolapioena eta Cervantesen Eskola, besteak beste (Vargas Alonso, 2001: 307). 1936ko irailaren 25era arte ez zen *Euzko Gudarostea* eratu Bizkaian, EAJren miliziak, Gipuzkoakoak barne, kontrolatzeko erakundea.

Bizkaian, industrialdeek eta Bilbok hobeto erantzun zieten alderdi politikoek eta sindikatuak boluntarioei egindako deialdiei, landa eremuek eta kostaldeak emandako erantzunarekin alderatuta. Oso gutxi dakigu borroka fronteetan 1936ko irailera arte matxinoen aurka armekin borrokatu ziren busturiarrei buruz. Litekeena da oso gutxi izatea borondatez joan zirenak fronteko lehen egitura militar inprobisatuetara. Unitate hauek esperientzia militar pixka bat zuten edo unitatea antolatzen zuen erakunde politiko-sindikalean postu bat zuten agintariek zuzentzen zituzten. Pixkanaka-pixkanaka konpainiak osatzen zituzten atalak, pelotoiak edo eskudrak zuzentzen zituzten milizien ofizialak edo ofizialordeak agertuz joan ziren. Konpainia hauek armadaren oinarrizko unitate taktikoa izango ziren batailoietan sartuko ziren (Vargas, 2001: 309).

Dudarik gabe, Errepublikako indar armatuak ulertzeko moduan erabateko aldaketa egongo zen. Armada indar susmagarria zen Espainiako Errepublikarekin leialak ziren alderdi politiko eta sindikatu ugariarentzat 1936ko uztaileko kolpe militarren ondoren. Arrazoi honengatik militarizazioa txarto ikusten hasi zen eta gainera alderdi politikoek eta sindikatuak indar militarrek errefusatzeko zituzten, armada mehatxu bezala ikusten baitzuten sindikatuen eta talde politikoen botererako. Dena den, 1936ko irailean borondatezko indarrak matxinoen aurka borrokatzeko nahikoak ez zirela ikusi zen, Madrilgo hegoaldeko indar milizianoak atzera egiten ari zirelako eta iparraldean matxinoak Donostia hartu zutelako. Egoera militar errealak argi utzi zuen boluntarioen armada bat nahikoa ez zela Errepublika defendatzeko. 1936ko urriaren 15ean, Largo Caballero sozialistak, une hartan Errepublikaren presidentea zena, Errepublikaren Herri Armada (EHA) sortu zuen, lurralde leialean zeuden indarrak batzeko eta koordinatzeko (Matthews, 2013: 54-57). EHAren eraketa 1936ko irailetik hartzen ari ziren zenbait neurriren gailurra zen. Armadaren berrantolaketa bilatzen zen erregimenarekin leialak ziren armadako koadroak erabiliz eta milizia politikoen militarizazioaz, eta armada berri bat eratzea lortu zen diziplina militar bakar baten azpian.

Largo Caballero izan zen gerra garaian errekrutatze lehen neurriak saiatzearen erantzulea. Espainian nahitaezko soldadutza ezarrita zegoen 1912tik, beraz, Errepublikak legezko gaitasuna zuen bere lurraldean errekrutatze lanak egiteko. 1931ko konstituzioan herritarrak mobilizatzeko eskubidea agertzen zen, euren betebeharrak militarrek eta zibilak bete zituzten, beraz, 1936ko urriaren 21ean dekretu bat argitaratu zen 20 eta 44 urte bitarteko gizon guztiak errekrutatze baimena emanaz. Dena den, praktikak erakutsi zuen deialdiak banaka eta pixkanaka-pixkanaka egin zirela (Matthews, 2013: 57). Derrigorrezko errekrutatzearen berriak elizatera heltzen hasi ziren. Santiago Guezuraga Echevarría auzotarrak hurrengo adierazten zuen:

“sabe, por haberlo oído decir a todo el pueblo, que (*Román Cearreta Urrutia*) se dedicaba a convencer a los jóvenes de la localidad para que ingresaran en las formaciones de los

gudaris, diciéndoles que si iban voluntarios desde principio, aprenderían antes el manejo de las armas y tendrían más disciplina y que sino iban voluntariamente, cuando llamaran a sus quintas irían a malos batallones y quien sabe si a batallones disciplinarios”¹⁸⁵.

1936ko irailaren 30ean Espainiako Errepublikak soldadutzara deitu zituen 32 eta 33ko kintak gobernuko lurralde osoan, Aragoien izan ezik bertan Aragoiko Kontseilua eratu baitzen, botere zentraletik ia bananduta zegoen kontseilu akrata bat. 1936ko urriaren 7an eremu errepublikano osoan 1934 eta 1935eko deialdiak mobilizatu ziren, jadanik Katalunian eta Levanten uztailearen 30ean mobilizatuak izan zirenak. 1936ko abuztutik 1937ko maiatzera arte soldadutzara deituak izan ziren 1931 eta 1937 urteen arteko deialdiak, teorian 650.000 gizon zirenak, eta Errepublikaren Herri Armadaren eraketaren urrezko unearekin bat datorren datua da (Corral, 2006). Hala ere, ikusi dugu nola urriaren hasieran Euzko Jaurlaritza eratu zen eta nola jeltzaleek sail garrantzitsuenak hartu zituzten, besteak beste, Defentsa Saila. Jose Antonio Agirre lehendakariak Euskadiko Operazioen Armada eratu zuen eta bere agintepean antolatzen hazi zen. Une hartan miliziak militarizatuak izan ziren, baina haien ezaugarriak gordez:

“conservando su peculiar organización y particulares distintivos”. “(Los) voluntarios pertenecientes a las Milicias populares serán encuadrados en batallones, compuestos ordinariamente por cuatro compañías de 150 hombres cada una, y otra de ametralladoras, morteros y zapadores; batallones que, juntamente con los constituidos por los individuos y clases movilizados, integrarán el Arma de Infantería del Ejército de operaciones de Euzkadi” (EHAA, 1936/10/27).

Agirrerren gobernuak bere gain hartu zituen eskumenen artean deialdien mobilizazioa egon zen. Espainiako Errepublikak Bizkaian eta Gipuzkoan 1932 eta 1933ko deialdiak soldadutzara deitu zituen arren, Euzko Jaurlaritzak, 1936ko irailaren 30eko dekretuaren bidez, 1936ko urriaren 16an 1932, 1933, 1934 eta 1935eko deialdietako tropako klase eta banako guztiak mobilizatu zituen:

“en conformidad con el Decreto del Ministerio de Guerra de la República española, de fecha 29 de septiembre último, adaptándolo a las circunstancias y necesidades propias, de acuerdo con el Consejo del Gobierno Vasco”.

Mobilizazio honetan salbuespenak zeuden:

“todas aquellas clases e individuos de tropa incorporados a las milicias organizadas para el frente de batalla, a no ser que hayan servido en los Cuerpos de Artillería, Ingenieros, Intendencia o Sanidad”.


Gainera, mobilizazioa egiaztatu ondoren, destinoa zehaztuko zen:

“el Departamento de Defensa determinará la unidad a la que deberán quedar incorporados” (EHAA, 1936/10/18). Dena den, praktikan, soldadutzara deitu ziren gizonen penintsularen iparraldean eurek hautatutako alderdiaren miliziarak elkartzeko aukera eman zitzaizkien hasieran (Corral, 2006: 94).

185. EAA. AP-1089-01.

Dirudienez, 1936ko urrian Busturiko elizatean errekrutatze eta deialdi lanak aktibatu ziren. Milizien eta jatorrizko unitateen boluntarioak jaisten ari ziren eta hildakoen kopurua gatazkan igotzen ari zen. Euzko Jaurlaritzaren kontrolpean zeuden euskal udalek errekrutatze lanetan parte hartu zuten, eta haien artean, Busturikoa ere (Vargas, 2007: 130).

Busturian mobilizatutako pertsonen kopurua lurreko eta itsasoko 1932, 1933, 1934 eta 1935eko deialdien bidez



(Iturria: BFAAH).

Aurreko grafikoan ikus daitezke 1932, 1933, 1934 eta 1935eko lurreko eta itsasoko deialdietara zegozkien pertsona mobilizatuak Busturiko elizatean, eta bertan itsas-armadan zerbitzatu behar zutenak nabarmentzen dira. Dena den, errealitatea eta praktika oso desberdinak dira. 1936ko urriaren 16ko dekretua betez:

“el alistamiento se verificará dentro del plazo de setenta y dos horas, a partir de la publicación de este Decreto, en los Ayuntamientos respectivos, y para los refugiados de zonas ocupadas en los Ayuntamientos en que residen accidentalmente” (EHAA, 1936/10/18).

1936ko urriaren 21ean Busturiko Udalean egiaztatu zen, gutxienez, 1935eko deialdiaren mutilen aurkezpena milizietara joateko¹⁸⁶. Lurreko klasetik mobilizatuak izan ziren bi mutilak, Antonio Garmendia Arambarri eta Benigno Izaguirre Arriaga, bai aurkeztu zirela. Horietako bat, Antonio Garmendia Arambarri, jadanik boluntarioa zen milizietan *mendigoi-xaleekin*. Itsas-armadaren marineletan izena emateagatik mobilizatuak izan zirenei zego-kienez, Bilboko Itsas Komandantziak 1934an egindako zerrendaren arabera, 11 lagun zeuden. Hamaika lagun hauetatik Antonio María Alegría Laucirica eta Lucio Izaguirre

186. MHZD. PS Bilbao. 47. kutxa. 03. txostena.

Bengoechea mutilak euskal milizietan zeuden jada. Hirugarren bat, Juan Esquíbel Ispizua, itsasoan nabigatzen zebilen eta bere aitaren arabera bere kokapena ezezaguna zen. Jesús Zuazúa Porturas eta José Zuazúa Porturas anai bikiak *Cementos Rezola N.º 2* itsasontzian zeuden ("*requisado por el Gobierno español*"), eta biak Udalean aurkeztu ziren itsasontzia Bilbon zegoela aprobetxatuz. Ovidio Guerecachevarría Asla mutilak zerbitzua emateko galarazten zuen akats fisiko bat zuela egiaztatzen zuten ziurtagiri medikoak erakutsi zituen. Udalerrietako alkateak arduratu ziren mutilak eramateaz Defentsa Sailak adierazitako aurkezpen tokietara (EHAA, 1936/10/18).

Herriko biztanleei eta nabigatzeak zekartzan itsas-lanei dagokienez, mobilizatutako mutil kopuru handi bat nabigatzen zegoen mobilizazioa gertatu zenean edo itsasoan egotearen arrazoia erabili zuten soldadutzara ez joateko. Adibidez, Francisco Javier Oleaga Aranguren, 1933ko deialdikoa itsas-armadatik, Bilboko portuan ainguratuta zegoen *Cobetas* baporean zegoen 1936ko uztailaren 18an, eta bertan egon zen 1936ko irailera arte mea kargamentu batekin. Data horretatik aurrera ikatza eta artoa garraiatzeari ekin zion Ingalaterra eta Argentinara bidaiak egiten 1937ko urrira arte, itsas infanteriak mobilizatu zuenean¹⁸⁷. Itsas-armadako deialdi berekoa zen ere Tomás Francisco Zuazúa Porturas, matxinadaren uanean Aviléseko portuan ainguratuta zegoen *Víctor Chávarri* itsasontzian zegoena. Ingalaterran denbora laburra eman ondoren Euskal Herrian lehorreratu zen 1936ko abenduan, bere Busturiko etxera joateko. Hala ere, bere kinta mobilizatu izan zela ikustean, *Axpe Mendi* itsasontzian ontziratatu zen urtarriaren amaieran edo otsailaren hasieran, soldadutza saihesteko asmoarekin¹⁸⁸. Azkenik, Victoriano Llona Elguezábal mutilaren kasua azalduko dugu, itsas-armadako 1932ko deialdikoa, bere Busturiko etxean zegoena 1936ko uztailaren 18an, baina bere baimen-egunetan PYSBEko *Tramontana* bakailao-ontzitik itzuli ondoren. Abuztuaren amaieran enpresak deitu zion, eta Pasaiara (Gipuzkoa) abiatu zen bakailao-ontzi berdinean ontziratzeke. Pasaiako portuan egun batzuk eman ondoren, Cartagenara bidali zuten, non *Tramontana* artilleriaz armatu zuten, eta Mediterraneoan portutik portura bidaiatzen ibili zen garai kargamentuekin eta abar¹⁸⁹. Dirudenez, Aniceto Orbe Ormaechea ere, itsas-armadako 1932ko deialdikoa, ez zen aurkeztu udalean mobilizazio militarren ondoren. Beraz, garaiko prentsak Segurtasun Zuzendaritza Orokorren ardurapean zeuden indarrei eskatzen zion Aniceto Orbe Ormaechea bila eta harrapa zezaten udalera ez joateagatik (*El Noticiero Bilbaíno*, 1936/12/23; *Euzkadi*, 1936/12/23; *Euskadi Roja*, 1936/12/24, 1936/12/27; *El Liberal*, 1936/12/25). Azkenean mobilizatu eta *México* batailoian sartu zuten arren, diziplina falta argi bat erakusten zuen, 1937ko apirilaren 18an Laudioko kuartelean aurkeztu behar zelako, Fermín Calzada Benguria Busturiko auzotarra bezala, eta ez zuen egin¹⁹⁰. Laburbilduz, 1932 eta 1935 urteen bitarteko deialdien 6 mutil daude guztira Euzko Jaurlearitzak egindako mobilizazio militarra zenbait hilabetez saihestu zutenak.

Estatu Batuak, Ingalaterra, Kolonia, Argentina edo Kuba bezalako atzerriko herrialdetara emigratu ondoren, ziur aski modu irregularrean, herrian ez zeuden aurreko

187. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1402/40 kausa.

188. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 11214/39 kausa. Bizkaia.


189. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 365/45 kausa.

190. MHZD. PS Santander L. 705. kutxa. 06. txostena.

deialdietako gazteak aipatu behar ditugu ere. Herriko deialdietan sartu zituzten, baina “saikatu gabe” (“*pendientes de clasificación*”) edo “iheslari” (“*prófugos*”) izendatu zituzten. Adibidez, Alberto Fradua Basteguieta, Juan Pedro Learreta Gorriño, Zenón Odiaga Cortázar edo Ángel Jorge Uriarte Ugalde lurreko 1933ko deialdiko mutilak gorago aipatutako kategorietan zeuden. Juan Pedro Learreta Gorriño eta Ángel Uriarte Ugaldereen kasuetan, jadanik elizateko 1935eko erroldan ez zeuden, lehenengoa Liverpooletan (Ingalaterra) bizi baitzen eta bigarrena New Yorken (Estatu Batuak). 1935eko errolda beraren arabera Alberto Fradua Basteguieta eta Zenón Odiaga Cortázar elizateko auzotarrak ziren arren, deialdia egin zenean haien senideek esan zuten bata Bogotán (Kolonbia) zegoela eta bigarrena Argentinan. 1941ean bizilekuak berdinak ziren¹⁹¹. Egoera honetan 1932 eta 1935 urteen arteko deialdietako 12 mutil egon ziren gutxienez; atzerrira betirako bizitzera joan ziren pertsonak ziren eta haien deialdiaren mobilizazioak ez zuen inolako eraginik izan. Dударik gabe, zorte onena izan zutenak ziren, ez baitzuten bizi gatazka zuzenean.

Euzko Jaurlaritzak bere jurisdikziopeko lurraldean zeuden deialdiak mobilizatzen jarraitu zuen lehenago aipatutako baldintza berdinetan. Penintsula iparraldeko eraso handienak porrot egin zuenean, Villarealeko bataila izenez ezagutzen dena, Euzko Jaurlaritzak bigarren mobilizazio bat agindu zuen dekretu bidez 1936ko abenduaren 8an, lurreko 1931 eta 1936ko deialdiko mutilak eta itsasoko 1930 eta 1931ko deialdiko mutilak hartzen zituena (EHAA, 1936/12/16). 1936ko abenduaren 18an euskal milizietan izena emanda zuten gudari guztiei, kuarteletan edo konpainiaren baten barruan egon ezik, Bidarteko (Deustu) kuartelean aurkezteko agindua ematen zitzaien, Busturiko eta inguruko herrietako gudariak ere barne (*Euzkadi*, 1936/12/18).

Busturian mobilizatutako pertsonen kopurua lurreko eta itsasoko 1930, 1931 eta 1936ko deialdien bidez




(Iturria: BFAAH).

191. BFAAH. Udal atala. Busturia 0011/007; 0039/002; 0012/009.

1930eko deialdiari buruz ikus daiteke dokumentazioan nola Francisco Llona Elguezábal, itsasoko 1930eko deialdiko mutila, nabigatzen egon zen eta ez zen soldadutzara joan. *Tramontana* itsasontzian zegoen, bere anaia Victoriano Llona Elguezabalekin batera, azken hau itsasoko 1932ko deialdiko mutila zena¹⁹².

1937ko martxoaren 31n armada matxinoa Bizkaiaren gaineko eraso hasi zenean, Euzko Jaurlaritzak mobilizazioak maiztasun handiagoarekin agintzen hasi zen. 1937ko apirilaren 7an itsasoko 1928, 1929, 1936ko deialdiak eta lurreko 1929, 1930 eta 1937ko deialdiak mobilizatu zituen (EHAA, 1937/04/08). 1937ko apirilako mobilizazio hau Busturiko elizatean egindako azkenengoa izan zen Euzko Jaurlaritzaren jurisdikziopean. Hurrengo grafikoa ikus daiteke nola itsas-armadako deialdiek lurreko deialdiek baino askoz pertsona gehiago mobilizatzen zituzten.

Busturian mobilizatutako pertsonen kopurua lurreko eta itsasoko 1928, 1929, 1930, 1936 eta 1937ko deialdien bidez



(Iturria: BFAAH).

Mobilizazio honetan ere nabigatzen zeuden mutilak topatzen ditugu, eta ez ziren soldadutzara joan Euzko Jaurlaritzarekin, nahiz eta gero bai egin zuten Errepublikako lurraldean. Félix Lequerica Elesgaray eta Esteban Zaldúa Retolaza kasua daukagu, adibidez, biak itsas-armadako 1936ko deialdikoak. Félix Lequerica 1936ko abenduaren amaieran ontziratu zen eta 1937ko otsailean Busturira itzuli arren, gero nabigatzera joan zen berriro bere kinta mobilizatu izango zela susmatzen baitzuen¹⁹³. Azkenik, “justifikatu gabe” (“*pendiente de justificación*”) edo “iheslaria” (“*prófugo*”) kategorien barruan zeuden mutilak ere aipatuko ditugu. Dokumentazioaren arabera Jacinto


192. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 727/42 kausa.

193. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 11214/39 kausa. Bizkaia; ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 326/41 kausa.

Ibarlucea Undabarrena, lurreko 1929ko deialdiko bi mutiletako bat, Madruga herrian (Kuba) zegoen. 1941ean mutil hau New Yorken (Estatu Batuak) bizi zen, beraz baliteke Espainiara itzuli ez izatea 1929 eta 1941 urteen artean, bere mobilizazioa saihestuz gerrak iraun zuen bitartean¹⁹⁴.

Hildakoen kopurua Euzkadiko Gudarostean gero eta handiagoa zen matxinoak Bilbora hurbiltzen ziren neurrian. Sollube edo Bizkargiko bataila garrantzitsuetan Euzko Jaurlaritzak pertsona gehiago behar zituen Errepublika defendatzeko. 1937ko maiatzaren 7ko dekretuaren bidez lurreko 1928, 1938 eta 1939ko deialdiko mutilak eta itsasoko 1927, 1937 eta 1938ko deialdikoak errekrutatzea eta mobilizatzea agindu zen (EHAA, 1937/05/09). Hilabete beraren amaieran, 1937ko maiatzaren 21ean, lurreko 1925, 1926 eta 1927 deialdiko mutilak eta itsasoko 1924, 1925 eta 1926ko deialdikoak errekrutatu eta mobilizatu ziren (EHAA, 1937/05/23).

Busturian mobilizatutako pertsonen kopurua lurreko eta itsasoko 1924, 1925, 1926, 1927, 1928, 1937, 1938 eta 1939ko deialdien bidez



(Iturria: BFAAH).

Berriro ere, nabigatzen zeuden edo nabigazioan soldadutzara ez joateko modu bat aurkitu zuten mutil mobilizatuen kasuak ditugu. Esaterako, Benito Zaldia Retolaza, itsas-armadako 1937ko deialdiko mutila, "Rita García" itsasontzian nabigatzen ari zen une hartan eta bidaiak egiten zituen portu ingeles, frantses eta espainiarren artean 1937ko urriaren 22ra arte¹⁹⁵. Euzko Jaurlaritzak ezin izan zuen Antonio Elorriaga Undabarrena mobilizatu, lurreko 1925eko deialdiko mutila, elizateko biztanlea ez zelako 1935eko erroldaren arabera eta Kuban zegoelako soldadu bezala sailkatu behar izan zutenean. 1941ean Kuban zegoen oraindik. Francisco Esquiaga Elesgarayren kasua topatzen dugu

194. BFAAH. Udal atala. Busturia 0011/007; 0039/002; 0021/009.

195. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 133/42 kausa.

ere, lurreko 1928ko deialdiko mutila zena, eta soldadu bezala sailkatu zutenean leku ezezagunen batean zegoen iheslaritzat jo zutena. 1941ean iheslari egoeran zegoen oraindik. 1937ko maiatzean mobilizatu ondoren Euskal Herriko gerran soldadutza saihestea lortu zutenen 13 mutilen adibide batzuk izan dira hauek¹⁹⁶.

Maiatzeko mobilizazioa gertatu baino lehen, Busturiko herriak ebakuazio agindua jaso zuen 1937ko apirilaren 29an. Agindu horrek Udalari ere eragiten zion eta arineketan utzi behar izan zuen udalerrria. Ia udalaren funtzionario administratibo, teknikari, mediko eta menpeko guztiak elizatek joan ziren Bilbo metropolitarrerantz. Dena den, salbuespen bat egon zen: udal-idazkaria Udala zuzentzen geratu zen Batzorde Kudeatzaile frankista eratu zen arte. Testuinguru honetan, Udalaren dokumentazioa udal-idazkariak zaindu zuen eta elizatean gorde zen tropa frankistak sartu ziren arte. Dokumentu horiek ezinbestekoak ziren elizateko 1938 eta 1939ko errekrutatzeak egiteko. Busturiko elizateko 1937ko errekrutatze-lana 1937ko urtarrilaren 10ean egiten hasi zen, eta urte bereko otsailaren 21ean bukatu zen. Udalerrian errepublikanoek egin zuten azken errekrutatzea izan zen eta, beraz, Euzko Jaurlaritzak kontrolatu ahal izan zituen errekrutatze hori osatu zutenak¹⁹⁷. Nabarmentzekoa da ikerketa egiterakoan Busturiko elizateak 1937ko maiatzak baino lehen mobilizatuak pertsonen %52,63ren papera bakarrik jakin dugula, eta data horretatik eta urte bereko ekainera arte %26,84rena.

Azpimarratu behar dugu ere Euzko Jaurlaritzako Defentsa Sailak, 1937ko urtarrilaren 27an, hemezortzi eta berrogeita bost urte bitarteko gizonezko herritar guztien gaineko kontrola dekretatu zuela:

“Vista la necesidad de dar exacta y fiel aplicación a los Decretos y Ordenes de movilización que eludan el cumplimiento de sus deberes militares, y necesitando controlar la personalidad de todos los ciudadanos comprendidos entre las edades de dieciocho (18) a cuarenta y cinco (45) años que residen habitual o accidentalmente en el territorio sujeto a la jurisdicción del Gobierno de Euzkadi” (EHA, 1937/02/12, 1937/04/13).

1936ko urriko eta abenduko dekretuen bidez teoriarik mobilizatu ziren 143 mutiletatik, %6,99 Busturiko herrian zeuden 1937ko otsailean Defentsa Sailaren kontrol militarren arabera; ziur aski baimen-egunetan atsedean hartzen. Mobilizatuak 143 mutiletatik %23,07 ez ziren elizateko biztanleak 1935eko erroldaren arabera. Apirilean, maiatzean eta ekainean Euzko Jaurlaritzaren dekretuen bidez soldadutzara deituak izan ziren eta militarri kontrolatuak zirenei dagokienez, Defentsa Sailak deituak izan ziren 245 mutiletatik %32,28 kontrolatu zituen, eta mobiliza zitezkeen guztietatik %34,65 ez ziren udalerriko biztanleak¹⁹⁸.

Euzko Jaurlaritzak egin zuen azken mobilizazioa 1937ko ekainaren 9an izan zen, Bilbo erori baino hamar egun inguru lehenago eta matxinoekin *Burdin Hesiaren* kontrako erasoak hasteko asmoarekin. Azken mobilizazio honetan lurreko 1922, 1923 eta 1924ko errekrutatutakoak eta itsasoko 1921, 1922 eta 1923ko deialdiak aurkeztea eskatu zen

196. BFAAH. Udal atala. Busturia 0011/007; 0039/002; 0021/005; 0021/008.


197. BUA. Akta-liburua. 1937/01/10; 1937/01/31; 1937/02/14; 1937/02/21.

198. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0012/006; 0056/015.

(EHAA, 1937/06/11). Hala ere, ziur aski azken mobilizazio hau ez zen gauzatu, egoerak eta gerra-testuinguruak eragotzi zutelako.

Laburbilduz, Euzko Jaurlaritzak 1937ko maiatzera arte egin zituen errekruten mobilizazioen arabera Busturiko 190 mutil egon ziren Euzkadiko Gudarostean. 1937ko maiatzetik urte bereko ekainera, bi hilabetetan eskas, beste 181 mutil izango ziren armak hartuko zituztenak matxinoen aurka. Hala ere, mobilizazio hauek teorikoak ziren, praktikan gerrako gertaerek eta mutil bakoitzaren egoera pertsonalak armadara joatea baldintzatu zutelako. Busturian egindako errekrutatzeen bidez soldadutzara joan ziren mutilen %28,30 Euzko Jaurlaritzak Euskadin egindako mobilizazioari erantzun zioten. Hurrengo grafikoan, errekrutatze urteen arabera antolatuta, Euzko Jaurlaritzak dekratu zituen mobilizazioei teorikoki lotuta zeuden gizonak eta Busturiko elizateak mobilizatu zituen gizonak, ikerketa egiterakoan identifikatuak izan direnak, zenbatzen eta konparatzen dira. Egun oso zaila da jakitea Euzkadiko Gudarosteko unitateetan izandako busturiarren partaidetza ehuneko ehunean, baina aztertutako lagin handiari esker borroka fronteetan egon ziren elizateko biztanleen edo bertan jaioen partaidetza eta mobilizazioari hurbil gaitzke.

Administrazioak teorian kinta guztietan mobilizatu behar zituen Busturiko mutilen kopurua eta benetan mobilizatu zirenak



Euzkadiko Gudarostean identifikatu ziren eta Busturiarekin harremana zuten gizonen %55,19 euskal adskripzio nazionalistako unitateetan egon ziren. Hain zuzen ere, %44,79 EAJko unitateetan egon ziren. Ehunekoaren gainontzekoa ANV (%4,16), EMB (%3,12) eta ELAren artean (%3,12) banatzen da. Euzkadiko Gudarostean identifikatutakoen zati garrantzitsu bat, %18,75, armadaren unitate erregularretan egon zen: osasuna, intendentzia, artilleria, ingeniariak eta abar. Orain arte topatu dugu Euzkadiko Gudarostean egon ziren banakoen %73,94 adskripzio nazionalistako unitateetan egon zirela edo Euzko Jaurlaritzak sortu zituen formazio erregularretan zerbitzatu zutela. Gainontzeko %26,06 hurrengo taldeetara esleitutako unitateetan zegoen:

IR (%12,5), PS/UGT (%5,21), CNT (%4,17), PC (%3,13) eta JSU (%1,05). Euzkadiko Gudarostean zerbitzatu zuten gizonen %81,11 Busturian jaio ziren eta %11,82 inguruko beste herrietan jaio ziren, hala nola Sukarrietan, Arrietan, Errigoitin, Mendatan edo Muruetan. Gainontzeko ehunekoak, %7,07, Bizkaiko beste herrietakoak edo Espainiako probintzietakoak ziren. Lanbideari dagokionez, %39,36k itsas arloko lanetan ziharduten eta %20,21ek nekazaritzako lanetan. Gainerako ehunekoak lanbide ugariaren artean banatu beharko litzateke: merkatariak, saltzaileak, arotzak, harginak, botikariak, merkataritza-perituak, etab. Egoera zibilar dagokionez, borrokatzaileen %8,51 bakarrik zeuden ezkondua; aldiz, ezkongabeak %74,46 ziren eta ez dakit gainontzeko %17,03ren egoera zibila. Borrokatzaileen batz besteko adina 25,76 urtekoa zen. Hitz batez, Busturiko borrokatzaileak herrian jaiotako gizonak ziren, ezkongabeak, 26 urte inguruko batez besteko adinarekin, lanbidea itsasoan edo nekazaritzan zuten eta euskal adskripzio nazionalistako unitateetan edo Euzkadiko Gudarostearen formazio erregularretan zeuden.

4.4.2. Busturiarrak euskal batailoi nazionalistetan

Euskadin Gerra Zibila hasi zenean EAJ indar politikoko hegemoniko bat zen, etaaldi berean lehen mailako indar sindikalak sortzeko bidea eman zuen, Eusko Langileen Alkartasuna (ELA) bezala. Busturiko kasu zehatzean ikusi dugu Errepublika garaian EAJ elizatean garrantzi handiko indar politikoa izan zela eta ELAren indar sindikala nola ezarri zen. EAJ ahalegin belikoari unitate gehien eman zion alderdi politikoa izan zen eta bere batailoietan matxinoen aurka borrokatzeko armak hartu zituzten busturiarren zati handi bat zegoen. ELAri dagokionez, egia da bere militanteen zati handi bat EAJren unitateetan antolatua izan zela. Hala ere, EAJrekiko autonomia izateko desioak aurrera egin zuen eta bere miliziak sortu zituen 3 batailoiekin. Gainera, euskal nazionalismoak beste bi indar izan zituen. Alde batetik, *Euzko Mendigoizale Batzaren* (EMB) sabinariarrak, nazionalismo independentistaren ordezkariak zirenak. Beste alde batetik, Euskal Ekintza Nazionalistaren (ANV) autonomistak eta ezkertiarrek zeuden (Vargas, 2007: 106-107).

Busturiar gehien zituzten unitateen artean *Itxasalde*, *Simón Bolívar* eta *Rebelión de la Sal*, batailoiak zeuden, Euzko Gudarosteko milizietara esleituta zeudenak. *Itxasalde* batailoia¹⁹⁹ Euzkadiko Gudarosteko 13. zenbakia zuen. Bere izena kideen jatorriari egindako zehar-esan argi bat da, gehienak Bizkaiko kostaldeko herrietako arrantzaileak baitziren: Mundaka, Bermeo, Ea, Lekeitio edo Ondarroakoak. Unitatearen buruzagi bezala Víctor Erkiaga geratu zen eta komandante intendentea Andrés Ordorika izan zen. Hastapenak zirenak zirela ere, kuartelak Deustuko Gorren Ikastetxean, Bidarteko txaletan eta Zornotzako Larrea komentuan egon ziren (Vargas, 2007: 109). Batailoiaren jatorria *Itxasalde* izeneko konpainia batean dago eta batailoi bihurtu zen 1936ko irailan. Bere lehen konpainia, "*Boga-Boga*", borrokan sartu zen lehenengoa izan zen 1936ko irailaren amaieran, Asterrikako eremuan. Dena den, lan honetan bere 3. konpainia nabarmenduko dugu, "*Tellería*" izenekoak, zeinean Francisco Uribe Asteinza edo

199. Batailoi horretan aurkitutako busturiarren artean hurrengoak daude: Félix Ugalde Gondra, Ricardo Porturas Bilbao, Félix Ugalde Garay, Alipio Horacio Borda Elesgaray, Gregorio Esquibel Ispizua, Tomás Torrezuri Guezuraga, Lorenzo Torrealday Arana, Francisco Uribe Asteinza eta Antonio María Alegría Laucirica.

Félix Ugalde Garay busturiarrak teniente gisa egon ziren, eta *gudari* bezala Gregorio Esquíbel Ispizua, Antonio María Alegría Laucirica eta Tomás Torrezuri Guezuraga (kaboak). Konpainiako kideek Gernikako Agustindarren komentuan jaso zuten instrukzioa eta kapitaina Luis Zabarte gernikarra izan zen. Urrian eta abenduan konpainiek bananduta jardun zuten: Elgeta, Kanpazar, Asterrika... Batailoia ez zuten azarora arte Urduñako frontera bidali. Behin Arabako frontean parte hartu zuen, San Pedro mendiaren konkistan (Araba). Fronte horretan 1937ko apirilera arte egon zen. Apirilean Baranbioko sektorera destinatu zuten eta Elorrioko sektorera atzera egin behar izan zuen. Elorriko sektorea erori zenean Durangora abiatu zen, eta han Vicente Álvarez komandantearen agintepean zegoen 9. Euskal Brigadan sartu zen, Ollerosen 1. Dibisioko zegoena. Une horretan Solluberen borrokan parte hartu zuen. (Vargas, 2007: 109-111; Urgoitia, 2003, IV. liburukia: 224; 229; III. liburukia: 121).

Simón Bolívar batailoia²⁰⁰ Euzkadiko Gudarosteko 70. zenbakia zuen. Bere izenak jatorri euskalduneko askatzaile hegoamerikarraren irudia gogorarazten zuen. Batailoia eraketa 1937ko apirilaren 19an bukatu zen, 1929 eta 1930eko kintek mobilizatu-tako jendearekin. 1937ko apirilaren 26ko aginduekin batailoia 1. Dibisioko 4. Euskal Brigadan sartu zen. Batailoiak Bizkargi eta Lemoatxeko batailetan parte hartu zuen, eta azken hau bere ekintza beliko garrantzitsuena izan zen. Enkarterrietarantz atzera egin ondoren, batailoia abuztuan desagertu zen (Vargas, 2001: 336; Urgoitia, 2003, IV. liburukia: 224; 229; 248). *Rebelión de la Sal* batailoia²⁰¹, Euzkadiko Gudarostean 59. zenbakia zuena, bere izenak XVII. mendeko matxinada zekarren burura, Espainiako erregea gatzaren estankoa ezartzen saiatu zenean. Batailoia 1936ko abenduan eratu zen Bilboko Cervantesen Eskoletan eta Enkarterrietako eta Busturialdeko kintetatik zetozen mutilek osatu zuten. Bere jarduera belikoa 1937an hasi zen, Ubidera destinatu zutenean. Tantaibakar (Araba) eremua defendatu ondoren, batailoia Gorbeira igaro zen gero Santa Marina Zarrera (Bizkaia) joateko. Ermuan berriz elkartu ondoren, Trabakuako mendaterantz atzera egin zuen. 1937ko apirilaren 25eko ilunabarrean, Gernikako bonbardaketaren aurreko egunean, batailoiak Gernikara erretirtzeko agindua jaso zuen. 26ko arratsaldean aire-bonbardaketa batek inguratu zuen eta hildako ugari egon ziren; haien artean Tomás Torrezuri ofizial busturiarra zegoen. 2. Dibisioko 6. Brigadan egonda nabarmena da hurrengo batailetan izan zuen partaide-tza: Alakonamendi, Aramotz, Lemoatx, Urresti (*Burdin Hesia*) eta Santo Domingo-Monte Avril (Vargas, 2001: 333; Urgoitia, 2003, III. liburukia: 129; 430; IV. liburukia: 229).

Busturiar ugari izan zituen beste batailoia bat *Malato* batailoia izan zen²⁰². *Malato* batailoia Euzkadiko Gudarosteko 54. zenbakia zuen. Foruaren arabera, Bizkaian jaiotakoek ordainsaririk gabe zerbitzatu behar zuten zuhaitz batek adierazten zuen toki bateraino, eta batailoia izena zuhaitz horri buruzko zehar-esan argi bat da. Bere basea Bilboko

200. Batailoia honetan aurkitutako busturiarren artean hurrengoak daude: Andrés Atela Asteinzua, Pedro Orbe Calzada, Juan María Arróspide Achicallende, Vidal Goicoechea Guezuraga, Jesús Bilbao Arriaga eta Alejandro Garay Acha.

201. Batailoia honetan aurkitutako busturiarren artean hurrengoak daude: Sabino Amunategui Arancua, Tomás Torrezuri Guezuraga (kapitaina), Gregorio Erezuma Rentería, Galo Zuazua Izaguirre, Gonzalo Aguirre Gondra, Eulogio Irigoyen Arbe eta Gregorio Guezuraga.

202. Batailoia honetan aurkitutako busturiarren artean hurrengoak daude: José Porturas Bilbao, Gregorio Apraiz Goiri, Francisco Gandiaga Alegría, Andrés Avelino Iturbe Zorrozuá, Gregorio Elesgaray Bilbao eta Rafael Elesgaray Bilbao.

Eskolapioen kuartelean zegoen eta hilabete horren amaierarako antolatuta egon zen. Hilabete luzeak eman zituen parte hartu gabe Gorbeia eremuan, baina ekainaren 14an Bidebietara heldu zen Bilboko defentsan laguntzeko. Ordurako 4. Dibisioko 16. Brigadan sartuta zegoen, 1937ko apirilaren 26ko agindua eman zenetik. Hilabete horren 16an Malmasin mendiaren defentsan parte hartu zuen eta 18an bere konpainietako bi Pagasari mendian kokatu ziren. Batailoia Bilbon kontzentratu zen eta frankisten esku geratu ziren (Vargas, 2001: 330; Urgoitia, 2003, IV. liburukia: 229). EAJko milizietara, Euzko Gudarostera esleitutako hainbat unitatek busturiarren bat zuten osaketan eta nabarmenezkoak dira: *Padura* 41. batailoia²⁰³, *Aralar* 71. Batailoia²⁰⁴, *M.A.I. Irrintzi* 77. Batailoia²⁰⁵, *Otxandiano* 37. Batailoia²⁰⁶, *Martiartu* 56. Batailoia²⁰⁷, *Ariztimuño* 62. Batailoia²⁰⁸, *Ibaizabal* 15. Batailoia²⁰⁹, *Muñatones*²¹⁰ 57. Batailoia, *Abellaneda* 38. Batailoia²¹¹ edo *Gordexola*²¹² 16. Batailoia.

EAJk antolatutako ingeniari unitateetan ere busturiarrak aurkitu ditugu. EAJk hiru ingeniari batailoia antolatu zituen gutxienez, eta borroka fronteetan beste unitate militarren laguntza bezala jardun zuten. Hiru batailoia hauek Euzkadiko Ingeniarien 2., 7. eta 10. Batailoia ziren. Bere helburuak fronteak gotortzea eta atzeguardiako defentsa lerroak prestatzea ziren. Zenbaitetan gotortze-lanak etsaien suaren azpian egiten zirenez, abiazioarena barne, hildakoak egoten ziren (Vargas, 2001: 338). Busturiarrak daude, gutxienez, Euzkadiko Ingeniarien 2. eta 7. Batailoietan Ingeniarien 2. Batailoia *Sarasketa* izenarekin ezagutzen zen, bere komandatearen izenagatik, Felipe Sarasketa. Unitate honetan bi busturiar topatzen ditugu gutxienez: Fermín Bilbao Jayo eta Pedro Erezuma Rentería. Euzkadiko Ingeniarien 7. Batailoian ere, *Gogorki* izenarekin ezagutzen zena, bi busturiar daude gutxienez: Ángel Mintegui Marcaida eta Víctor Martín Bilbao Bilbao.

Dagoeneko aipatu dugu ELA sindikatuak bere miliziak garatzea erabaki zuela, sindikatutako asko EAJk antolatutako batailoietan sartu ziren arren. ELAK infanteriako batailoia bat eta ingeniariaren bi batailoia antolatu zituen. Batailoia EAJko miliziez osatutako *Euzko Gudarostean* menpe ez zeuden arren, alderdiaren ildoetara derrigorrez jarraitu behar zirenen (Vargas, 2007: 117). Infanteriako *San Andrés* batailoian, Euzkadiko Gorputzeko 50. Batailoia zena, busturiarrak egon ziren. Batailoia honen. 4. Konpainaren kabo bezala Pedro Ugalde Gondra borrokatu zen, ELAri afiliatutako itsasgizona. Batailoia hau Gernikan

203. Batailoia honetan hurrengo busturiarrak daude: Juan María Arróspide Achicallende, Rufino Iturbe Zorrozuía eta Lucio Izaguirre Bengoechea.

204. Batailoia honetan hurrengo busturiarrak daude: José María Guezuraga Ateca eta Juan José Elorriaga Orube.

205. Batailoia honetan Gregorio Zorrozuía Basterrechea busturiarra dago.

206. Batailoia honetan Carmelo Llantada Uriaguereca busturiarra dago.

207. Batailoia honetan Antonio Bilbao Zabala busturiarra dago.

208. Batailoia honetan Jesús Gorriño Luzarraga eta Francisco Zabala Madariaga busturiarrak daude.

209. Batailoia honetan Juan Manuel Oleaga Aranguren busturiarra dago.

210. Batailoia honetan Alberto Ibarlucea Undabarrena busturiarra dago.

211. Batailoia honetan Gregorio Asla Guerecahevarría eta Pedro Asla Guerecahevarría busturiarrak daude.

212. Batailoia honetan Fidel Apraiz Goiri eta Benito Bilbao Alegría busturiarrak daude.

sortu zen, 1936ko azaroko bigarren hamabostaldian, nazionalistek antolatutako Euskal Miliziak oinarri bezala izanez. Hilabete horretan hiru konpainia bakarrik zituen; laugarrena hurrengo hilabeteke lehenengo hamabostaldian eratu zen, metrailadoreena bezala. 1937ko urtarrilean Markinako frontera bidali zuten garnizio bezala eta urte horretako maiatzera arte hildako gutxi izan zituen. Apirilean euskal tropak Markinatik egiten ari ziren atzeraegite orokorrean parte hartu zuen. Bermeora joan zen eta Mundakan zehar zabaldu zen. Sollubeko batailan parte hartu ondoren, batailoiak Jatan borrokatzen jarraitu zuen eta hildako ugari izan zituen. Unitateak jasotako zigor gogorrek agintari militarrek Baranbioko frontera bidaltzea ekarri zuen, eta 1937ko ekainaren 13an Bilboko defentsarako azaltzea eskatu zitzaion unitateari. Borroka bortitzeko bi egunen ostean eta Bilbon berriz elkartu ondoren, batailoia matxinoei errenditu egin zitzaion Barakaldon (Vargas, 2002: 543-545). Euzkadiko Gudarosteko *San Andrés* Ingeniarien 5. batailoian Eleuterio Basterrechea Lamiquiz busturiarra egon zen, SOVen afiliatua. Unitatea 1937 urtearen hasieran eratu zen. Hildakoak martxoko bukaerara arte gutxi izan ziren eta apirileko aginduaren ondoren Estatu Nagusiaren agintepean geratu zen. *Burdin Hesiaren* apurketaren ondoren batailoia Kantabriarantz atzera egiten joan zen eta oso gizon gutxi-rekin heldu zen Villaverde Turtziozera. Uztailaren amaieran batailoiak fronteak gotortzen jarraitzen zuen baina unitatea desagertu zen Kantabria frankisten eskuetan erori zenean (Vargas, 2002: 545).

Mendigoixaleek Gerra Zibilean EAJko miliziez osatutako Euzko Gudarostetik independenteak ziren unitate milizianoak eratu zituzten Bizkaian. Sabino Aranaren euskal nazionalismo erradikalaren jarraitzaile amorratuak ziren eta uztailaren 18ko estatu kolpearen ondoren Gerra Zibilean parte hartzeari buruz eztabaidatu zuten, nagusiki gatazka espainiartzat jotzen baitzuten. Azkenean, *Euzko Mendigoizale Batzak* borrokatzearen alde erabaki zuen eta bere kideekin *Lenago II* eta *Zergaitik Ez* batailoiak sortu zituen. *Lenago II* Euzkadiko Gorputzeko 33. Batailoian sei busturiar zeuden gutxienez: Tomás Uriarte Bilbao, Antonio Garmendia Arambarri, Juan Ignacio Uriaguereca Calzacorta eta Julio Mendieta Lezámiz. Batailoiak *mendigoixaleen "Mikel Alberdi"* konpainiaren eraketan du jatorria, 1936ko irailaren amaieran eta urriaren hasieran sortu zena. Urte horretako abenduan batailoia eratu eta agertzen da. Batailoia zena Sabino Aranaren olerki baten izenburutik zetorren, Primo de Riveraren diktaduran mendizale nazionalisten talde bat izendatzeko erabilia. Orokorrean batailoiak hildako gutxi izan zituen, *Zergaitik Ez* batailoiarekin batera Gorbeia eremua gotortzera bidali baitzuten, bi batailoien kideak eskarmentu handiko mendizaleak zirelako (Vargas, 2002: 540-541).

ANVk infanteriako hiru batailoia eta ingeniarien batailoia bat antolatu zituen eta *Euzko Ekintza Gudarosteak*, bere erakunde militarra zena, kontrolatuko zituen (Vargas, 2002: 519). Nahiz eta Errepublikara garaietan toki-mailan Busturian talde politikorik izan ez zuen, zenbait boto lortu zituen udalerrian. Talde honek kontrolatutako unitateetan Pedro Bilbao Ciarreta, Eugenio Asla Landia eta Juan Martín Larrea Oleagoitia busturiarrek ditugu Euzkadiko Gudarosteko *Olabarri* 6. Batailoian, "ANV 1" izenarekin ezagunagoa dena. *Olabarri* batailoia Begoñako Adoratzaileren komentuan eratu zen. Batailoia zena Claudio Olabarriaren omenean, 1936ko irailaren 18ko borrokan hil zen gudaria. Unitatea Lekeition hasi zen borrokatzen, eta handik denbora gutxira Markinan kuarteleratu zen. Azaroaren amaieran Arabako frontera joan zen eta hildako ugari izan zituen Legutioko batailan. Batailoia zena 2. konpainia Oviedora joan zen ANVko 2. batailoia laguntzeko, *Euzko Indarra* izenarekin ezagutzen zena. Eraso hastean batailoiak Gorbeian jardun zuen, gero Elorrion, Abadiñon eta Durangon jarraitzeko. Maiatzaren

hasieran batailoia Sollubeko frontera joan zen eta gero Zornotzako “heriotzako pinudian” jardun zuen. Azken hilabetean hildako ugari izateagatik batailoia Urduñako San Pedro mendian ezartzera joan zen. Matxinoen eraso Urduña-Amurrioko frontean zegoela, batailoia Balmaseda eta Karrantzara abiatu zen ekainean. Azkenik, adieraziko dugu Santanderreko defentsan parte hartu zuela, Santoñan harrapatu zuten arte (Vargas, 2002: 523-526; 2007: 119-120).

1937ko apirilaren amaieran, ANVk ingeniariaren batailoi bat sortzea erabaki zuen. Brigadak eta dibisioak sortzeari buruzko 1937ko apirilaren 26ko agindua erabiliz, infanteriako hiru batailoiak koordinatzen zituen erakundeak brigada bat eratu nahi izan zuen. Horretarako brigada ingeniariaren batailoi batekin osatzea erabaki zen. Unitatea *Azkatasuna* izena jaso zuen, baina bere izen ofiziala Ingeniariaren 8. Batailoia izan zen (Vargas, 2002: 533). Batailoi horretan hiru busturiar gutxienez identifikatu dira: Ricardo Echevarría Urizar, Félix Elorrieta Arriaga eta José Alberto Aguirre Alegría. Kuartelak Galdakaoko udal-eskoletan zituzten eta batailoiak posizioak gotortu zituen Zugastietan, Lemoatxen, Urkulun, Gaztelumendin, Santo Domingon, Arraizen eta Pagasarrin. Bilbo erortzean batailoiak atzera egin zuen Karrantzaraino 1937ko ekainaren 21ean, eta han Bizkaia eta Santander arteko muga gotortzen jarraitu zuen Santoñan matxinoei errenditu zitzaizen arte (Vargas, 2002: 532-537).

EAJk ere *Euzko Gudarostearen* kontrolpean zeuden atzeguardiako batailoi batzuk antolatatu zituen. Bizkaia gaineko eraso hasi zenean, mota honetako 20 batailoi zeuden: 10 probintzia-eremuan eta beste 10 Bilbon bertan. Dirudienez, nazionalismoak mobilizatu gabeko zaleak eta jarraitzaileak kokatzeko erabili zituen unitate hauek: gutxieneko instrukzio militarra ematen zien eta indar paramilitarra lortzen zuten, batez ere atzealdean ordena mantentzeko (*Euzkadi*, 1937/04/06). EAJren garrantzia eta elizatean egon ziren guardia hiritarren kopuru handia kontuan izanda, posible da Busturiko auzotar edo Busturian jaiotako batek batailoi horietan egon izatea.

4.4.3. Busturiarrak Fronte Popularraren unitateetan

Elizateko frontepopulistik unitate errepublikano moderatuenetan zein JSUko estremistetan borrokatu ziren, tartean PCEkoetatik edo PSOE-UGTkoetatik igaro zirelarik. Hala ere, lehen une batean pentsa daitekeenaren kontra, Ezker Errepublikanoak kontrolatutako unitate batean izan zen, *Capitán Casero* batailoian, non busturiar borrokalari gehien bildu ziren.

IR/UREk 6 batailoi antolatu zituen Euzkadi matxinoen kontra egiten ari zen ahalegin militarri laguntzeko, eta horiei azkenean UGTko batailoietan sartuta geratu ziren beste bi gehitu beharko zitzaizkien. Gainera, Francisco Vargasek adierazten du militante errepublikano askok mendetasun ezberdinetako batailoietan zerbitzatu zutela: UGT-PSOE, PCE, JSU o CNT (Vargas, 1994a: 61). Euzkadiko Gudarosteko *Capitán Casero* 80. Batailoia Ezker Errepublikanoaren diziplinapean egon zen. Talde politiko hau tokiko erakundea zuen Busturian eta batailoia IRko gazteen milizien barruan sartu zen (Urgoitia, 2003: 432). *Capitán Casero* batailoia izena kapitain errepublikano bat gogorarazteko zen, Villacampa jeneralaren altxatze militar batean nabarmendu baitzen 1886an. Dударik gabe batailoi hau busturiar gehien izan zituena izan zen: Eugenio Asla Landia, León Calzada Benguria, Alejandro Lequerica Elesgaray, Martín Cearreta Cearreta,

Policarpo Larreta Iturbe, José Benjamin Gorriño Echevarría, Aniceto Solay Monasterio, Bonifacio Solay Monasterio eta Jacinto Zabala Cearreta. Bermeok auzotar ugari izan zituen bere agintarien koadroetan eta ziur aski lerroetan ere (Vargas, 2007: 120). *Capitán Caseroren* borrokalaria ohi batek adierazten zuen Bermeoko 40 errekruta inguru bukatu zutela batailoian. Bere hitzen arabera, kintaz kinta deitu zituzten eta gehienak ez ziren errepublikanismoaren militanteak edo jarraitzaileak, apolitikoak edo euskal nazionalismoaren jarraitzaileak baizik (Vargas, 2007: 121). Hala ere, badakigu León Calzada Benguria eta Bonifacio Solay Monasterio busturiarrak, 1. Konpainiako soldaduak zirenak, Ezker Errepublikanoko afiliatuak zirela²¹³. Gauza bera gertatzen zen Policarpo Larreta Iturbe eta Alejandro Lequerica Elesgarayrekin, batailoiko 2. Konpainiakoak²¹⁴.



Martín Cearreta Cearreta (Iturria: Egizábal eta Serrano, 2017: 235).

Batailoien antolaketa 1936ko abenduan hasi zen. Apirilaren erdialdean Arespalditza-Artzeniegako frontean zegoen, Pozo Portillo, Santa Olaja eta Enchaurreko posizioak betez, konpainia batek Arespalditzan jarraitzen zuen bitartean. 1937ko apirilaren 26ko aginduarekin 4. Dibisioko 2. Brigadara atxikita geratu zen. Maiatzaren bukaeran lasaitasuna apurtu zen batailoia Bizkargiko (Bizkaia) sektorera bidali zutenean. Une hartan batailoia borroka latzetan nahastuta egon zen eta Bizkargiko hegoaldeko inguruko mendietatik Kastrexanaraino joan zen, Santo Domingo-Artxandako borroketan ere parte hartuz. Villaverde Turtziozen, Ontanedan eta La Magdalenan (Puerto del Escudo, Santander) borrokatzen jarraitu zuen. 1937ko abuztuaren 15ean azkenengo aldiz borrokatu zen Italiako unitateen aurka La Magdalenan, eta atzera egin zuen San Pedro del Romeral-Ontaneda ibilbidetik, non abuztuaren 18an eta 20an erresistentzia pixka bat emateko indarra zuen oraindik (Vargas, 1994a: 70-72; Urgoitia, 2003: 229).

Félix Bilbao Jayo eta Pedro Larrinaga Madariaga busturiarrak *Zabalbide* batailoiei errepublikanoan borrokatu ziren, Euzkadiko Gudarosteko 31. zenbakia jaso zuena. Batailoia Ezker Errepublikanoak kontrolatzen zuen eta IRko gazteen milizien barruan sartu zen, *Capitán Casero* batailoiarekin gertatu zen bezala. Batailoia 1936ko irailaren 22an joan zen frontera, eta beste hainbat indarrekin batera Kanpazarreko batailan parte hartu zuen 1936ko urriaren 4an. 1937ko apirilaren amaiera arte Elorrioko frontean egon zen. Apirilaren 20tik maiatzaren 18ra arte egindako gerra operazioek eragin handia izan zuten bere gain, batez ere maiatzaren 10ean egindakoek, 333 kotako (edo “heriotza pinadia”) borrokek hain zuzen ere. Ekainaren 9an Fikara joan zen, baina matxinoek 11n okupatu zuten herria. Batailoia 322 gizonekin heldu zen Santanderrera eta Isaac

213. MHZD. Segida militarra. 5404. kutxa. 443. txostena; 5406. kutxa.

214. MHZD. PS Santander A. 87. kutxa. 02. txostena.

Puente batailoi anarkistarekin batera 3. Euskal Brigadako 1. Batailoia osatu zuen. Unitate hau Santander eta Asturias babesteko borrokatu zen eta unitate honetako kide askok Frantziara edo Bartzelonara ihes egin zuten (Vargas, 1994a: 68-70). Arturo Sirvent Cortado, Busturiko auzotarra eta Madrilen jaioa, Euzkadiko Gudarosteko *Azaña Guipúzcoa* 20. Batailoian egon zen. Batailoi hau IRko eta Ezker Errepublikanoaren Gaztediko milizien diziplinapean zegoen. Bere izenak adierazten duenez, IRko eta Ezker Errepublikanoaren Gaztediko miliziak oinarritzat hartuta antolatu zen. Legutioren gaineko erasoan paper txiki bat izan zuen erasoak eragin zuen borroka garrantzitsuan. Urtearen hasieran batailoia Durangon kuarteleratu zen. 1937ko otsailean batailoia zati handi batek IRko eraginetik irtetea eta milizia sozialistetara atxikitzea proposatu zuen. Honen ondorioz batailoia zati handi batek alde egin zuen beste milizietara joateko, eta geratu zirenek Santanderreraino borrokan jarraitu zuten (Vargas, 1994a: 59-82).

Azkenik, Víctor Lezámiz Guerequeta busturiarraren kasua aipatuko dugu, Euzkadiko Gudarosteko Ingeñariaren 9. Batailoian egon zen, *Pi y Margall* izenarekin ezagutu zena. Batailoi hau Ezker Errepublikanoaren diziplinapean zegoen ere eta bere ezizenak politiko errepublikano kataluniarra gogorarazten zuen. Batailoia 1937an eratzen hasi zen eta ezgaitasun fisikoa izateagatik borrokarako ezgaiak ziren boluntarioak hartu zituen. Apirilaren 26ko aginduaren ondoren Estatu Nagusiaren menpean geratu zen eta apirila eta maiatzaren artean gotortze-lanak egin zituen *Burdin Hesian*. *Burdin Hesiaren* gaineko eraso hasi zenean Enkarerrietara joan zen. Bere kide asko *Bakunin* eta *Leandro Carro* batailoietan sartu ziren, eta unitatea uztailaren 10erako egun Kantabriakoa den Escalante herrian zegoen. Kantabria erortzean batailoia harrapatua izan zen (Urgoitia, 2003: IV. liburukia: 182, 229, 259; III. liburukia: 448; V. liburukia: 112, 284).

Militante errepublikano ugari ideologia ezberdineko batailoietan sartu ziren, UGT-PSOE, JSU, PCE eta CNTk kontrolatzen zituztenak. Honi dagokionez aipatzekoa da zenbait busturiar zeudela PS eta UGTko milizien 9. batailoian, Euzkadiko Gudarosteko 72. Batailoia, *México* izenarekin ezagutzen zena. Batailoi honetako kideen artean Ángel Martínez González, Aniceto Orbe Ormaechea, Matías Ugalde Gondra eta Fermín Calzada Benguria busturiarrak zeuden. Batailoi hau 1936ko azaroan sortu zen Deustuko Unibertsitateko kuartelean. Abenduaren 22an 1. Konpainia eta mistoa Otxandion posizioak betetzera joan ziren; aldiz, 2. eta 3. Konpainiak Bilbon geratu ziren. Azken bi konpainia hauek izan ziren behin-behineko espetxeak babesteko esku hartu zutenak, *Ertzañarekin* batera, espetxeei egindako erasoan 1937ko urtarrilaren 7an. Data honetatik aurrera batailoia Otxandioko fronteko hainbat posizioetan egon zen. Baranbioko frontean borrokatu ondoren Dimara bidali zuten, eta horren ostean Igorren geratu zen ekainaren 13ra arte. Gero Zamudio-Santo Domingo frontera bidali zuten laguntza bezala. Bilbo erori zenean batailoia Olabeaga, Gorostiza, Arboleda, Galdames, Sopuerta, Artzentaletan eta Karrantzatik igaro zen. Uztailaren amaieran batailoiak *Baracaldo/Martínez Aragón* unitatearen barruan jardun zuen, Kolutza mendian borroka eginez, Balmasedan. Abuztuan armada matxinoak Santanderren harrapatu zuen (Vargas, 2008: 70-71).

UGTko beste unitate batean beste bi busturiar kokatu ditugu, Adolfo Llona Elguezábal eta Alejandro Lequerica Elesgaray. PS eta UGTko milizia sozialisten 1. Batailoian zeuden, Euzkadiko Gudarosteko 9. Batailoia izango zena eta *Fulgencio Mateos* izenarekin ezagutzen zena. Batailoia 1936ko irailean antolatu zen Vidalen agintepean Arabako frontera joan zen zutabeen zeuden miliziano boluntarioekin. Irailaren 29an borrokan sartu zen eta bere lehen hildakoak Arraten izan ziren. Urriaren 21ean batailoiak Akarregiko (Markina) posizioei eraso egin zien, eta eraso horretan Fulgencio Mateos

komandantea hil egin zen. Komandanteari omenaldia egiteko batailoiak *Fulgencio Mateos* izena hartu zuen. Hurrengo hilabeteetan batailoia hainbat tokitan borrokatu zen: Legutio, Maroto, Aramaio, Otxandio, Elorrio, Durango-lurreta, Zornotza-Euba eta Santander. Santanderreko eraso matxinoak batailoia harrapatua izatea ekarri zuen (Vargas, 2008: 60-61). Hiru busturiar topatzen ditugu ere (Isidoro Domingo Gorriño Luzarraga, Fidel Otazua Iturbe eta Ricardo Chertudi Zabala) PS eta UGTko milizien 2. Batailoian, Euzkadiko Armadako 24. Batailoia zena, *Indalecio Prieto* izenarekin ezaguna zena. Unitate hau Lekeitio, Gasteiz, Oviedo, Otxandio, Barazar, Elgeta, Morga eta Santo Domingon borrokatu zen. Kantabrian sarraskitua izan zen, baina matxinoek Santander gaineko egindako eraso geldiarazten parte hartu zuen, eta Kantabriako hiriburuan harrapatua izan zen. Soldadu batzuk Asturiasera iritsi ziren, eta han komandante intendenteak batailoia bulego bat ezarri zuen (Vargas, 2008: 62-63).

JSUek euren miliziak eratu zituzten, *Meabe zutabe*an sartuta zeudenak. Izen hori antolaketa dagokio eta ez du zerikusirik lehen azaldu dugun operazioen zutabearekin. Bere borroka historiaren arabera, JSUek antolatutako batailoiak Euskadin borrokatu ziren unitate onenen artean daude (Vargas, 2008: 75). JSUetara atxikita egon arren, Meabeko 8. batailoia, Euzkadiko Gudarosteko 43. Batailoia izango zena eta *Cultura y Deporte* izenarekin gehiago ezagutzen zena, batailoia independente bat izaten saiatu zen, afiliazio politiko zehatzik gabe. Dena den, badirudi PCEk kontrolatu zuela, Langileen Kiroletako Federazio Kulturala (FCDO) kontrolatu zuen bezala. FCDO faxismoaren aurkako herri-elkarte bat zen eta langileengan kirola eta bitzta osasuntsua bultzatzen saiatu zen. Ezkerrak elkarte honekin erantzuna eman nahi zien *mendigoi-xale* nazionalistei. Adolfo Llona Elguezábal busturiarra, unitaten honen osagai bezala, ziur aski Usartzan, Otxandion, Lekeitian, Markinan, Ajangizen, Gernikan, Bizkargin eta Urrusti-Gaztelumendin borrokatu zen (Vargas, 2008: 85-86).

PCEko batailoietan egon ziren busturiarrak oso gutxi izan zirela dirudi. Juan Félix Gorriño Luzarraga, José María Urrutia Fradua eta Gregorio Esquíbel Retolazaren kasuak aurkitu ditugu gutxienez. Juan Félix Gorriño Luzarraga busturiarra *Perezagua* batailoian sartu zen, Euzkadiko Gudarosteko 10. Batailoia izango zena. Miliziano gehienak Meatzaldetik eta Ezkerraldetik zetozen arren, Bermeo eremuko afiliatuak eta jarraitzaileak izan zituen ere. Batailoia jatorria izan ziren konpainiek 1936ko uztailetik jardun zuten Otxandion eta arrakasta izan zuten Arabako erreketearen aurka borrokatzean Isuskitzan. Legutioko batailan izan zuten jarduketa nabarmendu ondoren, unitatea 1937ko urtarrilean berrantolatatu zen. 1937ko otsailean eta martxoan Asturiaseko frontean parte hartu eta gero, batailoia Euskal Herrira itzuli zen Barazar defendatzeko. Batailoia garrantzitsua izan zen Igorre eta Artxandako borroketan eta Santanderren harrapatu zuten (Vargas, 2007: 125-126). PCEk kontrolatutako beste batailoia batean, Euzkadiko Gudarosteko *Karl Liebknecht* 26. Batailoian, beste busturiar bat aurkitzen dugu: José María Urrutia Fradua. 1936ko irailean Eibarren borrokatzen ari ziren borrokalari asko batailoia honetan sartu ziren urte bereko azaroaren hasieran. Batailoia Los Tornoseko frontean egon zen 1936ko abenduan, gero Legutioko batailan parte hartu zuen eta ondoren Karraskainen edo Durangon egon zen (Vargas, 2007: 126-127). Azkenik, Gregorio Esquíbel Retolaza topatzen dugu *Esteban Salsamendi* batailoian, milizia komunistena. Batailoia 1936ko irailean antolatzen hasi zen ideia politiko bereko beste unitateetatik zetozen boluntario eta errekrutekin. 1937ko urtarrila eta martxoaren artean prestakuntza prozesuan zegoen oraindik eta badirudi martxoaren amaierara arte trebakuntza bukatu ez zuela. Une horretan hurrengo mendietan borrokatu zen: Murugain, Sabigain, Bizkargi, Gaztelumendi-Urresti eta Artxanda (Urgoitia, 2003: II. liburukia: 162; III. liburukia: 445).

4.4.4. Busturiarrak milizia anarkistetan

CNTk antolatutako zenbait batailoietan busturiarrak egon zirela dokumentatu da. Busturiar gehien izan zituen unitate anarkista CNTko *Malatesta* 2. Batailoia eta Euzkadiko Gudarosteko 36. Batailoia izan zela dirudi. Unitate honetan Juan Esquíbel Ispizua, Abilio anaiak eta José Ereñozaga Lapsa busturiarrak aurkitzen ditugu. Unitate honetan ere Ángel Esteban García burgostarra dago, Busturiko 1933ko deialdikoa zena. Batailoia 1936ko irailean sortu zen anarkista gipuzkoar eta bizkaitarrekin. Horietako zenbait Gipuzkoako kanpainako beteranoak ziren, Arrasaten borroka egin baitzuten. Batailoia lehenez Asturiasen izan zen eta zenbait arrakasta lortu zituen hildako gutxiarekin. Bizkaira itzuli zenean batailoia zati batek Bilboko espetxeetara egindako erasoan parte hartu zuen, 1937ko urtarrilaren 4an. Gero Udalean borrokatu zen baina apirilean atzera egin zuen. Horren ondoren Gernikan, Bizkargin eta *Burdin Hesiaren* defentsan egon zen. Unitatea Areetara alde egin zuen eta gero Portugaletera igaro zen. Batailoia azken ekintza beliko nabarmena Ontonen izan zen, *Flechas Negras* talde italiarraren aurka. Unitateak Santanderretik jarraitu zuen uztailean eta abuztuan, Santander erori zenean harrapatua izan zen arte (Vargas, 2007: 127-128).

Sacco y Vanzetti batailoiean, CNTko milizien 4. Batailoia eta Euzkadiko Gudarosteko 12. Batailoia, Dionisio Lacha Ayesta topatzen dugu. Unitate hau Gipuzkoatik zetozen konpainiekin eta Bizkaian antolatutakoekin osatu zen. Batailoiak garrantzia izan zuen Legutioko batailan eta Cestafén eta Nafarraten borrokatu zen. Gero *Sacco y Vanzetti* batailoia Udalara joan zen eta apirileko azken hamar egunetan Karraskainen borrokatu zen. Ondo borrokatu zen ere Urrutxuan, Bizkargin eta Koltizan. Santanderreko porrotarekin batailoia desagertu egin zen (Vargas, 2007: 128). Busturiko auzotarrak edo bertan jaiotakoak izan zituzten CNTko beste batailoiak izan ziren CNTko *Durruti* 5. Batailoia eta CNTko *Isaac Puente* 3. Batailoia, zeinetan Abilio Ereñozaga Lapsa eta Félix Bilbao Jayo egon ziren, hurrenez hurren.

4.4.5. Busturiarrak Euzkadiko Gudarosteko unitate erregularretan

Euzkadiko Gudarosteko unitate “erregularretan” zeuden Busturiko auzotarrei edo Busturian jaioei dagokienez (kontrol politiko-sindikalarren menpean sortu ez ziren unitateetan zeudenak), aurkitzen ditugu, adibidez, Eusebio Guerecahevarría Asla eta Antonio Lecumberri Ormaechea, Artilleria Parkean eta Intendentzia Militarrean zeudenak, hurrenez hurren. Beste busturiar batzuk Artilleria unitateetan egon ziren, Lorenzo Gogeascoechea Uriarte bezala, edo *Morteros de Euzkadi* unitatean, Juan Izaguirre Aure, José Luis Ortiz de la Cruz edo Gregorio Esquíbel Retolaza bezala. 1937ko apirilean Euzkadiko Eskola Militarrean behin-behineko baja hartu ondoren, une hartan artilleriako kanpaina-tenientea zen Lorenzo Gogeascoechea Uriarte jauna Llano de la Encomienda jeneralaren aginduetara jarri zen Artilleriako Erregimentu Mistoan²¹⁵.

Ezin ditugu ahaztu Eduardo Laucirica Odiagak emandako zerbitzuak, Euzkadiko Eskola Militarrean takigrafoa zena; edo Anastasio Arguinzóniz Urquizaren zerbitzuak, Busturiko

215. MHZD. PS Santander L. 616. kutxa. 15. txostena; Santander D. 07. kutxa. 02. txostena; 07. txostena.

udal-arkitektoa, Galdakaoko udal-arkitektoa eta Bilboko Udaleko Eraikuntza Zibilen arkitecto laguntzailea izan zena. Azken honek 1936ko urritik aurrera Defentsa Sailerako zerbitzu teknikoak eman zituen gotorlekuak diseinatzeko eta gainera laguntza eman zuten Bilboko Defentsa Hesiaren lanetan (eta *Burdin Hesia* izenarekin gehiago ezagutzen dena)²¹⁶. Loturak eta Transmisioei buruz eman daitezkeen adibideei dagokienez, badago busturiarren bat ezin izan dudana zehaztasunez ezarri unitate erregularretan. Lucio Izaguirre Bengoechearen kasua da. Transmisioetan egon zen arren, ezin izan dut zehaztu Euskal Armada Gorputzeko Bitartekariak eta Transmisioak batailoian egon zen, unitate “ofiziala” zena, edo *Alkartzeak* batailoian, gorputz berekoa zena baina EAJko *Euzko Gudarosteak* kontrolatzen zuena.

Osasun militarrean egon ziren Busturiko herritarrak edo bertan jaioak aipatuko ditugu orain: Hilario Laburu Elorrieta, Leandro Iraculis Gorriño, Manuel María Araluzea Aldamiz Echevarría, José Antonio Aramburu Arrótegui, Gregorio Hormaechea Celaya, Fermín Calzada Benguria, Martín Borda Elesgaray, José María Rezola Otaduy edo Francisco Zorrozuía Basterrechea horietako batzuk izan ziren. 1937ko ekainaren 23an Osasun Militarreko Bulego Nagusiak egin zituen igoeren zerrenda baten bidez José Antonio Aramburu Arrótegui kapitain farmazeutikoa izan zela jakin dut. José Antonio Aramburu Arrótegui berak adierazten zien agintari frankistei nola kolpe militarrean bera laborategi batean lan egiten zuen farmazialari bat zen, eta nola bere kinta mobilizatua izatean Farmazia Militar sailera bidali zuten, teniente postuaren asimilazioarekin. Bilbon egon zen Elorrioko Odol Ospitalera bidali zuten arte eta 3 hilabete geroago Cangas de Onísekora (Asturias) bidali zuten. Cangas de Oníseko ospitalean 52 egun egon zen eta gero Bilbora itzuli zen. 1. Euskal Dibisiora destinatu zuten eta horrekin Mungian, Lezaman, Sopuerta eta herri gehiagotan egon zen. Kapitain lana zuela Santoñan areioari errenditu zitzaion, Farmazia Militarrean destinatu izan ondoren eta bizitokia Limpiasen zuelarik²¹⁷. Hilario Laburu Elorrieta edo Martín Borda Elesgaray sarjentuak izan zirela jakin dut, baina ezin izan zehaztu sarjetu erizainak izan ziren ala ez, Gregorio Hormaechea Celaya izan zen bezala. Leandro Iraculis Gorriño busturiarra kaboa izatera heldu zen²¹⁸. Manuel Araluzea Aldamiz Echevarría 1937ko urtarrilean Osasun Militarreko Bulego Nagusiak mobilizatu zuen ikasle bat izan zen eta Orozkoko Ospitalera bidali zuten²¹⁹.

Munoako Osasun Kuartel Nagusian, ibilgailuak, Garraio Intendentzia eta anbulantzia zerbitzua zituena, hainbat busturiarrek zerbitzatu zuten. Kuartela 1936ko irailean sortu zen eta Burtzeñan (Barakaldo) zegoen, Amalia Etxebarrietaren Munoa finkan. Hemen sortu ziren batailoit sortu berrietara joango ziren lehen osasun taldeak, unitate horiek osasun zerbitzurik gabe antolatuak izan baitziren. Kuartelak ibilgailuak izan zituen, garraio eta anbulantzia atalak, garajeak, mekanika- eta uhalgintza-lantegiak, bulegoak, basta eta ohatila biltegiak, mandoak edukitzeko kortak eta zerbitzuak eman behar zituztenenezako logelak. Kuartel honetan José María Rezola Otaduy egon zen sendagile gisa, 27 urte zituena, ezkongabea zena eta EAJren afiliatua zena. 24 urte zituzten eta jeltzaleak

216. MHZD. PS Bilbao. 59. kutxa; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 211/37 kausa. Gipuzkoa.

217. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 102/37 kausa. Santander.

218. MHZD. PS Santander D. 07. kutxa. 08. txostena; 03. txostena.

219. MHZD. PS Madril. 183. kutxa.

ziren bi busturiar gazte ere, Francisco Zorrozúa Basterrechea eta Gregorio Hormaechea Celaya, Munoako Kuartelean zerbitzuak eman zituzten, lehenengoa andari bezala eta bigarrena erizain bezala. Harritzekoa da elizate hain txiki batean osasunean ziharduen jendea hain ugari izatea.

Sukarrietako haurren kolonia Odol Ospitale bihurtu zen eta Patricio Escobalek hurrengoa kontaktzen zuen horri buruz:

“Situado entre los pueblos de Busturia y Pedernales estaba el edificio más importante del contorno, un sanatorio para niños pobres de Bilbao llamado La Colonia. De construcción moderna, rodeado de amplio parque y dotada de excelente equipo médico, La Colonia había sido transformada en hospital de sangre y así funcionó durante toda la guerra civil. Durante el dominio vasco allí, Mendieta (*Julio Mendieta Lezámiz, Busturiko udal-sendagilea*) con otros doctores prestó servicios profesionales en aquel hospital” (Escobal, 2005: 287).

Aipatu behar ditugu ere Euzkadiko Gudarosteko 73. *Garellano Montaña* 2.º batailoian zeuden busturiarrak. Batailoi hau Euzko Jaurlearitzak antolatu zuen martxoaren amaieran mobilizatutako deialdiekin eta Bilboko Garellano kuarteletako elementu erregularrekin. Batailoia eginkizuna egiten ari ziren babes-eraikuntzak babestea eta zaintzea zen (Urgoitia, 2003, III. liburukia: 453). Unitate honetan identifikatu ditugun busturiarren artean Leandro Iraculis Gorriño, Juan Solay Monasterio, Martín Borda Elesgaray, Eusebio Zalbidea Berasategui eta José Andicoechea Uriarte daude. Euzko Jaurlearitzak sortu zuen beste batailoi bat, *Escuela de Comercio*, 1936ko amaieran osatzen hasi zen, baina ez zen inoiz bere osaketa bete. 1937 urtearen hasieran unitatea Errekruta Kutxa bezala erabiltzea erabaki zen, eta aurrerago eta Llano de la Encomienda jeneralaren aginduz, instrukzio-batailoi bezala jarduten hasi zen sarjetu eta kaboentzat. Bizkaia gaineko eraso hasi zenean, *Escuela de Comercio* batailoia *Burdin Hesía* gotortzeko eta babesteko lanak egitera bidali zuten (Urgoitia, 2003: III. liburukia, 455; IV. liburukia, 185). Batailoi honetan Eduardo Laucirica Odiaga gaztea egon zen. Gotortze-lanetan egon ziren beste busturiarrei dagokienez, gehitu beharko genituzke Miguel Bilbao Mendiola, *Zapadores-Minadores N.º 9* batailoian zegoena, eta Román Orbe Calzada eta Paulino Apraiz Ugalde, *Zapadores N.º 2* batailoian zeudenak.

Gatazkak ondorioak izan zituen unitate hauetan egon ziren Busturiko auzotarrak edo bertan jaio zirenen taldearentzat. Egia esan, ez zegoen benetako arriskuan ez zegoen unitaterik edo gorputz armaturik, atzealdean egonda ere. Atzealdeko bulegoetatik edo kuarteletatik Errepublika babesten zutenak ere arriskuan zeuden beti etengabeko aire-bonbardaketen ondorioz.

4.4.6. Eskola militarrek

Errepublikaren Herri Armadaren (EHA) agintari-koadroak betetzeko beharra ikusita, Gobernu Zentralak Infanteria, Artilleria, Ingeniari eta Transmisio Eskolak sortu zituen Valentzian. Euzkadiko Armada-gorputza osatzen zuten infanteria, artilleria eta ingeniari batailoien kopuruaren antolaketa ez zen arazo honetatik kanpo geratu; borroka unitateek gerrak eskatzen zuen prestakuntza teknikoa zuten ofizial-koadroak behar zituzten. Milizia popularretan bazegoen jende asko oinarrizko ezagutzekin menpeko agintariak izateko trebakuntza betetzeko izan zitekena, baina Valentziara joateko aukerarik ez zuteenez, Bilbon Euzkadiko Eskola Militarra sortu zen 1937ko abenduan konpainia, bateria

eta atalen agintariak prestatzeko. Eskola Infanteria, Artilleria eta Ingeniarietako atalak izan zituen hasieratik, eta egoerak eskatzen bazuen Zalditeria, Intendentzia eta Osasun atalak sortzea aurreikusita zegoen.

Atal hauen funtzionamenduari dagokionez, atal bakoitza ikasketa-buru batek zuzentzen zuen eta bere menpean ikasketa-planak garatzen zituzten irakasleak eta laguntzaileak zeuden. Ikasketa-buru bakoitzak bere arloko ikasketa-plana egiten zuen, baina orokorrean hiru hilabetetan garatzen ziren eta hileko hiru ziklo kanporatzaile zituzten, honela sailkatuta: ofizial batek arma orokorrei buruz behar zituen ezagutza orokorrak, arma espezialitatearen irakaskuntza teknikoa eta praktikak kanpainan. Gainera, “Borrokarako prestakuntza ikastaroak ofizial militarrentzat” (“*Cursos de preparación para el combate del oficial militar*”) ere garatu ziren. Ikastaro hauek hilabete bateko iraupena zuten eta milizia popularretan ofizial gisa jarduten zuten guztiek egin zitzaizketen, baita Armadako ofizialordeek ere hala eskatzen bazuten. Gainditzen zuten ikasleek zegokion armaren teniente lanera igoera jasotzen zuten eta Errepublikako Botereek eta Armadako lege organiko, ordenantza eta lege militarrek aldarrikatzen eta aintzatesten dituzten eskubide eta betebeharren legezko jabetza eskuratzen zuten.

Euzkadiko Eskola Militarra sortu zenean 250 ikasle-plaza eskaini ziren: 150 Infanteria atalean, 75 Artilleria atalean eta 75 Ingeniariaren atalean. Plaza bat lortzeko ikasle-gaiek Euzko Jaurlaritzako Defentsa Sailera bidali behar zituzten eskariak eta eskatzaileek hurrengo baldintzak bete behar zituzten: Espainiako hiritarra izatea, 21 eta 35 urte bitartekoa izatea, Euzko Jaurlaritzan parte hartzen zuten alderdien edo faxisten aurkako langileen erakundeen abal politikoa aurkeztea, soldadutza egiteko gai izatearen ziurtagiri medikoa edukitzea eta aritmetika, aljebra, geometria edo trigonometriako ezagutza orokorrak egiaztatzea gainditutako azterketa, titulu edo ikasketa-ziurtagiri baten bidez. Milizia popularretan zeuden ikasle-gaiek, unitateko komandanteek edo agintariak emandako portaera oneko eta aurrekariaren ziurtagiria bazuten, eskatutako ezagutza matematikoei buruzko ziurtagiria zuten ikaslegaien gaineko lehentasuna zuten. Eskolako ikasle guztiek barnetegi erregimenean egon behar zuten, eskolaren barneko araudiaren eta diziplina militarren menpean.

Lorenzo Gogeoascoechea Uriartek, Busturiko auzokidea eta bertan jaioa, 24 urtekoa, ezkogabea, matematiketako bitarteko irakaslea Bilboko Goi-mailako Merkataritza-ikasketen Eskolan, Euzkadiko Eskola Militarrean artillero bezala sartzea eskatu zuen 1936ko abenduaren 28an. Bere eskariarekin batera hurrengo dokumentuak aurkeztu zituen: bere kartilla militarra, 1936ko urriaren 9tik EAJren milizietan gudari boluntario bezala zegoela egiaztatzen zuen Euzkadiko Gudarostearen ziurtagiri bat, EAJren abala, estatistika atalean berrantolaketa zerbitzuak eman zituela egiaztatzen zuen Osasun Militarreko Bulego Nagusiaren ziurtagiri bat, soldadutza egiteko gai izatearen ziurtagiri medikoa eta deialdian adierazten ziren ikasgaien azterketa gaindituak, Gasteizeko Bigarren Hezkuntzako Institutukoak zirenak, ezin izan baitzuen Bilboko Goi-mailako Merkataritza-ikasketen Eskolako ziurtagiri bat aurkeztu peritu, merkataritzako irakaslea eta aktuario intendente graduak zituela esanez. Azkenik, aipatutako eskolan izandako karguaren izena eransten zuen: Aseguruen Teoria Matematikoaren eta Kontabilitateko Goi-ikasketen irakaslea²²⁰

220. MHZD. PS Santander L. 512. kutxa. 06. txostena.

Garaiko egunkariek ez zuten ezer esaten Infanterian sartzeko azterketei buruz, Ingeniarrietan eta Artillerian sartzeko azterketak bakarrik egiten baitziren. Borja Sarrionandiaren arabera Infanteriako azterketak ez ziren egin ustezko hitzarmen bat zegoelako Jose Antonio Agirre Defentsa kontseilaria eta Llano de la Encomienda jeneralaren artean, Infanteriako ofizialak Gerrarako Herri Eskolan, Valentziaren menpe, prestatuko zirela esaten zuena. 1937ko urtarrilean ikaslegaiak sailkatzeko azterketak hasi ziren. Augusto Peñín Balbas, adibidez, Axpeko haurren eskolan bitarteko irakaslea zena gerra garaian, 1937ko urtarrilaren 13an Ingeniariaren azterketara aurkeztu ziren ikasle-gaiaren artean zegoen (*Euzkadi Roja*, 1937/01/11; *CNT del Norte*, 1937/01/12).

Euzkadiko Eskola Militarrena sartzeko eskarien kopurua handia izan arren, urtarrilean 80 artillero eta 30 ingeniari bakarrik aukeratu ziren: denak milizietatik zetozen eta %86,11k Euzkadiko auzotasuna zuten. Busturiko merkataritza-peritu baten kasua izan zen, Lorenzo Gogeoascoechea Uriarte izenekoa, Eskola Militarrean artillero bezala sartzea lortu zuena 1937ko martxoaren 1ean. Aldiz, Augusto Peñín Balbas maisuak ez zuen aurrekaririk euskal milizietan, beraz, ez zuten Eskola Militarrean onartu. 1937ko apirilaren 29an Lorenzo Gogeoascoecheak behin-behineko baja hartu zuen eskolan Llano de la Encomienda jeneralaren aginduetara pasatu zelako konpainiako teniente postuarekin, Defentsa kontseilariak 1937ko apirilaren 29an emandako agindua betez. Baja honen azalpena tropa frankisten aurrerapen azkarrean zetzan, Defentsa kontseilariak, Euzkadiko Gudarosteko Artilleriako Ikuskari Nagusiak proposatu eta gero, artilleriako ikasleak frontera bidali baitzituen teniente lanpostuekin artilleria tresna berriak erabil zituzten. Lorenzo Gogeoascoechea Uriarte bere promozioko zazpigarrena izan zen Eskolan prestakuntza amaitzean, baina destinoen esleipena ez zen promozio zenbakiaren arabera egiten, zozketaz baizik. Gure gizonari Artilleriako Erregimentu Mistoa tokatu zitzaion eta 1937ko uztaillean batera antiaereoetara destinatu zuten²²¹.

Ikasleen artean EAJren ideologia argi gailentzen zen (%53,7), gero UGTren milizianoena (%16,66) eta Ezker Errepublikanoarena (%10,18). Lorenzo Gogeoascoechea Uriarte ez zen salbuespena izan, *Bizkai Buru Batzarrak* ere adierazi baitzuen: “(era)afiliado a este Partido Nacionalista Vasco”²²². Eskolaren asmoa ez zen alderdi politiko baten feudoa izatea:

“ya que todos estaban representados en la primera promoción con porcentajes más o menos elevados. Se observa, sí, que el Partido Nacionalista Vasco alcanzó algo más del 50 por ciento de las plazas convocadas, pero ello no debe extrañar a nadie si se tiene en cuenta que en el mismo militan con cifra muy respetable elementos de la clase media y de posición desahogada en el orden económico que pudieron recibir en su juventud una instrucción primaria y de segunda enseñanza que les permitió preparar después para profesiones técnicas o bien ingresar en la Universidad”²²³.

Lehenengo promozioa lizentziatu ondoren, 1937ko apirilaren 28an deialdi berri bat zabaldu zen eta matrikula-epaia 1937ko maiatzaren 1ean bukatu zen. Baina armada

221. MHZD. PS Santander L. 616. kutxa. 15. txostena; Santander D. 007. kutxa. 02. txostena; 07. txostena; Segida militarra. 2987. kutxa; AHE-EAH. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Beyris Funtsa Berezia. M-1/1-1.

222. MHZD. PS Santander L. 512. kutxa. 06. txostena.

223. AHE-EAH. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Beyris Funtsa Berezia. M-1/1-1.

matxinoaren aurrerapenak epea atzeratu zuen maiatzaren 20ra arte. Bigarren promozio honetako eskolak ez ziren inoiz hasi. Eskola Karrantzara ebakuatu zuten eta gero, ekainaren 29an, Santoñan kokatu zen, non Gerrarako Eskola Popularrarekin bat egin zuen Iparreko Armadako jeneral nagusiaren aginduz (Sarrionandia, 2012: 196-197).

Eskola militarrei buruz Euzko Jaurilaritzaren eta Espainiako gobernuaren artean izandako gatazkaren ondorioz infanteriako ofizialen prestakuntza agintari errepublikanoen ardurapean geratu zen Infanteriako Gerrarako Eskola Popular edo 6. Eskola Popularrarekin. Abenduan 220 plaza eskaini ziren eskola honetarako: 100 Euzkadiko Armadagorputzerako ziren, 54 Santanderrerako eta 66 Asturiaserako. Borja Sarrionandiaren arabera eskolan sartzeko eskakizunak Euzkadiko Eskola Militarrek eskatzen zituenaren antzekoak ziren, baina baldintzetako bat Fronte Popularreko alderdi edo erakunde batekoa izatea zen eta gainera, aurretiaz, frontean zerbitzuak eman behar izan zituzten hiru hilabetez gutxienez. Eskarien kopuru handiagatik izaera fisiko eta intelektualeko proba kanporatzaileak egin behar izan ziren, eta azkenean 119 euskaldun, 31 santandertar eta 57 asturiar hautatu ziren (Sarrionandia, 2012: 197). Onartutako eskarien artean Eduardo Laucirica Odiaga busturiarrarena zegoen, Bilbon bizi zena, eta 1937ko urtarrilaren 4an sartu zen eskolan “Escuela de Comercio” 1. Batailoitik abiatuta²²⁴.

1937ko otsailaren 10ean ikastaroak hasi ziren eta 224 ikasle aurkeztu ziren. Ikasleen erdia ikastaro laburrera joan zen, 20 egunekoa, eta gainontzekoek ikastaro arrunta egin zuten, 40 egunekoa. Apirilaren 27an ikastaro laburraren azterketak izan ziren eta 108 ikasle teniente-mailara igo ziren, eta maiatzaren 14an ikastaro arruntaren azterketan izan ziren eta 101 ikasle gainditu zituzten. Ez zen astirik egon bigarren promozio baterako eta eskola Kantabriara eraman zuten 1937ko maiatzaren 25ean. Ondoren eskola Villaviciosan egon zen eta penintsulako iparraldea erori eta gero Valentzian kokatu zen (Sarrionandía, 2012: 197-198).

4.4.7. Itsas-frontea

Busturiko itsasgizonak, gerrako gorabeherak zirela eta, laster itsasoan zerbitzuak eman behar izan zituzten. Kolpe militarra gertatu zenean elizateko zenbait gazte nabigatzen zeuden, eta gerrak zein portu edo itsasontzian harrapatu zituen kontuan hartuz bando bat edo bestean borrokatu behar izan zuten. Azpimarratu behar dugu 1936ko altxamenduan itsas armadaren ofizialtasunak ez zuela garrantzizko paperarik izan estatu-kolpearen sorreran (Pardo San Gil, 2008: 95). Kantauri erlaitzak zuen isolamendu geografikoa gobernuo gainontzeko lurraldearekiko nahitaezko bihurtu zituen itsas indarrak. Kantauri itsasoan Errepublikarekin leialak ziren itsas indarrak minimoak izan ziren, Pasaian zegoen 3. Torpedo-ontzira muga ditzakegu ia-ia. Geroago hainbat destruktore eta itsaspeko helduko ziren, baita *Jaime I* korazatua buru zuen itsas indarrak. Ez zuten balio askorik izan itsas-ekintzei dagokienez, baina Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailea sortzeko beharrezkoak ziren armak eta itsasontziak heltzeko balio izan zuen (Vargas, 2007: 133; Pardo San Gil, 2008: 31-36).

224. MHZD. Santander L. 16. kutxa. 15. txostena.

4.4.7.1. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailea

Euzko Jaurilaritzako lehendakari berria lanpostuaz jabetzen ari zenean, 1937ko urriaren 7an, Itsas Armada Errepublikanoa Bilbon ainguratuta zegoen. Astebete geroago, armadaren zati bat Cartagenara joan zen. Bilbon geratu ziren unitateekin Iparraldeko Itsas Armada eratu zen, gero “Kantauri Itsasoko Itsas Armada” izenarekin ordezkatu zena. Kantauri itsasoko Itsas Armadak (KIA) oso baliabide gutxi izan zituen bere eginkizun nagusia betetzeko: itsasoko unitate matxinoek kostalde errepublikanoa blokeatzea saihestea, atzerriarekin komunikazioak segurtatuz eta arrantza egitea bermatuz. Baliabideak handitu nahian, KIAko Bulego Nagusiak PYSBEko bakailao-ontziak armatzea erabaki zuen kostaldea zaintzeko eta merkataritza-trafikoari eskolta egiteko misio laguntzaileetan parte har zezaten. Ontzi hauek erainkuntza sendoa zuten eta Ternua edo Islandiako ur zailtan kanpaina luzeak jasateko diseinatuta zeuden. Ontzi hauek armatzeko *Jaime I* korazatuaren kanoi desmuntatuak eta armatuak zituzten. Armatu zen lehena *Mistral* ontzia izan zen, eta gero *Vendaval*, *Euzkal-Erria* eta *Hispania* ontziak armatu zituzten (Pardo San Gil, 2008: 49-51).

1936ko urriaren 15ean Itsas Armadako Atala sortu zen Defentsa Sailaren barruan. Euzko Jaurilaritzak izan zituen itsas armada sortzeko arrazoiak Kantauri itsasoan itsas armada errepublikanoak eraginkortasunik ez izatea eta itsasontzi matxinoek merkataritza-trafiko errepublikanoari eta arrantzari eraso egitea izan ziren. Une hartan Itsas Armada Errepublikanoaren indar laguntzaile baten eraketa hasi zen, KIAren bigarren mailako eginkizunak bere gain har zitzen horrela KIAk borrokatzeari ekin ziezaion. Helburu honekin Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailea sortu zen. 1937. urtearen erdian berrogeita hamar ontzi eta 650 gizon inguru zituen, lurreko bulego eta zerbitzuetan, armatutako ontzietan, dragaminetan, txalupa eta kanoa laguntzaileetan eta KIAko zerbitzu eta ontzietan sakabanatuta (Pardo San Gil, 2008: 51-53).

4.4.7.1.1. Itsasoko boluntarioak

Itsas armada berri honek zuen arazo bat langileen hautaketa zen. Tripulazioak itsasgizon zibil eta militarren nahasketa bat ziren eta horietako asko PYSBEko antzinako tripulazioetakoak eta Itsas Armada Errepublikanoan ontziratutakoak ziren. Ontzi artillatuak eta Euzkadiko itsas armada, Euzko Jaurilaritzaren kontrolpean zegoena, tripulazioz betetzeko asmoz Itsasoko Boluntariotza sortu zen.

Itsasoko Boluntariotza boluntario zibilez osatutako gorputz militar bat zen. Izena eman zezaketen gutxienez 6 hilabetez merkataritzako nabigazioan edo alturako zein baxurako arrantzan lanean egon zirenek. 3.000 boluntario baino gehiago aurkeztu ziren, 18 eta 60 urte bitartekoak eta lanbide kategoria mota guztietakoak. Aurkeztu zirenen artean beharrezkoak ziren tripulatuak aukeratu ziren. Hasieran oso gutxi onartu ziren, baina 1937ko ekainean, 1924tik 1938ra zihoazen kintak mobilizatu ondoren, ia 700 izan ziren. Zibilak sartzen zirenean, Itsas Armadaren lege eta foruen menpe geratzen ziren eta diziplina militarra bete behar zuten (Pardo San Gil, 2008: 59). Serapio Zabala Arrien, Fermín Calzada Benguria edo Buenaventura Echevarría Lezámiz Busturiko auzotarrek gorputz militar honetan parte hartu zuten eta gero Euzkadiko Gudontzidi

Laguntzailera igaro ziren²²⁵. Hala ere, herritar batzuk ez zuten lortu gorputz honetan sartzea eskaria egin arren, Juan Ojinaga Larragan jeltzalea, adibidez²²⁶. Sartzea eskatu zuten beste auzotar batzuk, baina antza denez arrakastarik gabe, José María Calzada Iturri eta Antonio Alegría Laucirica izan ziren. Gauza bera gertatu zitzaion Sukarrietako auzotarra zen José Luiz Aizpuru Ugaldiari, 19 urtekoa eta Busturian jaioa²²⁷.

Itsasoko Boluntariotzaren kide gehienak euskal kostaldeko herrietakoak ziren, erdia baino gehiago bizkaitarrak (%57), eta nabarmentzekoa da bermeotarren kopuru handia (zenbateko osoaren %11). Militantzia politikoari dagokionez, %57 ELA edo EAJkoa zen, %19 UGT edo Alderdi Sozialistakoa eta ehuneko txikiagoekin CNT (%5), ANV (%4), Ezker Errepublikanoa (%2), Alderdi Komunista (%2) eta bestelako sindikatuak (%1) agertzen ziren. Afiliatu gabeko edo afiliazio ezezagunekoek beste %10 bat osatzen zuten (Pardo San Gil, 2008: 61). Busturiko kasu zehatzean, Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean identifikatutako 19 kideetatik 9 kideen afiliazio politikoa dakit. Militantzia politikoa EAJ edo ELAn %44,44koa zen bitartean, UGT, CNT, ANV, IR eta PC taldeek gainerakoa elkarren artean banatzen zuten eta %11,11 lortzen zuten bakoitzak. Adierazi beharra dago Serapio Zabala Arrien adibidez, beste hainbat kide bezala, Ezker Errepublikanoko kidea zela, baina baita ELAkoa ere, eta Buenaventura Echevarría Lezámiz PCko militantea zen baina ELAn zegoen sindikatua.



Buenaventura Echevarría Lezámiz (Iturria: marinavasca.eu).

Ontziratutako gizonetatik aparte, bulegoetan, tailerretan, biltegetan, talaietan eta zaintza postuetan destinatutako lurreko talde bat zegoen. Salbuespen gutxirekin, lurreko taldekoak ez ziren Itsasoko Boluntariotzakoak izan, beraz, ez ziren diziplina eta foru militarren menpean egon. Administraziooko langileen artean zeuden Euskadiko Armadan aritu ziren emakume bakarrak, Bulego Nagusiko hiru bulegari hain zuzen ere (Pardo San Gil, 2008: 61). Ontziratuta ez zeuden baina destinoaren zain kuarteleratuta zeuden gizonen artean Buenaventura Echevarría Lezámiz edo Serapio Zabala Arrien marinela zeuden, Getxoko Itsas Kuartelean endai-mutil bezala eta mutil bezala lan egin zutenak, hurrenez hurren. Kuartel hau sortu zen destinoaren zain zegoen edo errekrutatze-fasean zeuden ontziak tripulatzeko erreserban zegoen pertsonalari ostatu emateko (Pardo San Gil, 2008: 61).

225. MHZD. PS Santander M. 16. kutxa. 08. txostena.

226. MHZD. PS Bilbao. 236. kutxa; 210. kutxa.

227. EAH-AHE. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Defentsa Saileko Funtsa. Informazio Orokorra (Idazkaritza Orokorra). 517. paper-sorta. 01 paper-sorta zenbakia; MHZD. PS Bilbao. 236. kutxa.

4.4.7.1.2. “Bou armatuak”

Itsas indar honen gune nagusia eratzeko PYSBEren lau bakailaontzi aukeratu ziren, KIA artillatzen ari zen horiek hain zuzen, eta Euzko Jaurilaritzak 1936ko urriaren 30ean konfiskatu zituen. Dena den, ontzi horiek ez ziren, abendua heldu arte, euskal gobernuaren kontrolpean geratu, orduan osatu baitzituzten tripulazio guztiak Euzkadiko Itsas Armadako Bulego Nagusiaren pertsonalaz, eta izenak ere aldatu egin zizkieten, *Gipuzkoa (Mistral)*, *Nabarra (Vendaval)*, *Bizkaya (Euzkal-Erria)* y *Araba (Hispania)* jarriz hurrenez hurren. Dagoeneko Euzkadiko Gudontzidiaren kontura, Gipuzkoatik heldutako arrasteko bi binakako artillatu zituzten abenduan, *Goizeko Izarra* eta *Iparreko-Izarra* hain zuzen. 1937ko otsailean *Donostia* boua hasi zen lanean; lehenagoko *Virgen del Carmen* bou frankista zen, baina abenduaren 5etik 6rako gauean tripulazioa asaldatu eta ontzia Bilbon sartu zuen. Guzti-guztiak berun-grisez pintatu zituzten, amuletan, beltzez, izenaren lehen hizkia zeramatela. Ikurrina brankan, eta errepublikaren hiru koloreko bandera zeramaten masta nagusian. Batea Portugaleten zuten, eta gehienetan Benedictako edo Galdamesko ditxoan botatzen zuten aingura (Pardo San Gil, 2008: 53-55).

Gipuzkoa bouan Serapio Zabala Arrien busturiarra egon zen 1937ko ekainetik abuztura bigarren sukaldari gisa, eta Alejandro Bilbao Mendiola lehen sukaldaria izan zen urte bereko uztailetik abuztura. Lehenago Alejandro Bilbao Mendiola, sukaldaria, ELAko afiliatua, lehen sukaldari gisa egon zen *Bizkaya* bouan, 1936ko azarotik 1937ko ekainera. Alejandro Bilbao busturiarrak *Bizkayako* sukaldea utzi zuenean, beste busturiar bat, Buenaventura Echevarría Lezámiz, ELAko afiliatua baita ere, ontzian sartu zen hilabete batez labezain lanak egiteko. Lehenago ere *Bizkayak* Busturiko labezain bat izan zuen, Escolástico Uribarri Larrucea, Busturian jaioa baina Bidebietako auzotarra, CNTko afiliatua, lanpostuan egon zena 1936ko abendutik 1937ko ekainera. Busturiarekin lotura zuen eta *Bizkaya* bouan nabarmentzekoa den gizon bat badago, 1937ko maiatzetik abuztura bouko bigarren ofiziala izan zena izan zen, Amadeo Uribe Asteinza jeltzalea izan ere. Lehenago, busturiar hau *Donostia* bouko lehen ofiziala izan zen, 1936ko abenduaren 10etik 1937ko ekainera arte. Bigarren ofizial gisa *Bizkaya* bouan oso denbora gutxi egon ondoren, 1937ko abuztuaren amaieran *minaketarien* ontzidiaz zuzendu zuen. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailean parte hartu zuten beste busturiarren kasuak jakin ditudan arren, ez ditut datu zehatzik topatu. Esteban Bilbao Izaguirreren kasua da, *Bizkaya* bouan marinel bezala lan egin zuena, eta Fermín Calzada Benguriaren kasua ere bai, *Gipuzkoa* bouan labezaina/marinela izan zena 1937ko ekainean²²⁸.

Busturiarrak egon ziren ere Gipuzkoatik heldu ziren eta artillatuak izan ziren arraste-ontzietako batean. *Iparreko Izarra* ontzian Hilario Laburu Elorrieta egon zen, ANVko afiliatua eta marinel gisa lan egin zuena. Ontzi honetan ere Francisco Uribe Asteinza zerbitzari gisa aritu zen 1937ko urtarriletik azarora, José Luis Díez dektruktore errepublikanoan denbora labur batez zerbitzaria izan ondoren²²⁹.

228. MHZD. PS Santander M. 16. kutxa. 08. txostena.

229. MHZD. PS Madril. 474. kutxa. 40. txostena.

4.4.7.1.3. Minaketariak

Uretan sakabanatutako minak biltzeko eta suntsitzeko arrantza-ontzi batzuk aukeratu zituzten, arrasteko binakakoak guztiak, eta “*minaketari*” izena eman zieten. Lehen minaketariak Bizkaiko Defentsa Batzarraren garaian erabili ziren, Velasco destruktore etsiak Abra minaz josteko arriskua zela eta. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzaileak lan hauek egingen jarraitu zuen. Euzkadiko Gudontzidiak miaketa zerbitzua antolatu behar izan zuen abenduan, eta horretarako, arrasteko hainbat binakako erabili zituen, Pasaiaiko ontzidikoak hain zuzen ere. Urtarrila eta apirila bitartean egindako minaketa jarraituen eraginez gero eta ontzi gehiago erabili behar izan zituzten, 1937ko maiatzean 24ra helduz Pasaia eta Ondarroako binakako gehiago hartu zituztenean. Hasieran, ontzi horiek jatorrizko izenak mantendu zituzten, baina maiatzean kendu eta *D-1* etik *D-24ra* bitartekoak eman zizkieten. Ontzi guztiek Portugaleten zuten basea, eta kai berrian amarratzen ziren, trenbidearen biltegietatik hurrean, eta berun-grisez pintatu zituzten goitik behera, eta amulan beltzez zeramaten zegokien zenbakia. Ontzi horietan ez zen inolako armarik, tripulatzaileek oso gutxitan eramaten zituzten arma eramangarriak izan ezik. (Pardo San Gil, 2008: 55-57). Minaketariei laguntzeko, 1937ko maiatzaz geroztik hainbat kanoa automotore erabili ziren, lehen unetik bertik izen berriak emanaz. Gainera, portu zerbitzuetan *Sheabe* txalupa motoreduna erabili zuten hasieran, eta gero *Pili*, *Trinkertxu* eta *Izaro* yatea, maiatzaz geroztik *Epailla 5* izan zena (Pardo San Gil, 2008: 57). Azken ontzi honetan Silvestre Izaguirre Arróspide marinel busturiarrak, ezkongabea eta EAJko afiliatua, zerbitzatu zuen 1937ko martxotik uztaiera arte.



Silvestre Izaguirre Arróspide
(Iturria: marinasvasca.eu).

1937ko uztaiera arte ez zen hasi minaketarrietan Busturiko herritarrek edo Busturian jaiotakoek izan zuten partaidetzari buruzko dokumentazioa. 1937ko uztailean Buenaventura Echevarría Lezámiz busturiarra topatzen dugu *D-1* minaketarian, lehenago *María Angeles* izena zuena. Marinel gisa aritu zen bertan urte horretako abuztura arte. Urte bereko abuztutik irailera arte beste busturiar bat, Alejandro Bilbao Mendiola, sukaldari gisa egon zen *D-2* minaketarian, lehen *Julito* izenarekin ezaguna zena. Dena den, ontzidi honetan busturiarrek izan zuten jarduketa nabarmenena 1937ko abuztuaren amaieraz geroztik *Donostia* bouko lehen ofiziala Matxitxako lurmuturraren batailan izan zenaren eta, ondoren, *Bizkaya* bouko bigarren ofiziala izan zenaren partaidetza izan zen, Amadeo Uribe Asteinza busturiarrarena hain zuzen, 1937ko azarora arte *D-8* minaketariaren kapitaina izan zena, lehen *Alción* izenarekin ezaguna zena. Mina-bilketa Portugaleteko Itsas Ordezkarriak gainbegiratzen zuen arren, egunero lan-planak antolatzen baitzituen, kapitain batek zuzendutako minaketari bat izaten zen ontzidi buruzagi gisa aritzen zena ekintza guztiak zuzentzen. Minaketari talde hau Jesús Landarte Legarreta, Ángel Gabiña Andraca, Ramón Garayalde

Bascaseaux, Jesús Aldamiz Gogeoasca eta Amadeo Uribe Asteinza izan zituen agintari, bata bestearen segidan (Pardo San Gil, 2008: 63). Amadeo Uriberen minaketari berean, D-8 minaketarian, Serapio Zabala Arrien busturiarra sukaldaria izan zen 1937ko abuztutik irailera.

4.4.7.2. Itsasgizon busturiarrak Errepublikako Itsas Armadan

Gerra egoerak hainbat busturiar oso goiz eraman zituen Errepublikako Itsas Armadan zerbitzatzera. Ez dut dokumentatu, baina ziur aski jadanik busturiarren bat Itsas Armadan zegoen 1936ko uttailaren 18ko kolpe militarra gertatu zenean. Alabaina, bai dokumentatu dudala busturiarren partaidetza hurrengo itsasontzi artillatuetan: *Tramontana*, *Cabo Santo Tomé* eta *Cabo San Agustín*. Iparraldeko frontea erori zenean, Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailearen pertsonal gehiena Frantziako portuetara iritsi zen. Frantzian marinel hauen erdia baino pixka bat gehiago geratu ziren; gainontzekoek Kataluniako muga zeharkatu zuten eta gerrari ekin zioten bando errepublikanoan. Itsas Armadako profesionalen artean, euskaldun kopurua ez zen oso handia. Alabaina, Merkataritza Ontziditik zetorren pertsonalaz osaturiko Itsas Erreserban bazen pilotxo aipagarri bat, are gehiago, euskal ofizialek osatuko zuten talderik ugariena. Nahiko zaila da, bestalde, maisu eta marinelaren artean zenbat euskaldun zegoen zehaztea, baina askotxo izango ziren horien artean ere, ezen ontzidiko ontzi guztietan baziren, ontzi txiki eta laguntzaile batzuetan eta Itsas Infanterian bezalaxe (Pardo San Gil, 2008: 147). Busturiko itsasgizon bat ere, Fidel Santamaría Bastos, Euzko Jaurjaritzako Merkataritza eta Hornidurako kontseilariak, Ezker Errepublikanoa zen Ramón María Aldasoro, gomendatu zuen itsas armadan sartzeko²³⁰.

Kantauri Itsasoko Itsas Armadak zaintza eta eskolta zerbitzuak egiteko *Tramontana* ontzia artillatzea proiektatu zuten. Ontzi hau irailean Bizkaiko Defentsa Batzarraren esku geratu zen Pasaiako ontzidiaren ontzi bat zen. Ontzidi bereko *Mistral*ekin batera (gero *Gipuzkoa* boua izango zena), PYSBEko ontzi handienetako bat zen. *Mistrala* ez bezala, Euskalduna ontzioletan egokitu zen *Tramontana* Bilbotik joan zen irailaren 29an Mediterraneo aldera, Indalecio Prieto Itsas eta Aireko ministro sozialistak eskaturik, zerbitzu bereziak betetzeko helburuarekin. Gerra osoan zehar mantendu zuen PYSBEren jatorrizko tripulazioa gehienbatean, Mariano Manresa Itsas Erreserbako korbeta-kapitaina buru zuela (Pardo San Gil, 2008: 151).

Indalecio Prietok *Tramontana* nahi zuen Espainiako Bankuko urrea Cartagenatik Marseillaraino eramateko, Frantzian erositako material militarrek ordaindu beharra zegoen eta. 1936-37an zehar horietako lau bidaia egin zituen, eta 1.688 kutxa eraman zituen 110 tona urrerekin inolako gorabeherarik jasan gabe. Francisco Llona Elguezabalek gogoratzen zuen nola ontzian kutxak eta fardelak armatutako milizianoek zaintzen zituzten inor ez hurbiltzeko²³¹. Urre garraioa bukatu zenean, *Tramontanak* hilean behin Cartagena eta Mediterraneoan portu errepublikanoen arteko bidaia egiten jarraitu zuen. 1937ko udan aire-kontrako metrailadore bat jarri zioten popan, eta Mariano Manresa lehorrean geratu zen; honen ordez, Isaac Etxabe hartu zuen ontzia-

230. MHZD. PS Bilbao. 212. kutxa.

231. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 727/42 kausa.

ren agintea. Urriaren 14an *Galileo Galilei/General Mola II* itsaspekoak eraso egin zion, hiru torpedo jaurtikiz. Hala ere, ez zuen batek ere ukitu. 1938ko otsailean 50 mina eraman zituen Rosesera, portuko itsaspeko-kontrako babesak eratu behar zituzten eta. Ekainean zehar, Cartagenan, kanoi bat jarri zioten brankan, popan aire-kontrako metrailadorea mantenduz. Valentziako Zainketa eta Itsaspekoen Kontrako Defentsa Taldeari atxiki zioten uztaillean, baina *Tramontana* hala eta guztiz ere, garraio zerbitzu berberetan jarraitu zuen Mediiterraneoan. Etxaberen ordeztu Manuel Hoyos Amenabar jarri zuten, hilabete batez soilik, ezen irailaren amaiera aldean Amadeo Uribe Asteinza ontzi-alferezak, *Donostia* bouaren ofizial ohia, hartu baitzuen *Tramontanaren* agintea, gerra amaitu arte horrelaxe segituz (Pardo San Gil, 2008: 151-153). Hala ere, aipatutako Amadeo Uribe Asteinza heldu baino lehen, *Tramontan*an bazeuden PYSBEko jatorrizko tripulazioak ziren hainbat busturiar. Victorio eta Francisco Llona Elguezábal anaiak ziren, gerra hasi zenean Pasaian ontziratu zirenak biak sukaldari bezala²³².

Armada Errepublikanoan ziren ontzi txikietan eta laguntzaileetan ere euskal marinela franko zegoen eta Busturiko herritarrok eta bertan jaioak zirenak. Elizateko nahikok merkataritza-ontzi armatuetan zerbitzatu zuten Sobietar Batasunarekin edo Mediterraneoko portu errepublikanoen arteko merkataritza-trafikoa egiteko. Ezagunak dira *Cabo San Agustín* eta *Cabo Santo Tomé* merkataritza-ontzi armatuen kasuak, biak Ibarra y Cía (Sevilla) enpresakoak. Martín Cigorraga Ugalde busturiarrak gogoratzen du nola 1936ko uztailaren 18an *Cabo San Agustín*en nabigatzen ari zen, zerbitzari gisa, Brasil helmuga zuen merkataritza bidaia batean, zama eta bidaiariekin. Gero Montevideo, Buenos Aires, Valentzia, Marseilla eta SESBeko portuetan egon zen. SESBerako bidaia batetik itzultean ontzia hegazkin batek bonbardatu zuen eta Erroman babestu behar izan zuen; handik Oranera heldu zen eta, gero, Alacant helmuga zuela, Valentzian lehorreratu zuen SESBetik zekarren nitratoa. SESBekin egindako beste merkataritza-bidaia batean, ontziak Cartagenara eraman zuen gerra-materiala eta han geratu zen 1938ko apirilaren 10era arte, sobietar gobernua Feodosian ontzia konfiskatu zuen arte eta merkataritzako ontzidira gehitu zuenean²³³. *Cabo Santo Tomé* ontziaren azken bidaia Rafael Indaren agintepean izan zen eta armak eramaten zituen SESBetik Valentziara. Argeliako itsasbazterretik hurbil *Cánovas* eta *Dato* kanoiontzi frankistek eraso egin eta su eman zioten. *Cabo San Agustín* ontzia bezala Itsas Beltzeko portu sobietarretik abiatzen zen (Feodosia, Odessa edo Novorosisk) eta bera bakarrik nabigatzen zen Argeleko kostalderaino; han Cartagenako ontzidiaren zain geratzen zen, azken honek Espainiako portu bateraino eskolta eman ziezaion. 1937ko urriaren 10ean, Odessatik armaz beteta zetorrela, Ingalaterrako banderarekin eta *Korsu* izen faltsuarekin, Galitaren aurrean eraso egin zioten. Rosa itsasmuturraren aurrean hondoa jo eta sutan hasi ondoren, leher egin zuen eta egun berean hondoratu zen harrapaketari aurka egin ondoren. Francisco Borda Abiña, 22 urteko nautikako ikaslea, ontzi honetan nabigatzen ibili zen 1936ko uztailaren 18tik hondoratu zen arte. Berak kontatzen du nola bizirik iraun zutenak Afrikako kostaldetik Marseillaraino joan ziren, eta handik eremu errepublikanora iritsi²³⁴.

1937ko maiatzaren amaieran Kantauri Itsasoko Itsas Armadaren ontzien egoera tamalgarrria zen. *José Luis Díez* destruktoea hilabete bat baino gehiago zerman itsasora

232. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 365/45 kausa; 727/42 kausa.

233. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 2560/40 kausa.

234. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 10812-39 kausa. Bizkaia.

irten gabe konponketa txikiak zirela eta, eta *Císcar* destruktoeari borroka gogo eskasa kutsatu zioten eta beste ontzi batzuei eskolta emateko hainbat agindu hautsi zituen. Itsaspekoen egoera ez zen askoz hobea. Beste alde batetik, ontziek euren batzordeak zituzten oraindik Errepublikako itsas armadako beste ontzi guztietan ezabatu arren. Komandanteek baimendutako edo bultzatutako diziplina faltak eta tripulazioen deserzioek Kantauri Itsasoko Itsas Armada gerrako arma geldo bat bihurtu zuten. Arrazoi hauengatik, maiatzaren 31ko gauean, Gudontzidi Laguntzaileko, Ordena Publikoko eta *Ertzañako* indarrek, Portugaleteko Itsas Ordezkararen gainbegiradaren azpian, *José Luis Díez* eta *Císcar* destruktoerak eskuratu zituzten aurkaritarik gabe. Bi ontzien tripulazioak aterarazi eta atxilotu zituzten, eta Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailearen euskal kideek ordezkatu zituzten. Tripulazio berriarekin, *Císcar* destruktoerak Habanari eskolta egitearen zerbitzua bete zuen, eta 4.500 errefuxiatu Frantziara heldu ziren. Beste hainbat eskolta zerbitzu ere egin zituen, *Gobeo* petrolio-ontziari egindakoa adibidez. Eskolta honi *José Luis Díez* ontzia gehitu zitzaion, berriz jardunean baitzegoen. Azkenik, adierazi behar dugu nola bi destruktoerak borroka labur bat izan zuten *Almirante Cervera* gurutzaontziarekin ekainaren 10ean, Matxitxako lurmuturraren iparraldean (Pardo San Gil, 2008: 121-123; Romaña Arteaga, 1984: 1360-1373).

Císcar eta *Jose Luis Díez* destruktoeren euskal tripulazio berrietan lau busturiar zeuden gutxienez. Alejandro Mendiola Bilbaok *Císcarean* zerbitzatu zuen lehen sukaldari bezala 1937ko ekainetik uztailera, eta Escolástico Uribarri Larruceak 1937ko ekainetik urrira zerbitzatu zuen labezain bezala. *José Luis Díez* destruktoeari dagokionez, Cándido Izaguirre Arriaga destinoaren zain zegoen Bilboko Institutuko kuartelean 1937ko ekainean destruktorera bidali zitzaionean²³⁵. 1937ko ekainetik uztailera Francisco Uribe Asteinzak, ELAko afiliatua, ontzi berean zerbitzatu zuen zerbitzari gisa, lehenago *Iparreko Izarra* ontzian sei hilabetez izan zuen lanpostu bera.

4.4.7.3. Itsasoko mugazainak

Busturiarren kopurua Errepublikako itsas armadan oso handia ez izan arren, 1938ko erdialdean sortutako Itsasoko Karabineroetan, unitate txiki eta ezezagun batean, busturiarrek garrantzia izan zuten. Iparreko Frontea ebakatu eta gero, Euzko Jaurlaritzak Euzkadiko Gudontzidian edo Merkataritza Ontzidian aritutako ofizial eta marinela pila handi samar bat jarri zuen Errepublikaren Gobernuaren eskura. 1938ko apirilean soldadu frankistak Vinarozera heldu ziren, eta lurralde errepublikarrak bitan zatituz Katalunia bereizi zuten beste lurralde leialetatik. Orduan itsas zerbitzu bat antolatu zen bi eremuak lotzeko eta pertsonala, posta ofiziala eta hornigaiak batetik bestera eramateko.

Euskal itsasgizonak Karabineroen gorputzean sartu ziren eta guztira 500 gizon eta ontzidi txiki bat osatu zuten (Pardo San Gil, 2008: 153). Gorputz honen kideen artean Félix Gorriño Echevarría kapitaina dugu, Ezker Errepublikanoko afiliatua, *Arsenio Cañada* belaontzi motoreduna zuzentzen zuena. Belaontzi motoreduna *Huesca* destruktoerak matxinoak harrapatu zuen tripulazio osoarekin 1938ko urriaren 17an, Bartzelonatik Aguilasera zihoala olio kargamentu baten bila. Harrapatua izan baino lehen, kapitainak

235. MHZD. PS Bilbao. 3109. paper-sorta. 5. folioa; 197. kutxa. 15. txostena.

ontziaren armamentu bakarra zen fusil metrailadorea kareletik botatzeko agindu zuen. Karabineroetan sartu zen baita ere Francisco Javier Borda Abiña busturiarra, *Cabo Santo Tomé* ontziaren hondorapenetik bizirik irten zena eta Karabineroetan sartzea eskatu zuena soldadutza saihesteko bere kinta mobilizatu ondoren. Azkenik, aipatuko dugu nola Hermeregildo Gandarias Albizua busturiarra 1938ko ekainean *Maruja Molina* belaontzian sartu zen, Bartzelona eta Valentzia artean hiru bidaiak eginez mota orokorreko zamarekin eta postarekin. Ontzia Bartzelonako portuan egon zen 1939ko urtarrilaren 25a arte, baina hiria erortzeaz zegoenez ontzia Sant Feliu de Guíxolseko portura joan zen (Girona). Bi egun geroago Selvako portura (Girona) eraman zuten, eta azkenean 1939ko urtarrilaren 29an Frantziara abiatu zen tripulazioarekin bakarrik eta kargarik gabe. Nouvelleko portu frantsesera heldu zenean (Ekialdeko Pirinioak) tripulazio osoa Frantziako kontzentrazio-esparru batean sartu zuten. Itsasoko Karabineroetan sartu ziren itsasgizon guztiek kategoria profesionalaren arabera kapitain, teniente, sarjentu edo kabo mailak eskuratu zituzten. Adibidez, Francisco Javier Borda Abiñaren pilotu titulua teniente mailaren baliokidea da²³⁶.

4.4.8. Hildakoak eta desagertutakoak

Lehen hildakoak, Busturiko auzotarra eta bertan jaioa, ez zuen inongo zerikusirik borroka fronteekin. Santiago Gondra Cigorraga, 22 urteko gazte bat, matxinoek 1936ko irailaren 26an fusilatuta hil zen Galizian. Hala ere, orain borroka-fronteetan hil ziren haiei buruz arituko naiz, merkataritza-ontzidiari buruzko kapituluan Santiagok bere fusilatzeari buruz lerro nabari batzuk dituzenez gero. Borroka-fronteetan hil zen lehena Busturian jaiotako Serapio San Nicolás Arisqueta izan zen. 30 urteko gazte hau, Busturian jaioa baina Gernikako auzotarra, Arrate-Eibarreko (Gipuzkoa) frontean hil zen su-armagatik zaurien ondorioz 1936ko abenduaren 2an. Serapio San Nicolás miliziano gisa zebilen JSUetako unitateren batean²³⁷. Gernikako Udalak bere atsekabe handia jaso zuen akta batean: *“por el fallecimiento de los valientes luchadores Serapio San Nicolás, Fernando de Torrealday y Juan de Tellería, comicándose a sus familias”*. Gainera JSUei gonbidatzen zien, beste talde politiko eta erakunde sindikalekin batera, Espainiako Errepublikaren legalitatea defendatzeagatik herriko lehen hildakoen hileta-elizkizunetan parte hartzera (Echániz y de la Granja (zuz.), 1998: 213).

Serapio San Nicolásek bizitza galdu zuen Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko mugan matxinoen aurrerapena geldiarazi zuen erresistentzia armatu batean; aldi berean, frontea egonkortzeak itxaropenak eman zizkien Errepublikaren aldeko talde politiko eta sindikalei gerra irabazteari buruz. Itxaropen horiek porrota izan zen eraso batean gauzatu ziren, egun Legutioko bataila izenarekin ezagutzen dena. Eraso honen testuinguruan, Pedro Bilbao Ciarreta gaztea, Bustuian jaioa eta Barakaldoko auzotarra, ezkongabea, 29 urtekoa, soldatzailea, 1936ko abenduaren 2an hiltzen zen Legutioko frontean jasotako zauriengatik (*“por lesiones recibidas en el Frente de Villareal”* jatorrizkoan), “ANV 1”

236. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 10812-39 kausa. Bizkaia; ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 414/41 kausa; 0-40.

237. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Kanpainan Hildakoen Erregistro Nagusiaren Dokumentu-funtsa (Bilbao, 1936-1937). ESPV AHPV JUSTIZIA 283/4/79.

batailoian, *Olabarri* izenarekin ezagunagoa zena, borrokatzen zen bitartean²³⁸. Borroka fronteetan hil zen hurrengo herritarra Pedro Asla Gureicaechevarría izan zen, Busturian jaioa, ezkondua, *Abellana* batailoikoa, eta Mendatan hil zena 1937ko urtarrilaren 24an.

1937ko martxoaren 31n hasi zen Mola jeneralaren eraso Bizkaia gainean. Jeneral matxinoak gerra irabazteko ezinbestekoa zen probintzia kontrolatu nahi zuen, bere industria botereagatik eta penintsulako iparralde konkistatzeko funtsezkoa zelako. Egun horretan Otxandion hil zen Gonzalo Aguirre Gondra auzotarra, 26 urte, Busturian jaioa eta *Rebelión de la Sal* batailoien gudaria²³⁹. Aurreko egunean Arturo Sirvent Cortado auzotarra, Madrilen jaioa, *Guipúzcoa* batailoien borrokalaria, hildakotzat jo zuten Durangoko fronteetan. Hala eta guztiz ere, ez zen hil; zauritua izan zen eta Durangora eramana; eta han matxinoek harrapatu zuten herria konkistatu zutenean²⁴⁰.

Asko kostatu zitzaizkien matxinoei Bizkaia konkistatzea: mendi bakoitza erresistentzia gune bihurtu zuten Espainiako Errepublikaren leialek. Matxinoek baliabide bidegabeak erabiltzea erabaki zuten, atzealdeko populazio-guneak bonbardatzea adibidez. Taktika honekin herritarren eta soldaduen kemena hondatzea bilatzen zen, Euzkadiko Gudarosteko eta Euzko Jaurilaritzako Intendentzia Militarren edo mobilizatutako industrien berezko zerbitzuak desantolatzeaz gain. Testuinguru honetan kokatu behar dugu Gernikako bonbardaketa. *Rebelión de la Sal* batailoien kapitaina zen Tomás Torrezuri Gezuraga bonbardaketan berez hil ez zen arren, bai hil zen 1937ko apirilaren 26an eta Gernikako herrian. Kapitaina bere unitatea Urkiolatik Gernikara atzera egiten ari zenean zauritu zuten, eta Gernikako Ospitalera eraman zuten non azkenean 10:00etan hil zen. Hurrengo egunean, 1937ko apirilaren 27an, gorpua ehortzi zuten Busturiko hilerrian²⁴¹.

Legezko gobernu baten alde jartzea erabaki zuten euskal unitateen erresistentziak indartsu jarraitzen zuen matxinoek aurrera egin arren. Etsaia Bilbotik gero eta gertuago zegoen eta erresistentzia gero eta handiagoa zen Bilbo Handiko hego-ekialdeko mendietan. 1937ko maiatzaren 9ko 9:00etan, Gregorio Asla Guereicaechevarría auzotarra, 24 urtekoa, nekazaria eta *Abellana* batailoien gudaria, hil egin zen Zornotzako "*Heriotza pinadian*"²⁴². Matxinoek Bilbo konkistatu baino lehenagoko azken erresistentzia handia Artxandan izan zen. Borroka hauetan herriko zenbait gazte hil ziren. Miguel Velasco Fernández, 27 urtekoa, Arrigorriagan jaioa, jorنالaria, PCko afiliatua, mendi horretan izandako borroketan desagertu zen²⁴³. Paulino Apraiz Ugalde bezala, "Zapadores N.º 2" batailoien soldadua, 1937ko ekainaren 1ean hil zena. Azkenik, 1937ko ekainaren

238. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Kanpainan Hildakoen Erregistro Nagusiaren Dokumentu-funtsa (Bilbao, 1936-1937). ESPV AHPV JUSTIZIA 280/2/134; 280/2/133.

239. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Kanpainan Hildakoen Erregistro Nagusiaren Dokumentu-funtsa (Bilbao, 1936-1937). ESPV AHPV JUSTIZIA 276/1/29.

240. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Kanpainan Hildakoen Erregistro Nagusiaren Dokumentu-funtsa (Bilbao, 1936-1937). ESPV AHPV JUSTIZIA 283/4/174.

241. BEHA-AHEB. Parrokiaren funtsa (BUSTURIA-Axpe). Ama Birjiñaren Jasokundea. 0380/001-00; AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Kanpainan Hildakoen Erregistro Nagusiaren Dokumentu-funtsa (Bilbao, 1936-1937). ESPV AHPV JUSTIZIA 278/6/45.

242. BUA. Heriotzen liburua. 233.

243. MHZD. Segida militarra. 1336. karpeta. 01. txostena.

13an, Eugenio Asla Landiak bizitza galtzen zuen *Capitán Casero* batailoian miliziano bezala borrokatzen zenean²⁴⁴.

Hainbat Busturiko auzotar edo bertan jaiotakoen heriotzen frogak daude, baina beste hainbat desagertutzat jo dira. Ziur aski Busturian jaio zen José Ramón Lecumberri Ormaecheari buruz ezer ez dakigun lehen busturiarra da. Gaztedi Errepublikanoko afiliatua zen eta 1936ko urriaren 21ean desagertu zen Navalcarneroko frontean, milizietan hilabete lehenago sartu ondoren²⁴⁵. Lucio Sololuce Arana, Busturian jaioa, gerra ekintza batean desagertu zen Santanderreko frontean²⁴⁶. Herrian desagertutzat jotzen diren askoren artean desagertzea ez zen izan borroka fronteetan parte hartzeagatik. Hainbaten desagertzea edo kokapena argi ditzaketen datuak aurkitu ditudan arren, herrian desagertutzat jotzen direnak hurrengoak dira: Juan Ignacio Uriaguereca Calzacorta, Adolfo Llona Elguezábal, Andrés Guerequeta Guerequeta, Eusebio Zuazua Izaguirre, Eulogio Irigoyen Arbe, Juan María Arrospe Achicallende, Juan Manuel Oleaga Aranguren, Román Orbe Calzada eta Tiburcio Carmelo Elesgaray Gorriño (Paia, 2005: 213). Desagertzea hauekiko batzuk ez dute zertan zerikusirik izan behar borroka parteekin, Román Orbe Calzadaren kasuan adibidez, Frantziaraino iritsi zirelako.

4.4.9. Desertoreak

Bi bandoetan derrigorrezko errekrutatzea jarri ondoren, gizon askok borroka fronteetako lazgarrikerietatik ihes egiteko, ideologikoki antza handiagoa zutenekin gerran parte hartzeko edo etsaiaren lurraldean zeuden senideak ikusteko bide bat topatu zuten desertzioan. Pertsona asko ez ziren fronteetara joan mendietara ihes eginez edo atzealdean gomendioak bilatuz mobilizatuak ez izateko; zibilak zein militarrek ziren, eta ez zuten sentitzen gerrak haiekin zerikusirik zutenik eta ez zuten gogoko borrokan ari ziren bi bandoetako bat ere. Gure ikerketaren kasu zehatzean, gerrari ihes egiteko bidea desertzioan topatu zuten hainbat busturriarren kasuak daude, eta ez militarrek derrigorrez. Desertzioaren arrazoiak? Eurek esan zitzaizkete soilik.

Arturo Sirvent Cortado Busturiko auzotarra, Madril jaioa, 22 urtekoa, soldatzaile/mekanikaria, UGT eta PCko afiliatua, Euzkadiko Armada Gorputzeko *Guipúzcoa* batailoien milizianoa zen, eta matxinoek harrapatu zuten Durango konkistatu zutenean. Gasteizen preson egon ondoren, San Pedro de Cardeñako (Burgos) kontzentrazio esparrura heldu zen, eta han 1937ko uztailaren 25era arte egon zen Gotorlekuen (langileak) 2. Batailoira atxikia izan ondoren. Arturo Sirvent Cortado, bere armako eta espetxeko lagunarekin batera, Elviro Falenque Juaristi, Karrantzakoa eta langileen batailoia berakoa zena, lurralde errepublikanoraino heldu zen berrito 1937ko uztailaren 27an batailoitik ihes egin ondoren. Lubakiak eta metrailadore habiak eraikitzen ari ziren Erdialdeko armadako 49. Brigada Mistoa zegoen sektorearen aurrean, etsaiaren aldera pasatzea erabaki zutenean²⁴⁷. Armada matxinotik desertatu zuen beste soldadu bat Adolfo Llona

244. MHZD. PS Santander A. 84. karpeta. 01. txostena.

245. MHZD. PS Bilbao. 2841. paper-sorta. 02. txostena. 22. folioa; 2896. paper-sorta. 01. txostena. 10. folioa. PS MADRID. 196. kutxa.

246. MHZD. Segida militarra. 1202. karpeta. 396. folioa.

247. MHZD. Segida militarra. 60. kutxa. 07. txostena; Segida militarra. 79. kutxa. 01. txostena.

Elguezábal izan zen, Busturian jaioa, 23 urtekoa, ezkongabea eta JSUetako afiliatua, *Fulgencio Mateos* batailoaren borrokalari ohia. Milizianoa Santanderren atxilotu zuten eta Santoñaako kartzelan espetxeratu zuten. 1938ko urtarrilaren 1ean Amerikako 7. batailoira bidali zuten Dueñasen, eta handik Villafrancara eraman zuten. Villafrancako frontearen hamabost egun eman ondoren, bere unitateak batailoi bat txandakatu zuen. Bi egun frontearen eman ondoren, desertore busturiarra Monte Peladotik (Huesca) arma-mentu eta munizio eta esku-bonba kopuru oso batekin pasatu zen errepublikanoen aldera²⁴⁸.

Dena den, soldadu busturiar guztiak ez ziren eremu matxinoetik errepublikanora pasatzen. Alderantziz gertatu ziren kasuak ere topatu dira. Francisco Javier Borda Abiñak, 22 urtekoa, ezkongabea, nautikako ikaslea eta UGTko afiliatua, kontatu zuen nola Bartzelonan indar matxinoetan sartzeko aurkeztu zen, indar hauek hirian sartu ondoren. Deklaratzailearen indarrak, Itsasoko Karabineroak, Olotera atzera egiteko agindua jaso zuten, baina bera Bartzelonan ezkutatu zen eta hiria “askatua” izan arte zain egon zen (“*liberación*” hitza erabiltzen du jatorrizkoan), bere burua entregatzeko²⁴⁹. 1938ko otsailaren 9an matxinoen indarretan Anastasio Aberasturi Garmendia soldadu errepublikanoa aurkeztu zen. Itsas Armadako Infanterian sartu ondoren, 1937ko urriaren 20an, Torrevieja bidali zuten 15 egunez eta horren ostean Infanteriako batailoi batera bidali zuten, 83. Brigada Mistoko 2. Batailoiera. Unitatea Teruel hiriari eraso egiten ari zitzaioa, busturiarra etsaiaren lerroetara igaro zen 1938ko otsailaren 9an Campilloren tokitik bere fusilarekin²⁵⁰.

4.5. Eguneroko bizitza Gerra Zibilean

4.5.1. Errefuxiatuak

Euzko Jaurilaritza eratu zenerako matxinoek ia Gipuzkoa osoa okupatuta zuten, eta Irun eta Donostia hartu zituzten muga frantsesetik euskal probintzietarako sarbidea mozteko. Altxamendutik, gauza jakina da pertsona askok ihes egin zutela edo bidaliak izan zirela Frantziara Irunetik eta Bidasoatik jadanik matxinoek okupatutako Nafarroako mugaraino. Halaber, badakigu ere beste pertsona batzuk ihes egin zutela edo mugako beste aldera iritsi zirela data horren inguruan, bakarrik edo taldeka, gerrako gertaerekin zerikusirik izan gabe (Goigana eta Arrien, 2002). Irun erori baino lehen, muga oraindik itxita ez zegoenez, milaka pertsonak Frantziara joateko aukera aprobetxatu zuten. Batzuk Nazioarteko Zubitik sartzen ziren bitartean, beste batzuk Nafarroako mugatik egin zuten, eta gainerakoek itsasotik alde egin zuten, batez ere Donostia erori eta gero, itsasontzi mota guztiak erabiliz. George Steeren arabera 30.000 pertsona ebakuatu ziren Donostiatik Bilbora (Steer, 2002). Donostia erori zenean, mota askotako itsasontziak, jendez gainezka, Kontxatik irten ziren Bilborantz, tropa matxinoak Pasaian eta Donostian sartzen ziren aldi berean. 3. Torpedo-ontzitik aparte, ebakuazioa egiteko hogeiki merkataritze-ontzi inguru erabili ziren, gehienak Bizkaiko Defentsa Batzarrak bidalita, PYSBEko

248. MHZD. Segida militarra. 1052. kutxa.

249. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 10812/39 kausa. Bizkaia.

250. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1066/38 kausa. Araba.

bost bakailao-ontzi eta ehun arrantza-ontzi eta aisiako edo zerbitzuko ontzi (Pardo San Gil, 2008: 43, 163).

George Steerek berak adierazten zuen nola abuztuaren azken igandean, Irunen gaineko erasoaren bosgarren egunean, euskal exodoa garatzen zen Hendaiaiko nazioarteko zubia zeharkatuz:

“Para las doce habían atravesado el puente, procedentes de Fuenterrabía, 1.500 mujeres y niños: el alcalde había ordenado la evacuación. El resto de la noche cruzaron 2.000 personas desde Fuenterrabía a Irún, presas de repentino pánico. A las ocho de la mañana del lunes una multitud vociferante esperaba en el puente su turno para presentar el permiso y cruzar la frontera. (...) Durante todo el día siguieron llegando de San Sebastián vehículos atestados, con más de cincuenta personas cada uno. Otras gentes llegaban a pie, sudorosas, por el monte, atravesando la línea de fuego. (...) Por la tarde el número de refugiados llegó a 5.000, en su mayoría mujeres, niños y ancianos: era el principio de la derrota de Irún. Llevaban a sus pequeños en brazos y a otros niños de la mano o colgados de la espalda, muy asustados. Casi nadie tenía dinero: eran el pueblo, el verdadero pueblo. Transportaban consigo el equipaje, todo lo que habían podido salvar. Y eran los hombres quienes lo llevaban. Componían el equipaje, primero, sus ropas, viejas pero limpias y bien lavadas, como las de todos los españoles. Acarreaban bultos atados con cuerdas, patéticas y desvencijadas maletas de cartón imitando a cuero para los pobres. Si eran gente de campo se llevaban los pocos animales de su pertenencia, las camas de hierro, sábanas y mantas. Sus escasos retratos. Había hombres que volvían corriendo corriendo a Irún en busca de algún mueble de escaso valor, pero íntimamente apreciado” (Steer, 2002).

Txosten baten arabera 40.000 pertsona sartu ziren Frantzian kontrolik gabe, ekimen partikularrarengatik eta bakarka²⁵¹. Dena den, Gipuzkoako herriak matxinoen eskuetan geratzeko arriskuaren aurrean, tokiko agintariek eraso matxinotik babesteko zuzenean lanean ez zeuden biztanleen ebakuazioa antolatuz, Irungo kasuan adibidez. Gregorio Arrienek eta Iñaki Goioganak ongi adierazten duten bezala, oso zaila da jakitea Gipuzkoako kanpaina zela eta erbesteratuen kopurua. Zenbaitetik adierazten dute 11.339 pertsona izan zirela Donibane Lohitzunen eta Baionan lehorreratu zirenak, eta lurretik heldutakoekin eta Girondan lehorreratutakoekin batera, 15.000 pertsonatik gorako kopurua osatuko zutela (Goiogana eta Arrien, 2004). Hala ere, zenbateko horren zati handi bat oso egun gutxi egon zen Frantzian, batzuk Kataluniara bidali baitzituzten eta beste batzuk Gipuzkoara itzuli baitziren. Frantzian geratu zirenak 5.000 errefuxiatu inguru izan ziren, departamenduetan zehar sakabanatuta (Rubio, 1996).

Gipuzkoatik, Nafarroatik eta, neurri txikiago batean, Arabatik Bizkaiko lurraldera babes bila joan ziren pertsonak 100.000 bat izan zirela esaten da. Irailaren 12an herritarrek euren exodoa jarraitzen zuten Gipuzkoaren barnealderantz eta Bizkairantz, lehen aipatutako baldintza berdinetan. Gainera, emakume eta haur asko matxinoek kontrolatutako eremutik kanporatuak izan ziren 1937ko urtarrilaren amaieran. Matxinatutako agintariek gurasoak edo neba-arrebak gobernuko eremuan zituzten familiak kaleratzea agindu zuten (Goionaga eta Arrien, 2004; Onaindía, 1973).

251. EAH-AHE. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Ebakuazioa. Idazkaritza. Zerrendak. 666. paper-sorta. 04 paper-sorta zenbakia.

Gipuzkoako erbesteratu gisa busturiarrek izan zuten papera ez dakidan arren, Busturian jaiok edo Busturiko auzotarrak ziren marinela aurkitu ditut Gipuzkoatik janaria eramanen edo errefuxiatuak ebakutzen lagundu zituzten itsasontzietan. Irailaren 11n *Lolita Artaza* ontzia Bilbon sartu zen, non Hermeregildo Gandarias Albizuak bidaiatzen zuen, Donostiatik zetorren bakailao kargamentu batekin²⁵². Hurrengo egunean *Cristina* baporea, non Crispín Olano Ugartek zerbitzatzen zuen, Santanderren sartzen zen Donostiatik zetozen errefuxiatuez beteta²⁵³. Azkenik, irailaren 13an Bilbon sartu ziren errefuxiatuez beteta *Cobetas* ontzia, non Francisco Javier Oleaga Aranguren marinela gisa zegoen, eta *Faustino R. San Pedro* ontzia, non Adolfo Elesgaray Asteinza eltezain gisa aritu zen²⁵⁴.

Bizkaiko herriek gipuzkoako jendea ahalik eta baldintza onenetan hartu zuten, prentsak eta agintariek sentimendu bihozberak eta karitatetsuak eskatu ondoren. Zentro publikoetan edo konfiskatutako eraikinetan ohe falta zegoenez, hainbatek etxe partikularretan aurkitu zuten babesak. Beraz, euren etxea atzean utzi behar izan zuten Gipuzkoako pertsonen adibide asko dago, gero babesaren bila joateko Bizkaiko herrietara, Busturia eta bere inguruan dauden herrietara ere: Mundaka, Bermeo, Gernika, Sukarrieta, Errigoiti, Arrieta, Forua... José Izaga Garaizabal musika-zuzendariaren kasuan (ezkondua, 48 urtekoa, Oñatin jaioa baina Debatik zetorrena), Errigoitin babestu zen bere semearekin batera, azken honek miliziano bezala zerbitzuak ematen zituen borroka fronteetan. Herri berean babestu zen Soraluzetik zetorren Ignacio Pérez Fernández salamancarra eta karabinero ohia, bere emazte eta lau seme-alabekin, edo Juan Pertica Mazo milizianoa, Gernikakoa bera baina Donostiatik zetorrena bere emaztearekin eta bi seme-alabekin²⁵⁵. Francisco Carasa Sáenz logroñoarra, Vigueran jaioa baina Donostiatik zetorrena, Foruan babestu zen baina 1937ko apirilaren 21ean Bilbora bidali zuten. Antzeko egoeran egon zen Celestino Clemente Canto, Pancorbon jaioa (Burgos), bere emazte eta lau alabekin Tolosatik Sukarrietara helduak, gero 1937ko apirilaren 2an Forura bidaliak izateko²⁵⁶. Sukarrietan ere aurkitu zuen babesak Manuel González Queipo asturiarrak, Azkoititik zetorrena eta gidari bezala Fronte Popularrari zerbitzuak ematen zizkiona; herriko Portugalete Etxean ostatu hartu zuen²⁵⁷. Ikusiko dugun azken kasua Manuel Bermejo Latorre milizianoarena da, Igeakoa (Logroño) baina Zumarragatik zetorrena, eta Arrietan babestu zen bere emaztearekin eta alabarekin batera²⁵⁸.

1936ko irailaren erdirako iritsi ziren lehen errefuxiatuak Busturiko herrira, eta Arrotegiko jauregian eta etxe partikularretan sartu zituzten. 1936ko irailaren 9an Axpeko 14. etxeko behe-solairua eta garajea konfiskatu ziren, Antolín Luzarraga Learretaren jabetzak zirenak. Eraikin honetan Gizarte Laguntzak bulegoak jarri ziren, merkantzia-biltegia eta

252. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 414/41 kausa; 0/40 kausa.

253. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2053. kutxa. 103827. txostena.

254. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1402/40; 594/41 kausa.

255. MHZD. PS Santander O. 153. karpeta. 02. txostena.

256. MHZD. PS Santander O. 154. karpeta. 01. txostena.

257. MHZD. PS Santander O. 158. karpeta. 01. txostena.

258. MHZD. PS Santander O. 147. karpeta. 01. txostena.

hornikuntza-arduradunentzako garajea bezala²⁵⁹. Pablo Mediavilla García donostiarra, 49 urteko UGTko afiliatua zen ekipajelari bat, beste errefuxiatu batzuk bezala, Arrotegi jauregian babestu zen. Baina beste batzuk denbora gutxi batez ostatu eman zien herritik alde egitea erabaki zuten: Ramón González Rotel, Antonio Refogos Iglesias edo Ángel Pardavila Alonso Bilbon ainguratuta zegoen *Félix* boura berriz itzuli ziren; Margarita González Pendaz, Aurora González Pendaz eta Aurora Pendaz Fonteciella Bilbora joan ziren familiarekin batera, Emilio Lorenzo Fernándezek eta Rafael Pérez Lemusek egingo zuten bezala; eta José María Iriarte Aguirre errefuxiatuak herria uztea erabaki zuen Alzako milizietan sartzeko 1937ko irailaren 12an²⁶⁰.

Autonomia gobernua eratu zenean jatorrian partikularra zen migrazio mota hau kontrolatzen hasi zen. Migrazio-mugimendu hauek jaisten joan ziren 1937ko maiatzera arte, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan frontea egonkortu zenean. Euzko Jaurlaritzak migrazio mota hau kontrolatzen egin zuen saiakeraren adibide bat Gizarte Laguntzako kontseilariak Tokiko Defentsa Batzarrei eman zien aginduan dugu, Busturikoari barne, laguntza jasotzen zuten errefuxiatu guztiak erroldatzeari buruz (*Euzkadi*, 1936/10/31). Modu honetan, 1936. urteko amaieran Espainiako Errepublikari leiala zen lurraldean zeuden eta udalek kontrolatzen zituzten errefuxiatuen zenbatekoa egunkarietan argitaratzen zuen Euzko Jaurlaritzak. Busturiari zegoenez, 2.610 biztanle zituen eta haue-tatik %25,84, hau da, 536 pertsona, udalerrian errefuxiatutakoak ziren. Ehuneko altua da ondoko herrien datuekin alderatzen badugu: Bermeo (%5,79); Murueta (%10,98); Forua (%19,22); Gernika (%30,63) eta Errigoiti (%0,56) (*El Nervión*, 1936/12/01; 1936/12/09; *El Noticiero Bilbaíno*, 1936/10/20; 1936/11/10; 1936/11/25; 1936/12/01; *Excelsius*, 1936/10/30; *El Liberal*, 1936/12/20). Hala ere, emandako datu hauek ez dira guztiz fidagarriak Mundaka edo Sukarrieta bezalako herrietan ez baitzen errefuxiatuei buruzko daturik ematen, baina kopuru handia zegoela dakigu Gizarte Laguntzako fitxen bidez²⁶¹. 1936ko azaroan Euzko Jaurlaritzak Tokiko Defentsa Batzarrak konfiskatutako behe solairua eta garajea itzuli zizkion Antolín Luzárraga Learretari, eta Gizarte Laguntzako bulegoak Arrotegi jauregira eraman zituen. Hala ere, Euzko Jaurlaritzako Gizarte Laguntzako sail berak etxe beraren lehen solairua konfiskatu zuen 1936ko abenduaren 31n. Bertan agertzen ziren Gipuzkoako errefuxiatu bezala Augusto Peñín Balbas, lehen irakaskuntza nazionaleko maisua, bere emaztea, seme bat eta zerbitzari bat; eta eraikinaren jabearekin batera, honen arrebarekin eta euren zerbitzariarekin batera bizi ziren²⁶².

Busturiko kontrol militarreko erregistroak zerrendatzen zituen 244 gizonezkoetik, 19 bakarrik agertzen dira errefuxiatu gisa. Guztien adina 18 eta 49 urteren artean zegoen, batezbestekoa 36 urte inguru izanda. Guztien egoitza legala Gipuzkoan zegoen, eta nabarmena da ikustea zazpiena Azkoitian zegoela. Garrantziko hurrenkeraren araberako Donostia dago, lau pertsonen egoitzarekin; Bergara eta Eibar, bi pertsonen

259. BUA. Akta-liburua. 1936/11/29; 1937/04/18; MHZD. PS Santander HA. 006. karpeta. 09. txostena.

260. MHZD. PS Santander A. 218. karpeta. 03. txostena.

261. MHZD. PS Santander O. 152. karpeta. 01. txostena; 153. karpeta. 01. txostena; 155. karpeta. 02. txostena; 158. karpeta. 01. txostena.

262. MHZD. PS Santander HA. 006. karpeta. 09. Txostena. BUA. Akta-liburua. 1936/11/29; 1937/04/18.

egoitzarekin bakoitza; eta Pasaia, Beasain, Urnieta eta Zarautz, egoitza banarekin. Guztien egoera zibilar dagokionez, hamalau ezkontuta zeuden eta gainerakoak ezkongabeak ziren. Arrotegi jauregiak errefuxiatuen kopuru handi bati ostatu emateko edukiera nahikoa zuen arren, hiru errefuxiatu bakarrik geratu ziren eraikinean. Gainerako errefuxiatuak Altamira eta Axpeko etxe partikularretan babestu ziren, oso gutxitan San Bartolomeko auzoan, eta batzutan etxebizitza berean zenbait errefuxiatu bizi ziren²⁶³.

Busturiko errefuxiatuak kontrol militarreko erregistroaren arabera (1937ko otsailean)

Abizenak, Izena	Adina	Egoera	Legezko egoitza	Oraingo egoitza
Areizaga Beristain, Julián	29	Ezkontuta	Azkoitia	Axpe, 36
Urcelay Aramendi, Justino	31	Ezkontuta	Azkoitia	Axpe, 80
Gárate Arregui, José	35	Ezkontuta	Azkoitia	Altamira 21
Juaristi Mendizábal, Eugenio	35	Ezkontuta	Azkoitia	Altamira, 50
Alberdia Urio, Manuel	37	Ezkontuta	Azkoitia	Altamira, 50
Martínez Hernández, Miguel	49	Ezkontuta	Beasain	Axpe, 80
Pérez Traperero, Juan	44	Ezkontuta	Pasaia	Arrotegi jauregia
Martínez Hernández, Manuel	37	Ezkontuta	Donostia	Axpe, 80
Ibáñez Redondo, Vicente	38	Ezkontuta	Donostia	Axpe, 11
Cobo Diego, Isidoro	43	Ezkontuta	Donostia	Arrotegi jauregia
Ugalde Celaya, Eugenio	36	Ezkontuta	Urnieta	Axpe, 12
Arcargorta Asco, Andrés	34	Ezkontuta	Bergara	Altamira, 42
Enex Salcedo, Vicente	39	Ezkontuta	Bergara	Altamira, 42
Paz Martínez, Cándido	45	Ezkontuta	Zarautz	Arrotegi jauregia
Zubizarreta Recondo, Antonio	19	Ezkontuta	Azkoitia	Altamira, 38
Alberdi Uría, José María	34	Ezkontuta	Azkoitia	Altamira
Esnaola Goyarzun, Félix	18	Ezkontuta	Eibar	Axpe, 89
Guruceta Lluch, Francisco	35	Ezkontuta	Eibar	Altamira, 30
Jaunso García, José Manuel	42	Ezkontuta	Donostia	San Bartolome 42

(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa).

Kontrol militarreko erregistroak errefuxiatuei buruz ematen dituen kopuruak oso ezberdinak dira egunkarietan iturriek adierazten zuten 536 pertsonen kopurutik. Baliteke Gipuzkoako gizona ezkontuta bat ez egitea errefuxiatuaren profilarekin eta, beraz, arretaz begiratu behar izatea kontrol militarretik at geratu ziren pertsonak: zaharrak, emakumeak eta haurrak. Busturiko Gizarte Laguntzako errefuxiatuen zenbait fitxek lehen aipatutako profiletik oso desberdina den bat erakusten dute. Fitxen artean ohiko

263. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0012/006.

egoitzatik ihes egin zuten emakume ezkonduak eta haien seme-alabak ditugu, senarrak milizietan zerbitzatzen zeuden bitartean. Hori izan zen Silvia Tellechea Cincambrenen kasua, ezkondua, 34 urtekoa, Beran jaioa (Nafarroa), eta Zarautzetik errefuxiatu bezala bere seme-alabekin Busturira heldu zena: Milagros Martínez Tellechea (11 urte), Salvador (9 urte), Pablo (7 urte), Emilio (5 urte), Aniceto (3 urte) eta Julio (1 urte)²⁶⁴. Antzeko kasu bat Juana Zarrauz Galarzarena izan zen, ezkondua, 25 urtekoa, Abarzuzan jaioa (Nafarroa) eta Andoainetik Arrotegi jauregira heldu zena bere 8 hilabeteko alabarekin, Faustina Echegaray Zarrauz²⁶⁵. Jauregian ere Catalina Calvo Rojo egon zen, ezkondua, 31 urtekoa, Barruela de Santullánen jaioa (Palentzia), bere lau seme-alabekin: María Cristina Berecibar Espillar (10 urte), Juan Luis (6 urte), Joseba Imanol (4 urte) eta María de los Ángeles (21 hilabete)²⁶⁶.

Errefuxiatuen egoera ez zen erraza izan; horrela adierazten dute etengabe desagertuta edo borroka fronteetan zeuden senideei buruzko informazioa eskatzen zuten prentsa oharrek. Egunkari eta aldizkarietan argitaratzen ziren, irailaren erdialdetik aurrera, hone-lako berri eta oharrak: Encarnación Martínez, José Barqueroren emaztea, Busturian errefuxiatuta zegoen familiarekin (*El Liberal*, 1936/09/17); Julián, Juliana eta Eugenia Etxegarairi Busturian zeuden gurasoei berriren bat bidaltzeko eskatzen zitzaien (*Euzkadi*, 1936/09/24); Narcisa Nuñez, María Zarranz Galarza, Juana Zarranz Galarza, Victoria Luzuriaga Lacalle, Generosa Pelayo, Valentina Zubeldia Iriondo eta Máxima Larios andreek, guztiak Busturian errefuxiatuta, senarren eta seme-alaben kokapena jakin nahi zuten (*El Liberal*, 1936/09/29). Jakina, senide hauen zati handi bat borroka fronteetan edo administrazio berriari zerbitzuak ematen zegoen, Agustín Leundaren kasuan gertatzen zen bezala adibidez. Pertsona hau Pasaiako Garraio Komisarian zegoen, Gurutze Gorriaren zerbitzura, eta berari buruzko informazioa Busturian errefuxiatuta zegoen bere anaia Ángelek jakin nahi zuen (*El Liberal*, 1936/09/30). Antzeko egoeran zegoen Eibarreko María Calvo errefuxiatua, José Pérez Pera milizianoaren kokapena jakin nahi baitzuen, Placenciakoa zena eta Bilbora zauriturik eraman zutena (*El Liberal*, 1936/10/11). Senide, ezkontide eta seme-alabei buruz jakiteko prentsa-oharrak ohi-koak izan ziren garaiko aldizkari eta egunkarietan, eta agerkari horiek jadanik ikertu diren gertuko herrietan, Bermeo bezala, errepikatzen ziren (Vargas Alonso, 2007; *Excelsius*, 1936/10/07; *El Liberal*, 1936/10/16; 1936/11/24; 1936/12/08; 1936/12/12; *La Tarde*, 1936/10/20; 1936/10/22; *El Nervión*, 1936/10/21; 1936/10/22; 1936/12/10; *El Noticiero Bilbaíno*, 1936/10/22; *Euzkadi Roja*, 1936/12/08; *Euzkadi*, 1936/12/09).

Abenduan ere udalerriko Gizarte Laguntzako ordezkari zen Luis Rodríguezen jakinarazpen bat egin zen, non Udalari eskatzen zion Arrotegi jauregia urez hornitzeko beharrezko baimena. Udalak beharrezko hoditeria eman zion²⁶⁷. Errefuxiatu berriak heltzeak arazo larriak sortu zituen ur-horniduran, Sukarrietan gertatu zen bezala. Sukarrietako Toki Defentsa Batzordeak gizarte laguntzako babesleku bihurtu zuen Chacharremendi hotela 350 babestuentzat. Edateko uren hoditeria behar zutenez, Busturiko Udalak ur-hoditeria eman zuen, baina ez dohainik. Sukarrietako Gizarte Laguntzako arduradunek adierazi

264. MHZD. PS Santander O. 147. karpeta. 03. txostena.

265. MHZD. PS Santander O. 148. karpeta. 03. txostena.

266. MHZD. PS Santander O. 153. karpeta. 01. txostena.

267. BUA. Akta-liburua. 1936/12/13; 1937/03/21.

zuten nola ur-faltak eritasun infekto-kutsakorrak sortzen zituzten higiene-gabeziak ekartzten zituen²⁶⁸.

Azkenik, babestuen artean bazeuden Busturiko Gizarte Laguntzako Ordezkaritzak babesten zituen eskolara joateko adinean zeuden haurrak; ez zuten hezkuntza eta kulturarik jasotzen gerra hasi zenetik, eta jadanik apirila zen. Obra hasteko behar zen guztia zeukatenez tokia salbu, Gizarte Laguntzako ordezkariak Udalari eskatu zion udaletxeko behe solairuan zegoen maisuaren etxe zaharra. Udalak aho batez onartu zuen eskatutako aretoa doan ematea, eta emate horrek iraun egingo zuen Udalak beste erabaki batekin ezeztatu arte²⁶⁹.

4.5.2. Irakaskuntza

Irakaskuntzari dagokionez, 1936ko irailean Bizkaiko Aldundiak auzoko eskolen irakasleei jakinarazi zien Batzorde kudeatzaileak lekualdatze-lehiaketak atzeratzea erabaki zuela, eta azken uztailan eta abuztuan egindakoak eten egiten zituela. Horrela izanda, ikasturte berria hasterakoan, irakasle jabeak aurreko urtean zuzendutako zentro berdinetaz arduratuko ziren, eta destinoaren zain zeudenek hilabete beraren 12an Aldundiko Heziketa Publikoaren bulegoetara joan beharko zuten, bete gabeko eskolak esleitzen bitarteko bezala jarduteko. Udaletako alkateei agintzen zitzairen Aldundiko Heziketa Publikorako Zerbitzuari jakinarazi behar ziotela irailaren 16an, ikasturtearen hasiera data, zein irakasle ez zen joaten eskolara. Dena den, ikasturtearen hasiera auzoko eskoletan eta eskola nazionaletan 1936ko abenduaren 1era arte atzeratu zen (*El Liberal*, 1936/09/05; 1936/09/15; 1936/12/02).

Ikasturtea amaitu zenetik irakasle guztiak ez zeuden udalerrian. Zenbait irakasle herri-kanpo egon ziren gerra hasi zenetik. Udako oporrak aprobetxatuz jatorrizko herrietara joan ziren, eta han altxamendu militarrek harrapatu zituen ezustean. Hori izan zen Axpeko jabea zen irakasle nazionalaren kasua, Lusi Bonifacio Cano Esteban, Plasencian jaioa (Cáceres), Extremaduran baitzegoen bere familiarekin Gerra Zibila hasi zenean. Altxamendu militarren ostean matxinoekin engaiatu zen Plasenciako 2. zenturian, Metrailadoreen 7. Batailoira atxikia, eta bertan zerbitzatu zuen 1936ko irailera arte. Baina bere jarduera matxinoekin ez zen hor bukatu. 1937ko urriaren 20tik geroztik Osasun Militarreko 72. Dibisioan sartu zen, ebakuazio konpainia mistoa zena, 1932ko deialdia mobilizatu zenean²⁷⁰. Pareziko auzoko eskola mistoko irakaslea ere, María Igarzabal Aguirre, ikasturtea bukatzerakoan Pasaiara (Gipuzkoa) joan zen bere gurasoekin, han bizi baitziren. Irakasle hau matxinadaren aldekoa zen, agintari frankisten txosten baten arabera²⁷¹.

Autonomia estatutuak ez zion eskumenik eman Irakaskuntza arloan Euzko Jaurlaritzari. Hala ere, gobernu autonomikoak argudiatu zuen funtsezkotzat jotzen ziren irakasgaiak

268. BUA. Akta-liburua. 1936/10/06; 1936/12/27; 1937/03/21.

269. BUA. Akta-liburua. 1937/04/18.

270. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/010; 0027/050.

271. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/014.

zeudela (Errepublikako Konstituzioaren 48. eta 49. artikuluetakoak), eta estatutuak Euzko Jaurlaritzaren lehendakariari Estatuko jarduneko ordezkari ematen ziola, ondorioz, Euzkadiko Behin-behineko Gobernuako lehendakariak dekretuz esan zuen Justizia eta Kulturako kontseilaria, Jesús María de Leizaola, estatuari zegozkion irakaskuntza gaiiei buruzko ahalmen guztietarako eskuordetzen zuela (EHAA, 1936/12/12).

Dena den, Euzkadiko Behin-behineko Gobernuak dekretu hau baino lehen hezkuntza arloko eskumenak eskuratu zituen Euskal Unibertsitatea eratzeko batzorde bat osatu zuenean (EHAA, 1936/10/12), errealtate bihurtu zen unibertsitatea 1936ko azaroaren 17an Bilboko Medikuntza Fakultatea sortzean (EHAA, 1936/11/18). Beste hainbat xedapenen artean, adibidez, erabaki zen haur-eskolek eta lehen hezkuntzako eskolek, nahi izanez gero, Justizia eta Kulturako Sailera atxikitzea eska zezaketela, eskaria egiten zuen pertsonak interesgarritzat jotzen zituen xehetasunak adieraziz (EHAA, 1936/10/17). Hala ere, Euzko Jaurlaritzak irakaskuntzagatik zuen interesa ez zen guztiz agerian geratu saileko kontseilariak Vicente Amézaga Aresti Lehen Irakaskuntzako Zuzendari Nagusi izendatu zuen arte 1936ko azaroaren 12an (EHAA, 1936/11/13), horrela Amezagari eskolak sortzeko eta atxikitzeko ahalmena emanez, bai eta eskola horiek zuzentzeko irakasleak izendatzeko ere (EHAA, 1936/12/06).

Beste atal batean azaldu dugun Kultura Kontseiluaren sorrerak eragin zuzena izan zuen irakaskuntzan. Irakaskuntza oso toki garrantzitsua zuen kontseiluaren barruan, bere sei ataletatik lehen lauak irakaskuntzari buruzkoak baitziren²⁷². Busturiko kasu zehatzean lehenak bakarrik izango zuen eragina, eskola nazionaletan eta auzoko eskoletan emango zen Oinarrizko Irakaskuntza. Abenduko egun horretan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak Justizia eta Kulturako kontseilariaren agindu bat argitaratu zuen, bi batzorde sortzeko esanez. Lehen batzordea lehen irakaskuntzako gaiekin, eskolak sortu eta irekitzearekin eta irakasle nazionalak izendatu eta kargugabetzearekin zerikusia zuen guztiaz arduratu zen. Aldiz, bigarren batzordeak irakaskuntza ertaina eta goi-mailako irakaskuntzarekin zerikusia zuen guztiari ekin zion (EHAA, 1936/12/16)²⁷³.

Kontrol errepublikanoaren menpe geratu ziren eskola nazionaletan plaza huts berriak betetzeko, 1936an agintariek irakasle ikasketen hautaketa ikastaroak 1935ean gainditu zituzten pertsona guztiak eta 1936an egiten ari zirenak hartu zituzten kontuan, eta eskatu zieten Lehen Hezkuntzako Batzarrari bidal diezazkiotela ohiko egoitzaren datuak eta adieraz zezatela gerra zerbitzuak ematen ari ziren ala ez (*El Liberal*, 1936/10/16). María Borda Anguisola irakasleak hurrengoa erantzun zuen: “*domicilio habitual es en Busturia (Vizcaya) y no presta actualmente ningún servicio de guerra*”. Soledad Gorriño Echevarriak, aldiz, hurrengoa adierazten zuen gutun batean:

272. Kultura Kontseiluko lehen atala (Oinarrizko Irakaskuntza) Justizia eta Kultura kontseilariaren aginduz sortu zen 1937ko urtarrilaren 28an. Atala osatzen zuten kideak izan ziren: Félix López Otamendi (irakaslea), Alberto Canales (irakaslea), Eduardo Landeta (publizista), José Gainzarain (Bizkaiko Aurrezki Kutxako zuzendaria), Pelayo de Bernedo y Echano (irakaslea) eta Gregorio Velasco Troyas (irakaslea) (EHAA, 1937/01/30).

273. Lehen batzordea osatu zuten kideak izan ziren: Alfredo Ruiz del Castaño (Kulturako idazkari orokorra, presidente gisa), Vicente Amézaga Aresti (Euzkadiko Oinarrizko Irakaskuntzako zuzendari orokorra) eta Teodoro Causí (Euzkadiko Lehen Irakaskuntzako ordezkaria) (EHAA, 1937/01/16).

“atendiendo a la nota publicada en la prensa de fecha 16 de los corrientes, relativa a los cursillistas aprobados el año 1935 y a los que actuaron en 1936, tengo el gusto de manifestarle que la suscrita ha actuado en la prov. de Guipúzcoa en los Cursos de 1936 teniendo su domicilio en Busturia (Vizcaya), hallándose en la actualidad prestando los servicios siguientes: confección de jersey con destino a los milicianos que luchan por la República y recaudando fondos con destino a los Huérfanos de los padres que caen en las actuales luchas”²⁷⁴.

Azaroaren erdialdean, Euzkadiko Behin-behineko Gobernuko Lehen Irakaskuntzako zuzendari orokorrak bitarteko irakasle bat eskatu zuen Axpeko haur-eskola nazionalerako, Luis Bonifacio Cano Esteban irakaslearen faltagatik, dagoeneko aipatu duguna. Hilabete horretako 26an Augusto Peñín Balbas izendatu zuten eskola horren bitarteko irakasle. Irakasle berri hau Axpe auzoko 11. etxean bizi zen, Venancia Esquíbel Lejarzarena zena, 1936ko abenduaren 31n Euzko Jaurilaritzako Gizarte Laguntzako Sailaren Zuzendaritza Orokorrak Antolín Luzarragaren etxean bizi zedila adierazi zuen arte, Axpeko auzoan baita ere. Etxe honetan jarraitu zuen Busturiko herria ebakatu zen arte, tropa nazionalak sartu ziren egunaren bezperan. Irakasle honi buruzko txostenen arabera, bere kargua onartu baino lehen, atzealdean zerbitzatu zuen errepublikanoekin Bilbon, eta Gipuzkoa utzi zuenetako pertsona bat izan zen tropa matxinoen aurre-erapena ikusita. Bere ideologiari dagokionez, esaten zenaren arabera, UGTko sozialista zen²⁷⁵. María Igarzabal Aguirre irakaslearen hutsunea Parezikoz auzoko eskola mistoan Jone Olarrak bete zuen²⁷⁶. Baliteke Altamirako eskola nazionalak Simeona Egurrola Egurrolaren ardurapean geratzea, 1936ko irailaren 17an Busturiko eskola nazionalaren irakasle lanpostuaz jabetu baitzen. 1937ko apirilaren 1ean Soledad eta Diodoro Gorriño Echevarría neba-arrebak Altamirako eskola nazionalen bitarteko irakasle lanpostuez jabetu ziren, nahiz eta lehenago Euzkadiko Irakaskuntza Nazionalako Ordezkaritzak Diodoro Gorriño Okendoko bitarteko irakasle izendatu zuen (*El Liberal*, 1936/11/13)²⁷⁷.

Ikasturtea oso berandu hasi zenez, 1936ko abenduan, haurrek Gabonetako oporrak izan zituzten abenduaren 24tik urtarrilaren 1era arte, 1936-1937 ikasturtearen baldintza bereziak zirela eta (*El Liberal*, 1936/12/13). Hala ere, altxamendu militarren ondoren hutsik geratu ziren postuak bete arren, Busturian irakaskuntza jarduerari hasiera eman ez zioten eskolak zeuden. Nicolás Domingo Arrótegui Amunátegui fundatutako Axpeko nesken patronatu eskolako lehen hezkuntzako eskolaketenda zeuden oraindik 1937ko urtarrilean. Klaseen etenaldia mugarik gabe luzatzea ez zen komenigarria, eta Busturiko Udalak pentsatu zuen Justizia eta Kultura Sailak Axpeko nesken eskola berriz irekitzea kudeatu behar zuela, eta horretarako zuzenduko zuen maistra izendatu behar zuela. Hori bai, Udaleko zinegotziek bazekiten Sofía Bizcaíno Sagaseta maistrak eta auzokideak eskola honetan eman zituen zerbitzu goresgarriak. Horregatik, Busturiko alkateak Justizia eta Kultura Sailaren aurrean eskolako irakasle lanpostua aipatutako maistrari eman diezaioten eskatu zuen, beharrezko titulazioa baitzuen. Erantzuna berehalakoa izan zen, eta 1937ko urtarrilaren 21ean Euzkadiko Agintaritzaren Aldizkariak eskolaren

274. MHZD. PS Santander CU. 01. kutxa. 03. txostena.

275. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/011.

276. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/011; 030/020.

277. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/006; 0030/011.

irekiera eta Sofía Bizcaínoren izendapena maistra bezala argitaratzen zuen, Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorraren agindua betez (EHAA, 1937/01/21)²⁷⁸.

Eskola ezberdinetara joaten ziren haur kopuruari dagokionez, 1937ko otsailean eta mar-
txoan, iturriek ondorengo zenbatekoak ematen dituzte:

Zentro Pedagogikoa	Matrikulatuak	Bertaratutako en batezbestekoa
Altamirako nesken eskola nazionala	49	38
Altamirako mutilen eskola nazionala	56	47
Pareziko auzoko eskola mistoa	26	15
Axpeko mutilen eskola nazionala	71	60
Axpeko nesken patronatu-eskola	80	70
San Bartolomeko probintzia-eskola mistoa	31	29

(Iturria: BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/011).

Taula honetan ikus daiteke nola udalerriko lau eskola-barrutiek (Altamira, Axpe, Larrazabale eta Parezi) matrikulatutako 313 ikasle zituzten 1936-1937 ikasturtean. Matrikulatu guztietatik, batzaz beste, %82,74 joaten ziren eskolara, ehuneko altua udalerriarren gerra testuingurua kontuan hartzen badugu. San Bartolomeko probintzia-eskola mistora matrikulatutako haurren %93,54 joaten zen batzaz beste; aldiz, Pareziko auzoko eskola mistoaren ehunekoa %57,69 zen. Gainerako eskoletan matrikulatuen batzaz besteko bertaratzea %77,55etik (Altamirako nesken eskola nazionala) %87,5era doa (Axpeko nesken patronatu-eskola).

Elizateko ikastetxeetan eragina izan zuten Euzko Jaurlaritzaren xedapenen artean Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorraren bat dugu, non Euzkadin funtzionatzen zuten izaera pribatuko eskola guztiak, eta aurrerantzean irekiko zirenak, Zuzendaritzaren jakinaren gain jarri behar zirela eta bere baimena lortu behar zutela agintzen zen (EHAA, 1937/03/26). Justizia eta Kultura sailaren beste xedapen batek benefizentzia partikularreko fundazioen irakasleen egoera hobetzen zuen (EHAA, 1937/04/17). Horregatik, Axpeko nesken patronatu-eskolako maistrak ikastetxera joaten ziren 80 nesken berri ematen zuen eta hurrengo adierazi: bere eskoletan Santa Anaren Karitateko Ahizpen Kongregazioaren laguntzaile bat zutela, lanagatik urteko 2.500 pezetako ordainsaria jasotzen zuela eta etxebizitza- eta mantenu-gastuak kongregazioaren kontura zirela, Arrotegi babes-etxean bizi zelako eta tokia aipatutako kongregazioaren ahizpek zuzentzen zutelako²⁷⁹. Herrian jaiok ziren beste maistra batzuk ere, 26 urteko Eloísa Oleaga Echevarri bezala, Euskadiko beste fundazioetan egiten zuten irakasle lanari buruzko

278. MHZD. PS Bartzelona. 61. kutxa. 01. Txostena. BUA. Akta-liburua. 1937/01/20; 1937/01/24; BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/004; 0030/011.

279. MHZD. PS Bartzelona. 61. kutxa. 05. txostena.

informazioa ematen zuten. Eloísa Oleagak maistra izateagatik jasotzen zuten ordainsaria zehazten zuten eta euskara ondo zekiela azpimarratzen zuten²⁸⁰.

Eusko Jaurlaritzaren xedea euskara hedatzea eta bere erabilera areagotzea zen, eta Euskadiko hizkuntza ofizial bezala, merezi zuten ospea eman zion bizitza politikoan eta sozialean. Horregatik, Justizia eta Kultura Sailak Euskarako Irakasleen Elkargo Ofiziala sortu zuten, Kultura Kontseiluko Hizkuntza eta Literaturako atalaren menpean zegoena (EHAA, 1937/04/23). Dena den, Busturiko irakasleek Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Kultura Sailera bidaltzen zituzten txostenetan udalerriko haurren artean euskararen erabilera gaztelania gailentzen zuela azaltzen zen²⁸¹. Hala ere, eskolak gaztelaniaz ematen zirela dirudi, eta ez euskaraz.

Tropa matxinoek Bizkaiko kostaldean zehar aurrera egiten zutenez, hainbat ikastetxe tropa errepublikanoen kuartel bezala erabili behar izan ziren²⁸², Bizkaiko Defentsa Batzar Orokorreko Irakaskuntzarako Komisariotzak lehenengo, eta Euzko Jaurlaritzako Defentsa Sailak gero, helburu pedagogikoak zituzten eraikinak babestu zituzten arren. 1936ko abuztuaren 28an, Irakaskuntzarako Komisariotzak Bizkaiko Gobernu Zibilarren Idazkaritza Orokorriari ohar bat bidali zion non Bizkaiko Defentsa Batzarri eskolak prest eduki zitzaizkien, eta alderdi politikoei, Defentsa Batzarrei eta Bizkaiko udalei beharrezkoak ziren aginduak bidali zitzaizkien (*El Liberal*, 1936/08/30). Defentsa Sailaren agindu batean, Eusko Jaurlaritza eratu ondoren, jarduketa ildo horri jarraitu zitzaion:

“Aunque las necesidades de la guerra sean hoy día aquellas que reclaman atención preferente y el máximo esfuerzo del Gobierno Vasco, no puede tampoco olvidar el Consejero que suscribe que hay otras de altísimo interés, tales como la de la cultura pública, la instrucción gratuita de los hijos del pueblo, a cuyas necesidades es preciso acudir en la medida y forma en que esto pueda hacerse, sin olvidar la atención preferente a aquellos servicios que, como decimos, son primordiales en la hora actual”.

Modu honetan, Defentsa kontseilariaren aginduz, Defentsa Saileko ezein indar edo agintarik konfiskatu ahal izango zituen eraikin pedagogikoak Justizia eta Kultura kontseilariaren txostenik gabe, behin betiko erabakiko zuena. Gainera, ordura arte egindako eskolen konfiskazioak berrikusi ziren, eta behin betiko ebatzi ziren Justizia eta Kulturako kontseilariak txostena eman ondoren (EHAA, 1937/01/09). Hala ere, Defentsa Saileko xedapen hauek ez zioten kezka larrikeria eragin Justizia eta Kultura Sailari, biak errebindikatu baitzituen hilabete bat geroago (EHAA, 1937/02/16). Errealitatea da gerraren eskakizunek irakaskuntza funtzioak zituzten eraikinak konfiskatzera eraman zutela lehen unetik. Horregatik, Lehen Irakaskuntzako zuzendari orokorrak ikastetxeetan zegoen eskola-materiala konfiskatzeko ahalmena eskuratu zuten 1937ko martxoan (EHAA, 1937/03/11).

280. MHZD. PS Bartzelona. 61. kutxa. 07. txostena.

281. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/011.

282. Tropa errepublikanoen ostatu eman zieten Busturiko zentro pedagogikoak hurrengoak izan ziren: Altamirako nesken eskola nazionala, Altamirako mutilen eskola nazionala, Parezikiko auzoko eskola mistoa eta San Bartolomeko probintzia-eskola mistoa, Larrazabale ere deitua.

Azkenik, herritarrek bizitzen hasten ziren egoera berriengatik, (ekialdeko frontetik etsaia hurbiltzen ari zen eta tropa errepublikanoei ostatu eman behar zitzairen Okaren ezkerreko ibaiertzean, matxinoen informazioen arabera), lehen irakaskuntza eten egin zen Busturiko ikastetxeetan 1937ko apirilaren 9an²⁸³.

4.5.3. Bonbardaketak

Busturiko elizateko bost auzoetatik batek ere ez zuen abiazio matxinoaren bonbardaketa zuzena jasan gerra osoan, baina ez zen gauza bera gertatu bere udal-mugartean edo Busturialdeko eskualdean, bertan historiako aire-eraso ezagunenetako bat topa baitezakegu: Gernika. Eskualdeko beste hirigune batzuk ere (Ea, Elantxobe, Ereño, Forua, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Murueta, Nabarniz edo Sukarrieta) ez zituzten abiazioaren bonbardaketak jasan, hainbat historiagileren ikerketa baten arabera (Agirrezakuenaga eta Urquijo (zuz.), 2015: 246).

Hala ere,

“Herriko jenteak bonbardaketetatik babesteko gordelekuak bilatu edo eregi ebazan, frontea Busturira heldu aurretik. Etxetik hur eukiezan herritarrek, moroziluek erabili ebezan babeslekuntzat: Xpen, San Bartolomen, Infernukoerrek... Etxe batzuetan zuloak be egin ebezan; baita horma bitarteko edo korta barruko gordelekuak be. Batu dogunaren arabera, gerrateagaz lotutako beharrak erasoetatik babesteko neurriak hartzera mugatu ziran” (Paia, 2011: 213).

Busturiko emakume batek, Miren Uriaguereca, hurrengoa gogoratzen zuen:

“Cuando llegó la guerra a Busturia recuerdo que pasaban los aviones bajos, bajos. Nuestra madre nos cogía y nos llevaba por detrás del asilo Arroategi. Había una entrada donde solíamos llevar a las vacas a beber agua. Nos sacaba de casa y nos escondía tapándonos con ramas y zarzas. Y nos decía que quietos y callados hasta que pasaran los aviones. Luego cuando parecía que había pasado todo volvíamos a Mosuene” (Egjzábal eta Serrano, 2017: 179).

1937ko martxoaren 31n hasi zen Bizkaia gaineko erasoak Bizkaiko hiriguneei aire-eraso gehiago ekarri zien, batez ere Bilbo Handiko eskualdekoei, atzealde errepublikanoan kemena murriztea eta intendentzia zerbitzuak desantolatzea bilatzen baitzuten. Eraso honekin Gipuzkoako frontea hautsi zen, Intxortetan posizio errepublikanoak gainezkatu zirenean, eta matxinoek arrakasta hau berehala aprobetxatu zuten Busturialdera apirilean iritsiz. “Flechas Negras” italiarrek kostaldetik aurrera egiten zuten bitartean, hauen hegoaldean Nafarroako IV. Brigadak jarduten zuen. Ekintza hauen inguruan 1937ko apirilaren 26an Alemaniako eta Italiako abiazioak Gernika-Lumo, Arratzu, Ajangiz eta Errigoiti bonbardatu zituen; apirilaren 27an Gautegiz-Arteaga eta 30ean Muxika (Agirrezakuenaga eta Urquijo (zuz.), 2015: 246). Gernikaren bonbardaketan izandako hildako eta zaurituen kopuruak eztabaida historiografikoaren gai dira oraindik. Errigoitiko bonbardaketan 5 hildako eta 13 zauritu, Ajangizen 30 hildako eta 12 zauritu eta Arratzun hildako 1 eta zauritu 1 egon zirela esaten zuen dokumentu berean, Gernikako

283. BFAAH. Udala Atala. Busturia 0030/020.

bonbardaketan 1.654 hildako eta 889 zauritu egon zirela esaten da²⁸⁴. Baina ikerketa zorrotz baten ondoren, *Gernikazarrak* adierazten du hildakoak berrehun inguru izan zirela.

1937ko apirilaren 26an, 10:00etan, Tomás Torrezuri Guezuraga hiltzen zen Gernika eta Lumoko Ospitalean, baina ez zuen zerikusirik heriotza horrek egun horretan Gernikan izandako bonbardaketarekin, heriotzaren kausa Urkiolako frontean jasandako zauriak izan baitziren. Hurrengo egunean, 1937ko apirilaren 27an, gorpua ehortzi zuten Busturiko hilerrian²⁸⁵. Dena den, badirudi bai hil zela Busturiko auzotar bat Gernikako bonbardaketan²⁸⁶. Juan Cruz Uriarte Ozamiz, nekazaria, Kortezubin jaioa, eta ziur aski Gernikara joan zena azokan parte hartzera, hara joaten baitziren inguruko baserritar guztiak produktuak erostera eta saltzera. Italia eta Alemaniako abiazioaren ekintza honetan Florentina Uribe Undabarrena hil zen ere, Muxikan jaioa eta 46 urtekoa, Busturiko auzotarra eta Muxikan jaioa zen Juan Antonio Uribe Undabarrenaren arreba (Egaña, 1999: 295).

“Artoa ereiteko sasoia zan, eta soloetatik morozilo eta gordelekuetara jo eben arin-arinka familia osoek. Gernikan feria-eguna zan, eta sufrimenturik latzena etxekoren bat Gernikara joanda eukien familietan bizi izan eben. Egun horretan Gernikan egozan busturiarren arten bonbardaketan hildako batzuk subertau ziran; esaterako, Juan Cruz Uriarte Ozamiz gizon zaharra. Beste hainbat desagerturik egon zan egunetan, eta jazotakoa jakin ahala, bildur ikaragarria zabaldu zan inguru osoko herrietan. Arin jakin zan, bonbetatik librau ziran herritar asko ametrallauta hil ebezala ehiza-hegazkinek, basorantza igeska joiazala. Bide bazterrak hildakoz beterik ei egozan. Gauean, egun horretan, Gernikak sutan jarraitzen eban: Gernikeko gorrittasune asmetan zan Busturutuk, dana sue” (Paia, 2005: 213).

Patricio Escobalek adierazten du nola Julio Mendieta Lezamizek, Busturiko sendagileak,

“gogoratzen zuen nola abiazio naziak Durango eta Gernikako elizetan ehunaka fededun hil zituen, eta gai horri buruz ari ginela, Victor Hugoren *Miserableak* obran Konbentzioaren gizonak apezpikuari esan zizkion hitzak aipatu zituen: “Negar egitera bagoaz, apezpiku jauna, guztiengatik egin dezagun”. Fue entonces cuando por primera vez oí al médico hablar del bombardeo de Guernica por los alemanes, en el cual figuraban muchas víctimas de su distrito médico. En veinticinco kilómetros a la redonda raro es el caserío que no guardó luto. El día y la hora fueron bien elegidos para la matanza. El mercado estaba en su apogeo cuando aparecieron las primeras olas de aviones que, sucesivamente, dejaron el pueblo de Guernica hecho un montón de escombros humeantes. No había allí tropas ni objetivo militar alguno para justificar tal acción y la única finalidad era sembrar el terror en la retaguardia. Terminada la destrucción completa de la villa, aún volvieron los aviones alemanes para ametrallar casi al ras del suelo las masas de campesinos, mujeres y niños en su mayoría, que huían despavoridos por las carreteras de salida del pueblo” (Escobal, 2005: 292).

Busturiko emakume batek horrela gogoratzen zuen:

284. EAH-AHE. Eusko Jauriaritzako Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saileko Funtsa. Idazkaritza Orokorra (Bilbo,artzelona, Paris). Idazkaritza. 52. paper-sorta. 07 paper-sorta zenbakia.

285. BEHA-AHEB. Parrokiaren funtsa (BUSTURIA-Axpe). Ama Birjiñaren Jasokundea. 0380/001-00.

286. Egizábal Suarez, M. (2017, martxoa). Busturiko emakumeak frankismoaren aurrean. Ezkutuko erresistentziak. Altamirako Kultur Etxean aurkeztutako txostena, Busturian.

“Gernika erre ebenean, entzun egiten zan hemendik?. Bai. Esango’tzut nik: geure etze aurretik begire, selan etor sien Condor, orrek abioiek, pixu itzelagas, iru te bost, estaitx semat ixen sien... Ointxe be ikusten nau, olan baju-baju. Amen Antzolatik artu’bien da au errekatu dxuteko Gernikera, ortixik, olan baju baju, buuu indde. Da asmaten sien gure etzetik, bun-bunbun... Da gero gabas ikuste(n) san a argitxasune, sue! A ixen san otzikerie sartzeko modukue. Ikustekoa san a!” (Paia, 2011: 213-214).

Félix Bilbao Apraiz, *Txeken*, San Bartolomeko auzotik bonbardaketaren lekuko zuzena izan zen:

“Recuerdo el bombardeo de Gernika, como los aviones venían de Gernika y pasaban por aquí de tres en tres, daban la vuelta y hacia Gernika, bombas y bombas,... Nosotros estábamos en casa, y un hombre, no sé quién era, nos sacó y nos dijo que nos escondiésemos en la huerta, entre las habas. Nunca se me olvidará, nos dijo que mordiésemos un palo para que no se nos rompiesen los tímpanos... así estuvimos aquel día, asustados, escondidos hasta que pasó” (Egizábal eta Serrano, 2017: 124).

Carmele Llantada Arrospide auzotarrak ere gogoratzen du, berak bonbardaketa San Kristobaletik ikusi zuen:

“El bombardeo lo vi donde están las casas de Astilleros. Venía un hombre a cortar el pelo al burro, y ahí estábamos,... pasó un avión, y luego los italianos, y en “Matoduerne” se le cayó la leche hirviendo a mi madre y se quemó mi hermana pequeña” (Egizábal eta Serrano, 2017: 124).

Patricio Escobalen beraren hitzetan:

“el bombardeo de Guernica era una obsesión en ellos y raro era en el curso de una conversación un poco larga, que no hicieran alusiones sobre el asunto” (Escobal, 2005: 296).

Nafarroako IV. Brigadaren tropak 1937ko apirilaren 29an sartu ziren Gernikan, Ajangiz okupatu eta gero. Bere aldetik, “Flechas Negras” italiarrak itsasaldeko herriak konkistatzen joan ziren (Ispaster, Ea, Ibarrangelu eta Elantxobe), gero barnealdeko Arteaga, Gernikaraino heldu ziren arte. Apirilaren 30ean “Flechas Negras” italiarrek, Bermeotik Gernikara zihoan errepideaz baliatuz, Oka itsasadarraren ezkerreko ertzetik aurrera egin zuten Bermeoraino. Gernikako konkista eta italiarren aurrerapen bizkorren zioz indar errepublikanoek Sollubeko altueretara atzera egin behar izan zuten, Foruan, Muruetan, Busturian, Sukarrietan, Mundakan eta Bermeon betetzen zituzten posizioak “Flechas Negras” italiarrak hegoaldetik erasotzeko moduan baitzeuden. Herri hauek guztiak abiazio edo artilleria errepublikanoaren xede militar bihur zitezkeen, baina bai abiazioak bai artilleriak Euskal Herrian errepublikanoen alde izan zuten paper murriztua zela eta, ez zen aire- edo artilleria-ekintzarik egon herri hauen gainean. Bonbardaketa italiar eta alemaniarrek Bermeo eta inguruetan 1937ko maiatzaren 1, 2, 3, eta 7an, eta Mundakan 1937ko maiatzaren 3an (Agirreazkuenaga eta Urquijo (zuz.), 2015: 246), Sollube mendia irabazteko batailen ondorioz izan ziren.

Zauritutako hainbat gudari eta miliziano, Gernikako bonbardaketako biktimekin batera, Bermeoko Gerrako Biktimen Zoroetxe-Ospitalera eraman zituzten. Ospitale honetan borroka-neurosia zuten soldaduak zaintzen zituzten, batez ere. Gerran jasandako zauri batzuk okerrera egiten zuten eta zoramen edo asaldura larri bilakatzen ziren. Zoroetxe honetan ere kartzeletatik edo espetxe-itsasontzietatik ekarri zituzten eskuindar ugari

sartu zituzten. Sollube mendia irabazteko batailaren lehen egunetan Zoroetxea inprobisatutako ospitale bezala erabili zen, eta erizain batzuk osasun-laguntza ematen zuten bitartean, beste batzuk 1937ko apirilaren 30ean herria uzten zuten. Dirudienez, euskal tropak Bermeo setiatu zutenean Zoroetxean hil zirenak artilleria errepublikanoko jaurti-gaiek eraikinean eta inguruetan jo zutelako izan zen. Jesús Olarra Orberen kasua izan zen, 25 urteko Busturiko auzotarra. Ziur aski errepublikanoek zoroetxetik ebakuatu ez zuten pertsona bat zen, eta 1937ko maiatzaren 2an zoroetxean jo zuen obus batek hil zuen (Egaña, 1999: 291). Matxinoen aldeko prentsak gertaera hau aprobetxatu zuen esateko bonbardaketak herria utzi nahi izan ez zutenen aurkako errepresalia izan zela, eta ez eraikinean sendo babestu zen garnizio baten kontrako erasoak:

“Por lo demás, Bermeo está intacto, fuera de algunos cañonazos que el enemigo dirigió a la población civil como castigo por no haberle acompañado en su fuga. De esos cañonazos solo produjeron víctimas los que dieron en nuestro hospital de sangre” (Vargas Alonso, 2007: 81, 87, 97, 368).

Bizkaiaren gaineko erasoaren inguruan abiazio matxinoak bonbardaketa ugari egin zituen Bilbo Handiko herrietan. 1937ko apirilaren 9an hegazkin matxinoek bonbak jaurti zituzten Basaurin, Galdakaon, Erletxen, Bedian, Lemoan, Arratiako haranean, Gorbeiaiko inguruko mendietan eta Zornotzan. *La Tarde* egunkariak hurrengo adierazten zuen:

“no han perseguido ningún objetivo bélico determinado. El radio de acción que dejamos indicado perseguido por la tan numerosa como siniestra escuadrilla lo prueba cumplidamente. Una era la finalidad: sembrar el desconcierto en nuestra retaguardia y de paso demostrar su cobardía y predisposición para el crimen” (*La Tarde*, 1937/04/09).

Bonben deskarga batek Ciriaco Elorza Yurrebasoren etxean jo zuen Olabarrin, Galdakaoko auzo txiki batean, eta bonbaren talkagatik etxea erori zen eta hildako batzuk egon ziren. Hildako horien artean José Izaguirre Orbe zegoen, Galdakaoko auzotarra, María Concepción Izaguirre Orbe eta Gregorio Izaguirre Orbe Busturiko herritarren neba eta anaia zena (Egaña, 1999: 287)²⁸⁷. Busturikoa zen José Andicoechea Uriarteren anaia ere, Diego Andicoechea Uriarte, 70 urtekoa eta Fruizeko auzotarra, hil egin zen kainokada batek bere Mungiaiko baserria jo zuenean 1937ko martxoaren 16an (Egaña, 1999: 278).

Sollubeko batailara itzuliz, Busturiko herria hornidurarako gune logistikoa izan zen indar matxinoentzat mendigunearen hegoaldean eta borroken erdian geratu zen:

“Kanalán kainoia ipini eben Frankoren indarrek eta Busturia tirokatzen hasi ziran. Etxe batzuk bando bien arteko suaren erdian harrapauta geratu ziran. Bala galduen une larria izan zan etxe horreetakoentzat. Leihotik sartzen ziran balak, sabaiek su hartzen eben, ezinegon handiko egunak izan ziran. Gauzez argirik ez isiotzeko agintzen eutsien gudariek herritarrei. Horregaz lotuta jazoera bitxia jazo zan. Neskazahar frankotar batek bere etxeko torrean Espainako bandera ipinia eban argi eta guzti. Baina horregaz jaritsi eban gauza bakarra, Kanalitik etozan kainokadak bere etxera zuzentzea izan zan. Lurreko erasoaldi handi horrerit sasotik laguntzen Cervera gerraontzia egoan. Goierritarrek ondo akorduan daukiez euren

287. MHZD. PS Madril. 1564. paper-sorta. 23. Txostena. AHPV (Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala). Kanpainan Hildakoen Erregistro Nagusiaren Dokumentu-funtsa (Bilbao, 1936-1937). ESPV AHPV JUSTIZIA 282/2/104.

etxeetara jaurtiten ebazan obusak. Paixarreta etxean, esaterako, zazpi obus jausi ziran. Lekukoen esanean, suberte handia euki ei eben herritar askok, hainbat obus leher egin barik geratu zirelako. Azken urteotan lehertu bako obus gehiago agertu dira Busturian eta inguruetan. Horrez ganera, bonbardari eta ehiza-hegazkinek euren behar ankerra egiteari ekiten eutsien” (Paia, 2005: 214).

Borrokek granadez, jaurtigaiez eta abarrez beteta utzi zuten eremu osoa, eta egun ezbeharrak eta nahigabeak sortzen dituzte oraindik herriko jendearen artean:

“Halanda guzti be, lekukoek, irribarrea ezpanetan dabela kontau deuskuez, aurkitutako esku-bonba eta obusakaz zelango biherrak egiten ebezan. Esaterako, obusak azkonarrak hiltzeko erabilten ebezan mutiko bardingoek. Azkonarraren había topau eta bertara sartzen eben obusa errama siku eta orlekaz batera. Sua emoten eutsien aba redo orbeleu eta ingurutik arin alde egin. Handil denporagarrenera obusak eztanda egin eta azkonarrak eta euren había birrinduta gerazen ei ziran” (Paia, 2005: 2017).

Patricio Escobalek ere horri buruz zera kontatzen zuen:

“la aparición de un torpedo en la playa cercana tenía excitado al pueblo de Pedernales. Esperaban un equipo de expertos de Bilbao para examinarlo y proceder a transportarlo al cercano fuerte del cabo Machichaco. El suceso fue también allí objeto de comentarios” (Escobal, 2005: 313).

Beraz, ez zen arraroa borrokak izan eta hiru hilabete geroago hurrek batailaren hondakinekin jolastea, gazteenen artean ohikoa zena, edo hondakin horiek garaiako txartar-biltzaile ugarien bizibidea izatea. Baina jolas arriskutsuek ondorioak dituzte, eta 1937ko ekainaren 8an José Alberto Unamuno Aguirre, Busturian jaiotako hiru urte eta erdiko haurra, hil egin zen Sukarrietan, “(a) consecuencia de unas heridas causadas por bomba de mano”, bonba maneiatu zuelako jostailua zelakoan²⁸⁸. José Alberto Unamunoren ilobak, José María Unamuno, hurrengo kontatzen du gertaera hari buruz:

“Nuestra familia vivía en el caserío Urkizuri al lado de la playa de San Antonio, nunca se ha hablado de este tema porque fue muy doloroso. Mi abuela se encontraba en lo que actualmente es la playa de San Antonio. Debía ser frecuente que batallones de italianos acampasen en la zona, muchas veces debían de tirar bombas a las bandadas de mubles, para jugar o para comérseles, no sé..., había armamento que dejaban abandonado. Cuando se dirigían a comer al llegar al caserío nuestra abuela echó en falta a Alberto. Cuando salió a buscarle, antes de salir de casa oyeron una explosión y ya se temieron lo peor, encontraron el cuerpo destrozado de Alberto tendría unos seis años. Fue un suceso del que nunca se recuperarían” (Egizábal y Serrano, 2017: 243).

Hilabete bat geroago, 1937ko uztailaren 8an, Abel Orbe Hormaeche, 10 urtekoa eta Busturian jaioa, hil zen Altamirako elizaren atarian “(por) traumatismo por explosión de bomba”, esku-granada bat maneiatzen zuen bitartean. Bere ondoan Ángel Ugalde Monasterio zegoen, 9 urtekoa eta Brooklynen jaioa (New York), ezbeharraren hurrengo egunean bere Altamirako egoitzan hil zena esku-bonba berak eragin zizkion zauriengatik²⁸⁹. Busturiko auzotar batek hurrengo kontatzen zuen heriotza hauei buruz:

288. BEHA-AHEB. Parrokiaren funtsa (BUSTURIA-Axpe). Ama Birjiñaren Jasokundea. 0380/001-00.

289. BEHA-AHEB. Parrokiaren funtsa (BUSTURIA-Axpe). Ama Birjiñaren Jasokundea. 0380/001-00; BUA. Heriotzen liburua. 233.

“El hermano de Vidal (Orbe), como si sería una pelota y quedaron incrustados sus restos en el elizpe. Orbe de Alarbin, era el niño. Una granada sería, la tiró contra la pared y allí se quedaron” (Egizábal eta Serrano, 2017: 243).

Azkenik, dirudienez emakume bakar bat hil zen gerra zela eta. María Teresa Rosario Arteche Echezuria busturiarra Miguel Castells Adriaesensekin ezkondu zen, Valentzian jaioa. María Teresaren senarraren lanbideak Teruelera bizitzera eraman zituen. Teruelen zeudela gerrak alde matxinoan harrapatu zituen eta harrapatuta geratu ziren, bi seme-alabekin, Teruelen barruan errepublikanoek setiatu zutenean. Teresak tuberkulosia zuen, baina fronteko egoerak, zeinaren etengabeko bonbardaketek gauean babesaren bila joatera behartzen zituzten, baliabide mediko, janari eta uraren faltak, zero azpiko tenperaturek eta abarrek bere gaixotasuna hilgarri bihurtu zuten eta hiria setiatua zegoen bitartean hil egin zen. Bera alabari, Teresa Castells Artecheri, bonba baten leherketak zauri larriak eragin zizkion, baina zorionez bizirik atera zen eta Valentziara ihes egin zuen, non laguntza medikoa jaso zuen (Egizábal eta Serrano, 2017: 244). Baliteke Pedro Asla Guerecahevarría baldintza berdinetan hiltzea (Paia, 2005: 216).

4.5.3.1. Euzkadi hegazkinaren aldeko kanpaina

Jendea abiazio matxinoa Busturian ikustearen beldur zen, baina Gernikako bonbardaketa eta Sollubeko bataila gertatu zirenean hasi zen abiazioa behin eta berriz agertzen elizatearen gainean. Hala ere, Busturiko biztanleak etsaiaren aire-nagusitasunak zekartzan arriskuez jabe ziren, nagusitasun hori Bilboko metropolialdearen gaineko aire-erasoek erakusten baitzuten. Eusko Jaurlaritzako Herrizaintza Sailak “Euzkadi” hegazkina egiteko dirua biltzeko deia egin zuen. Bermeon, adibidez, jaialdi artistiko-literario-musikal bat egin zen 1937ko urtarrilean eta San Mamesen futbol partiduak egin ziren kanpaina honen barruan, baina ezer gutxi dakigu enpresa honi buruz Busturiko elizatean.

1937ko martxoaren 21ean Busturiko Udalak zirkular bat jaso zuela esan zuen, bertan kanpaina horretan bildutako zenbatekoa zein zen galdetzen ziotelarik. Bistan, bere premia adierazi ondoren, Udalak aho batez erabaki zuen udal-funtseko 50 pezetekin laguntzea, dohain gisa, eta udaltzainak Axpeko eta Altamirako Batzokietan xede horretarako zabalduetako harpidetzetan bildutako zenbatekoak iker zitzaizkien²⁹⁰. Herriko harpidedunen artean Demetrio Lecumberri Inchaurraga dugu, Eusko Jaurlaritzak zabalduetako harpidetza honetan 50 pezeta jarri zuena²⁹¹.

4.5.4. Fronte isildua: merkataritza-ontzidia

1936ko uztaileko altxamenduak lurralde nazionala bitan zatitu zuen: ezarritako gobernuarekin leialak zirenen zonaldea eta aurkakoen zonaldea. Zatiketa honen ondorio ekonomiko zuzena merkatu nazionala eta nazioartekoa erortzea izan zen. Euskal herritarrek eta industriek lehen merkatu nazionalak hornitzen zituen lehengaiak inportatu behar izan zituzten. Hala ere, matxinoek oso azkar konkistatu zuten Gipuzkoa eta, ondorioz,

290. BUA. Akta-liburua. 1937/03/21.

291. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

Frantziako muga galdu zen. Hasiera-hasieratik Espainiako Errepublikarekin leiala zen iparraldea guztiz isolatuta geratu zen penintsulako lurralde errepublikanotik, Frantzia zeharkatuz lurretik kontaktatzeko aukera guztiak galdu baitziren. Orduan itsaso bidezko kontaktuan jarri zen arreta. Dena den, itsas trafikoak George Steerek azaldutako arazoak izan zituen: itsas-armada matxinoak Euskal Herriari egindako blokeoa eta Esku Ez Hartzeko Batzordea (Steer, 2002).

Frantziak proposatu zuen Esku Ez Hartzeko Batzordea osatzea eta Erresuma Batua alde agertu zen Esku Ez Hartzeko Hitzarmena betetzearren. Hitzarmen horretara estatu europar demokrata eta totalitarioak atxiki ziren 1936ko udan. Hala ere, estatu totalitarioek Espainiako gerran parte hartu zuten eta estatu demokratikoez ez zituzten hitzarmena modu eraginkorrean betetzera behartu. 1936ko abuztuaren amaieran, Europako 27 estatuek (Andorra, Liechtenstein, Monako, Suitza eta Vatikanoa izan ezik) esku ez hartzea erabaki zuten: “*abstenerse rigurosamente de toda injerencia, directa o indirecta, en los asuntos internos de ese país*”, eta debekatu “*la exportación, reexportación y el tránsito a España, posesiones españolas o zona española de Marruecos, de toda clase de armas, municiones y material de guerra*”. Esku Ez Hartzeko Batzordeak oztupoak jarri zizkien Espainiako Errepublikaren aldekoak ziren potentzia demokratikoen arteko atzerriko esportazioei eta Euskal Herrikoak berezkoak zirenei, siderurgia eta metalurgia gerrako materialtzat jotzen baitziren eta bere esportazioa gerrako kontrabandotzat jo zitekeen. Azkenik, Esku Ez Hartzeko Batzordean eztabaidatu zuten matxinoek itsasoan egindako blokeoa aintzatetsiko zuten ala ez (Pardo San Gil, 2008).

Martxoko lehen bi asteetan merkataritza-trafiko leialaren egoera kezagarria izaten hasi zen itsas-armada matxinoak egiten zituen etengabeko harrapaketegatik, itsasoko komunikazioak moztu nahi zituztelako euren ahalmenen barruan. Bizkaiaren eraso hasi zenean, Emilio Mola jeneralak, Euzkadiko Gudontzidi Laguntzaileko zenbait itsasontzietan Matxitxakoko borrokan eragindako kalteen ondoren, kostalde kantauriarrean, Bilbon batez ere, itsas blokeo eraginkor bat ezartzeari ekin zion alemaniarren eta italiarren laguntzarekin. Politika hau 1937ko apirilaren 1ean hasi zen, *España* korazatuaren bonbardaketarekin kostalde santandertarrean, Santoña eta Laredo artean. Gero Islareseko norabidean jarraitu zuen Bizkaia eta Kantabria artean kostaldeko ibilbidetik ematen ziren lurreko komunikazioak mozteko helburuarekin. 1937ko apirilaren 19an, *Seven Seas Spray* itsasontzia Bilbon sartzean blokeoa guztiz eraginkorra ez zela frogatu zen, baina matxinoek euskal kostaldeko kontrolak egiten jarraitu zuten (Pardo San Gil, 2008; Romaña Arteaga, 1985). José Alberto Aguirrek adierazten zuen nola *lciar* itsasontzian egon zen, burdin meaz kargatuta, itsas blokeo matxinoarengatik irten ezinik; azkenean itsasontzia Galdameseko kaian ainguratu behar izan zuten²⁹².

Mugimendu iraultzailea gertatu zenean, euskal merkataritza-ontzidia geldituta zegoen 1936ko maiatzeko greba baten ondorioz. Zailtasun handiz zenbait ontziren mobilizazioa lortu zen, baina ez zen tripulaztaileen artean diziplina berriz ezartzea lortu, greba hasi zenetik hautsita baitzegoen. Itsasontzietan zeuden batzordeek zegoen sindikatuaren agjntea bakarrik obeditzen edo onartzen zuten. José Fradua Basteguieta busturiarrak, *Fernando L. Ibarra* ontziaren 2. ofiziala, kontaktatzen zuen nola tripulazioa Gijongo portuan Bartzelonara eramateko ikatza kargatzeari uko egin zion, ontziaren egoera txarra aitzakia

292. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 610/41 kausa.

bezala jarriz; eta azkenean ez zuten agindua bete²⁹³. Halaber, itsasontziek bandera sindikalak jasotzen zituzten bandera nazionalaren orde. Zerbitzuak guztiz deseginda geratu ziren, karabineroak Otxandioko frontera bidali baitzituzten, eta beste alde batetik, itsas agintarien funtzioak ekimen pribatuen eskuetan geratu ziren, hau da, faxismoari aurre egin zioten alderdi politiko edo sindikalen eskuetan. Itsasontziak ez ziren konfiskatu.

Eusko Jaurlaritza eratu zenean, Industria Sailak Merkataritza Ontzidiaren Zuzendaritza sortu zuen, eta funtzionario gisa Benito Guerequeta Landa eta Casimiro Guerricaechevarría Calzada busturiarrak sartu ziren²⁹⁴. Itsas Zuzendaritza honek itsasontzietan agintea eta diziplina berriz ezartzea bilatu zuen, bai eta ontzi batzuk zeuden egoera anormalari legezketasuna ematea ere, hauen jabeak matxinoen alde jarri baitziren. Horretarako, itsasontzietako batzordeen jarduera murrizten hasi zen eta barruko ordeneko gatazketan esku hartu, kapitainaren eta ofizialen agintea murriztu gabe. Halaber, banderen erabilera arautu egin zen, eta nazioarteko aintzatespena ez zuten bandera guztiak debekatu ziren, ikurrina salbu. Neurri hauekin batera Itsas Polizia sortu zen ordena zaintzeko eta legeak betearazteko, portuetan zein itsasertzetan. Poliki-poliki ordena eta diziplina leheneratu ziren, batzuetan tripulatzaileak kargugabetuz edo espetxeraturaz, edo beste batzuetan, kapitainak zuzenean izendatuz edo erakunde sindikalen papera murriztuz. Itsas zerbitzu zibil guztiak erakunde eskudun batean zentralizatzea ere funtsezko helburua izan zen. Baina Eusko Jaurlaritzako sailek euren artean zituzten gatazken ondorioz, bakoitzak bere eskumenekoak ziren jarduerak eskuratu nahi zituelako, ezin izan zen zerbitzuen erabateko zentralizazioa lortu.

Frantziarekin eta gainerako itsasbazter kantauriarrekin itsasoz egiten ziren komunikazio-zerbitzuak Merkataritza Ontzidiko Zuzendaritzan zentralizatu nahi izan zirenean, talde politiko edo sindikalak Defentsa Batzarretik kontrolatzen zituen txalupa motoredunak emateren aurka agertu ziren. Zerbitzuak azkenean zentralizatu ziren, eta posta eta bidaiariak, osasun edo gerra materialarekin batera, garraiatzeko zerbitzu ia erregularra lortu zen Baionarekin. Itsasontzien zamalanak ere nazionalizatzeko asmoa egon zen, gobernu zentralak Sevillako "Ibarra y Compañía" enpresa konfiskatu baitzuen, eta Eusko Jaurlaritza, eskumen zentral honen ordezkaria zenez, enpresak Bilbon zituen ondasunak administratzeko ahalmenaz jabetu zen eta zamalanak egiteko portuan zeukan material guztia erabili nahi izan zuen, baina azkenean neurria ezerezean geratu zen Merkataritza eta Hornidura Sailak kontra egin zuelako.

Greben gatazka konpondu zenean, Eusko Jaurlaritzak itsasontzien nabigazioan jarri zuen interesa, eta ontzi-jabeak eta tripulatzaileak legezketasun errepublikanoaren menpe jartzera behartu zituen. Baina ontzi-jabe batzuk matxinoen eremuan zeuden eta, gainera, matxinoak begikoak zituztela agerikoa zen. Une horretan Eusko Jaurlaritzak hurrengo itsasontziak konfiskatzea agindu zuen: *Sebastián*, *Delfina*, *Lolita Artaza*, *Cementos Rezola N.º 1*, *Cementos Rezola N.º 2* eta *José María*. *Lloyd's Register*aren aurrean jasota geratu zen eta itsasontziak gobernuak zuzenean ustiatu zituen. Bilboko portua bere ohiko jarduerara itzuli zen: itsasontzi nazionalak eta atzerrikoak Ingalaterrara joaten ziren burdin mearekin eta ikatzarekin itzultzen ziren; beste batzuk Mediterraneo

293. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1080/40 kausa.

294. EAH-AHE. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Industria, Itsaso eta Arrantza Saileko funtsa. Idazkaritza Orokorra. Idazkaritza. 770. paper-sorta. 09 paper-sorta zenbakia.

espainiarrera bidaiak egiten zituzten produktuak trukatzeko; eta beste batzuk Asturiasera joaten ziren burdin mearekin gero ikatzarekin itzultzeko.

Beste hainbaten artean, atzerriarekin zerbitzu ia erregularra eman zuten itsasontzi nazionalak hurrengoak izan ziren: *Sebastián*, *Delfina*, *Lolita Artaza*, *Garbi*, *Urbi*, *Cabro Prior*, *Briquetas Zorroza*, *Galea*, *Arxatxu* eta *Mar Rojo*. 1937ko urrira arte, Francisco Javier Oleaga Aranguren busturiarrak, “Naviera Vascongada” konpainiakoa, hainbat bidaiak egin zituen *Cobetas* baporean artoa Argentinatik eta ikatza Ingalaterratik ekar-tzen²⁹⁵. *Cristina* baporean, konpainia berekoa, Crispín Olano Ugartek hainbat bidaiak egin zituen Ingalaterra eta Holandara burdin mea eramaten eta ikatza itzultzen²⁹⁶. “Altos Hornos S. A.” enpresaren ontzietan ere Ingalaterrarekin merkataritza harremanak izan zituzten hainbat busturiar joan ziren. José Fradua Basteguieta, pilotu eta kapitain tituluak zituen itsas ofiziala, *Conde Abasolo* ontzian egon zen 3. ofizial bezala; ontzi honetan Bilbotik Newcastle (Ingalaterra) joan zen 1936ko urriaren 18an burdin meako kargamentu batekin eta ikatzarekin itzuli zen. Bilboko portura heldu zenean *Marqués de Urquijo* baporearen kapitain izendatu zuten, mea garraiatzeko ontzi bat²⁹⁷. Egoera berean egon zen Hermeregildo Gandarias Albizua, *Lolita Artaza* ontzian, “Artaza y Compañía” enpresakoa, 1935eko martotik aurrera sukaldari bezala egon zena, eta bost bidaiak egin zituen Espainiatik Ingalaterrara eta zazpi Ingalaterratik Frantziara²⁹⁸. Ignacio María Ugalde Ugaldek ere, *Iciar* baporean, “Naviera Guipuzcoana” enpresarena, Bilbotik Ingalaterrarako hiru bidaiak egitea lortu zuen, Itsas Zuriko portuetatik gerrako materiala eta hornigaiak garraiatzeaz gain²⁹⁹. Azkenik, Saínz de Inchausteguioren *Delfina* baporea aipatuko dugu, non Santiago Larreta Iturbek nabigatzen zuen³⁰⁰.

Espainiako alde mediterraneoa zehar egindako bidaiak zegoenez, *Cabo Creux*, *Arnabal Mendi* eta *Amboto Mendi* itsasontziak nabarmendu ziren, eta Kantauri itsasoan, batez ere Asturiasen, itsasontzi ugari. Adibidez, *Mari Elena* baporean nabigatzen zuen 1936ko uztailaren 18tik Gregorio Esquíbel Retolaza busturiarrak. Itsasontzi honek ikatza garraiatzea lortu zuen zenbait bidaietan Bilbo eta Gijonen artean 1937ko apirilera arte, ontzia Bilbon amarratuta geratu zenean³⁰¹. “Sota y Aznar” enpresaren *Amboto Mendi* itsasontzi motoredunean ere Anastasio Aberasturi Garmendiak nabigatu zuen zerbitzari bezala. 1936ko uztailaren 18tik bandera errepublikanoarekin nabigatu zuen eta gero Euzko Jaurlaritzak kontrolatu zuen 1937ko abuztura arte³⁰². “Altos Hornos S. A.” enpresaren *Victor Chavarri* ontzian Tomás Zuazua Porturas busturiarrak nabigatu zuen labe-zain bezala. Ingalaterrara burdina eramateaz gain, ontzi honek Avilésetik Tarragonaraino

295. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1402/40 kausa.

296. AGMG (Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra). BDST. 2051. kutxa. 103730. txostena.

297. MHZD. PS Bilbao. 202. kutxa. 01. txostena; ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1080/40 kausa.

298. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 414/41; 0/40 kausa.

299. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 171/40 kausa.

300. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 3/41 kausa.

301. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 594/41 kausa.

302. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1066/38 kausa. Araba.

ikatzak garraiatu zuen noizbait³⁰³. “Transmediterránea” enpresaren *Escolano* itsasontzian Juan Elesgaray Asteinzak Levanteko itsasertzetik nabigatu zuen era guztietako karga eramanez, 1939ko urtarrila edo otsailera arte³⁰⁴.

Eusko Jaurlaritzak ontzi-jabe guztiak bilduko zituen erakunde bat asmatu zuen arrazoizko ustiapen batera heltzeko, Eusko Jaurlaritza bera zuzendaria eta buru izanda. Helburua lortu ez zen arren, ontzi-jabeek pleitengatik lortzen zituzten atzerriko zenbait dibiseta esku hartzea lortu zen eta baita Londresen Bilboko ontzi-konpainia guztientzat agentzia bakarra ezartzea ere. Agentzia honen langileek Euzko Jaurlaritzak izendatu zituen eta euskal lurralde errepublikanoa galdu arte funtzionatu zuen.

Merkatu askean egindako pleitamenduetatik aparte, Espainiako Errepublikako Gobernu Zentralak enkargatu zituen itsasontzi batzuk prestatu ziren Ameriketara eta Mediterraneora bidaia bereziak egiteko, eta aipa ditzakegu, besteak beste, *Ibaiz*, *Arno-Mendi*, *Marte* eta *Mar Cantábrico*, *Cabo Creux*, *Amboto-Mendi*, *Axpe-Mendi* eta *Aurora*. Hauen artean ere *Aya-Mendi* itsasontzia dugu, Bilbo-Leningrado (gaurko San Petersburgo) eta Leningrado-Bilbo bidaia 21 egunetan egin zuena. Félix Lequerica Elesgaray eta Tomás Zuazua Porturas *Axpe Mendian* nabigatzen ari ziren Euzko Jaurlaritzak ebakuatutako fondo ekonomikoak, urrea, gordailuak eta artxiboak ontzira igotzeko agindua jaso zutenean La Rochelle (Francia) portuan. Haraino *Seabank* itsasontzi ingelesak eraman izan zituen, baina gero gobernu frantsesak konfiskatu zituen³⁰⁵. Juan Elesgaray Asteinzak “Ibarra” konpainiako *Motomar* ontzian egin zuen bidaia aipatu behar dugu ere. Ontziak Mexikon zegoen enbaxadore espainiarrak erositako txitxirio kargamentu bat eraman zuen Mexikotik Euskal Herrira, eta enbaxadore hori *Mar Cantábrico* ontziak garraiatutako gerrarako materiala prestatu zuen pertsona bera izan zen³⁰⁶.

1937ko ekainaren 19an gutxi gora behera, Bilbo dagoeneko konkistatuta zegoenean, Europako iparraldeko zenbait portutan zeuden zortzi itsasontzi Leningradoko portura bidaltzea (*Baurdo*, *Cabo Prior*, *Iciar*, *Manutxu*, *Mar Rojo* eta abar) eta euskal ontzidi osoa Santanderrera ebakuatzea agindu zen. Itsasontziak Leningradoko portura heldu ziren arren, han egurrearekin kargatu zituzten Ipar Atlantikoko zenbait portuetara eramateko, eta ez gerrako materialarekin Kantauri itsasoko portu errepublikanoetara eramateko. Itsasontzi horien artean *Delfina* zegoen, Santiago Larreta Iturbe busturiarra zegoen ontzia³⁰⁷. Ignacio María Ugalde Ugalde, une hartan “Naviera Guipuzcoana” konpainiaren *Iciar* baporean ari zena, gogoratzen zuen nola SESBeraino nabigatzeko agindua jaso zuten. 1937ko uztailaren 25ean ontzia Leningradon porturatu zen, eta han urte bereko abendura arte geratu zen, Anberesera joan zenean kamioi eta kotoizko kargamentu batekin³⁰⁸. José Fradua Basteguieta kapitainaren *Marqués de Urquijo* ontziak,

303. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 574/41 kausa; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 11214/39 kausa. Bizkaia.

304. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 919/41 kausa.

305. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1214/39 kausa. Bizkaia.

306. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 919/41 kausa.

307. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 3/41 kausa.

308. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 171/40 kausa.

aldiz, 3.000 errefuxiatuekin (gehienak emakumeak eta haurrak) Santanderrera joateko agindua jaso zuen, 1937ko ekainean tropa matxinoek Bilbo konkistatu baino lehen³⁰⁹.

Bilbo erori eta ontzidi osoa Santanderrera ebakuatu ondoren, Eusko Jaurlaritzak Errepublikako gobernuari iradoki zion euskal portuen matrikula zuten ontziak konfiska zitzen, matxinoek Nazioarteko Itsas Auzitegiei guztien jabetza eska zezaten beldur baitzen, Bilbo tropa matxinoek konkistatu zutela argudiatu baitzezaketen. Tropa matxinoek Santanderrerantz aurrera egiten zuten eta hiria erortzear zegoenez, Bilbotik ebakuatu ziren ontzietako batzuk Ingalaterra eta Holandara bidaliak izan ziren mineralarekin, eta beste batzuk lastan portu frantses eta ingelesetara.

Baina atzerriko portuetan ontzi-jabe matxinoak bahiturak egiten ari ziren, eta hori saihesteko neurri bat izan zen ahalik eta ontzi gehien sobietar portuetara bidaltzea. Baina elementu matxinoak oso bizkorak izan ziren bahiturak egiten. Ingalaterran, adibidez, matxinoek erakunde bat ezarri zuten ontzien tripulatazaileak erakartzeko, batez ere ofizialak, marinelen familiak jadanik lurralde konkistatuan zeudela esanez. Matxinoek borrazko baliabide bezala erabiltzen zituzten familiak, askotan emaitza onekin. Anastasio Aberasturi Garmendia busturiarraren arabera, *Amboto Mendi* ontzi motoreduna Pasaiara (Gipuzkoa) heldu zen 1937ko abuztuaren 24an, Anberesen ia tripulazio osoa bando matxinora igaro ondoren³¹⁰. Beste busturiar batek, Hermeregildo Gandarias Albizua, kontatzen zuen nola kapitaina eta 1. makinista Cardiffen (Ingalaterra) geratu ziren, bera beste tripulatazaileekin batera Port Boutik Bartzelonaraino joan ziren bitartean, une hartan errepublikanoen kontrolpean baitzegoen³¹¹.

Lan honek azaltzen du nola gatazkak ondorioak izan zituen Busturian jaio edo Busturiko auzotarrak zirenengan, frontearen zerbitzatu zein ez. Kantauri itsasoari dagokionez, ontzi asko itsasontzi matxinoek harrapatu zituzten, Alemaniako ontzidiaren hainbat elementuen laguntzarekin, dagoeneko azaldu den itsas blokeoaren ondorio zuzen bezala. Harrapatutako ontzien artean *Fernando L. de Ibarra* zegoen. 1937ko otsailaren 19ko goizean Gijonerantz irten ziren *Gipuzkoa* eta *Bizkaya* bouak ikaztegiak betetzeko helburuarekin, ikatz faltagatik Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailea ezin baitzen itsasora maiz irten. Otsailaren 25ean, goizean, bi bouak kostaldea zaintzeko zerbitzu bat egin zuten. *Bizkayak España* eta *Velasco* ikustea lortu zuen, beraz, bouei portura itzultzea agindu zitzaien. Baina eguna lanbrotzua zen eta ontzi matxinoek ez zuten boua ikusi. Ordu batzuk geroago, *Velasco* destruktoreak *Fernando L. Ibarra* ontziarekin egin zuen topo, eta Galea lurmuturretik 22 miliara harrapatu zuen Ingalaterrara mearekin zihoanean (Pardo San Gil, 2008: 91). Hala ere, *Fernando L. Ibarra* zihoazen bi busturiarrak 1936ko uztailaren 18an, José Fradua Basteguieta eta José Alberto Aguirre, ez zituen *Velasco* atxilotu harrapaketa baino lehen lehorreratu egin baitziren. Zorte bera izan zuen Tomás Zuazúa Porturas labezainak, "Altos Hornos S. A." enpresaren *Victor Chavarri* ontzian ontziratuta zegoena. *Victor Chavarri* ontzia Ingalaterratik Bilbora lastan itzultzen zenean, burdin mea deskargatu ondoren, *Velasco* destruktore matxinoak harrapatu zuen 1936ko abenduaren 30ean, eta matxinoek kontrolatutako eremura eskoltatuta eramanean zuen. Baina zorionez busturiarra ez zegoen ontziratuta, 1936ko abenduaren 7an

309. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 1080/40 kausa.

310. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1066/38 kausa. Araba.

311. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 414/41; 0/40 kausa.

Ingalaterran lehorreratu baitzen burdin mea garraiatzeko egin zuen bidaia batean³¹². *Lolita Artaza* ontzian Hermeregildo Gandarias Albizua zihoan *España* korazatuak harra-patzetik hurbil egon zenean³¹³.

Baina ez zuten denek zorte bera izan. Santiago Gondra Cigorraga, eltzezaina, ezkongabea, 22 urtekoa, Busturian jaioa, *Udondo* baporean zegoen ontzia harrapatu eta Ferrolera eraman zutenean bere 40 tripulatzaile eta bi bidaiariekin 1936ko irailaren 12an. Itsasontziak ikatza zeraman Valentziatik Gijonera *Tritón* bou matxinoak Gijongo iparraldean harrapatu zuenean. *Udondo* baporearen atxiloketa eta erregistroa egin zen, “*por fuerzas de marinería y carabineros, sin consecuencia*”. Hasieran atxilotuak Ribadeora eraman zituzten eta Coruñaako agintariek fusilatuak izan zitezten agindu zuten, dokumentatuko akusazio, epaiketa edo epairik gabe. Denak fusilatu zituzten 1936ko irailaren 25, 26 eta 27an, aurretiko epaiketarik gabe, Ferrolen ondoan dagoen Serantes herriko hilerrian. Hamalau pertsonako hiru taldeak egin zituzten eta eguneko talde bat exekutatu zuten, kapitaina, ofizialak, kontramaisua eta makinistak lehenengoak izanik. Hilerriko sarreratik hurbil, parrokiaren hilerri-hesiaren kontra, heriotza zuten zain. Hesiaren beste aldean, lurrian hondeatutako hobi komun bat haien zain zegoen.

“Fueron codenados a muerte sin consejo de guerra según la propuesta del auditor de la Base, el vicealmirante Indalecio Núñez. Rendueles (*sic*) no tuvo empacho en proponer la muerte de todos los embarcados”.

Aberriari traizioa egiteagatik (“*por traidores a la patria*”) erail zituzten, eta, gainera, zermatzaten dirua eta bitxiak kendu zizkieten: 9.421 pezeta, 20 libera esterlina, urrezko uzta bat eta eratzun bat, zilarrezko diru-zorro bat, eta urrezko bi kate urrezko eta zilarrezko medailekin, hurrenez hurren³¹⁴. Azkenik, esan behar dugu marinela busturiar guztiek ez zutela gerra ekintzetan edo merkantzia garraioan jardun. Anberesetik itzuli zenean, Anastasio Aberasturi Garmendia *Cabo Cullera* ontziko tripulatzaile egin zen. Ontzi hau kartzela flotagarria izan Tarragonan 1939ko urtarrilaren 14an hegazkin matxinoek hondoratu zuten arte³¹⁵.

4.5.5. Itsas polizia

Santiago Aznar sozialistak zuzentzen zuen Industria Sailak ontzidi zibilari buruzko eskumenak eskuratu zituen. Industria Sailak Merkataritza Ontzidiko Zuzendaritza Orokorra sortu zuen, eta honek, berriz, Euskal Herriko Behin-behineko Itsas Polizia antolatu zuen. Euzkadiko Gudontzidi Laguntzailearekin zerikusirik ez zuen arren, polizia hau Euzko Jaurlaritzare kontrolpean zeuden portua eta kaiak zaintzeko beharretik sortu zen, ordura arte talde politikoek, sindikatuek edo Tokiko Defentsa Batzarrek bere gain hartu izan

312. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 574/41 kausa; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 11214/39 kausa. Bizkaia.

313. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 414/41; 0/40 kausa.

314. [Kontsulta data: 2017ko abenduak 6] Eskuragarri hemen: <http://koldossebastian.wixsite.com/notas-de-historia/single-post/2016/01/03/El-Udondo-sin-Memoria>.

315. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1066/38 kausa. Araba.

zituzten eginkizunak. Gainera, merkantzien lehorreratzeak ikuskatzeaz eta portuetan sarrerak eta irteerak kontrolatzeaz arduratu zen.

Itsas Polizien postuak zeuden euskal portu guztietan, txikienetan ere: Bilbo, Zorrotza-Olabeaga, Lutxana-Barakaldo, Portugalete, Santurtzi, Areeta-Algorta, Plentzia, Armintza, Bakio, Bermeo, Laida, Elantxobe, Ea edo Lekeitio. Poliziak zaintza-zerbitzuak egiten zituen lurlean zein itsasoan, eta txalupa motoredunak zituen itsasoan zerbitzua emateko. Ez da busturiarrik aurkitu polizia honetan dagoen dokumentazioan, baina ziur aski baten bat egongo zen herriaren marinela-izaera zela eta.

Itsas Poliziaren eginkizunak izan ziren portuetan ordena mantentzea, merkantzien trafikoa kontrolatzea, itsasontzietan zama-lanak egitea premia-zein edo pertsonen ebakuzioan laguntzea. Dena den, beste zerbitzu batzuk ere eman zituzten: arrantza-ontziei edo beste ontzi motoredunei eskolta egitea, itsaspeko mina batek eragindako hondorapen batetik bizirik atera zirenak erreskatatzea edo etsaien alderako ihesak zapuztea (Pardo San Gil, 2008: 65).

4.5.6. Errazionamendua

Aurreko kapituluan azaldu den bezala, matxinada militarra gertatu zenean Errepublikaren legezko gobernuarekin iparraldean leialak izan ziren probintziak Santander (gaurko Kantabria), Bizkaia eta Gipuzkoa izan ziren, leiala zen penintsulako lurraldetik isolatuta geratu zirenak. Penintsulako eremu populatuena eta industria gehien zuena izan arren, nekazaritza ekoizpen txiki eta garrantzi gutxi eremua zen ere. Une horretan herritarrek janaria pilatzeko beharra sentitu zuten, egun txarrak etortzekotan despentsa hutsik izatearen beldur baitziren. Administrazio militarren arazoari, larriena zena gatazka gerra bihurtu baitzen, garrantzi handiko beste arazo bat gehitu zitzaion: hornikuntza. Lehen unetik euskal agintariak merkataritza pribatuarekiko errespetua ezartzen saiatu ziren, kolektibizazio, esku-hartze eta konfiskazio arazoak saihestuz, estatuko beste alde batzuetan bezala ez gertatzeko, Asturias edo Santanderren bezala, adibidez.

Asturiasek eta Santanderrek euskal lurraldeek baino nekazaritza-baliabide gehiago eta populazio gutxiago zuten arren, izakinen faltaren arazoa agertzen hasi zen. Horregatik, bi probintzien agintariak Euskadiri proposatu zitoten behar komunei erantzun zion erakunde bat sortzea. Espainiako iparraldeko probintzien hornikuntza arautzeko helburuarekin, Bizkaiko Defentsa Batzarrak eta Gipuzkoa, Santander eta Asturiaseko agintari zibilek onartu eta hitzartu ondoren, etsai komun bat edukitzeagatik elkarren artean zituzten solidaritate loturak zirela eta, 1936ko irailaren 10ean Espainiako Iparraldea Hornitzeko Batzorde Araugilea sortu zen. Bere eginkizuna merkantziak eskuratzea zen, eremu errepublikanoan zein atzerriko merkatuetan. Berehalakoa erabaki zen gaitasun profesional handiko merkatariek eta erosketa-agentek Espainiako eta atzerriko merkatuetara irten zitezkeen, behar orokorrak behar bezala asetzeko ezinbestekoak ziren erosketak itundu zituzten. Euskal ordezkariak bizkorrak eta eraginkorrak izan ziren abuztuan, bere kargu hartu zuten misioa betetz, eta janariaren lehen bidalketak abuztuaren amaieran jaso ziren.

Batzordeak bete behar zuen eginkizunaren garrantzia, ardua eta premia zirela eta, beharrezko ordezkariak merkantziak eskuratzeke eremu eta merkatuetara joan ziren, erosketak egiteko 15.000.000 pezetako kapitala izanik, batzordea osatzen zuten

probintziek populazioaren arabera proportzionalki emandako zenbatekoa zena³¹⁶. Dagoeneko kontatu dugu abuztuan Bizkaiko Defentsa Batzarrak janari kopuru handi bat erosi zuela, baina Batzordearen merkataritza operaziotzat jo zen. Batzordeak erosketak egin ez ezik, produktuak ere banatu zituen, hurrengo kuoten arabera: %40 (Asturias), %25 (Bizkaia), %16 (Gipuzkoa) eta %19 (Santander)³¹⁷. Ehuneko hauek azken errola ofizialek adierazten zuten populazioaren dentsitatearen arabera ezarri ziren, eta aldatuz joan ziren gertaera militarrek garatzen ziren neurrian.

Alabaina, partzuergo honek ez zion abantailarik eman Euskadiri, beste bi eremu leialen beharrez bere baliabideekin eta antolaketarekin arduratu behar izan zuelako, gatazkak sortuz estatuaren esku-hartzeari buruzko irizpide politikoa desberdina zelako. Asturiasek eta Santanderrek iraultzaren babesean konfiskazioak egiten zituzten bitartean, euskal agintariak merkataritza pribatua eta bere jarduerak errespetatu zituzten, epai irmoan adierazitako delitu bat egiten ez bazen, orduan kalte-ordainik gabeko desjabetzea gerta litekeelako. Beharrezko erosketak egiteko, eskualde bakoitzak lehen aipatutako kuotaren arabera diru-ekarpen bat egin behar zuen, uneko egoera zailarengatik batzuk ekarpena egin ez zuten arren, eta hori oztopo bat izan zen iparraldeko edozein portura heldutako produktuen hornikuntza eta banaketa arautzeko. Horregatik, hitzartu egin zen Eusko Jaurilaritzak hornikuntzarako beharrezkoak ziren gauzen erosketak finantzatuko zituela eta gero Santanderrri edo Asturiasian hornitutako gaien fakturak pasatuko zizkiela, eta probintzia hauek astero jarraian eta transferentzia bidez fakturen zenbatekoa bidaltzeko konpromisoa hartu zuten. Baina betebeharrak hori ez zen bete.

Eusko Jaurilaritzaren lan autonomikoak aipatutako batzordea dekretu bidez desegitera eraman zuen 1936ko azaroaren 10ean eta beste erakunde bat sortu zuen: Euzkadi, Santander eta Asturiasen Hornikuntzarako Zuzendaritza Orokorra, Eusko Jaurilaritzako Merkataritza eta Hornikuntzako Sailera atxikita egongo zena. Gijongo Merkataritza eta Meatzeetako kontseilaria zen Amador Fernández izendatu zuten zuzendari orokorra. Hala ere, 1936ko otsailaren 18an honek bere dimisioa aurkeztu eta Euzko Jaurilaritzak onartu zuen arren, horigaien kopuru handiak erosten jarraitu zen eta beste probintzietan Bilboko portuko gordetegí frankoak zeuden produktu kopuru handiak bidali zitzaizkien (txitxirioak, bakailaoa...). Fernándezi kargua kendu ondoren, eta Euzkadi, Santander eta Asturiasen Hornikuntzarako Zuzendaritza Orokorra desegin ostean, Euzkadiko Merkataritzako Zuzendaritza Orokorra sortu zen. Euskadik bere barneko bizitzarako beharrezkoak ziren produktuak erosteko askatasuna berreskuratu arren eta, ondorioz, atzerrian egindako erosketak handituz, ondoko probintzietan merkantziak banatzen jarraitu zen Mola jeneralak Bizkaian eraso egin arte (1937ko martxoaren 31n).

Penintsularen iparraldea penintsula barruko nekazaritza eremuetatik isolatuta zegoen, eta eremu horiek euskal lurraldeak bizirik irauteko ezinbestekoak ziren gauzez hornitzen

316. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Merkataritza eta Hornikuntzako Saileko funtsa. Espainiako Iparraldeko Merkataritza eta Hornikuntzako Zuzendaritza Orokorra. Txostenak. 476. paper-sorta. 03 paper-sorta zenbakia.

317. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Merkataritza eta Hornikuntzako Saileko funtsa. Idazkaritza Orokorra. Txostenak. 475. paper-sorta. 11 paper-sorta zenbakia; EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Merkataritza eta Hornikuntzako Saileko funtsa. Espainiako Iparraldeko Merkataritza eta Hornikuntzako Zuzendaritza Orokorra. Txostenak. 476. paper-sorta. 03 paper-sorta zenbakia.

zutenez, itsasoko bidea bakarrik mantendu zen. Baina Kantauri itsasoa hasiera-hasieratik erreboltariak kontrolatzen zuten, zaintza estu bat jarri baitzuten bere uretan. Errepublikako Gobernuaren ontzidiaren zati handi bat Mediterraneoan geratu zenez altxamenduaren lehen unetik, blokeoaren zailtasun eta arriskuen kontra borrokatu behar izan zuten. Gero eta zorrotzagoa zen itsas blokeoaren zailtasunak gaindituz, 1936ko irailetik 1937ko ekainaren 19ra Bartzelonatik, Valentziatik, Alacantetik eta Anberesetik zetozen ontziak sartu ziren portuan. Baionan eta Bordelen ere partikularrek erosketak egin zituzten haien industria eta saltokietarako, Euzko Jaurlaritza bitartekari eta aseguraizailea izanik, industria eta gerraren beharretarako lehengaiak lortuz.

Egoera honetan merkataritza pribatuak erosketak ituntzeari utzi zion eta orduan administrazio publikoa bere baliabideekin gerraren beharrez eta herritar zibilen hornikuntzaz arduratzearen arazoa agertu zen. Adierazitako egoeragatik, Euzko Jaurlaritzak merkataritza pribatua babestu behar izan zuen aseguru-entitateek ez baitzuten bermerik ematen. Babespen kooperatiboko politika bat ezarri zen ere, jadanik existitzen ziren erakundeen pilaketaren bidez, eta merkataritza modu egokian moldatzen zen.

Gainera, bandera nazionala zuten ontziek nabigatzeko zituzten arazoak ikusita, administrazio autonomikoak itsasontzi ingelesak pleitatu zituen. Hauetako bapore gehienak Levantera zihoazen Bizkaiko kostaldetik abiatuta, eta itzuleran euskal esportazioko artikulua eramaten zizkieten eremuko industria errepublikanoetarako. Gainera, etengabe eta Bordele eta Baionako portuetatik, kostako eta zingo txikiko itsasontziak bidaltzen ziren azaltzen ziren beharrak asetzeko ezinbestekoak ziren artikulua garraiatzeko.

Errepublikako gobernu zentralak Euzkadikoari 60.000.000 pezetako kreditua eman zion, 15.000.000 pezeta hileko erabil zezaten, produktuak erosteko. Kredituaz Levanteko Saileko Ordezkaritza Zentrala (Valentzia) arduratu zen, eta aldi berean fondoak banatzen zizkien Bartzelonakoari eta Alacantekoari ordainketak egin zituzten. Batzutan eta Moneta Kontratazioaren Zentroarekin bat etorritik, atzerriko monetan ezartzen zituen fondoak, Frantzia eta Belgikan bereziki, non ordezkari komertzialek Espainian ez zeuden produktuak erosten zituzten: garia, kontserbako haragia, kafea, patatak, etab.³¹⁸

Janariak eskasak zirenez irailetik, hainbat herrialdetan gerra garaian aplikatutako errazionamendu sistemak aztertu ziren, eta errazionamendu-liburuxkak eta auzotar/errefuxiatuen erroldetan gauzatu ziren. Errazionamenduan bidegabekeriak izateagatik protestarik ez egotea bilatu zen. Kontuan hartu behar dugu gero eta txikiagoa zen azalera batean, Euzko Jaurlaritzako Merkataritza eta Hornikuntza Sailak 600.000 biztanleko populazioaren goseari aurre egin behar izan ziola, eta 130.000 soldadu baino gehiago izatera heldu zen armada batekin, Gizarte Laguntzako Sailak egunero eta dohainik jaten eman behar zituen pertsonak ahaztu gabe. Egunkariak eta aldizkariak erakusten digute errealtate hau Busturiko udalerrian ezarri zela 1936ko irailaren 23rako. Une horretan azukre, patata eta olio kopuruak ezarri zizkioten Busturiko populazioari, besteak beste (*El Noticiero Bilbaino*, 1936/09/23; 1936/09/30). Jakina, errazionamendu-liburuxkak eman ondoren berrikusi egin ziren iruzurra saihestearren, eta berrikuspen hori herriko zenbait auzotarrei egin zioten, hala nola Vicente Achirica Goyenechea,

318. Merkataritza eta Hornikuntzako Saileko funtsa. Espainiako Iparraldeko Merkataritza eta Hornikuntzako Zuzendaritza Orokorra. Txostenak. 476. paper-sorta. 03 paper-sorta zenbakia.

Cornelio Luzarraga Anasagasti, Regina Murgoitia Goicolea, Agapita Laucirica Aberasturi edo María Consuelo Olano (*El Noticiero Bilbaíno*, 1936/11/04; 1936/11/24; *La Tarde*, 1936/11/09; 1936/12/17; *El Liberal*, 1936/11/24; *Euzkadi Roja*, 1936/12/17; 1936/12/27; *Euzkadi*, 1936/12/27). Herrian egon zen errazionamenduaren beste adierazle bat Emeterio Verdes Achiricaren faktura baten onarpena da, ogiko 500 errazionamendu-liburuxka eta landa-errenten 200 orri adierazleengatik³¹⁹.

Produktuak banatzeko Eusko Jaurlaritzak handizkako biltegi-jabeak eta txikizkako merkataritza erabili zituen, banaketa erregularizatzeko eta herritar guztien bidezko partaidetza lortzeko, eta mantenurako oinarritzko artikuluetan 1936ko uztailaren 18a baino lehenagoko prezioei eusteko irizpidea mantendu zen. Uztailaren 22an Bilboko alkatez-ak premia biziko gaietan prezioak gehiegi igotzea debekatzen zuen dekretu bat eman zuen eta saltzeko tarifa normalak agerian jarri ziren saltokietan (Bacigalupe, 1997). Erabiltzen zuten mekanismoa hurrengo zen: Merkataritza eta Hornikuntza Sailak merkantziak erosi, ordaindu eta jasotzen zituen. Jaso eta gero, banaketa sailak berak gaitutako biltegi- eta saltzaileen jabetzan egingo zen hitzartzen zen. Saltzaile edo biltegi bakoitzak zegoen kontsumitzaile kuota bat zuen auzotarrek errazionamendua egiteko erroldatzean egiten zuten aukeraren arabera, eta produktuaren izakinen arabera saltokietatik pasatzen ziren jasotzera. Zentuzko ehuneko bat erreserbatzen zen handizkariarentzat eta beste bat txikizkariarentzat, gastuak konpentsa ziezaien, eta jendeari gobernua adierazitako prezioetan saltzen ziren produktuak. Prezio horiek 1936ko uztailaren 18a baino lehenagokoak ziren prezioen eta ordainsarien igoera saihesteko, lehen aipatu dudana bezala. Errazionamendua ez zen gosea bakarrik, baita saltoki hauen inguruan ilara luzeak egotea ere, batzuetan produkturik gabe itzultzeko. Jakina, Busturiko elizatea ez zen aparteko kasu bat eta herriko merkataritzak banaketa sistema honetan nola parte hartu zuen esaten duen dokumentu-froga bat dago. Dokumentuaren arabera Salustiano Arrospidek, zerealen biltegi-gabe batek, Busturiko Udalarari eskatzen zion Euzko Jaurlaritzako Merkataritza eta Hornikuntza Sailak banatzeko ezarri zuen pentsuen kopuru osoa edo partziala entregatzea³²⁰.

Sistema hau egonda ere, Vicente Talónek ezartzen du gosea nabaria izan zela 1936ko azarotik aurrera, eta biltegi ofizialen eskasia eta kanpotik zetozen bidalketen kolapsoa zela eta, merkatu beltz bat agertzen hasi zela prezioen oso igoera handiarekin gerra aurrekoekin alderatuta: dozena bat arrautza 12 pezetatik 15 pezetara, oilasko bat 20 pezeta inguru, bisigu kilo 9 pezeta, indaba kilo 2,25 pezetatik 5 pezetara, legatz kilo 22 pezeta... (Talón, 1988). Aparteko egoera honetan korritu ekonomikoa aurkitu zuten espekulatuak ugari. Hainbat agintari eta saltzailek egoera aprobetxatu zuten produktuak lortzeko biltegien arduradunak erosiz, horrela merkatu beltzean agintariak ezarritakoa baino askoz garestiago salduz. Pisu eta kopuru neurriak ere aldatu ziren, saltzaileek produktuen kopuru txiki batzuk eskura zituzten erosle inozoei xixkatuz. Espekulazioaren kontra egin arren, isun bidez, eta dirua izateagatik zoratzeko prezioak ordainduz gogoa berotzen zutenak, merkatu beltza nagusi zen euskal herritar gehienek bisigu ahogorria jaten eta su txikietan olioz edo gantzez lor zezaketen okela eskasa, zaldizkoa gehiengotan, kozinatzen zuten bitartean.

319. BUA. Akta-liburua. 1936/12/27.

320. BUA. Akta-liburua. 1936/12/13.

Euzko Jaurilaritza merkatu beltzari aurre egiten saiatu zen ekoizpen tokietan prezioak jaisten. Hori izan zen, adibidez, esnearen kasua Busturian (*El Liberal*, 1936/12/08; *El Nervión*, 1936/12/08; *El Noticiero Bilbaíno*, 1936/12/08; *Euzkadi*, 1936/12/08). Gainera, euskal gobernu autonomikoa pixkanaka elikagaien ekoizpen eta banaketa kontrolatuz joan zen. 1936ko azaroaren 15ean Busturiko Udalak Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Orokorren agindu bat tratatu zuen, azaroaren 6koa, eta galdeketa bat betetzeari buruzkoa zena: herriko baserrien izenak, bakoitzean bizi ziren pertsonen kopurua, jabetzakoak edo alokatzekoak ziren, bikoitzak edo soilak ziren, superlaboreak, fruta-arboletarako utzitako azalera, baso-azalera, azalera osoa; errenta, jabetzaren balioa, eta oilo, untxi, txerri, behi, idi, zezen, txahal, ardi, asto, mando, zaldi eta ahuntzen kopurua. Udalak jakin zuenean, galdeketa denbora laburrean betetzeko erabakia hartu zen, ahalik eta zehatzen eta udalerrian zeuden datu estatistikoekin edo herriko auzotarrak emandakoekin, bando eta pregoiez deituak izango zirenak beharrezkoa balitz³²¹.

Eleuterio Basterrechea Lamiquiz auzotarra, elizatean zerbitzu armatuak ematen zituena, honetaz arduratu zen:

“llevar una estadística de las reses del pueblo que pasasen de setenta kilos. Que, en una ocasión, Pablo Elesgaray Arostegui, que tenía tres chalas de peso superior a setenta kilos y que por tanto según las órdenes del Frente Popular, debía venderlas al mercado o a intendencia, le pidió el favor al declarante que dijeran que en vez de noventa kilos como tenían, hiciesen ver que tenían setenta y efectivamente le hicieron ese favor, quedándose él en poder de las chalas en vez de venderlas”.

Herritar berak hurrengoa egin zuen: “*se prestó en el asunto de la requisición de una vaca de leche que fue obligado (Felipe Uriona) a llevar a Intendencia Militar de Guernica*”. Eleuterioren bidezko esku-hartzeari esker “*consiguió recuperar dicha vaca*”³²². Gernikako Intendentzia Militarri dagokionez, 1937ko urtarrilaren 29ko ilunabarrean elizateko udal-hiltegitik abelburu bat eta egun berean hildako eta Cipriano Garmendiaren “taulan” zegoen beste abelburu bat konfiskatzera heldu zen, biak Gernikara eramanez, 260 kilo guztira³²³. Azkenik, badirudi Eleuterio Basterrechea janariaren erraziamenduaz arduratu zela ere:

“tuvo la atención de dejar pasar incontables veces, toda clase de alimentos, que pasaban de la tasa; para sostenimiento de la familia de la viuda de Basagoiti (residente en Algorta, de filiación derechista) puesto que no les era suficiente a quince personas el racionamiento fijado”³²⁴.

1937ko urtarrilean ere, Merkataritza eta Hornikuntza Sailaren agindu batek udal-mugar-tean hornikuntzari buruz azaltzen ziren arazo guztiak konpontzera behartzen zien udalei, hornikuntzak oztopatzen zituzten norberekeria partikularrak eragozteko zaintza eta energia gehiago eskatuz eta inork aparteko egoera aprobetxa ez zezan ematen ziren arau

321. BUA. Akta-liburua. 1936/11/15.

322. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

323. BUA. Akta-liburua. 1937/02/07.

324. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bizkaia.

guztiak betetzera behartuz. Horretarako, 1937ko otsailaren 9an Gernikako Udalak bere barrutiko udalei deitu zien “Gernikako Barrutiko Udalen Batzorde Iraunkorra” osatzeko, gunea Gernikan izango zuena eta hurrengo helburuarekin: *“la defensa de la riqueza, agrícola, ganadera y forestal del Distrito, vigilando toda extralimitación legal y procurando coordinar los intereses del productor y consumidor”*. Gainera, batu behar zituen:

“el esfuerzo de todos los Ayuntamientos del Distrito, en orden al control, circulación y tasas, en los mercados y mercadillos de los artículos alimenticios, procurando que sea unánime el criterio de todos ellos, en la interpretación de las ordenes de la Superioridad, así como las medidas para su mayor cumplimiento. (...), tendrá la facultad para dirigirse a las autoridades respectivas superiores, tanto en lo que a tasas y precios se refiere, como para adoptar cuantas medidas se estimen convenientes. (...) Tendrá la Comisión Permanente la facultad para adoptar las medidas que crea necesarias así como para la organización de la vigilancia necesaria con relación a la circulación de todo artículo alimenticio dando órdenes a los agentes encargados al efecto, (...) A la repetida Comisión Permanente incumbe el fomento de mercados y mercadillos, dando las mayores facilidades para la concurrencia de los mismos, a sus productores, así mismo entre sus funciones, la vigilancia del estado sanitario de los artículos alimenticios y la denuncia a las autoridades superiores de cuantas infracciones sean descubiertas. (...) Propondrá e impondrá sanciones por medio de los Sres. Alcaldes a los infractores de las disposiciones vigentes y a los que incumplieran los acuerdos de la misma. (...) Gestionará y laborará por la obtención de semillas, ganados etc. e informará para su mejor y más rápido aprovechamiento. (...) La Comisión actuará independientemente y sin merma alguna de las facultades concedidas a los Sres. Alcaldes y Ayuntamientos por las leyes vigentes”³²⁵.

Gernikako Barrutiko Udalen Batzorde Iraunkorrek egindako bileretara Carmelo Llantada, Busturiko hornikuntza ordezkaria, edo Busturiko alkatea joan ziren³²⁶. Udalek nekazaritza emaitzen kontrol zuzena edukiko zuten eta euren udal-mugarteko nekazariei agintzen zieten normaltasunez joan zitezela azoketara produktuak eskaintzera, zati bat familiaren beharretarako edo etxeko kontsumorako gordez. Astero hartutako erabakiak betetzen zituen nekazarien bulegoari egindakoa jakinarazi behar zioten, eta ezarritako arauen bat behin baino gehiagotan hausten bazuten errazionamendu-liburuxkak eta pentsuak kendu ahal zizkieten. Adibidez, azokan ezin zituzten produktuak edozein preziotan saldu, prezioak ezarrita baitzeuden hurrengo produktueterako: azak, porruak, azenarioak, azaloreak, bertako tipulak, kanpoko tipulak, mahaspasak, hurrak, kakahueteak, kalabazak, zerbak, alkatxofak, baratxuriak, baratxuri-txirikorda bikoitza, urazak, jatorrizko bertako gazta freskoa, arto-ogia (taloa), arrautzak, esne freskoa, oilo biziak, oilo hilak, tomate-oilaskoak edo erretzeko oilaskoak. Oilo hilak %20ko gainprezioarekin sal zitezkeen eta 4 kilo baino gehiagoko oilo bizietan 0,2 pezeta kiloko errekarua jar zitekeen³²⁷. Banaketari buruzko neurri hauez gain, Busturiko Udalak beste neurri batzuk ere erabaki zituen, adibidez, behi- eta txerri-azienda herriko dendetan saltzea debekatu zuten kontsumoa udal-jurisdikzioaren barruan egiteko ez bazen³²⁸.

325. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0056/030; BUA. Akta-liburua. 1937/03/07.

326. BUA. Akta-liburua. 1937/04/04.

327. BUA. Akta-liburua. 1937/04/18.

328. BUA. Akta-liburua. 1937/02/07; 1937/01/10.

Ekoizpena eta banaketa kontrolatu arren, merkatu beltza existitzeak hiriko jendeak baserritarrengana joatea ekarri zuen, haiei ez baitzitzaien barazkiak, esnea edo okela inoiz falta. Modu honetan herritarrek prezio oso altuak ordaintzen zituzten baserritarrei eskatzen zizkieten produktuen truke, Bilboko Bankuak egindako diruari uko eginez eta "lehengo" dirua eskatuz, zilarrezko txanponak eskatzen ez bazuten (Talón, 1988). Baserritarrek ez zuten merkeegi saltzeko joerarik eta harriak bezalakoak ziren negoziatzeko orduan, benetako "judu" bihurtuz (*Euzkadi Roja*, 1936/09/18).

"Demasiado "amor" al caserío el que se observa en estos últimos tiempos. Hay gente que jadea por los vericuetos y las estradas llevada de este afán subido de arrimarse a los caseríos, por lejanos que estén. Claro que es un amor que no le impide dejar al caserío despojado de cuantas cosas puedan contribuir a hacerle amable. Léase tocino, cecina, lomo, etc. Los caseiros, que se dan cuenta de la profundidad de este cariño, procuran darle ocasión de manifestarse en toda su hondura y de sacrificarse. Y a veces se exceden en estas "fasilidades" a la hora de hablar de precios. ¡"Correspondencia" nada más!" (*Euzkadi*, 1937/02/07).

Alabaina, negoziazio garaiak ziren. Busturiko Udalak Sukarrietako Chacharramendi Hoteleko errefuxiatuak uraz hornitzen zituen eta hornidura hori ere negoziatu zen. Egoera zaila izan arren, "*con la aglomeración de refugiados de la capital vizcaína y de la provincia hermana de Guipúzcoa*", Udalak erabaki zuen Busturiko Sustapen Batzordea Sukarrietako udaletxera joan zedin hurrengo negoziatzeko:

"precio y condiciones en que pudiera convenirse para la cesión de parte del agua de este abastecimiento, solicitada por aquel Ayuntamiento, por las anormales circunstancias porque atravesamos, y en vista del peligro en que se ve de la salud pública de dicho pueblo por la escasez de agua y aglomeración de refugiados"³²⁹.

1937ko apirilaren erdirako, Bilbo erori baino bi hilabete lehenago, egoera hain lazarria zen ezen esne baso bat lortzeko bi ziurtagiri mediko behar ziren, eta hamabi egunetan 500 gramo ogi, arroz kilo bat, 250 gramo azukre eta 500 gramo txixirio banatzen ziren pertsonako (Talón, 1988). Bestalde, Brusiloff bezalako batzuk errazionamendu arinago bat erakusten dute: ogia (100 gramo eguneko eta pertsonako), txixirioak (250-750 gramo hilabeteko eta pertsonako), arroza (500-1.500 gramo hilabeteko eta pertsonako), azukrea (0-100 gramo hilabeteko eta pertsonako) edo patatak (0-500 gramo hilabeteko eta pertsonako). Batzutan, oso gutxitan, 150 gramo ogi banatu ziren pertsonako. Askotan herria ogirik gabe geratu zen bost, hamar eta 15 egun segidan, kalitate txarreko ordezeko bat egin arren ahalik eta gehien aurrezteko. Modu honetan ogi beltza etorri zen, oso mingotsa, baina osasuntsua (Aizpuru, 2009; Bacigalupe, 1997). Gorago aipatutako elikagaiak kontuan harturik, arroza eta txixirioak oinarrizko janariak izan zirela ondoriozta dezakegu, batzutan, gutxitan, dilistak, indabak edo arraina gehitzen ziren arren.

4.5.7. Gerrako industriak

Merkatu nazional eta atzerrikoaren erorketa; lehengaien falta ekoizpena jarraitzeko; gerraren beharretara mugatutako produkzio bat, eta ondorioz kanpoko merkatura

329. BUA. Akta-liburua. 1936/11/29; 1936/12/02.

zabaltzeko ezintasuna; deialdien mobilizazio bat; gerra-produkzioa aurrera eramateko pertsonal gaituak ez izatea eta abiazio matxinoaren etengabeko aireko *raidak* euskal lurralde errepublikanoaren industriak jasan zituen arazoetako batzuk izan ziren.

Giza pertsonalaren beharrak armadaren berrantolaketan milizien boluntariotzarekin bukatu zuen eta derrigorrezko errekrutatzea ezarri zen deialdien bidez. Mobilizazio honek eragin sakona izan zuen industrian, batez ere 1936ko urriaren 18an Euzko Jaurlaritzako dekretu batek militarizatutako tailer eta lantegien industria-produkzioan, bere langileak mobilizatuak izaten zirela ikusten baitzuten. Lantegietan eta tailerretan pertsonaleko kide zirenak aipatutako dekretuan militarizatuak eta mobilizatuak izan ziren arren, Defentsa Sailak industria-sarean parte hartzen zuten banakoak soldadutzara joan zitezkeen eskatzen jarraitzen zuen. Gainera, sare honek kalteak jasan zituen jada langileak borroka fronteetara edo teknikariak edo administratiboak eremu matxinora joan zirenean. Gerrarako industrian parte hartu zuen busturiar bat Felipe Bilbao Zabala izan zen, baina ez dakigu ezer gehiago bertan egindako jardueri buruz. Dena den, José Izaguirre Zuazo topatu dut, ELA/PCren afiliatua, Victoriano Izaguirre Zuazo auzotarraren anaia, Urkixo Zumarkaleko gerra tailerretan langile bezala zebilena. Hirugarren anai batek, Félix Izaguirre Zuazo, zerbitzuak ematen zituen frontearen miliziano bezala Ezker Errepublikano alderdiaren *Zabalbide* batailoian³³⁰. Benito Zaldúa Retolazak gerrarako industria errepublikanoan parte hartu zuela dokumentatu dut ere. Murtziako Armamentu idazkariordeztan egon zen Terueleko frontearen zauritua izan ondoren 83. Brigada Mistoan³³¹.

Aparteko egoera hau zela eta, badirudi euskal emakumeak paper garrantzitsua izan zuela euskal industri ekoizpenean. Sindikatuek eta lantegien gainerako langileek industria mobilizatuko eta zibileko lanpostuak bete behar zituzten, adineko pertsonak eta, neurri txikiago batean, emakumeak kontuan hartuz metalurgia- edo armamentu-industriarako. Dena den, emakumeen gerra zerbitzuak jantzigintza-tailerretan izan ziren ia eksklusiboki. Udako kolpe militarren ondoren heldu zen lehenengo neguan, euskal egunkarietan ikus daiteke alderdi politikoei jakinaren gainean jartzen zutela Espainiako Errepublika frontearen defendatzen zutenek berotzeko arropa beharko. Arazo hau konpontzeko alderdi politiko eta sindikatu ezberdinen emakumeen sailak antolatu zituzten, miliziano eta gudarietako arropa egiteko lehen jantzigintza-tailerrak sortuz. Busturiko emakume bat gutxienez, María Soledad Gorriño Echevarría maistra, Busturiko auzotarra, 1936ko urriaren 19an honelako zerbitzuak ematen zegoen: “*confección de jersey con destino a los milicianos que luchan por la República y recaudando fondos con destino a los Huérfanos de los padres que caen en las actuales luchas*”³³². Euzko Jaurlaritza heldu zenean, eta Industria mobilizatuak sortu ondoren, jantzigintza tailerrak Defentsa Sailak kontrolatu zituen.

1937ko maiatzean tailer hauen produkzioa ez zen oso handia: “(no era muy) *grande debido a los múltiples accidentes que han ocurrido durante este mes: paralización de talleres por traslados, bombardeos de fábricas, etc.*”. Hala ere, produkzio apal batekin, badirudi jostunek ez zituztela jantziak Defentsa Sailak agintzen zuen bezala egiten. Jostunek, Industria Mobilizatuetakoz Zuzendaritza Orokorrek ezarritako produkzio patroiari

330. MHZD. PS Bilbao. 65. karpeta. 139. folioa; PS Santander L. 3685. paper-sorta. 22. folioa.

331. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 133/42 kausa.

332. MHZD. PS Santander CU. 01. kutxa. 03. txostena.

jarraitu gabe, egiten zekizkiten prakak, zakutoak edo jertseak egiten zituzten joskintzan adituak zirelako. Euskal frontea matxinoen eskuetan erori zenean, Busturian Bilboko Intendentzia Militarreko jantzien tailerren sukurtsal bat kokatu zen. Tailer honen eta bere sukurtsalen helburua zen armada matxinorako uniformeak egitea. Sukurtsalak tokiko emakume buruzagi batek kontrolatzen zituen eta emakume langileek toki komun batean lan egiten zuten edo materiala jasotzen zuten jantziak etxean egiteko (*Gaceta del Norte*: 1937/10/09).

4.6. Gerra Busturialdera heltzen da: Sollube mendiaren konkista Añetutik igaroz

Gipuzkoako frontea haustean, Intxortetan zeuden posizio errepublikanoak gaindituak izan eta gero, matxinoek lehen arrakasta horri probetxua atera zioten eta eremu handi bat okupatu zuten. Apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren egunean, Nafarroako IV. Brigadak aurrerapen bizkor bat egin zuen. Ermua eta Eibartik, egun berean militarki okupatuak izan zirenak, eta bi norabide hartuz, Urko mendira igo ziren, ezkerretik eta Mallabia eta Gereñatik Bolibarren sartzen ziren bitartean, iparraldean gainditua izan zena. Hurrengo egunean Echebarria, Markina eta Urberuaga okupatu zuten, eta bitartean, *Flechas Negras* italiarrak, martxako bi norabideekin ere, ezkerretik Berriatura heldu ziren. Egun horretan Bizkaiko defendatzaileek Euzkadiko Armadako Gorputzaren Agintariarengandik agindu bat jaso zuten Gernika-Zornotza-Gorbeiak adierazitako posizio nagusi bat zuen defentsa lerro bat sortzeko esanez. Horrekin Durango mantentzeari uko egiten zitzaion eta Gernika erresistentzia gunee indartsuetako bat bihurtu zen.

28an aurrerapen frankistak handiagoak izan ziren, Nafarroako IV. Brigadak Oiz mendia konkistatu zuen, Urrutxua auzora heldu arte, eta ezkerretik Gerrikaiz, Arbatzegi, Mendata herrietan eta Marmiz auzoan sartzen ziren, eta eskuinetik Aulesti eta Nabarniz herriak eta Zabala baserria okupatu zituzten. *Flechas Negras* italiarrak Lekeitiaraino heldu ziren, non Ondarroatik zetozen indarrak lehorreratu ziren; Brigadako bi erregimentuak konzentratu ziren. Euskal indar errepublikanoak hiru frontetan banatutako dibisioetan eta brigadetan antolatuta ondoren (iparraldean, zentroan eta hegoaldean), Iparraldeko frontea 1. Euskal Dibisioak osatu zuen, Llarch Castesana jeneral profesionalaren agintean azpian, Euzkadiko Gudarosteak zituen “*leial geografiko*” askotako bat. 1. Euskal Brigada, eratu zenean “*de Pedernales*” (“Sukarrietakoa”) izena hartu zuena, Germán Ollero Morentek agindu zuen eta Mundaka eta Forua arteko frontea babesten zuen. Iparraldetik hegoaldera bere batailoiak *Mungía, Cultura y Deporte, Amayur* eta *Euzko Indarra* ziren. Honen hegoaldera 2. Euskal Brigada hedatzen zen, “*de Gernika*” izenekoa.

Hurrengo egunean IV. Brigadako indarrak Gernikan sartu ziren Ajangiz herria okupatu ondoren. Bere aldetik, *Flechas Negras* italiarrek itsasaldeko herri guztiak okupatu zituzten (Ispaster, Ea, Ibarrangelu eta Elantxobe), eta barnealderago Arteaga, Gernikaraino heldu ziren arte. Operazioak egiten ziren aldi berean, Nafarroako I. Brigada zenbait mugimendu egin zituen Duragoren gainean, eta herria matxinoen eskuetan erori zen hilaren 28an. Gernikako hiribilduan egindako bonbardaketa kriminalaren ondoren, herri honetan gertakari belikoa bukatu egin zen apirilaren 29an eta 30ean. Lehen egunean hiribildua eskuz aldatu zen, baina bigarren egunean kontraeraso oso indartsu eta arriskutsu batean bi posizio (430. Kota eta Garoño mendia) galdu ziren, egun berean Nafarroako IV. Brigadak berriz berreskuratzeko.

Indar errepublikanoen egoera eta Oka itsasadarraren ezkerreko ibaiertzetik italiarrek egin zuten aurrerapena azaldu baino lehen, hainbat gogoeta geografiko kontuan hartu behar dira 1937ko apiriletik 30etik maiatzaren 13ra egindako operazio militarrik ulertzeko. Sollube mendigune zabal bat da eta iparretik hegora doazen kontrahorrek ditu. Iparraldeko muturrean Matxitxako lurmuturreraino heltzen da eta bertako goragune garrantzitsuenak Truende eta Mazoraga gailurrak dira, beste hainbat koten artean. Mendigunea Oka ibaiaren haranetik ikusten da, baina haranera heldu baino lehen bigarren mailako goraguneen sistema bat dago, altueren bigarren lerro bat bezala. Bigarren lerro honen azpian aurkitzen ditugu, hegoaldeko iparraldera Oka itsasadarraren ezkerreko ibaiertzari jarraituz, Forua, Murueta, Altamira, Busturiko Axpe, Sukarrieta, Mundaka eta, haranetik kanpo baina itsasorantz duen luzapenean, Bermeo herria, guztiak elkartzen dituen errepide batekin. Honela, mendigunearen ekialdean eta posizio hauen gainean, iparretik hegoalderantz, nabarmentzen dira Añetu, bere ekialdean dagoen 305. koto, Lekuxondo gaina, 322. koto, Katillutxoko 340. koto eta 166. koto Mundakaren gainean (Vargas, 2007; 184-185).

Espainiako Errepublikarekin leialak ziren indarrei dagokienez, *San Andrés* infanteriako batailoi nazionalista (9. Euskal Brigada) posizioak betetzen zituen Solluberen ekialdean, iparraldeko edo itsasoko ibilbidean, Bermeotik Mundakarako errepidean. Jarraian 1. Euskal Brigadaren zati handiena Mundakatik Busturiko Altamiraraino hedatuta zegoen. *Amayur* batailoiak Katillutxoko 334. kotoan zegoen, Mundaka eta Sukarrietatik 1,5 kilometrorra (handiak biak kontrolatzen ziren), eta Bermeotik 2,5 kilometrorra. *Amayur* batailoien hegoaldean, Kastillutxo eta Vistalegreko kotaren arteko eremua menderatzen zuten isurialdetan *Mungia* eta *Cultura y Deporte* batailoiak zeuden³³³, hiru kilometrotik gorako eremu bat estaliz baserri eta bide auzotar ugariarekin. Axpe eta Altamira auzo busturiarren artean, bietatik 1,5 kilometrorra, *Euzko Indarra* batailoiak Vistalegre okupatzen zuen, 275 metroko altuera zuena, eta baita Añetu mendia ere, 360 metrokoa eta aurrekoaren atzealdearen kilometro batera (Vargas Alonso, 2007: 195-196).

Apirilaren 30ean *Flechas Negras* italiarrek, 430. kotoan eta Garoño mendian borrokak gertatzen ari zirenean, Bermeotik Gernikarako errepideaz baliatuz, Oka itsasadarreko ezkerreko ibaiertzetik aurrera egin zuten Bermeoko herriraino. Hori gertatu zen errepide horretatik zihoan aurrerapena oztopatu nahi arren, Altamiraren hegoaldean kokatutako zubia bezalakoak suntsituz. Aurrerapen hau italiarrek egin zuten *motu propio*, Iparraldeko Armadaren jeneral nagusiak esan baitzien Bermeorantz ez aurreratzeko ezkerreko hegala Nafarroako IV. Brigadak ziurtatuta izan barik. Ilunabarrean indartutako batailoi italiar bat Bermeon sartu zen, eta elementu batzuk mendiguneko iparralderantz bidali ziren Truende mendi gainera eta Matxitxako lurmuturreko norabidean (Vargas Alonso, 2007: 196-199).

Flechas Negras italiarren mehatxuaren aurrean, Oka itsasadarraren ezker ertzetik aurrera egiten ari zirenak, gobernuko euskal indarrek Gernikaren iparraldeko posizioak uzteko eta Sollubeko goraguneetara iristeko agindua jaso zuten. Euskal unitateek ekialdeko mendi-hegalen koto altuagoetara atzera egin zuten, mendigunearen gailurrerantz. *San Andrés* batailoi nazionalista Artigas errekararen goi-ibarrera eta Tribiriserara heldu zen, eta aldi berean 1. Euskal Brigaden indarrak Sollube mendiguneko goi aldera igaro

333. Vargasek ido hau Gernikako mendebalderantz zegoela. AIPATU BELDARRAIN.

ziren, Larrazabaleko aldetik, Añetu mendia *Euzko Indarra* batailoien eskuetan geratuz. Vistalegre eta Kastillutxoko posizioak utzi egin ziren, eta orokorrean Bermeo eta Gernikaren arteko errepidearen gaineko kota baxuetan zeuden euskal posizio guztiak (339. eta 351. kotak), italiarrek okupatzera igaroz (Vargas Alonso, 2007: 196-197). Hala ere, Vicente Talón bezalako beste egile batzuk modu ezberdin batean azaldu duten egun hau. Aipatutako egilearen arabera, *Amayurren* indarrek Añetu mendia babesten zuten, *Euzko Indarrari* Kastillutxo defendatzea eskatu zitzaion eta *Mungjari* "Pinadiaren" posizioa defendatzea. Horrek esan nahi du *Cultura y Deporte* batailoia hor nonbait zegoela. Bere azalpenari jarraituz, batailoia hauek posizioak uztea ez zen Gernikako iparraldean zeuden posizioak uzteko eta Sollubeko goraguneetara heltzeko agindu batengatik izan, agintarien akats batengatik eta bitartekarien arteko gaizki-uleru baten ondorioz baizik (Talón, 1988). Argi daukaguna da jardunaldi horretan etsaiekin kontakturik egon ez zela eta Oka itsasadarraren ezkerreko ertzeko herrien okupazio matxinoa ordu-rako errealitate bat zela, tropa italiarrak modu mailakatuan herrietan ezarri baitziren abangoardia Bermeon zutelarik.

"Aproximadamente a las 19,30 se ha ocupado Bermeo con una Bandera y una Batería de acompañamiento, asegurando la desembarcadura. Otra Bandera en Mundaca y Pedernales con vigilancia sobre flanco izquierdo. Otra Bandera en Altamira ocupando Vista Alegre y alturas al S.O. Bandera en reserva en la zona de Gane. Una batería de 75 en posición en la zona Torre Gane.

Mando de estas fuerzas en el cruce de caminos de Altamira. Advertido el mando de las tropas de Guernica. Dispuesta acción de artillería en orilla derecha río Guernica. Recibido telegrama a las 20,30 en Guernica. Dispuesta organización defensiva posiciones alcanzadas asegurando flanco izquierdo" (Vargas Alonso, 2007: 198).

Apirilaren 30aren amaieran gerra bere garraztasun guztiarekin heldu zen Busturialdera, matxinoen lerroa ezarrita geratu baitzen Bermeo, Sukarrieta, Busturia, Altamira, Murueta eta Gernikako herrietan sostengua izanik, eta hegoalderantz zihoan Muxika, Ibarruri, Urrimendi gailurra, lurreta, Durango, Abadiño, Axpe eta Anbototik. Bitartean, 1. Euskal Brigadaren indarrek, *San Andrés* batailoiarekin batera, Sollubeko garaieretan eta mendiguneko hegoaldeko lutzatzen zen "kordoi" menditsuan babestu ziren, handik Oka itsasadarraren ezkerreko ibaiertza eta Bermeotik Gernikarako errepidea kontrolatzen baitziren, errepidea Oka ibaiarekiko paraleloa zelako. Armada Nazionalaren agintariak Lumoko defentsak gotortzera eta Mazagatik aurreratzeko lurra behatzera zihozenean, hurrengo eguneko kontraeraso errepublikanoa prestatu zen aldi berean. Francisco Vargas Alonsoren arabera, Luis de Sansinenea aipatuz, Añetun posizioak betetze ziten *Euzko Indarra* batailoikoa, ideia batailoia honen komandantearena izan zen, José Azurmendirena hain zuzen. Komandanteari bururatu zitzaion indar frankistei mozketa egin ahal zitzaiea errepide eta itsaso gaineko lurra malkartsua aprobetxatuz (Vargas Alonso, 2007: 199).

Hurrengo egunean, *Jean Jaurés* batailoia sozialista Almiketik jaitsi zen Truendetik Bermeora, eta *Flechas Negrasen* aurreko taldeek Bermeoko hiri mugetara atzera egin behar izan zuten. Bermeotik Mundakarako errepideraino ere *Isaac Puente* batailoia anarkista heldu berria sartu zen. Anarkistek fusileriako suarekin eraso egin zioten aipatutako errepideari eta Mundakako hilerria okupatu zuten. Handik Bermeon zeuden indar italiarrek kontaktua egin nahi zuten Nafarroako IV. Brigadaren gerra-gurdiei erasotzea lortzen zuten. Gainera, aurreko egunean utzitako gailurrak, Kastillutxo edo Vistalegre

bezala, berriz okupatu zituzten, lehena ziur aski *Isaac Puente* batailoiak okupatu zuen. *Largo Caballero* batailoia ere tokira heldu zen, eta Bermeo-Gernika errepideko ingurura iritsi zen Sukarrietan. 15:00etan aipatutako errepidea trafikorako moztuta geratu zen “Císcar” destruktoarearen laguntzarekin, abiazio etsaia ahalegindu zen arren (Vargas Alonso, 2007: 205-209).

Ordu horretan gutxi gora behera, *Flechas Negras* indar italiarrak infanteriako lau bandera eta artilleriako bi bateria ziren itsasadarraren ezkerreko ertzean, artilleriaren zati gehiena eta brigadaren gainerakoak eskuineko ertzean zeuden bitartean. Bandera bat 65 mm-ko bateria baten ondoan zegoen Bermeon, beste bat Sukarrietako mendebaldean, hirugarren bat Añetuko 373. kotaren eta Altamirako hego-mendebaldearen artean, eta laugarrenak hegoalderago zeuden beste hainbat kota okupatzen zituen, 75 mm-ko bateria baten ondoan. Francisco Vargas Alonsoren arabera, Sandro Piazzoni jeneralak, *Flechas Negras* unitatearen buruzagia, ez zeukan argi zein lerro okupatzen zuten bere indarrek Mundaka eta Sukarrietaren artean, honek aipatzen dituen posizioak bi herrien hegoaldean baitaude: Apeko 184. kota, Vistalegre, Karabizuriko gailurra, Azbiribiko gailurra eta Muruetako hegoaldeko kota. 19:10etan 4. Erregimentuko buruzagiari agintzen zitzaion Robotti maiorraren bandera Altamiran zabaltzea, erregimentuko agintariak eta Silvagni Bandera ontziratze motoredun baterako prestatzen ziren bitartean (Vargas Alonso, 2007: 209-210).

Maiatzaren 2an Bermeoren gaineko presio errepublikanoa areagotu zen, *Itxasalde* eta *Stalin* batailoiak aurrera egiten ari baitziren, eta Pozzuoliren tropa italiarrak inguratu zituzten hirigunean. Aldi berean, Mundakan jarduten zuen *Isaac Puente* batailoia herria bakartzera heldu zen. Gainera ekaitz batek Bermeo urez bete zuen eta Gernika-Bermeo errepidearen ardazetik defentsa on bat eta kontraeraso frankista ezinezkoak ziren, beraz, eraso bakarra egin zen mendiguneko hegoaldeko gailurrean, Maiaga gailurraren gainean, porrota izan zena, aurreko egunean egin zena bezala. 1. Euskal Brigadak Sukarrietatik eraso egin zuen arren, ekintza horrek ez zuen garrantzirik izan, eta Txatxarremendira hurbildu ziren bakarrik lehenagoko posizioetara itzultzeko. Bigarren eguneko arratsaldean zenbait indar errepublikanoek Gomezkorta kontrolatzea lortu zuten (408, 494 eta 433. kotak), Mapeko etxean ekialdean, Sollubeko hego-ekialdean. Errepublikanoen azken aurrerapena Gomezkortako hegoaldean izan zen, Ubitarteko 262. kotan bereziki, Beskortza base-riaren ondoan, Muruetako ekialdean; ingurua aztertzeke aurrerapen bat izan zen eta ez zen inolako borrokarik egin.

Bigarren eguneko indarren egoera hurrengoa zen: 9. Brigada *Itxasalde*, *San Andrés* eta *Stalin* batailoiekin Bermeotik gertu zegoen. Lehen batailoia hilerrira heldu zen, *Disciplinario* batailoia bigarren lerroan gotortze eginkizunak egitera zihoan bitartean. Jarraian, 13. Euskal Brigadaren lau batailoiak banatzen ziren (*Olabarri*, *Largo Caballero*, *Jean Jaurés* eta *Karl Liebknecht*), *Isaac Puente* batailoiaz gain. Sollubeko mendiguneko eremu altuena okupatzen zuten eta ekialdeko isurialdeetatik kostako errepideari presioa egiten zioten batailoiak *Amayur*, *Mungía* eta *Euzko Indarra* ziren, 1. Euskal Brigadakoak. Francisco Vargas ez dago ziur eremu honetan *Cultura y Deporte* batailoia egon izanaz, 1. Euskal Brigadako baita ere. Batailoi bakoitzak zituen morteroak aparte, *Morteroen* 72. Batailoia 4. Konpainiak jardun zuen. Unitate honek ziur aski Mundakari eta Mundaka-Bermeo errepideari eraso egiten zioten 13. Euskal Brigadaren indarren inguruan jardun zuen (Vargas Alonso, 2007: 219-232).

Maiatzaren 2tik 3rako gauean euskal indarrek Mundakako zubia lehertu zuten kostal-deko errepidean Bermeon inguratuta zeudenen komunikazioak eragozteko. Leherketa *Largo Caballeroren* zati batek egin zuen, *Isaac Puente* batailoia-aren lehen konpainia-aren zati batek lagunduta. Baina armada frankistaren nagusitasun materialari esker Bermeoren setio errepublikanoa apurtu zen, armada frankistak Bermeon eta Gernika-Bermeo errepidean zuen posizioa indartzea erabaki ondoren, gero Sollube mendiguneari erasotzeko (Vargas Alonso, 2007: 218-219).

Maiatzaren 3an, 05:00etan, 4. Erregimentuak, I. eta II. Banderez osatua, Busturian zegoena, Renzonik zuzendua, *Flechas Negras* unitatearen 2. Komandantea zena eta une hartan 4. Erregimentuaren aginte zuzena zuena, Bermeoraino aurrera egiteko aginduak zituen. Bitartean, Fiumarak zuzendutako 3. Erregimentuak, 4. Erregimentuko III. Banderarekin batera, posizioak mantendu behar zituen Sukarrieta eta Bermeo arteko errepidea segurtatuz. Renzoniren aurreratzea itsas eta lurreko artilleriak eta legio-abiarioak babestu zuten, *Itxasalde* eta Bermeo eta Mundakaren gainean presio egiten zuten gainerako euskal unitateek babesa hartu eta atzera egin behar izan zuten. Une hori Bermeon setiatua zegoen Pozzuolik berak aprobetxatu zuen, eta aztertzeko eraso bat bi norabidetan bidali zuen: San Miguel eta Matxitxako lurmuturra. Hala ere, Renzoniren zutabe askatzaileak oso erresistentzia gogorra topatu zuen Busturian, Vistalegreko gailurra babesten zuten euskal indarrek Renzoniren tropen aurreratzeari presio egiten baitzieten. Honek 4. Erregimentuko (I. eta II. Banderak) indar italiarrei behartu zien Añetuko 360. kotako posizioei aurre egitea, haietatik su bizia jasotzen zuten arren, eta egun berean hartu zituzten. Zutabeko zati batek bere ezkerreko hegala segurtatzen zuen aldi berean, Piazonniren eskuineko hegala aurrera egin zuen iparralderantz 322. eta 334. kotak eta Vistalegre okupatuz. *Flechas Negras* unitatearen erasotzaileek Mundakako unitateekin kontaktatzea lortu zuten, eta gero Bermeora abiatu ziren. Hedatze italiar honetan Nafarroako V. Brigadako unitateek parte hartu zuten, *Flechas Negras* unitatearen atzealdea sendotuz Axpen, eta posizioak okupatu zituzten Vistalegren, Piazonniren gizonen ezkerreko hegala segurtatuz. Egunaren amaieran Sukarrieta eta Mundaka mehatxatzen zuten unitate errepublikanoek atzera egin zuten, baita ordura arte Bermeo setiatzen zuten indarrek ere, eta Fuente, San Miguel, Alboniga eta Artigaserraino joan ziren (Vargas Alonso, 2007: 232-245).

Maiatzaren 4ko lehen orduan, 07:00etan hain zuzen ere, *Flechas Negras* italiarrak Bermeoren inguruan zituzten posizioak finkatzen hasi ziren. Egun honetan ere, Mancinik agindu zuen Francisciren indarrek *Flechas Negras* unitatearen ezkerreko hegala ordezkazatela, eta honen aginduen menpera igaro ziren. Francisci Elkarteko Bandera talde batek, morteroko pelotoiarekin eta Konpainia laguntzaile batekin, gehi 65/17 bateria batekin, *Flechas Negras* Brigadaren agindupera pasatu ziren lerroa ordezkatzeko asmoz, ahalik eta indar gutxienekin, une horretan Altamirako Harana (Sollubeko erreka) babesteko indar arduradunak. *XXIII de Marzo*-ko gainerako indarrak erreserban geratu ziren Molaren agindu zuzenen menpe. Indar matxino hauek guztiak defentsarako hesi bat osatu zuten Altamirako haranetik, Azbiribi gailurretik pasatuz, 313. kotaraino, Maiagaren ekialdean, non Espainiako tropekin elkartuko ziren (Vargas Alonso, 2007: 245-246).

Tropa nazionalak hiru azpisektoreetan banatu ziren, eta bakoitzean zeuden indarren buruzagiaren izenarekin izendatu ziren. Lehen azpisektorea, Renzoni izenekoa, Bermeo defendatzeaz arduratu zen. Itsasotik 322. Kotaraino hedatzen zen, kota hori barne, eta bere abangoardiak Alboniga, San Miguel eta Fuente ziren. Bigarren azpisektorea,

Fiumara izenekoa, aurrekoaren hegoaldean zegoen eta 322. kotatik, kota hori kanpo, Azbiribi ezproiaren ipar-mendebaldeko maldaraino hedatzen zen. Azpisektore honetan bi batailoi zeuden lehen lerroan Espainiako bi batailoiak laguntza zutenak, Tetuaneko 5. Tabora eta Alhucemaseko 4. Tabora, Altamiran denbora baterako zeudenak aparteko behar baten kasurako. Gainera, oso misio garrantzitsua betetzen zuten, hemen zeuden indarrek hesia izateko balio zutelako, errepublikanoek Parezitik Brigada osoaren hegalaria zuzenean jaisten zen errepidea erabiliz Sollubetik egin zezaketen eraso baten aurrean. Azpisektore honen agintariek Altamirako errepideen bidegurutzean ezarri ziren. Azken azpisektorea, Olivas izenekoa, Azbiribi ezproitik hedatzen zer eta ezkerreko aldetik tropa espainiarrekin lotzen zen. Lehen lerroa bi batailoi zeuden, eta beste bat bigarrean, eta ondorekoaren agintaria Muruetako 37. kilometroan zegoen. Brigadak *Flechas Negras* unitatearen erreserba zen batailoi bat zuen. Hau Busturiko Axpen zegoen kontreraso bat egiteko prest, Kastillutxo-Alboniga-San Miguel norabidean (Vargas Alonso, 2007: 248-249).

Egun horretan tropa matxinoek Gernika eta Bermeo lotzen zituen kostaldeko errepidearen gainetik zeuden gailurrak finkatzera ekin zioten, errepidea oso agerian geratzen zelako. *Flechas Negras* borrokalarien atzera egite bat aprobetxatuz, *Olabarri* batailoiak Añetu mendia okupatu zuen, aurreko egunean euskal tropak utzitako posizioa zena eta Bermeoren setioa apurtu zuen zutabe italiarraren ezkerreko hegala babestu zuten 4. Erregimentuko (I. eta II. banderak) indar italiarrek konkistatu zutena. Antonio Bordek, *Olabarriren* ofiziala, hurrengo adierazten zuen Añetu mendia hartzeari buruz:

“Mandaba el sector Gómez, un carabinero guipuzcoano. A él nos presentamos Egurrola y yo para recibir el encargo de tomar Añetu, como parte de una operación de envergadura. Se trataba de cortar la carretera de Guernica a Bermeo. Nosotros a costa de varias bajas, no muchas, cumplimos nuestra misión, lamentablemente (...)

Y digo lamentablemente tomamos Añetu, porque los demás batallones comprometidos ni siquiera intentaron la operación. E incluso el mismo Gómez me confesaba más adelante que no se había enterado de nuestro éxito. Y allí quedaba una parte de nuestro batallón en atrevidísima cuña batida por todos los costados” (Vargas Alonso 2007: 247).

Borrokaren egoera aprobetxatuz euskal tropek indarrak berrantolatu zituzten Solluben, *Isaac Puente* batailoiko anarkistak borroka tokien kanpo geratzen ziren bitartean eta *Mungia* batailoi nazionalista Mañuan arrantxo hotz bat jan ondoren berregin zen bitartean. *Olabarri* batailoia Sollubeko gailurraren eta Añetu mendiaren artean hedatuta geratzen zen, bitartean *Mungia* aurreko egunean errepide eremuan frankistek irabazitako posizioen aurrean jartzen zen.

Maiatzaren 5ean *Flechas Negras* unitatea Nafarroako V. Brigadak Sollube mendiguneari egingo zion erasoaren zain egon zen. Operazio matxinoen ordenaren arabera, Truende eta Sollubeko gailurren arteko koten lerroaren okupazioa zen Brigadaren misioa. Maniobraren ideia Lehen Brigada Erdiaren aurreko eraso bat egitea zen Añetu, Charola Coloeche eta Solluberantz, eta beste bat, iparraldetik, Bigarren Brigada Erdiarena Bermeo Mungiarako errepidearen norabide orokorrean Tontorra konkistatzeko misioa Nafarroako V. Brigadari esleitu zioten eta honek bi talde egin zituen erasorako. Lehen taldearen helburua Truendeko 419. kota eskuratzea zen, gero handik Atxaspiko gailurra eskuratzeko (496. kota). Baldintzak baikorrak baziren, talde bera Goienzabaleko hegoaldean zeuden 474. eta 462. kotak okupatzearaino hedatuko zen.

Gainera, gerra-gurdietako bi konpainia zituen, bata Bermeo-Mungia errepidetik aurrera egingo zuen eta bestea Bermeo-Alboniga bidetik, eta *Flechas Negras* artilleriaren laguntza ere izango zuen. Bigarren taldeak, Botarri talde italiarraren artilleriaren laguntzarekin, Añetu mendia eta Charola Coloeche (520. kota) okupatu behar zituen, azken hau Bermeoko hegoaldean dagoen Sollubeko mendi-adar bat da, Busturiarekin duen mugan. Abiazio matxinoak bi taldeei lagunduko ziren, gailurren lerroari eta etsaien atzealdeari tiro eginez (Vargas Alonso, 2007: 250-251).

Maiatzaren 5eko gauerako, Lehen Brigada Erdia osatzen zuten unitateek (Valladolideko 8. Batailoia, Metrailadoreen 7. Batailoia, Tetuango Erregularren 5. Tabora, Alhucemaseko Erregularren 4. Tabora eta 7ko Mendi Bateria bat berehalako laguntzako misioan), Busturiko Axpen elkartu behar zuten, eta horretarako haien kantonamenduetatik 19:30etan irten behar zuten. Herri honetako iparraldean, Elorrietako eskualdean, Brigadako 10,5-eko bi bateriak jarriko ziren, Lehen Brigada Erdiari zuzenean lagundu behar ziotenak hurrengo eguneko ekintzan.

20:00etan Ingeniarien 5. Konpainia ere bere kantonamendutik irtengo zen, eta Lehen Brigada Erdira atxikita geratuko zen Busturiko Axpen. Bere helburuak argiak ziren, eskuratzeko ziren posizioetan gotorlekuak egitea eta munizio-zerbitzuari sarbidea eta ebaquazioa ematea. Zerbitzu hauetarako Busturiko Axpen 7 mm-ko 250.000 kartutxo eta 7,92 mm-ko 150.000 kartutxo betetako gordetegi aurreratu bat ezarri zen maiatzaren 6an, 500 esku-granadekin eta 200 mortero-granadekin. Munizio-zerbitzua segurtatua geratzen zen unitateen abereen bidez eta gordetegira atxikitzen ziren 12 mandoekin. Gordetegiaren agintariak hurrengo egunean heldu zen Burgoseko 2. Batailoia ofizial bat, sarjentu bat eta kabo bat ziren. Munizio-zerbitzurako Lehen Brigada Erdiak Axpe-Altamirako bidea erabili zuen, Muinoko Bidea. Hornikuntzari dagokionez, adierazi behar dugu tropei arrantxo hotza eta ogia eman zietela agindu prestatzailean esandakoaren arabera. Gero, Busturiko Axpen ere ezarri ziren intendentzia biltegietatik hornituko ziren. Osasunari dagokionez, zaurituen sorospen-postuak toki berean ezarri ziren eta munizio-zerbitzurako adierazi ziren bide berdinak erabili ziren. Zaurituen kontzentrazio guneei dagokionez, Bermeo Bigarren Brigada Erdiaren gunea zen eta brigadako osasun-buruzagiak anbulantziak ebaquazioa Gernikako Ospitale aurreratura joateko antolatzen zituen. Brigadaren buruzagiaren eta Artilleria komandantearen aginte-postuak Kastillutxon ezarri ziren. Aldiz, Lehen Brigada Erdiaren aginte-postua Vistalegren ezarri zen, eta lekuz aldatuz joan zen bere unitatearen ekintza-ardatzaren arabera.

Maiatzaren 6ko lehen argjekin Nafarroako V. Brigadako unitateak martxan jarri ziren planeatutako erasoaren abiaburu baseak okupatzeko. Unitate batzuk lehen lerroan jartzen ziren bitartean *Flechas Negras* unitateak ordezkatu eta gero, beste batzuk, ordea, zati bat zuten hedatze eremura heldu arte. Hori gertatu zitzaion, adibidez, Flandeseko 2. Mendi Batailoia, Txatxarramendiko uhartean gaua pasatu ondoren Bermeon zuten hedatze eremuraino joan behar izan zuena. Beste batailoia batzuk, Burgoseko 2. Batailoia adibidez, jardunaldi honetan bere fusilen eta metrailadoreen bi konpainiekin, munizio hornituta eta bi egunerako arrantxo hotzekin anoatuta, Bermeoko errepidetik Busturiko Axpera premia handiarekin joateko agindua jaso zuten, aurreko egunetik Sukarrietan zegoen Zaragozako 11. Batailoiarekin batera erreserbako tropak osatzeko.

Itsasoaren eta Solluberen artean 9. eta 13. Euskal Brigaden unitateak Nafarroako V. Brigadaren eta *Flechas Negras* unitatearen eraso matxinoaren zain zeuden.

Kostaldetik Burgoa mendiraino *Itxasalde* eta *Stalin* batailoiak zeuden. Truende mendian *San Andrés* eta *Jean Jaurés* baitailoak zeuden, *Largo Caballero* eta *Karl Liebknecht* batailoiak *Jean Jaurés* eskuinean zeuden, Gernika-Bermeo erreperiderantz posizio aurreratuago batean eta bere eskuineko hegala Añeturantz zuzenduta. Truende menditik hegoalderago dagoen gailurrerian eta ekialdeko isurialdean zegoen 13. Brigadaren atzealdea babestuz, Truende eta Añetu mendien arteko sakanetan, 1. Euskal Brigadako *Amayur*, *Mungia* eta *Euzko Indarra* batailoiak hedatzen ziren. Añeturen eta Solluberen gailurretik jaisten ziren posizioen artean *Olabarri* batailoia zegoen, 13. Brigadako, jadanik ikusi dugun bezala.

Nafarroako V. Brigadaren eraso aire- eta artilleria-zigor garrantzitsu batekin hasi zen, bitan zatitutako indarrak aurreratu baino lehen: Lehen Brigada Erdia eta Bigarren Brigada Erdia. Bigarren Brigada Erdia hiru eraso-zutabetan banatu zen: Iparralderago zegoen zutabea, edo "*Media Columna de Zamora*" (*Zamorako Zutabe Erdia*), Zamorako 7. eta Flandeseko 2. Batailoiak zituen, eta Bermeoko hileritik abiatuta eraso egin behar zuten Burgoa hartzeko asmoarekin. Baina bi batailoiek porrot egin zuten behar bezalako eraso bat egin ez zutelako. Honek erdiko zutabearen aurreratzea baldintzatu zuen, gerra-gurdien konpainia batez eta Melillako Ehiztarien "B" Batailoiaz osatuta zegoena, lehenengoaren arrakasta behar zuelako aurrera egiteko. Erdiko zutabea borrokan ikusle bezala geratu zen lehenengo zutabea porrot egin ondoren. Hegoaldean hirugarren zutabea zegoen, Coruñako bandera falangistak, Zamorako 4. Batailoiak eta Zamorako 7. Batailoia morteroek osatutakoa. Honen helburua San Andres eta Urkimendi auzoak konkistatzea zen, Truende mendiaren gaineko ezkerreko matxarda eratzeko. Matxinoek lehen bi helburuak lortu zituzten. Hala ere, Truende mendiak errepublikanoen eskuetan jarraitu zuen hildako askori esker.

Bigarren Brigada Erdiaren eraso frankistek *San Andrés* eta *Stalin* batailoien gobernu-indarrak Burgoa eta Truende mendietara atzera egitea behartu zituen. *Itxasalde* batailoia, 9. Brigadako beste unitateak bezala, posizio atzeratuagoak zituzten aurreko bi batailoiekin konparatuta, eta Kantauri itsasotik Burgoa mendiko iparralderaino hedatuta zeuden. *San Andrés* eta *Stalin* batailoiek lerro nagusira atzera egin zutenean abangoardian eta hauen eskuinean *Karl Liebknecht* batailoia geratu zen, babesik gabeko hegala batekin. Artilleriako su biziak, abiazioaren ekintzak, itsasontziek etengabe kainokatzeak eta infanteriaren erasoak batailoiak poliki-poliki atzera egitea eragin zuten. Jarraian, gobernu indarrak ferra formako sakan baten hondoan kokatu ziren: *Mungia*, ezkerrean, *Disciplinario*, erdian, "Baserria" posizioa betez, eta *Largo Caballero* batailoia, erdikoaren eskuinean. Matxinoek *Largo Caballero*ren posizioa hartu zuten lehenengo; ondorioz *Disciplinario*aren eskuineko hegala babesik gabe geratu zen eta posizio hobe batetik tiro egiten zioten. *Disciplinario* batailoia atzera egiten azkena izan zen, *Mungia* batailoiak Bermeo-Mungia erreperideraino okupatzen zituen posizioak uzten baitzituen. Matxinoek ez zituzten *Mungia* eta *Disciplinario* batailoien posizioak okupatu, bi posizioetan 4. Espedizionarioko asturiarrak kokatu baitziren. Jardunaldi honetan *Stalin* eta *San Andrés* batailoiak atzealdera pasatu ziren, *Mungia* 4. Espedizionarioko batailoia asturiar batek ordezkatu zuen bitartean 7. eguneko egunsentian.

Nafarroako V. Brigadako Bigarren Brigada Erdiak Sollubeko iparraldeko operazioei ekin bazien, hegoaldean Lehen Brigada Erdia ari zen. Lehen Brigada Erdiaren asmoa Añetu mendiari eraso egitea zen, gero handik, bultzada berri batekin, Sollubeko gailurrera heltzeko. Añetuko ekintzaren arduradunak Alhucemaseko 4. Tabora eta Tetuango 5.

Tabora izan ziren. Mendigunearen iparraldean Burgoa eta Truenderen konkista porrot egin arren, Añetu mendia erortzea arrakasta garrantzitsua izan zen, bertatik Altamira eta zuzenean Sollubeko gailurrera daraman ezproi garrantzitsu bat kontrola zitezkeelako.

Lehen Brigada Erdiko indarrek Kastillutxoko hegoaldetik (Vistalegreko 278. kota, Busturiko Axpetik mendebaldera) aurrera egin zuten artilleriako eta aireko bonbardaketa eraginkor baten ondoren. Bottari taldeko artilleriak, zeinaren kokapena Kanalaren eskualdean zegoen, Bermeoko itsasadarraren ekialdean, eta Elorrietako Brigadako 10,5-eko bi bateriek posizio errepublikanoei eraso egin zieten Lehen Brigada Erdiari laguntzeko. Artilleriaren helburuak argi zeuden, eta sua Añetu, Sabale, Urkitzarri, Urgimendi, San Andres eta Cantaracon gainean kontzentratu zen. Honi esker Tetuango 5. Tadoreko 3. eta 1. Konpainiak, Busturian zeudenak, abangoardian aurrera egin zuten Añeturantz, eta eskuineko hegaletik inguratu zuten, malda bigunagoa zelako, etsaiari 400. kotarantz ihes egitera behartuz. Mohamed B. Abseñan El Anyeri eta Mohamed B. Mohamed Gomari kaboak jokaera nabarmena izan zuten gerran, eta, batez ere, aldi honetan, euren eskuadrak eraman zituztenean Laureano Rivas Sierra sarjentuari laguntzeko 400. kota eta Añetuko baserriaren erasoan, eta biei lanpostu igoera eskaini zitzaizen berehala. Defendatzaileen erresistentzia gogorra izan arren, indar errepublikanoak gaindituak izan ziren eta aipatutako kotara joatera behartuak izan ziren. Etsaia jazarrita, ez zitzaion azken posizio honetan berrantolatzeko aukerarik eman eta bere egoera zaila ikusita, Tetuango 5. Taborak aurrera egitea erabaki zuen 500. kota okupatzeko. Azken posizio honetan unitateak gaua pasa zuen jardunaldirako adierazitako helburuak lortu ondoren³³⁴. Añetu mendiaren konkistarekin Altamirari goitik tiro egiten zioten posizioekin bukatzen zen, eta Oka itsasadarraren ezkerreko ertzean zeuden unitateen arteko komunikazioa errazten zen.

Oro har, Alhucemaseko 4. Taborak eta Tetuango 5. Taborak elkarrekin jardun zuten Sabaleko Etxeak okupatu zituzten eta gero aurrera egin zuten eta Añetuko baserrietan kokatu. Ondoren Charola Coloecheko kotak hartu zituzten (360, 369, 400 eta 500. Kotak) Añetuko atzeko aldean eta azkenean mendiguneko defendatzaileen erresistentzia osoarekin akabatu zuten. Aipatutako kotak haien eskuetan egonik, bi taborek Truende gaineko ekintzen zain geratu ziren aurrera jarraitu baino lehen. Bigarren Brigada Erdiak Truende mendia konkistatzen porrot egin zuenez, unitate marokoarrak Charola Coloechen finkatu ziren Solluberen kota altuenetan operazio berri bat egitearen zain. Egin zuten aurreratzean, erresistentzia gogorrena Tetuango 5. Taborak aurkitu zuen 400. kotan eta Añetuko baserrietan, abangoardian zihoan sekzioak, Laureano Rivas Sierra sarjentuaren agintepean, kopuru handiagoko etsai bat topatu zuelako, baina hildako asko eragin zizkion eta *Olabarriko* mutilei ihesean eraman nahi zituzten bi metrailadore kendu zizkieten. Borroka honen emaitza bi makinaren harrapaketa eta zerbitzarien suntsiketa izan zen. Borondatez taborrean sartu zen miliziano frankista bat izan zen, Paulino Anteparas Basabe, posizioari eraso egin zion lehena. Paulino Anteparak makina baten zerbitzariak hiltzea lortu zuen. Baina aurreratze frankista geldiarazten saiatzen ari ziren beste defendatzaileen suak hil zuen³³⁵.

334. AGMA (Avilako Artxibo Orokor Militarra), 1543. kutxa, 39BIS karpeta.

335. AGMA, 1543. Kutxa, 39BIS karpeta.

Frankisten hildakoak oso gutxi izan ziren, Alhucemaseko 4.ak bi hildako eta sei zauritu izan zituen. Tetuango 5.ak bi hildako eta hamahiru zauritu izan zituen. Bi unitateek hiru zama-abere galdu zituzten, hil zirelako, eta 29.500 kartutxo gastatu zituzten. Dokumentu beraren arabera, defendatzaileek 70 gorpu utzi zituzten lurrean, bi kapitainenak barne. Indar frankistek 30 fusil, bi metrailadore, esku-bonben bi kutxa eta zehaztu gabeko materiala kendu zizkieten gobernuaren aldekoek³³⁶. Dena den, balantzea egiazkoa baino txikiagoa da, Francisco Vargas Alonsok ongi adierazten duen bezala. Alhucemaseko 4.ak 54 hildako eta 70 fusil erreklamatu zituen; aldiz, Tetuango 5.ak etsaien 27 hildako bereak zirela esan zuen eta 2 metrailadore, 20 fusil eta munizio eta esku-bonba asko eskuratu zituen. Alde errepublikanoari dagokionez, *Olabarri* batailoiko Frades kapitainaren konpainia erabat suntsitua geratu zen, eta kapitaina ere hil egin zen borrokan. Artilleriaren suak eta aire-ekintzak tropa mairuek aurrera egitea erraztu zuten, eta presorik ez egoteak pentsarazten dit etsaiarekin inongo gupidarik izan ez zutela (Vargas Alonso, 2007: 255-270).

7. egunean Sollube eta Truende mendiak hartzea lehentasun argia zela ikusi zuen bando matxinoak. Sollube mendigunea Alhucemaseko 4. eta Tetuango 5. Taboreei esleitu zitzaizen arren, eta aurreko egunetik Añetu konkistatu ondoren bertan kokatuta zeudenak, ez zuten ez bata ez besteak erasorik egin aire-bonbardaketa eskasa izan zela eta zoruak zailtasunak zituela pentsatu zelako. Erasoaren zama Bigarren Brigada Erdiak eraman zuen eta bere helburu nagusia Truende mendia izan zen. Hala ere, Truendeko defendatzaileek (13. Euskal Brigada) indar frankisten bi ekinaldi gelditu zituzten, frankistek egun horretan unitate blindatuak ere erabili zituzten arren.

Francisco Vargas Alonsok adierazten duen bezala, Lehen Brigada Erdiak erasorik ez egiteak Sollubeko hegoaldean ez du esan nahi borrokarik egon ez zenik. Lehen Brigada Erdian izandako hildakoak eta Osasun Militarrak zaindutako zaurituen kopurua ikusita, argi dago Añetun eta bere hegoaldean zeuden indar frankistek, aurrera egin ez arren, tiroak trukatu zituztela 4. Brigada Espedizionario asturiarrekin (212, 231 eta 252. batailoiak). Unitate hau 7. eguneko lehen orduetik hedatuta zegoen Sollubeko kota altuenetan Añetun eta Gomezkortan zeuden abangoardia etsaiei aurre egiten, atzealdera pasatu ziren 1. Brigadaren euskal indarrak ordezkatzuz. 4. Brigada Espedizionario asturiararen hegoaldean 12. Brigada Espedizionario santandertarra kokatu zen. Bi indar espedizionarioen artean ez zen bitarteko eraginkorrik egon (Vargas Alonso, 2007: 270-281).

Maiatzaren 8ko gaueko azken orduetan Alhucemaseko 4. eta Tetuango 5. Taboreek Sollubeko goraguneak ezustez hartzeko agindua jaso zuten. Gaueko iluntasuna aprobetxatuz, Alhucemaseko tabora abangoardian joan zen Tetuangoa atzetik zihoala, eta Sollubeko kota altuenetako posizioetara heldu ziren oinez. Inguratzeko mugimendu bat egin zuten orduan 252. batailoia asturiararen atzealdetik erasotzeko. Maiatzaren 8ko egunsentian tropa mairuek esku-bonbekin eraso egin zieten lerro asturiarrei, defendatzaileei astirik eman gabe, asko lotan baitzeuden oraindik. 252. Batailoia asturiarra suntsitua izan zen eta bizirik atera zirenak arrapaladan ihes egin zuten mota guztietako materiala han utziz. Mertzenario marokoarrak mendiguneko zati altuenetik hedatu ziren, 672, 673 eta 630. kotak barne, eta bandera gorri-beilegia altxatu zuten. Goraguneak okupatu bezain laster, bi taborak, artilleria eta hegazkinen laguntzarekin, hainbat sekzio

336. AGMA (Avilako Artxibo Orokor Militarra), 1543. kutxa, 39BIS karpeta.

bidali zituzten ipar-mendebaldera ihes egin zuten defendatzaileen atzetik joateko eta Sollubeko mendatetik Mungiarako errepidea mozteko. Bi koloreko bandera ikustea mendiguneko kota altuenetan eta 252. Batailoi asturiarraren ihesa kolpe handiak izan ziren erresistentzia errepublikanoaren adorea. 4. Brigada asturiarretik geratzen zenak mendiguneko mendebaldeko isurialdeko ibarretatik atzera egin zuen Mungiarantz, eta une horretan Truende eta itsasoaren artean zeuden euskal posizioak ezegonkorrak izaten hasi ziren eskuineko hegala babesik gabe geratu zelako.

Taborak mendiguneko zati altuenean finkatzen ziren bitartean, Zaragozako Infanteriako 30. Erregimentuko 11. Batailoiak, Bigarren Brigada Erdian zegoena, Atxaspi 496. kotatik aurre egin zuen eta Truendeko bizkarrean eraso egiteko. Sollubeko mendatearen ondoan zegoen posizio hau Bigarren Brigada Erdiko indarrek okupatzen zuten, eta hauekin kontaktatuko du Bermeo-Mungiako errepideko 25. Kilometroan eta Mañuko herrian. Batailoi honen 1. Konpainia Truenden geratu zen, 2. Konpainia Landa Goikoan eta batailoiko gainerakoek erregularrak ordezkatu zituzten tontor altuenean okupazioan (673, 673 eta 630. kotetan). Erdiko zutabea, gurdiekin eta Melillako Ehiztarien "B" Batailoiarekin, martxan jarri zen etsaiak Truende eta Burgoko hegoaldeko kotak utzi zituenean. Flandeseko 2. Batailoia, San Andreseko baserrien posizioan zegoena, zain geratu zen eta Truende menditik etsaiek joan zirenean han ezarri ziren, 3. Konpainia buru zutela. Egun honetan Nafarroako V. Brigadako Lehen Brigada Erdira atxikitzeko aginduak jaso zituen, eta horretarako hego-ekialderantz abiatu zen, Mungiarako errepideko 24,5 kilometroan ezarriz etsaien suaren erasoagatik. *Flechas Negras* italiarrak aurreratze frankistaren eskuineko hegaletik sakon aurreratu ziren Matxitxako lurmuturraren ingururaino. Truende eta Matxitxako lurmuturraren arteko eremua defendatzen zuten euskal unitateek Sollube eta Jataren arteko haranerantz atzera egin zuten, eta indar batzuk matxinoek lortutako posizioen kontrako maldetan geratu ziren. 13. Euskal Brigadaren unitateak atseden har zezaten erretiratuak izan ziren.

Maiatzaren 8rako indar errepublikanoek anbizio handiko plan oso zehatz bat prestatu zuten. Plan honekin Busturiko iparraldean zeuden indar frankista guztiak bakandu nahi zituzten, hau da, Nafarroako V.a, *Flechas Negras* italiarrak eta *XXIII de Marzo* taldea. Lehen Brigada Erdiko zerbitzuei dagokienez, berritasun batzuk daude aurreko egunetan Busturiko Axpen ezarri zuten zerbitzuen sarearekin konparatuta. Herrian ezarri zen gordetegi aurreratuaren ondoan, Ikazgaraiako muinoan gurdien bidez hornitutako beste bat ezartzea agindu zen, inguruan borrokatzen zuten tropak hornitzeko. Baita aurreikus-ten zen, behin azken helburuak lortuta, posizioak babesten zituzten indarrak Gernikan hornituko zirela, Lumon zeuden kamioiak erabiliz horretarako. Sollubeko hego-ekialdean zeuden indarrek Busturiko Axpeko errepidea izango zuten hornikuntzarako ibilbide bezala, Ikazgarai-Altamira-Eskibiles bidetik. Ebakuazioei zegokienez, munizio zerbitzua ematen zen bide beretik egin ziren, anbulantziak erabiliz horretarako. Jardunaldi honetan *Flechas Negras* Brigadak, beste zenbait aginduen artean, Altamirako eremua defendatu behar zuen, gutxieneko indarrak erabiliz Ikazgarai eta Gomezkorta goraguneak okupatuz (433. eta 408. kotak). Agindu hau *Flechas Negraseko* 3. Erregimentuko komandanteak bete behar zuen, 75eko 2. Bateriarekin indartua, Altamirako mendebalderako bidean, laguntzeko II. Bandera eta Bateriako Sekzio bat barik (Vargas Alonso, 2007: 281-297).

Maiatzaren 9an, *Kirikiño* eta *Gordexola* batailoiak, 17. eta 14. Brigadetatik zetozenak, Solluberen tontorrera joaten hasi ziren. Lehenengoak Meñakatik formatzen aurrera egin

zuen eta bigarrenak Mungia-Bermeo errepidetik abiatu zen. Bi unitateen arteko lerroan 4. Brigada Espedizionario asturiarraren indarrak zeuden. *Kirikiño* batailoia 400. kotatik 500. kotara Gurgutxeko eremutik igaro zen; aldiz, *Gordexolak* Urresti eta Landaluze artetik egiten zuten. *Gordexolako* konpainia batek Sollubeko tontorrera heltzen saiatu zen arrakastarik gabe, eta eguerdiaren ostean bi batailoiek atzera egitea erabaki zuten. Mendigunearen defentsaren zama Alhucemas eta Tetuango taborek hartu zuten, maiatzaren 7an Lehen Brigada Erdira atxiki zen Zaragozako 11. Batailoiarekin batera (679. Kota).

Mendiguneko iparraldeko ekintzei zegokienez, Bigarren Brigada Erdiak egin behar zituenak, horrela garatu ziren. Melillako Ehiztarien "B" batailoiak Mungia errepidetik 28. kilometroa utzi zuten, baina bere Indigenen 2. Konpainia Kritonen parean jarri zuten, posizio horretatik Bakioko hego-ekialdea kontrolatzen zelako. Bitartean bere 1. Konpainia eta metrailadoreena Truendeko abangoardian, Mungia isurialdean, geratzen ziren eta Errepublikako tropek eta artilleriak eraso egin zieten. *Flechas Negras* brigadako 3. Erregimentuak Gernikako itsasadarreko eremua defendatzen zuten Altamiratik, Izkarai eta Gomezkorta goraguneetatik eta 433. eta 408. kotetatik. Hauen 4. Erregimentua izan zen, Bermeotik San Migelerako bidean zegoen artilleriaren laguntzarekin, Matxitxakotik aurrera egin zuena kostaldeko bateriaraino eta inguruko eremuraino. Erreserba bezala 3. Erregimentuko II. Bandera zuten Bermeon eta batailoia Autonomoa hiribilduko mendebaldean. Egun honetan ere Nafarroako I. Brigada aurreratzeak egin zituen Gernikako hegoaldean, oso helburu argiekin: Bizkargi inguratzea iparraldetik eta Maiaga hego-mendebaldetik Errigoiti igaroz. Nafarroako I. Brigadaren eraso honek, Nafarroako II. Brigadak fronteko erdialdean Eubaren parean egindakoarekin batera, Sollubeko mendigunea hegoaldetik, Forua eta Murueta arteko eremuaren gainean, berriz konkistatzeko plan errepublikanoak hondatu zituen, eta euskal tropak Gernikako itsasadarrera heltzea oztopatu zuten (Vargas Alonso, 2007: 301-312).

Maiatzaren 10ean aurreko egunaren parametro berdinak errepikatzen dira egun osoan zehar. Borrokaren iparraldean indar eusko-asturiarrek Sollubeko kota altuenetan hala-beharrezko kontraerasoarekin jarraitzen zuten bitartean, hegoaldean frankistek arrakasta handi bat lortu zuten. 1. Euskal Dibisioak, *Otxandiano*, Asturiaseko 212. eta ANV 3 batailoiekin, mendiguneko posizio altuenak konkistatzera joaten ziren, *Kirikiño* batailoiak frontea babesten zuten bitartean erasoaren eskuinean. Baina saiakera hori Zaragozako 11. Batailoiak atzera bota zuten.

Lehen Brigada Erdiko tropa mertzenarioak, Alhucemaseko 4. Tabora eta Tetuango 5. Tabora, Sollubeko goraguneetatik jaisten ziren bitartean Mape eta Villabaso goraguneak konkistatuz, marokoarrek posizio berrietatik Bigarren Brigada Erdiak Maiagatik egiten ari zen aurreratzea babesten zuten, azken hauek Larragan eta Santa Kruz konkistatu ondoren. Maiagaren gaineko aurreratzea Nafarroako I. Brigadak egindako aurreratzearekin bat etorri zen, azken honek egun honetan Errigoitiko ipar-mendebaldera eta Bizkargirantz sakontzea lortu zuelako, Nafarroako V. Brigadak deskribatutako erasoak egiten zituen bitartean. Mendiguneko gailurrerian Espainiako tropen egoera berria zela eta, Molak Manciniri Gomezkorta, Izkarai eta Muruetako mendebaldeko koten posizioetan hedatutako tropa italiarrak kentzea agindu zion, Nafarroako V. Brigaden indarrek ordezkaturako baitzituzten. *XXIII de Marzo* taldea erreserbara pasatu zen Bermeoko mendebaldearen eta Truenderen artean. Jardunaldia amaitu zenean Errigoiti, Aniz, Elexalde eta 302. Kota okupatuta zeuden. *Flechas Negras* italiarrek ere Bakio gaineko goragune

menperatzaileak okupatzen zituzten, herriaren mendebaldeko 372. kota barne, infiltrazio errepublikano guztiak moztea lortu ondoren (Vargas Alonso, 2007: 312-320).

Maiatzaren 11ko egunari dagokionez, Solluberen gaineko operazioak egonkorrak ziren, indar matxinoak Bizkargi mendian kontzentratzen hasten zirelako (Vargas Alonso, 2007: 320-324). Mendi hau, eta mendi beratik abiatzen zen Urkullu gailurreriarekin batera, Bilboko Defentsa Hesiari (egunkari frankistek *Burdin Hesia* izendatzen zutena) erasotzeko lorbide naturala zen. Egun honetatik aurrera ere Busturiko Axperen papera aldatzen zen Lehen Brigada Erdiko munizio-, janari- eta osasun-zerbitzuen gune bezala, zerbitzu hauek guztiak Errigoitiko eremura aldatu baitziren. Hala ere, maiatzaren 13ren inguruan, bi kartolek ebakutzen jarraituko dute Busturiaren gainean.

Aurreko eguneko lasaitasunarekin alderatuta, 1937ko maiatzaren 12a egun gogorrenetakoa izan zen Sollubeko mendigunea lortzeko lehiari dagokionez. 9. Euskal Brigadaren indarrak (*Itxasalde*, *Stalin* eta *San Andrés*) Kantauri itsasotik Bermeo-Mungia errepederaino hedatzen ziren, ekialdeko mendi-adarretan izan ere, Jata eta Tollu mendien aurreko posizioetan. Bere eskuinean *Zergaitik Ez* batailoioak posizioak okupatzen zituen eta Sumertxagatik hedatzen zen, Jataren tontorretik Tollu mendiraino. ANV 3 batailoioak (17. Brigada) Bermeo-Mungia errepedea mozten zuen Loparri mendia okupatzean (366. kota). Honen atzealdean *Kirikiño* batailoi nazionalista zegoen, brigada berekoa, Jata mendian hedatutako Saseta batailoiko hainbat sekzioez gain. Sollube erasotzeko prest, errepedearen eta Arrietako Libanoren artean, hurrengo unitateak zeuden, iparretik hegora: *Gordexola* (14. Brigada), *Mario* (4. Brigada Espedizionario asturiarra), *Bakunin* (5. Brigada) eta *Otxandiano* batailoia. Egunaren amaieran *Bakuninen* indarrek *Mario* eta *Otxandiano* batailoien posizioak okupatu zituzten. Hauen atzealdean, Mungiarantz, *Isaac Puente*, *González Peña* eta 4. Brigada Espedizionario asturiarreko 231. eta 252. batailoioak zeuden. Hauen eskuineko hegalean, Ikastako hegoaldea eta Mendigane babesten, Fervenzako indar santandertarrak hedatzen ziren Arrietan, sortu berriko 5. Brigadako *Araba* eta *Leandro Carro* batailoien unitateekin batera.

Artilleriaren eta hegazkinen prestaketa bizi baten ondoren Nafarroako V. Brigadak 606. kota hartu nahi izan zuen. Zenbait saiakeren ondoren, euskal indarrek lurzoruari eusten zioten eta ez zieten matxinoei posiziorik ematen. Tetuango Erregularren 5. Taboreko tropa adituek ere ezuztean harrapatu nahi izan zituzten, baina atzera bota zituzten. Baina porrot hau izanda ere, Lehen Brigada Erdiak bere sektoretik aurrera egiten jarraitu zuen eta 373. kota (Ikasta), 392. kota (Maltzaga), Astagaiko, 204. kota eta Iturriondo-Baioneta okupatu zituen. 606. kotaz jabetzeko ezintasunaren aurrean, Flandeseko 2. Batailoia eta Metrailadoreen 7.a Itxurregaren menditik aurrera egiten saiatu ziren, gero Arrietako Libanori erasotzeko. Baina errepublikanoen su biziak bi batailoioak mugitu gabe utzi zituen. Aurrera egiteko Metrailadoreen 7. Batailoioak Alhucemaseko mertzenarioen laguntza jaso zuen, bere 1. Konpainia bidali baitzuten laguntza emateko. Egunaren amaieran azken konpainia hau 373. kotaren posizioak okupatzen geratu zen Ikastatik gertu, eta bertan pasatu zuen gaua; gainerakoak, aldiz, Santa Kruzen geratzen ziren. Eraso matxinoaren saiakeraren ondoren, batailoi erasotzaileek egunaren hasierako posizioak berriz okupatu zituzten. Egunean zehar Zamorako 4. Batailoioak posizioak babestu zituen bakarrik, *Flechas Negras* italiarrekin batailoi bitartekaria baitzen. Erasorik egin ez bazuen ere, gutxienez batailoioak modu estoikoan jasan zuen errepublikanoen artilleriaren, fusilen eta morteroen sua. Italiarrek ez zioten Jata eta Tolluren konkistari ekin Nafarroako V. Brigadak porrot egin ondoren 606. Kotan (Vargas Alonso, 2007: 324-338).

Maiatzaren 13a egun lasaia izan zen, baina hurrengo egunean frankistek aurrera egiten jarraitu zuten. Maiatzaren 14a Sollubeko batailaren azkenengo eta behin betiko eguna izan zen: indar errepublikanoek 606. kotan zeuden azken gobernu-posizioak eta mendiguneko mendebaldeko isurialdea galduko zituzten. Frankistek guztiz arrakastatsua izan ez zen inguratzeko operazio bat egin zuten, indar italiarrek Jatako tontorrak okupatu ezin zituztelako, eta horrela Euskal Herrian Gerra Zibilaren beste atal berri bat hasi zen: Jatako Bataila (Vargas Alonso, 2007: 338-358).

4.7. Hilabete gutxirako izango da: erbestea

4.7.1. “Atzo sartu zen oinutsik, gaur egingo da nagusi”: udalerriaren ebakuazioa

1937ko apirilaren 29an Busturiko herria ebakuatu zen agintari errepublikanoen aginduz, edo “*gorriek*” behartuta, Sebastián Santos Blanco maisuari buruzko txosten batek ñabardura egiten zuen bezala³³⁷. Manuel Lejarreta Urtiaga auzotarrak hurrengo kon-tatu zuen:

“coaccionado por los suyos y para salvar su ganado, hubo de evacuar a Barrica, de donde de nuevo, también obligado pasó a Sodupe y escondido esperó la entrada de las tropas naciona-les, presentándose una vez echo esto al Ayuntamiento de Busturia”³³⁸.

Dena den, indarkeria pixka bat egon arren herritarrek elizatea utz zezaten, gerraosteko JONSetako FETaren tokiko buruzagiak kontatu zuen nola Ignacio Lequerica Elesgaray auzotarrak herria borondatez ebakuatu zuen, nahiz eta honek ebakuazio derrigortua izan zela esan zuen:

“al volver de su trabajo a casa el día 28 de abril pasado no le permitieron entrar en su domi-cilio los milicianos y le obligaron a evacuar el pueblo, yendo a parar a Carranza, de donde no pudo regresar hasta el 26 de Agosto”³³⁹.

Ebakuazio agindu hau Udalerako zen ere, eta langileen zati handi batek udalerria utzi zuen (funtzionario administratiboak, teknikariak, sendagileak eta menpekoak), hala nola Andrés Cearreta Urrutiak, Antonio Uriaguereca Araluceak eta Teresa Echevarriak. Salbuespen baten bat ere egon zen, udal-idazkariarena adibidez³⁴⁰. Batzuk elizatea betirako uzten zuten bitartean, beste batzuk geratzeko heltzen ziren:

“1937eko apirilaren 29an gauetz eta 30.an goizez, lehenengo motoristak bandera monarkiko española eramaten zutela sartu hala, herriko monarkikoak, eskumatarrak eta ez zirenetariko batzuk, beharbada beldurrez edo, errepidera atera ziren ongi etorria adierazi asmoz. Batzuek, Sukarrieta inguruan mendekuaren dehiadarra egiten dute, beste batzuek aldiz, katoliko legez mendekurik ezin daitekela egin, adierazten duten bitartean” (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1987: 332).

337. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0025/014.

338. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

339. BFAAH. Administratiboa. J02616/008.

340. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0049/001; 0056/038.

Zenbait auzotar, Ramiro Echevarría Gorriño adibidez, 32 urtekoa, etorkizuneko udal-lan-gilea, tropa matxinoak herrian sartu orduko, zerbitzuak ematen hasi zen:

“voluntaria y espontáneamente, sus servicios a la Causa Nacional, cumpliendo las órdenes emanadas de la Intendencia Militar de esta plaza para que pudieran ser transportados víveres a las tropas, material bélico y rollos de alambre de espino al monte Solluve”. Garraio zerbitzuak herriko nekazarien uztarriekin edo gurdiekin egingo zituen³⁴¹.

Fredi Paia Ruiz ikertzaileak hurrengo kontaketa du udalerraren ebakuazioari buruz:

“Busturiko jente askok, gurdia zamatu, ganaduak hartu eta mendirantz jo eban egoera larri hori ikusita. Goierriko etxeetan babestu ziran gehienak, burrukaldiak amaituko ziran esperantzaz. Gizoneko gitxi batzuk baino ez ziran geratu herrian, gehienek alde egin eben, hilko ebezan bildurrez. Andra askok be, euren seme-alabak eta ahal izan ebezan ganaduak hartuta, iges egin eben etxetik. Baina egiari zor jakonez, esan behar da, beste hainbat andrak, edadekoak gehinak, etxean geratzea erabagi ebela, ondasunei ardurea hartzeko eta joan ziranak atzera etozenerako, bueltea errazteko asmoz. Andra gazteei ez eutsien geratzen itxi, entzutea zanez, marokoarrak eta italiarrak egiten ei ebezan lapurreta eta bortzaketen bildurrez” (Paia, 2005: 214).

Busturiko emakume batek hau gogoratzen du:

“Gerra denporan ebakuau in gintzesen lelengo. Etor sien nasionalak eta serak, eta urten in bixen gendun etzetik. Ni bixi nintzen etziek saspi kañonaso euki'basen. Onek barkuok, almirante Cerverak-eta, ortik Katillutxuganetik botatzen'tzoiesen serak, obusek oten sien, ta saspi kañonaso. Ta ebakua gintzenm ta jun gintzen lehengo Mañure, Mañutik Cañonera, Canonetik Mungidxera, Mungidzetik Portugaletera, ta Portugaletetik Begoñara. Antxe in gendun ya... atrapa giñen, ta ordun pasa giñen emetiko alderrire. Ta itxi gendusen aitxe ta kridxedu bet euki gendun etzien, aitxe ta kridzedue... Guk goixalden urten gendun, goixeko laurek edo ixengo sin. Nik amar urte orden. Da urten gendun, da atzaldien etortekotan aitxe, se ordun ganaduk-eta euki gendusen, ta etorteko ganaduekas eta atzaldeko... gaue ikeran. Sa bidxen bitxartien atrapa bien nasionalak au, Sollube. Da esin sien pasa, da gu jun gintzen aurrera. Guk eskendun jakin nora gusen be, aurrera da aurrera, gerrien aurretik, da Begoñen. Da Begoñen gero euki gendun, Larrinagan ordun bisi gintzen, arik eta gerriek atrapa arten Bilbo” (Paia, 2005: 215).

Antzeko lekukotza ematen digu Busturiko auzotarra den Jesús Larrabasterrek:

“El día que los nacionales cogieron Sollube nosotros nos fuimos, con nuestra ama, las dos abuelas, hermanos y hermanas. Nuestro padre y Tomás morroia, un hombre muy bueno que vivía en nuestra casa, se quedaron atrás, me imagino para poder traer las tres o cuatro vacas que tendríamos. Nos fuimos por Mañuaz, Mungia a Portugalete y más tarde cerca de la cárcel de Larrinaga (...). En aquella casa dormíamos mucha gente en un salón, no sé de donde eran, no eran conocidos. Cuando los nacionales tomaron Bilbao volvimos a casa” (Egizábal eta Serrano, 2017: 180).

Ana Cearreta auzotarrak hurrengo lekukotza ematen du udalerraren ebakuazioari buruz:

“Salimos, lo recuerdo perfectamente, dejando la cazuela colgada en el fuego; ya comería alguien, algún soldado. Nos fuimos con carros, la ropa en sacos, con algunas familias de aquí

341. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0049/001.

de San Cristóbal. Nuestro padre de monte en monte con el ganado. Nos fuimos a Bilbao, allí teníamos un tío que trabajaba en Altos Hornos" (Egizabal eta Serrano, 2017: 182).

Dena den, auzokide guztiek ez zuten lurralde errepublikanora joateko saiakera egin gerratik ihes egiteko. Busturiko auzotar zen Rufino Arróspide Omagogeascoa, beste lauekin batera, herritik ihes egiten saiatu zen etsaien lerroetan aurkezteko, Gernikaraino iritsi nahi baitzuen han tropa matxinoak zeudela jakin ondoren. Baina *Munguía* batailoien milizianoek, Carmelo Llantada zinegotzia buru zutela, tiro egin eta galarazi zieten. Orduan Rufino Arróspideren etxean babestu ziren denak tropa matxinoak Busturira heltzearen zain³⁴². 1937ko apirilaren 29an Claudio Urrutia Alcorta, Bilboko auzotarra baina 1936ko ekainaren 16tik Busturian bizi zena, Oka ibaia igerian zeharkatu nahi izan zuen etsaiaren eremuraino 20:30etan, armada italiarra Busturira heltzear zegoelako. Baina *Mungia* batailoiko fusileriak ideia burutik kendu zion desertoreari, eta zauritua edo hilda izateko beldurra izan zuenez batailoien agintariei errenditu zitzairen eta hauek Larrinagara eraman zuten preso eta Euzkadiko Herri Auzitegiaren eskura jarri zuten³⁴³. Busturiarren desertzioen lehen datuak tropa matxinoek Okaren eskuineko ertza eta Gernika okupatu zuten uneetakoak dira, Busturira heltzear zeudenean. Félix Chertudi Zabala auzotarrak kontatzen zuen nola pasatu zen:

"a las dos de la noche. y atravesando la ría de Mundaca a la Zona dominada por el General Franco presentándome a la comandancia Militar de Gauteguiz de Arteaga que se hallaba ya liberado"³⁴⁴.

Hiru kasu partikular diren arren, hainbat Bilbo Handiko metropolialdera joaten ziren bezala, beste hainbat eremu matxinora heltzen saiatzen ziren:

"Esta mañana se ha hecho un reconocimiento sobre Mundaca y Bermeo se ha ocupado Altamira; nuestras patrullas están junto a Pedernales. El puente sobre la carretera Guernica-Bermeo al Sur de Altamira está saltado; he dispuesto su reparación. El movimiento prosigue sobre Mundaca-Bermeo, vigilando el flanco izquierdo. Desertores y personas civiles pasados a nuestras líneas afirman que el enemigo se ha replegado hacia Mundaca"³⁴⁵.

Zaila da esatea borroka fronteetatik urruntzeko ohiko egoitza utzi zuten familien kopurua zehatza, baina 1936ko irailetik aurrera ehunaka zibil babestu zuen herri bat bere lehen aldiz erbesteratu egiten zen ohiko egoitzatik kanpo toki seguru baten bila. Joseba Agirreazkuenaga Zigorranga historiagilearen hitzetan herriko %20ek elizatea utzi zuten ebakuazioan (Agirreazkuenaga Zigorranga, 1987: 332). Dokumentatu diren adibideen artean Policarpo Astoreca Bericua busturiarrarena dago, 46 urtekoa, Barakaldon babesa aurkitu zuena ebakuazio agindua baino egun batzuk lehenago. Lutxana auzoan ezarri zen, errefuxiatu gehiagorekin etxebizitza bat partekatuz, eta Basurtoko Cementos Aslan lantegiko langileen jantokia kudeatzen jardun zuen³⁴⁶. Eleuterio Basterrechea Lamiquiz

342. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81/37 kausa. Bizkaia.

343. MHZD. PS Madril. 165. kutxa.

344. EAA. AP-1302-03.

345. AGMA (Avilako Artxibo Orokor Militarra). 36. armairua. 09. paper-sorta. 03. karpeta.

346. MHZD. PS Bilbao. 11. karpeta. 03. txostena; AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 12570/41 kausa. Bizkaia.

auzokidea ere Zárate Hnos. saltokian (Bilbo) lanean egon zen udalerría ebakuatu ondoren, bere kinta Euzko Jaurlearitzak mobilizatu eta *San Andrésen* sartu zen arte³⁴⁷. 1937ko maiatzaren amaieran Busturiko auzotarra zen Vicenta Arronategui Ateca Erandion zegoen, Gizarte Laguntzako Idazkaritza Partikularrak familiako kontuetarako azaltzea eskatzen baitzion (*El Liberal*, 1937/05/18). Hilabete berean Karrantzan errefuxiatu bezala zegoen Busturiko azken alkate errepublikanoa, Juan Antonio Arguinzóniz Porturas, bere familia eta elizateko beste hainbat auzotarrekin batera: Anastasia, Leonor eta Natividad Arguinzóniz Urquiza; Eliodora Apraiz Izaguirre; Dolores eta Miren Yayone Luzarraga Arguinzóniz; Jon Mousatere Eguizóniz; Antonia Deprit Torre; José Antonio, Carmen eta María Begoña Arguinzóniz Deprit eta Jesusa Amunátegui Bengoechea³⁴⁸. Gipuzkoatik Busturira heldutako errefuxiatuek ere behin-behineko egoitza izan zena ere utzi zuten. Axpeko mutilen eskola nazionalaren bitarteko maisua zen Augusto Peñín Balbasen kasua izan zen, bere emaztearekin, semearekin eta zerbitzariarekin herria utzi zuena³⁴⁹.

Elizatea matxinoek konkistatu zutenean, 1936ko irailean gertatu zen bezala, Busturiko errefuxiatuek prentsa-ohar ugari argitaratu zituzten senideei buruz jakiteko: busturiarrak orain ohar horien egileak ziren. Adibidez, 1937ko maiatzaren 2an, Busturiko Umbelino eta Andoni Garmendiari jakinarazten zitzaaien euren arrebak Anunciación eta Miren berri-rik gabe zeudela Bilbon (*Euzkadi*, 1937/05/02). Gregorio Esquíbel Ispizuak ere bere familiaren berri jakin nahi zuen, Busturian baitzeuden ebakuazioa gertatu baino lehen (*Euzkadi Roja*, 1937/05/14).

Gainera, herriaren erorketa berriak soldaduen adorea azpiak jaten zizkion ez zekitelako senideak non zeuden matxinoen konkistaren ondoren: Luis Arana Maiztegui, Ingeniarien “Monzón” 2. Batailoiko 3. Konpainiakoa, bere ama, Martina Maiztegui, eta bere arrebak, María Luz eta Gloria, non zeuden jakin nahi zuen (*Euzkadi*, 1937/05/05); Antonio Blanco milizianoak María eta Vicenta Anduezen berri jakin nahi zuen (*El Liberal*, 1937/05/06); Felisa Esquiaga Ispizua, Bilbotik, bere gurasoak non zeuden jakin nahi zuen, Busturitik ebakatuak izan baitziren (*El Liberal*, 1937/05/11); Ángel Leunda milizianoak bere bikotea zen Generosa Pelayo Martínez eta honen familiaren berri jakin nahi zuen (*Euzkadi Roja*, 1937/05/07); Fermín Calzada Benguria milizianoak, México batailoikoa, bere senideen berriak nahi zituen (*El Liberal*, 1937/05/13); edo, azkenik, Ignacio de Urzelai gudariak, *Intxarkundia* batailoikoa, bere senideen berri jakin nahi zuen ere (*Euzkadi*, 1937/05/14; *La Tarde*, 1937/05/14). Maiatzaren amaieran eta ekainaren erdialdean ebakuatutako familiarren bila zeuden pertsonak topatzen ditugu oraindik: José Porturas Bilbao, Andrés Iturbe Zorrozueta, Gregorio Apráiz Goiri eta Francisco Gandiaga Alegría gudariak, *Malato* batailoikoak (*La Tarde*, 1937/05/26); Juan Arrospe Achicallende eta Ceferina Iturbe (*Euzkadi*, 1937/06/10); Félix Ugalde Garayk, *Itxasalde* batailoiko gudaria, Carmele Lecumberri Fernández eta honen familia non zeuden jakin nahi zuen (*La Tarde*, 1937/06/14) eta, azkenik, Antonio Alegría Laucirica gudariak, *Itxasalde* batailoikoa baita ere, bere izeko Petra Laucirica eta lehengusina Rafaela Borda non zeuden jakin nahi zuen (*La Tarde*, 1937/06/16).

347. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 128/37 kausa. Bilbao.

348. BFAAH. Udal Atala. Karrantza 0108/002.

349. BFAAH. Udal Atala. Busturia 0030/011.

Udalerriko akta-liburuaren arabera 1937ko apirilaren 18an egin zen Busturiko Udal errepublikanoaren azken biltzarra³⁵⁰. Hala ere, garaiko egunkari eta aldizkarietan agertutako zenbait iragarkietan azaltzen zen 1937ko apirilaren 29an ebakuatu zen udala Bilboko helbide batean berriz eratu zela (Plaza Eliptikoa, 8) maiatzaren 2a baino lehenago. Iragakian Busturiatik ebakuatutako errefuxiatu guztiei jakinarazten zitzairen helbide horretan izena eman zezaketela errazionamendu-liburuxkak eskuratzeko edo udalarekin zerikusia zuen beste edozer egintza egiteko, baita Hornikuntza ordezkariak eta une horretan jarduneko alkatea zenak, Carmelo Llantada, ematen zituen zenbait elikagai eskuratzeko (*El Liberal*, 1937/05/02; *Euzkadi*, 1937/05/02; 1937/05/04, 1937/05/05).

Dena den, jarduneko alkateak, Carmelo Llantada, udaleko biltzarrak egiteko, egunkarietan iragarkiak argitaratzen zituen zinegotziak ager zitezela eskatuz. Horrek aditzera ematen du udalaren ebakuazioa ez zela ordenatua izan eta udala oso puskatuta geratu zela herritik joan zenean (*El Liberal*, 1937/05/13; *Euzkadi*, 1937/05/18). Izan ere, argitaratu zen iragarki batean 24 ordu ematen zitzairen, argitalpenetik aurrera, udaleko funtzionario eta langile guztiei Bilboko bulego berrietan aurkezteko (*La Tarde*, 1937/05/18). Ez dirudi eskariak arrakasta handirik izan zuenik, jarduneko alkatetzan, 1937ko maiatzaren amaieran, Bilbo erori baino hilabete eskas lehenago, Paulino Apraiz Ordorica jeltzalea zegoelako, aurreko jarduneko alkatea, Carmelo Llantada, borroka frontera joan zelako *Ochandiano* batailoian sartu ondoren 1937ko maiatzaren 22an (*El Liberal*, 1937/05/22). Gainera, Rufino Arróspide Omagogeascoa zinegotziak jadanik adierazi zuen ez zela udaleko biltzarretara joan ebakuazioaren ondoren, eta udalean berriz sartu zela 1937ko abuztuan Román Cearreta Urrutiak behartu zuelako, une hartan Busturiko EAJko zuzendari bat zena³⁵¹. Udal errepublikanoa desagitea ez du esan nahi tokiko talde politikoei gauza bera gertatu zitzaiela. 1937ko ekainaren 13an Busturiko Ezker Errepublikanoako presidenteari edo idazkariari deitzen zitzaion Bizkaiko Ezker Errepublikanoako Kontseilu Probintziala bilduko baitzen (*El Liberal*, 1937/06/13; *Euzkadi Roja*, 1937/06/13).

Udalak Bilbon egin zuen kudeaketari dagokionez hainbat iragarki aurkitu ditut egunkarietan. Hauetatik ondoriozta daiteke Udalak errefuxiatuen elikadura eta tresneriarekin zerikusia zuen kudeaketa egin zuela, adibidez errazionamendu-liburuxka berriak jasotzeko iragarkia jarri zuenean (*Euzkadi*, 1937/05/05) edo herria ebakuatzeko erabili ziren abereei emandako arretari buruzkoa jarri zuenean (*El Liberal*, 1937/05/27). Udalak ebakuatuei kontu familiarrei buruz berri emateko kudeaketak ere gauzatu zituen, adibidez, Busturiko udal-danbolindaria zen Julián Borda Lejarzaren familiaren kasua dugu (*La Tarde*, 1937/05/18; *El Liberal*, 1937/05/19; *Euzkadi Roja*, 1937/05/19).

350. BUA (Busturiko Udaleko Artxiboa). Akta-liburua. 1937/04/18.

351. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 81-37 kausa. Bizkaia.



Ezkerretik eskuinera, lehenengo ilaran: Andima Lecumberri, Karmele Torrealday, Imanol Amunategui eta Amaya Torrealday. Erdiko ilaran: Juan León Lecumberri, Julián Borda txistua jotzen, María Araucua, M.^a Angeles Amunategui, Miren Torrealday, Octavio Lecumberri eta identifikatu gabeko mutiko bat. Atzeko ilaran: Felipe Lecumberri, Inés Amunategui, Sabino Amunategui, M.^a Angeles Amparan, Juan Bautista Amunategui, José Torrealday eta Justa Amunategui (Iturria: Busturiko Udala).

4.7.2. Atzerrira bidalitako haur busturiarrak

1936ko uztailaren 18tik lurralde errepublikanoan garatu zen exodoan hainbat etapa zeuden. Euzko Jaurlaritza eratu zenean errefuxiatuentzako laguntza politikarekin eta migrazio-mugimenduen kontrolarekin jarraitu zen, hasiera batean partikularren ekimena zirenak. Haurtzaroaren arloan Euzko Jaurlaritzak Haur Egonaldiak eta Milizianoen Umezurtzen Etxea sortu zituen, hezkuntza beharrez arduratuz gain, aurreko atal batean azaldu dugun bezala.

Frontea egonkortu zenean lehen espedizio bat antolatu zen Oléron uhartera joateko (Frantzia). Bidaia itsasoz egin zen Bermeotik Donibane Lohitzunera, eta gero lurretik Bordeleraino, handik Oléron uhartera pasatzeko. Dagoeneko aipatu dugu nola Bizkaiaren gaineko erasoak aire-jazarpen handiago bat ekarri zuen. Beraz, ahulenak, lurralde errepublikanoko haurrak, bonbardaketa matxinoen biktimak bihurtu ziren. Maiatzetik aurrera gero eta ebakuazio gehiago egin ziren atzerrira, eta maiatzaren 7tik ekainaren 12ra haurren ebakuazio nagusienak egin ziren Frantziara, Britainia Handira, Belgikara eta SESBera. 30 itsasontzi inguru jarri ziren euskal agintarien zerbitzura, *Habana* eta *Goizeko Izarra* nabarmenenak izanik, 60 bidaia baino gehiago egin baitzituzten, eta

euskal haurrak Pauillac, La Pallice, St. Nazaire eta Nanteseko portuetara eramán zituzten (Arrien, 1988: 15-19).

1937ko abenduan Gizarte Laguntzako Sailak 35.750 haurren eta 29.000 helduen fitxak zituen, eta lau hilabete beranduago, 37.304 haur eta 34.068 heldu ziren. Gizarte Laguntza Sailak egoitza, mantenu, aberriratzeko eta abarrei buruzko datuak zekizkien. Hala ere, Gizarte Laguntza Sailak zuzenean edo zeharka kontrolatzen zituen haurrak 14.939 ziren guztira (Arrien, 1988: 21).

**Gerran erbesteratutako
haurren banaketa herrialdeko**

Herrialdea	Haurrak
Belgika	3.201
Bretainia Handia	3.956
Suitza	245
Dinamarka	105
Frantzia	22.234
Katalunia	6.200

(Iturria: Arrien, 1988: 21).

Bretainia Handia eta Frantzia izan ziren haurrak hartzea erabaki zuten lehen herrialdeak. Hurbiltasun geografikoak eta kultura-kidetasunak Ipar Euskal Herrian haur eramán zituzten Frantziako lurralde horretara. Atzerrira joan ziren Busturiko hiru haur identifikatuak lurralde frantses batera joan ziren: Jesús María Gorriño Echevarría, José María Gorriño Echevarría eta Saturnino Irujo Erayalar. Ziur aski, 1937ko maiatzaren 7tik ekainaren 16ra Frantziara joan ziren gazteak La Pallice, Pauillac edo Baionako portu frantsesetara heldu ziren itsasontziren batean egin zuten bidaia: *Habana*, *Cabo Corona*, *Goizeko-Izarra*, *Carimare*, *Margaux* edo *Chateau-Palmer* (Arrien, 1988: 23; Carballés, 2007: 691).

Euzko Jaurlaritzaz gain, Frantzian sortutako errefuxiatuei laguntzeko batzordeak eta erakundeak umeei lagundu zieten atzerrian: Espainiako Haurrei Abegi Egiteko Batzordea (CAEE), Espainiako Errefuxiatuei Laguntzeko Batzorde Nazional Katolikoan (CNCC) bildutako indar katolikoak, Batzorde Suediarra, Holandako Batzordea, Frantziako Gobernua eta Espainiako Errepublikako Gobernua. Horretarako, Euzko Jaurlaritzak babes-erakundeak sortu zituen Frantzian, 13 egoitza eta zenbait haur kolonia mantenduz. Adibidez, Donibane Garaziko kolonia Euzko Jaurlaritzak mantentzen zuen kolonia bat zen, eta sortzeko gotorleku bat prestatu zen. Erbestealdiko talderik handienetako bat zen, ia 500 haur zituen eta 70 heldu inguru irakasle, laguntzaile eta beste arduradunak kontuan hartuz. Horien guztien artean José María Gorriño Echevarría busturiarra zegoen, 13 urtekoa (Alonso Carballés, 1998: 615). Urrunan Jesús María Gorriño Echevarría hartu zuten, 15 urtekoa (Alonso Carballés, 1998: 615). Kolonia guztiak ondo antolatuta zeuden, barruko diziplina eta ordena zorrotzekin, eta jateko, ikasteko, jolasteko eta elizkizunak egiteko ordutegiak zehatz-mehatz jarraitzen ziren (Arrien, 1988: 23-25).

Saturnino Irujo Eyaralar haurrak, Saint Christaura bidali zena, 8 urte zituen eta Gorlizko Sendategiko haurren artean zegoen. 1937ko ekainaren lehen hamabostaldian, bi espedizioetan, Saint Christeauko bainuetxera eraman zituzten eta gero Berck-Plageko itsas-sendategira. Ia 250 haur irten ziren Gorliztik, baina 165 bakarrik heldu ziren Berck-Plagera. Denak arreta handiz zainduak izan ziren, eta beraiekin Euskal Herriko zortzi erizain, kapilau bat eta sendagile bat joan ziren. Ebakuazio hau ospetsua izan zen matxinoek honi buruz gerraostean egin zuten propaganda politikoagatik, *Un episodio de la guerra española. Evacuación y repatriación del Sanatorio de Górliz* argitalpenak frogatzen duen bezala (Arrien, 1988: 25-27). Saturnino Irujo Eyaralar haurra Gorlizko Sendategian ospitaleratu zuten berriz, Busturiko elizateko behartsu gisa, 1938ko mar-
txoaren amaieran aberriratu izan ondoren³⁵².

Euzko Jaurilaritzak gurasoen askatasuna errespetatu zuen seme-alaben irteerari buruzko erabakia hartzeari zegokionez, irteera hori buruz gobernuak berak emandako bermeekin. Ziur aski ez zen erabaki erraza izan Francisco Gorriño Guarrochenak eta Dorotea Echevarría Uribe hartu zutena, Jesús María Gorriño Echevarriaren gurasoak zirenak, euren bost seme-alaben txikiena atzerrira joan zedin. Eta gauza bera esan daiteke Miguel Gorriño Solagaitua eta Dorotea Echevarría Ispizuari buruz, José María Gorriño Echevarría gurasoak zirenak, beste bost seme-alaben txikiena etxetik joan zedin. Adinaren eskakizuna nahiko malgua izan zen arren, mutilek ez zituzten hamabost urte baino gehiago izan behar; nesken kasuan ez zegoen adineko mugarik. Harritzekoa da Jesusa Gorriño Echevarría, 17 urtekoa, ez ebakuatzea bere neba txikiarekin, José María Gorriño, bere familiaren lasaitasunerako. Aldiz, baliteke Jesús María Gorriño Echevarría bere arreba nagusiarekin joatea espedizioan, María Soledad Gorriño Echevarría, 26 urtekoa eta lehen hezkuntzako maistra zena.

Azaldu da dagoeneko nola espedizioetan, oro har, helduak ere zihoazela pedagogo, sendagile, erizain, kapilau eta haurrak laguntzeko beste laguntzaile gisa. Ikuspegi honetan irakasleak nabarmentzen ziren, kolonietako elementu garrantzitsu bat zirenak osasun-pertsonalarekin batera. María Soledad Gorriño Echevarría irakasle bezala joan zen espedizioan, ziur aski bere neba txikia Frantziara zihoan berdinean. Modu berean alde egin zuen Agustina Torrontegui Oleaga maistrak, Busturian jaioa baina Bilboko auzotarra zena, ideologia nazionalistakoa. Bilbo askatu baino lehen Ingalaterrara joan zen haurren espedizio batekin eta han geratu zen 1940ko urtarrilera arte, Euskal Herrira itzuli zenean garrantzizko ondasunik gabe³⁵³.

4.7.3. Erbestea

Molak Bizkaiaren gaineko erasoari berriz ekin zionean, Busturia erori baino hilabete bat lehenago, populazio zibila aire-jazarpen handiagoa jasaten hasi zen, Gernika eta Durangoko bonbardaketetan ikus daitekeen bezala, eta gainera borroka fronteak une horretara arte gerra hain gogor bizi izan ez zuten herrietara hurbiltzen hasi ziren. Bi arrazoiengatik Euzko Jaurilaritzak emakumeen, adinekoen eta haurren zati handi baten eba-
kuazioa antolatu zuen.

352. BUA (Busturiko Udaleko Artxiboa). Akta-liburua. 1938/03/24.

353. MHZD. Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala. 286/196.

Ebakuazioa 1937ko maiatzaren 7an hasi zen eta urte bereko urriaren 24ra arte iraun zuen. Bilboko portutik, hasieran, eta Kantabria (Santander, San Vicente de la Barquera) eta Asturiasetik (Ribadesella, Gijón, Avilés, Llanes, Villaviciosa), gero, Euzko Jaurlaritzak 116.746 pertsona ebakuatu zituen era kontrolatuan 171 egunetan zehar. Herritar hauen helmugak Pauillac, La Pallice, Verdon, Saint Nazaire eta Nanteseko portu frantsesak izan ziren. Pauillac-eko portu frantsesa izan zen helduera kopuru gehien izan zuena, 84.111 guztira, hurrengo La Pallice-eko portua izanik, 21.635 helduerekin. Hala ere, aipatu behar dugu, Euzko Jaurlaritza itsasontziez eta antolamendu osoaz arduratu arren, ebakuatutako euskal herritarrek 103.115 izan zirela bakarrik. Gainerakoak atzerriera joateko euskal ebakuazioaren antolaketa aprobetxatu zuten asturiarrak eta santandertarrak izan ziren.

Bilbo konkistatua izan zenean, herritar askok metropolialdea utzi zuen kontrol matxi-noaren menpe ez zeuden Bizkaiko azken herrietan ezartzeko edo Kantabriara heltzeko, Euzko Jaurlaritzaren laguntzarekin zein ekimen partikularren bidez. Euzko Jaurlaritza bere funtzionarioen ebakuazioaz kezkatu zen, Benito Guerequeta Landa busturiarraren azidibidez, Itsas Zuzendaritzan zerbitzuak eman baitzituen, baina ez zuten Industria eta Ontzidi Zibileko Saileko gainerako langileekin ebakuatu, bere ezkontidea zen Margarita Santamariarekin ez aurkezteagatik³⁵⁴. Euzko Jaurlaritza ere zaurituen ebakuazioaz arduratu zen, Policarpo Larreta Iturbe Kantabriara eraman baitzuten miliziano zauritu bezala³⁵⁵. Ziur aski bere baliabideak erabiliz, María Apraiz Goiri auzotarra Berangaraino iritsi zen 1937ko uztailaren 10ean, Santanderreko CNT/AITko Eskualdeko Federazio Menditarraren ibiltzeko baimen batek frogatzen zuen bezala³⁵⁶. Francisco Gorriño Guarrochena, 65 urteko adineko bat, Santanderrera iritsi zen Bilbotik abiatuta³⁵⁷. Policarpo Astoreca Bericua auzotarrak Lutxana utzi zuen 1937ko ekainaren 12an Maliañon ezartzeko (Kantabria), eta hemen etxe partikular batean bizitzen egon zen 1937ko abuztuaren 26ra arte. Kantabrian bizi zen bitartean ez zuen lanik egin eta Bermeoko jantokien eta Basurtoko Cementos Aslan lantegiko langileen jantokiaren arduraduna izateagatik Gizarte Laguntzak esleitu zion ordainsariarekin bizi zen. 1937ko irailaren 2an Busturira itzuli zen³⁵⁸. Beste batzuk, Carmelo Llantada Uriaguereca zinegotzia bezala, une hartan *Ochandiano* batailoian zegoena, 1937ko ekainaren 19an Bilbon etsaiari errenditzen zitzaion, “*en virtud del pacto*”, eta matxinoen aurrean azaldu zen hornitutako fusil batekin eta hiru esku-bonbekin³⁵⁹.

Dena den, beste hainbatek erbestealdiarekin jarraitzen zuten. Frantziara ebakuatu ziren busturiarren artean Rita Calzacorta Cafranga dokumentatu dut, bere seme-alabekin batera: Elvira Uriaguereca Calzacorta (24 urte); Imanol (15 urte); Delfín (13 urte), José Mari (11 urte); Ana Mari (9 urte) eta Miren Begoña (6 urte). Beraiekin ez ziren

354. EAH-AHE. Euzko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Industria, Itsaso eta Arrantza Saileko funtsa. Idazkaritza Orokorra. Idazkaritza. 770. paper-sorta. 09 paper-sorta zenbakia.

355. MHZD. PS Santander D. 13. kutxa. 03. txostena.

356. MHZD. PS Santander O. 73. kutxa. 671. folioa.

357. MHZD. PS Santander O. 29. kutxa. 01. txostena.

358. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 12570/41 kausa. Bizkaia.

359. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1002/37 kausa. Gipuzkoa.

ontziratutako beste bi alaba, María Luisa (27 urte) eta María Delfina (23 urte), seme bat, Juan Ignacio (21 urte), ezta bere senarra Juan Uriaguereca Iturri ere, kapitain nautikoa zena. Beraiekin zeudenak Begoña Benguri (4 urte) eta Yolanda Benguri (2 urte) zeuden, ziur aski ahizpak eta familiarrak. Denak Saint Nazaire helmuga zuten *Kenfig-pool* baporean ontziratutako ziren 1937ko abuztuaren 13an, Lons le Saunier-era (Jura, Francia) joateko³⁶⁰. Beste busturiar batek ere babesa aurkitu zuen Frantziar *Marvia* baporetik lehorreratu ondoren Saint Nazaire-n 1937ko abuztuaren 4an, Leandro Carrara Eanda (46 urte), eta bere helmuga Château Thierry zen (Aisne, Francia)³⁶¹. Azkenik, baliteke Frantziara ebakuatzea ere Felipa Cearreta Cearreta, Meñakan jaioa eta Busturiko auzokidea, Francisco Cearreta Goirien emaztea, bere seme-alaben zati handi batekin: Filomena (24 urte); María (17 urte); José (15 urte); Evarista (12 urte); Rosa (10 urte); Anastasia (6 urte) eta Bonifacio Cearreta Cearreta (4 urte)³⁶². Ana Cearretaren lekukotzaren arabera:

“Cuando la cosa se puso muy mal tuvimos que huir también de Bilbao a Santander. Allí tuvimos la opción de embarcar hacia Francia o Rusia. Nuestra madre, con 9 hijos... Benita en brazos,... y nuestra madre con toda la familia se embarcó hacia Francia” (Egizábal eta Serrano, 2017: 182).

Ana Cearretak Frantziaraino egin itsasontzi-bidaiaren gogortasuna kontatzen jarraitzen du, gero han izan zuten egonaldia azalduz:

“El viaje en el barco también fue duro, 4 días para llegar a Francia; sin comer, perdidos en la mar,... En un carguero, en las bodegas entre sacos. Recuerdo perfectamente cómo nos mandaban callar y nos decían: —“Cuidado que el Cervera nos viene al encuentro”... pero no recuerdo el nombre del barco. El capitán debió de cambiar de ruta para que no nos cogiese el buque Cervera. Recuerdo perfectamente el único alimento que teníamos, un bote de leche condensada que escondía mi madre; y se la dio a un marinero para que con aquella leche condensada, con agua caliente peraparase algo para los niños,... hasta hoy. Arriba también los marineros tenían hambre... Nosotros pasamos año y medio, creo, en Francia. Nuestro padre, la hermana mayor y Martín, que estaba en el frente, se quedaron aquí, nuestra hermana en Barcelona. En Francia nos acogieron muy bien, nuestra madre con siete niños pequeños, Benita en brazos. Nos acogieron en casa de un polívita, fenomenal, a todo lujo. El pueblo se llamaba Quesí, el pueblo de al lado Sité, y en Thernier había un hotel Continental donde había refugiados vascos de Eibar, Gernika,... Había sido un hotel, nos trataban muy bien. Los que organizaban aquello habían preparado una especie de tienda donde nos daban víveres. Recuerdo como pasaban todos los días... venía un panadero en un caballo, un pan hermoso, blanco, y para los niños, pues en forma de herradura. Allí también fuimos a la escuela, yo ya olvidé hablar euskara, y no sabía castellano, entonces francés” (Egizábal eta Serrano, 2017: 183-184).

360. EAH-AHE. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Ebakuazioa. Idazkaritza. Zerrendak. 464. paper-sorta. 01 paper-sorta zenbakia.


361. EAH-AHE. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Gizarte Laguntzako Sailaren funtsa. Ebakuazioa. Idazkaritza. Zerrendak. 464. paper-sorta. 01 paper-sorta zenbakia.

362. BFAAH. Busturiko udal atala 0011/005.



Cearreta Cearreta familia Frantziako erbestealdian. Felipa Cearreta agertzen da bere zazi seme-alaba txikiarekin (Iturria: Egizábal eta Serrano, 2017: 183).

Dokumentatu dut ere, Euzkadiko Gudontzidi Laguntzaileko marinel batzuk ere, Busturian jaioak edo Busturiko auzotarrak, babesa aurkitu zutela Frantzian 1937ko abenduan: Alejandro Bilbao Mendiola, Silvestre Izaguirre Arróspide (San José babes-etxea, Capbreton), Escolástico Uribarri Larrucea, Amadeo Uribe Asteinza (Basko babes-etxea, Magescq, Capbreton), Francisco Uribe Asteinza (Place des Platones, Capbreton) eta Serapio Zabala Arrien. Dirudienez, ihesaldian denak heldu ziren Landetara, Capbretonen komuna frantsesera hain zuzen ere³⁶³. Dena den, haietako batzuk lurralde errepublikanora itzuli ziren Bartzelonatik eta borroka egiten jarraitu zuten beste borroka-fronte batzuetan, Amadeo Uribe Asteinzaren kasuan bezala. Kontuan hartu behar da ere Busturiko populazioaren zati handi batek familiar hurbilenak



Escolástico Uribarri Larrucea (Iturria: marinavasca.eu).

363. EAH-AHE. Euzkadiko Artxibo Historikoa. Eusko Jaurlaritzako Artxibo Historikoa. Defentsa Saileko Funtza. Informazio Orokorra (Idazkaritza Orokorra). Fitxategiak.

erbestea sufritu behar izan zutela. Hainbat adibide ditugu honi buruz. Víctor Bilbao Expósito, 66 urteko agurea eta Sukarrietan jaioa, Facunda Bilbao Expósito busturiarren neba, Santander utzi zuen Saint Nazaire-ra joateko uztailaren 17an, Tours-Indre-n ezartzeko (Loire, Frantzia). Leandra Foruria Bilbaoren ahizpak, Jesusa Foruria Bilbao, 21 urtekoa, Santanderrera ino ihes egitea lortu zuen eta Cahors-era heldu zen (Lot, Frantzia), Eulalia Lezeta Elizbururekin (27 urte) eta honen alabarekin, María Foruria Lezeta (5 urte). Ez dugu ahaztu behar agintari errepublikanoek kontrolatutako ebakuzioak bakarrik ari naizela. Lekukotza ugari daude esanez mota guztietako itsasontziak Frantzia heltzen saiatzen ziren Euzko Jaurlaritzaren antolaketa kanpo. Aipatzen ari garen txostenean adierazten da 5.000 pertsona izan zirela, gizonak eta borrokalariak gehienak, euren kabuz ebakuztea erabaki zutenak.

4.7.4. *iDefensar Euzkadi es defensar Catalunya!*

Gipuzkoako kanpaina militarrean euskaldun ugarik Frantzia aurkitu zuten babesa. Frantziako agintariak Frantziatik Kataluniara aberriratu zituzten, errefuxiatuak tren bidez Puigcerdà, Cervera edo Portbura eramanez. Iñaki Goioanaren eta Gregorio Arrienen arabera, 16.000 euskal errefuxiatuek arduratu zen Gizarte Laguntza Saila 1936ko amaieran (Goioana eta Arrien, 2002). Baina Bilbo 1937ko ekainean erori zen arte ez zen Kataluniara euskal herritarren helduera areagotu, denak emakumeak eta haurrak. Abuztuan Santanderetik abiatu ziren ebakuztuen mugimendua areagotu egin zen, eta gehienak ohiko egoitza utzi izan zuten bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ziren (Goioana eta Arrien, 2002). Gainera, Frantziako agintariak 1937ko urrian agindutako “*refoulement*” politikak Kataluniara errefuxiatu berri gehiago heltzea eragin zuen. Zaila da zenbakitan ematea Kataluniara errefuxiatu bezala heldu zen euskal populazioa, baina txosten baten arabera 63.000 euskaldun heldu ziren “*refoulement*” politiken ondorioz, 36.000 inguru aberriratuak izan ziren bitartean Hendaiako mugara joatean, eta Katalunian ia 19.000 euskaldun geratu ziren.

Katalunian babestu ziren busturiar batzuk izan ziren Fidel Andicoechea Guerequeta, José Gurmendi Arana, Francisco Gómez Apraiz, Juan José Gómez Apraiz, Adolfo Llona Elguezabal edo Juan Ignacio Uriaguereca Calzacorta. Horietako lehenengoak 1938ko otsailerako Euskalduna Hotelean (Bartzelona) egoitza zuen bitartean³⁶⁴, José Gurmendi Arana busturiarra Euzko Jaurlaritzako lehendakaritza Guardiako buruzagi bihurtu zen urte horren amaieran³⁶⁵. Juan José eta Francisco Gómez Apraiz anaiei dagokienez, Kataluniako Euskal Ordezkaritzako guardiak izateko lana aurkitu zuten. Rita Calzacorta ia bere seme-alaba guztiekin 1937an Frantziara joan zela ikusi dugun arren, alde egin ez zuten semeen artean nagusienetako bat zegoen, Juan Ignacio Uriaguereca Calzacorta, ustez Katalunian zegoena baina zehazki non zegoen jakin gabe (*Euzkadi*, 1938/01/16) Zorte txarragoa izan zuen Carlos Gondra Cortázarrek, 55 urtekoa, Busturian jaioa, erbestealdian hil baitzen Valentzian (*Euzkadi*, 1938/12/09). Busturiko familia asko familiar erbestertuak non zeuden jakin gabe bizi ziren. Miren Uriaguerecaren lekukotzaren bidez, bere aita Antonio Uriaguereca Araluzea zena, Busturiko Udaleko funtzionarioa, egoera honi buruz jakiten dugu:

364. MHZD. PS Bartzelona. 261. paper-sorta. 7-9 folioak.

365. MHZD. PS Bartzelona. 475. karpeta. 17. txostena.

“Nuestro padre Antonio Uriagereka, “Antonio Moxo” le llamaban, era alguacil en el ayuntamiento y tuvo que escaparse. No supimos nada de él en mucho tiempo; si le habían cogido, si le habían matado,... luego empezó a mandar cartas a nuestra tía de Muxika, y e lla nos traía las cartas. Nuestro padre estuvo en Barcelona, y luego pasó a Francia” (Egizábal eta Serrano, 2017: 194).

Katalunian Euzkadiko Ordezkaritzan erregistrotatutako borrokalari batzuk Amadeo Uribe Asteinza, Adolfo Llona Elguezábal eta Ángel Lecuona Beitia izan ziren³⁶⁶. Amadeo Uribe Asteinza ontzi-alferezak, *Donostia* bouaren ofizial ohia, *Tramontanaren* agintea izan zuen gerra amaitu arte (Pardo San Gil, 2008: 151-153). Adolfo Llona Elguezábal busturiarra, *Fulgencio Mateos* batailoiko borrokalari ohia, JSUetara afiliatua, preso erori zen Santanderren. 1938ko urtarrilaren 1ean batailo matxino batera atxiki zuten eta Villafrancako frontera bidali zuten, baina gero Huescatik lurralde errepublikanora itzuli zen bere armamentuarekin eta munizio eta esku-bonben hornidura osoarekin³⁶⁷. Azkenik, Ángel Lecuona Beitia eta Ramón Aizpurua Corta ditugu, *Montaña Pirenaico* batailoiko soldaduak. Euskal agintariek kudeaketak egin arren, baten batzuk Madriliko *Milicias Vascas Antifascistas* taldera pasatu ziren edo *Vasco-Pirenaica* izenarekin eza-guna denera, fronte katalano-aragoiarrean. Iparraldeko soldadu erbesteratu gehienak izaera euskalduna ez zuten unitateetan sartu ziren arren, euskaldunen zati handi bat eta, jakina, busturiarren zati handi bat, itsas-armada errepublikanoan edo Itsas Karabineroetan sartu ziren. Dena den, Ángel Lecuona Beitia eta Ramón Aizpurua Corta unitate aipagarri batean egon ziren: *Batallón Alpino* edo *Batalló de Muntanya Basc-Catalá* delakoan. Unitate hau Katalunian sortu zen fronte errepublikanoa Kantauri aldean erori zenean, eta oinarrian, euskal aldeari dagokionez, iparraldetik ebakuatutakoak zituen eta Irun erori zenetik eremu katalano-aragoiarrean borrokan ari ziren hainbat talde. Ebakuatutako asturiarrak eta santandertarrak ere izan zituen, Pirinioetako Erregimentua izan zeneko katalanez gain. Unitateak 1938ko otsailen jaso zuen armamentua, Barbastron, eta Huescako frontera pasatu ziren, non martxoko eraso frankistak Benasque eta Sortera atzera egitea behartu zituen. Gero Piedras de Aolo, Alins-Aint de Besan, Vall Ferrera eta Tírvian borrokatu ziren. Abenduan unitatea, beste bost batailoiekin eta eraso indarrekin batera, Pirinioetako Taldean edo La Seu d’Urgell Sektorean sartu zen. Talde hau Frantziako mugatik eta Romadriu ibaitik hedatu zen, eta bere posizioei eutsi zien 1939ko otsailaren 6ra arte, Pirinioetako Talde matxinoak aurrera egiten hasi zenean. 1939ko otsailaren 10erako Talde errepublikanoaren gehiengoa Frantziara igarotzen zen.

Azkenik, busturiarren talde bat gerraren lehen urtean frontean zerbitzuak ez ematea lortu zuen, Merkataritza Ontzidian edo beste motako itsasontzietan nabigatzen zebiltzalako, eta beste batzuk baldintza ezberdinengatik beste fronteeetan borrokan amaitu ziren. Penintsulako iparraldea erori zenean, batzuk eremu errepublikanora itzuli ziren Bartzelona, Valentzia, Alacant edo Cartagenatik, eta beste batzuk, atzerriko portuetatik. Ordura arte frontean zerbitzua ematea saihestu bazuten haien kinta mobilizatu ondoren, orain Itsas Infanteriako batailoietara edo Brigada Misto errepublikanoetara atxikiak izan ziren. Ignacio María Ugalde Ugaldek kontatu zuen Bartzelonan bere kinta mobilizatua izan zela, eta Itsas Infanteriako 34. Dibisioan sartu zela, Kataluniako

366. EAH-AHE. Eusko Jaurilaritzako Artxibo Historikoa. Defentsa Saileko Funtsa. Informazio Orokorra (Idazkaritza Orokorra). Fitxategiak.

367. MHZD. Segida militarra. 1052. kutxa.

fronteetan borrokatuz atzeraegite orokora gertatu zen arte. Orduan Frantziara igaro zen Junqueratik 1939ko otsailaren 10ean³⁶⁸. Daniel Oleaga Aranguren Itsas Infanteriako 1. Erregimentuan sartu zen Cartagenan, Armategia helmuga zuelarik, *Tramontana* baporean Frantziara ebakatu zuten arte³⁶⁹. Tomás Zuazúa Porturasek Itsas Infanteriako 20. Batailoian zerbitzuak ematen egon zen Cartagenan. Han bi hilatete igaro zituen instrukzioa egiten, Aragoiko frontera bidali zuten arte³⁷⁰. Esteban Zaldúa Retolaza 1938ko otsailaren 19an heldu zen Bartzelonara eta han bi hilabete egon zen. Bere kinta mobilizatu zutenean Cartagenara bidali zuten eta 1938ko apirilaren 4an Itsas Infanteriako 1. Erregimentuan sartu zen. Corberan (Murcia) borrokatu zen eta Mazarrónen preso hartu zuten³⁷¹. Bere anaia, Benito Zaldúa Retolaza, Cartagenara bidali zuten Itsas Infanterian sartzeko asmoz, baina 20 egun geroago Teruelera bidali zuten 83. Brigada Mistoan sartuta, eta han zauritu egin zuten 1937ko abenduaren 28an. Tarragonako ospitale batean egon ondoren, Armamentuko idazkaritzaordera bidali zuten zerbitzuak betetzera³⁷². Brigada Misto berean Anastasio Aberasturi Garmendia busturiarra egon zen, lehenago Itsas Infanterian egon zena, baina 83. Brigada Mistora atxiki zuten eta gero Errepublikaren Herri Armadatik desertatu zuen etsaiarekin joateko 1938ko otsailaren 9an Terueleko borroketan³⁷³. Santiago Larreta Iturbe Bartzelonatik Cartagenara bidali zuten Itsas Infanteriako 17. Batailoian sartzeko, eta han gerra osoa eman zuen zaintza zerbitzuak ematen³⁷⁴. Félix Lequerica Elesgaray lurralde errepublikanora heldu zen Portboutik, eta 24. Brigada Mistoko 10. Batailoira bidali zuten fusilari bezala 1938ko urtarrilaren 7an. Pirinioetako, Trempeko eta Segreko fronteetan borroka egin ondoren, tropa matxinoek preso hartu zuten Cubelen (Bartzelona)³⁷⁵. Azkenik, Arturo Sirvent Cortado auzotarrak 1937ko abuztuaren 26an izena eman zuen 70. Brigada Mistoan, Langileen Batailotik desertatu ondoren. Langileen Batailoian zegoen Durangon preso hartu zutenetik. Brigada Misto hau ospetsuenetakoa da ekintza erabakigarri guztietan egon baitzen. Nazionalak itsasora heldu zirenean, Guadalajaran zegoen 70. Brigada Mistoari Valentziaren gaineko eraso gelditzeko deitu zioten. 1938ko apirilean Brigada Misto Levanteko fronteetan zegoen eta La Iglesuela del Cid eta Alfondeguilla defendatzeagatik nabarmendu zen. Ebroko Batailan 70. Brigada Mistoa erdialdeko fronteetan sartu zen berriro. Segismundo Casadoren altxamenduan (gerra galdutzat jotzeagatik Gerra Zibilaren bukaera bilatzen zuen militar errepublikano bat) 70. Brigada Misto honi atxiki zitzaion eta aktiboki borrokatu zen³⁷⁶. Gerra Zibilaren bukaera oso hurbil zegoen.

368. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 171/40 kausa.

369. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 790/41 kausa.

370. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 574/41 kausa.

371. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 326/41 kausa.

372. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 133/42 kausa.

373. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 1066/38 kausa. Araba.

374. ANF (Ferroleko Itsas Artxiboa). 3/41 kausa.

375. AIMN (Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra). 11214/39 kausa. Bizkaia.

376. MHZD. Segida militarra. 797. kutxa.

Laburdurak eta siglak

- AIT.- Asociación Internacional de Trabajadores.
- ANV.- Acción Nacionalista Vasca.
- AS.- Asociación Socialista.
- BBB.- Bizkai Buru Batzar.
- BOPV.- Boletín Oficial del País Vasco.
- CAEE.- Comité de Acogida a los niños Españoles.
- CEDA.- Confederación Española de Derechas Autónomas.
- CNCC.- Comité Nacional Católico de Ayuda a los Refugiados de España.
- CNT.- Confederación Nacional del Trabajo.
- CNV.- Comunión Nacionalista Vasca.
- CT.- Comunión Tradicionalista.
- EAB.- Emakume Abertzale Batza.
- EMB.- Euskadi Mendiagoizale Batza.
- EPR.- Ejército Popular de la República.
- ERC.- Esquerra Republicana de Catalunya.
- FAI.- Federación Anarquista Ibérica.
- FCDO.- Federación Cultural y Deportiva Obrera.
- FET.- Falange Española Tradicionalista.
- FNC.- Fuerzas Navales del Cantábrico.
- IR.- Izquierda Republicana.
- JCC.- Junta Calificadora Central.
- JMMII.- Juntas Municipales Investigadoras.
- JMI.- Junta Municipal Investigadora.
- JONS.- Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalista.

JSU.- Juventudes Socialistas Unificadas.

PC.- Partido Comunista.

PCE.- Partido Comunista de España.

PRRS.- Partido Republicano Radical Socialista.

PRRSI.- Partido Republicano Radical Socialista Independiente.

PS.- Partido Socialista.

PNV.- Partido Nacionalista Vasco.

PSOE.- Partido Socialista Obrero Español.

PYSBE.- Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España.

SEV.- Sociedad de Estudios Vascos.

STV.- Solidaridad de Trabajadores Vascos.

TGC.- Tribunal de Garantías Constitucionales.

UGT.- Unión General de Trabajadores.

UR.- Unión Republicana.

URSS.- Unión de Repúblicas Soviéticas.

USC.- Unió Socialista de Catalunya.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, J. eta URQUIJO, M. (zuz.) (2015): *Senderos de la memoria. Relación de espacios vinculados a la memoria de la guerra civil*. Gasteiz: Euzko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- AGIRREAZUENAGA ZIGORRAGA, J. (1987): "Armada frankistaren sarreran; errepresioa eta heriotzak busturialdean", en C. Garitaonandía eta J. L. de la Granja (arg.): *La Guerra Civil en el País Vasco. 50 años después*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- AIZPURU, M. (2009): *El informe Brsuiloff: la Guerra Civil de 1936 en el Frente Norte vista por un traductor ruso*. Irun: Alberdania.
- ALIX TRUEBA, J. (1987): *Pabellón Español. Exposición Internacional de París. 1937*. Madril: Kultura Ministerioa.
- ALONSO CARBALLÉS, J. J. (1998): *1937. Los niños vascos evacuados a Francia y a Bélgica. Historia y memoria de un éxodo infantil. 1936-1940*. Bilbo: 37an Ebakuatutako Haurren Elkarte.
- ARRIEN, G. (1988): *Niños vascos evacuados en 1937. Álbum histórico*. Bilbo: 37an Ebakuatutako Haurren Elkarte.
- BACIGALUPE, C. (1997): *Pan en la guerra. Crónica de la vida cotidiana en el Bilbao de la guerra civil (julio de 1936-junio de 1937)*. Bilbo: Laga.
- BARAÑANO LETAMENDÍA, K. M. (1981): *La obra pictórica de José María Ucelay. Análisis biográfico y estético*. Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa.
- BEN AMI, S. (1983): *Fascism from above: Dictatorship of Primo de Rivera in Spain*. Bartzelona: RBA.
- CAVA MESA, M. J. (1996): *Memoria colectiva del bombardeo de Gemika*. Bilbo: Bakeaz.
- CHIAPUSO, M. (1978): *El Gobierno Vasco y los anarquistas. Bilbao en guerra*. Donostia: Txertoa.
- CORRAL, P. (2006): *Desertores*. Bartzelona: Debolsillo.
- DE LA GRANJA, J. L. (2007): *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la guerra civil*. Madril: Tecnos.
- DE LA GRANJA, J. L. (2008): *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*. Madril: Siglo XXI.

- DELEGACIÓN PROVINCIAL DE EXCAUTIVOS DE VIZCAYA (1946): *In memoriam. Mártires de Vizcaya. Labor de una delegación*. Madril: Gatibu Ohien Bizkaiko Ordezkaritza Probintziala.
- DE PABLO, S.; MEES, L. eta RODRÍGUEZ RANZ, J. A. (1999): *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*. Bartzelona: Crítica.
- ECHÁNIZ, J. A. eta DE LA GRANJA, J. L. (zuz.) (1988): *Gernika y la Guerra Civil. Symposium: 60 aniversario del bombardeo de Gernika*. Bilbo: Gernikazarra.
- ECHEANDÍA, J. (1945): *La persecución roja en el País Vasco. Estampas de martirio y cárceles de Bilbao. Memorias de un excautivo*. Bartzelona: e. g.
- EGAÑA, I. (1999). *1936. Guerra Civil en Euskal Herria*. Andoain: Aralar.
- EGAÑA, I. (2009): *Los crímenes de Franco en Euskal Herria. 1936-1940*. Tafalla: Txalaparta.
- ESCOBAL, P. (2005): *Las sacas (memorias)*. Madril: Biblioteca del exilio.
- FUSI AIZPURÚA, J. P. (1978): "Indalecio Prieto y el Estatuto Vasco de las Izquierda", en M. Gutiérrez Esteve; J. A. Cid Martínez eta A. Carrerira (zuz.): *Homenaje a Julio Caro Baroja*. s.l.: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- GOIOGANA, I. eta ARRIEN, G. (2006): *El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- GOIOGANA et al. (2014): *Goazen gudari danok... Askatasun-bidean. En defensa de la libertad*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- GONDRA ORAÁ, M. V. (1990): *Monografía de Busturia. Anteiglesia y Merindad*. Madril: Beramar.
- HAINBAT EGILE. (1979; 1981; 1982): *Historia General de la Guerra Civil en Euskadi*. Donostia: Haranburu.
- HAINBAT EGILE. (2004): *Manuel Losada. 1865-1949. Catálogo razonado*. Bilbo: Euskal artea aztertzeko eta katalogatzeko elkarte.
- HERRERO ACOSTA, X. eta AYÁN VILA, J. M. (2016): "De las trincheras al museo: sobre el reciente proceso de patrimonialización de la Guerra Civil española en Euskadi", en I. Urtizberea (koord.): *Lugares de memoria traumática: representaciones museográficas de conflictos políticos y armados*. Bilbo: EHU/UPV.
- IBARRETXE, A. eta MOLINUEVO, K. (2009): *1931-1939. Arrigorriaga. República. Guerra Civil*. Bilbo: e. g.
- IPIÑA, A. (2014): *La depuración de funcionarios y empleados públicos provinciales y municipales en Bizkaia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista: (1936-1976)*. EHU/UPV. Argitaratu gabe.
- IRAZABAL AGUIRRE, J. (2012): *La Guerra Civil en el Duranguesado. 1936-1937*. Donostia: Gerediaga.
- KORTADI, E. (1979). *Gipuzkoako pintoreak. 1939-1979*. Donostia: Udal Aurrezki Kutxa.
- LANDA MONTENEGRO, C. (1998): "Presos vascos en la Euskadi republicana (1936-1937)", en J. A. Rodríguez Ranz (zuz.): *Espetxean*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- LANDA MONTENEGRO eta GUEZALA, L. (1998): "Presos vascos en las cárceles de Franco (1936-1945)", en J. A. Rodríguez Ranz (zuz.): *Espetxean*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- MARTÍNEZ BANDE, J. M. (1971): *Vizcaya*. Madril: San Martín.
- MATTHEWS, J. (2013): *Soldados a la fuerza. Reclutamiento obligatorio durante la Guerra Civil. 1936-1939*. Madril: Aliantza.

- MUÑOZ FERNÁNDEZ, F. J. (2010): "Guerra, arte y exilio en el País Vasco", en A. Colorado Castellary (ed.). *Patrimonio, Guerra Civil y Posguerra. Congreso internacional*. Madril: Servicio Publicaciones Universidad Complutense de Madrid.
- MUÑOZ FERNÁNDEZ, F. J. (2015): *El museo ausente. La evacuación del Museo de Arte Moderno de Bilbao durante la Guerra Civil*. Argitaratu gabe.
- MARTÍN, F. (1982): *El Pabellón Español en la Exposición Universal de París de 1937*. Sevilla: Universidad de Sevilla.
- MATA, S. (2013): *Holocausto católico. Los mártires de la Guerra Civil*. Madril: La esfera de los libros.
- MEER LECHA, F. (1992): *El Partido Nacionalista Vasco ante la guerra de España (1936-1937)*. Iruña: Nafarroako Unibertsitatea.
- MITXELENA, K. (1955): *Apellidos Vascos*, Donostia.
- MUR PASTOR, P. (1991): *Antonio de Guezoala y Ayrivie (1889-1956)*. Bilbo: Bilboko Arte Ederretako Museoa.
- ONAINDÍA, A. (1973): *Hombre de guerra en la paz*. Buenos Aires: e.g.
- ORGANERO, A. (2015): *Batallón de pico y pala: cautivos toledanos en Navarra. (Lesaka, 1939-1942)*. Iruña: Pamiela.
- PAIA, F. (2011): *Busturia bizimodua eta ohiturak*. Bilbo: Labayru ikastegia.
- PARDO SAN GIL, J. (2004): *Crónica de la guerra en el Cantábrico. Las fuerzas navales republicanas (1936-1937)*. Donostia: Txertoa.
- PARDO SAN GIL, J. (2008): *Euzkadiko Gudontzidia. La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-39)*. Donostia: Untzi Museoa.
- PÉREZ AGOTE, A. (2003): "Sociología Histórica del Nacional-Catolicismo español". *Historia Contemporánea*, 26: 207-237.
- PIAZZONI, S. (1941): *Las tropas Flechas Negras en la guerra de España (1937-1939)*. s.l.: Juventud.
- RAMOS LARRIBA, C. (1997): *Busturia*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- ROMAÑA ARTEAGA, J. M. (1984): *Historia de la guerra naval en Euskadi*. Bilbo: Editorial Amigos del Libro Vasco.
- SARRIONANDÍA, B. (2012): *La II República y la Guerra Civil en Deusto*. Bilbo: Izarren Hautsa.
- SEBASTIÁN GARCÍA, Lorenzo (1999): "La represión económica bajo el primer Gobierno Vasco. La Junta Calificadora Central (1936-1937)". *Vasconia*, 29: 169-184.
- STEER, G. (2002): *El árbol de Gemika: un ensayo de la guerra moderna*. Tafalla: Txalaparta.
- TALÓN, V. (1988): *Memoria de la Guerra de Euzkadi de 1936*. Bartzelona: Plaza y Janés.
- TASIO, A. (2012): *República y guerra en Portugalete*. Bilbo: Autor.
- UCELAY, J. M. (1978): *José María Ucelay. Antológica*. Bilbo: Patronato proarte.
- URGOITIA, J. A. (ed.) (2001): *Crónica de la Guerra Civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular*. Ohiartzun: Sendoa.
- VARGAS ALONSO, F. M. (1994a): "Las Milicias de los Partidos Republicanos en Euskadi (1936-1937)". *Cuadernos Republicanos*, 19: 59-82.

- VARGAS ALONSO, F. M. (1994b): "Navarros contra el Alzamiento. Memoria documental de una lucha (1936-1939)". *Gerónimo de Uztariz*, 9-10: 173-198.
- VARGAS ALONSO, F. M. (2001): "El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: *Euzko Gudarostea (1936-1937)*". *Vasconia*, 31: 305-343.
- VARGAS ALONSO, F. M. (2002): "Los Batallones de los Nacionalismos Minoritarios en Euzkadi: ANV, EMB, STV (1936-1937)". *Vasconia*, 32: 517-547.
- VARGAS ALONSO, F. M. (2007): *Bermeo y la Guerra Civil. La batalla del Sollube*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- VARGAS ALONSO, F. M. (2008): *Los batallones socialistas de Euzkadi en la Guerra Civil*. Bilbo: PSE-PSOE. Miliziano Sozialisten Taldea. Bizkaia Taldea.
- VELASCO, M. (2012): *Los otros mártires. Las religiones minoritarias desde la Segunda República hasta nuestros días*. Madrid: Akal.
- VÉLEZ LÓPEZ, E. (1993): "La creación del Museo de Bellas Artes de Bilbao", en *Anuario Museo de Bellas Artes de Bilbao*.
- VICUÑA, C. (1945): *Mártires agustinos de El Escorial*. Madrid: El Escorial.

ARTXIBOAK

- AHE-EAH.- Euskadiko Agiritegi Historikoa (Bilbo, Euskadi).
- AHN.- Artxibo Historiko Nazionala (Madrid).
- AIMN.- Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra (Ferrol, Galizia).
- ANF.- Ferroleko Itsas Artxiboa (Ferrol, Galizia).
- AGMA.- Avilako Artxibo Orokor Militarra (Ávila, Gaztela eta Leon).
- AGMG.- Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra (Guadalajara, Gaztela-Mantxa).
- BEHA-AHEB.- Bizkaiko Elizako Artxibo Historikoa (Derio, Euskadi).
- BFAAH.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa (Bilbo, Euskadi).
- BUA.- Busturiko Udalaren Artxiboa (Busturia, Euskadi).
- MHZD.- Memoria Historikoko Zentro Dokumentala (Salamanca, Gaztela eta Leon).

BALIABIDE ELEKTRONIKOAK

- Ahotsak: <https://ahotsak.eus/busturia/>
- Ahaztuak 1936-1937: <http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com.es/>
- Basques in Western USA: Amerikanuak: <http://basquesinwestern.blogspot.com.es/>
- Euskal Memoria Fundazioa: <http://www.euskalmemoria.eus/es>
- Eusko Jaurilaritza.- Paz y Convivencia: <http://www.euskadi.eus/web01-s1lehbak/es>
- Gogora fundazioa.- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.- <http://www.gogora.euskadi.eus/aa82-home/eu/>

Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza, diktadura, II. Errepubliketa Gerra Zibila = Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil
(Busturia (1916-1937): Restoration of the Spanish Monarchy, Dictatorship, Second Republic and Civil War)

Herrero Acosta, Xabier (UPV/EHU): **Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza, diktadura, II. Errepubliketa Gerra Zibila = Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil** (Busturia (1916-1937): Restoration of the Spanish Monarchy, Dictatorship, Second Republic and Civil War) (Orig. eu/es)

In: *Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza, diktadura, II. Errepubliketa Gerra Zibila = Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil*, 1-399

Abstract: This paper on Busturia aims to analyse the political evolution of local institutions from the Restoration of the Spanish Monarchy to the end of the Civil War. Without forgetting this institutional evolution at local level, the study focuses on various social aspects related to the Second Republic and the Civil War in the municipality, such as the implementation of different ideologies, social conflict, military mobilisation, exile or repression.

Key Words: Local history. Busturia. Busturialdea. Restoration of the Spanish Monarchy. Primo de Rivera's Dictatorship. Second Republic. Civil War.

Lankidetzan

1. *Oñati eta Gipuzkoaren bategitea (1845) = La Unión de Oñati y Giuzkoa en 1845*
Jerardo Elortza, Juan Madariaga, Iñaki Zumalde
1996
2. *Antonio Maria Labayen (1898-1994): hitz bitan (bideoa)*
Juanjo Franco zuzendaria; Joxe Ramon Zubimendi gidogilea
3. *Atzoko Zegama*
Xabier Azurmendi Agirre
1997
4. *La institucionalización jurídica y política de Vasconia*
Gurutz Jauregi, José Manuel Castells, Xabier Iriondo
1997
5. *San Telmo Museoko soinu eta hots tresnak*
Juan Mari Beltran Argiñena
1998
6. *Bermeo en el siglo XX. Política y conflicto en un municipio pesquero vizcaíno (1912-1955)*
Ander Delgado Cendagortagarza
1998
7. *Feria de ganado de Salvatierra en el 600 aniversario de su concesión (1395-1995)*
Juncal Aperribay, Estibaliz Bustero, Juan José Galdos
1998
8. *Koldo Eleizalde*
Autores Varios
1999
9. *Justo Garate*
Autores Varios
1999
10. *Los Lazarraga y el convento de Bidaurreta (siglos XVI-XVIII): un linaje en la historia de Oñate*
M.ª José Lanzagorta Arco, M.ª Angeles Molero Esteban
1999
11. *Brinkola gogoan. Apunte historiko eta etnografikoak*
Jose Luis Ugarte, Tere Madinabeitia, Maria Jesus Ugalde
1999
12. *Portugaleta en la Revolución Industrial (1850-1936). Biografías*
Inmaculada Martínez Huerta, Mercedes Iturbe Zulaika, Begoña Suárez Carro
1999
13. *Aramaio Lore Jokoak. Juegos Florales de Aramaio 1899*
Pedro Uribarrena, Anunciación Iñigo de los Ríos
1999
14. *Eibar 1346-1996. Ekarpen historikoak. Aportaciones históricas*
Autores Varios
1999
15. *Estado Autonómico y hecho diferencial de Vasconia*
Autores Varios
2000
16. *El órgano en la villa de Ochandiano*
J. Sergio del Campo Olaso
2000
17. *Cartularios de Santa María de Valpuesta. Análisis Lingüístico*
Emiliana Ramos Remedios
2000
18. *Senpereko Kantu Xaharrak*
Oxtekenekoak Kultur Elkarte
2001
19. *El historiador Esteban de Garibay*
Autores Varios
2001
20. *Eugène Goyheneche. Omenaldia - Hommage*
Zenbait Egile
2001
21. *Madeleine de Jauréguiberry. Omenaldia - Hommage*
Zenbait Egile
2001
22. *Michel Labèguerie. Omenaldia - Hommage*
Zenbait Egile
2001
23. *Poder, pensamiento y cultura en el Antiguo Régimen. Actas de la 1.ª Semana de Estudios Históricos "Noble Villa de Portugaleta"*
Autores Varios
2002

24. *Sakanako Folklore / Folklore de la Sakana*
Josu Larrinaga Zugadi
2003
25. *El nacimiento del periodismo vasco: Gacetas donostiaras de los siglos XVII y XVIII*
Javier Díaz Noci; Mercedes del Hoyo Hurtado
2003
26. *Resurrección María de Azkue: euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea*
Zenbait Egile
2003
27. *Euskal Festak Zestoan. 1898*
Luzia Alberro
2003
28. *Las huellas de Aránzazu en América. I Congreso Internacional Arantzazu y los Franciscanos Vascos en América*
Autores Varios
2005
29. *Etnografía del enclave de Treviño, I*
Autores Varios
2005
30. *Aljeriako gerla eta Euskal Herria (1954-1962) / La guerre d'Algérie et le Pays Basque (1954-1962)*
Zenbait Egile
2005
31. *Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI-XIX)*
Xabier Elosegi
2005
32. *Pierre Haristoy. Historia Jardunaldia / Journée d'Histoire*
Zenbait Egile
2005
33. *Euskaldun orok altxa burua. Enquêtes sociolinguistiques en Garazi 1982, 2002*
Jakes Aurnague, Maia Duguine
2005
34. *Víctor Chávarri (1854-1900). Una biografía*
Eduardo J. Alonso Olea
2005
35. *Piedras armeras de Agurain*
Juan Carlos Luzuriaga
2005
36. *Juan Garmendía Larrañaga. Solasean*
Josemari Velez de Mendizabal
2005
37. *Aginaga. Errioko jarduera eta bertako hiztegia*
Jabier Pikabea Aizpurua
2005
38. *Altsasuko Emakumeak. Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia / Mujeres de Altsasu. Veinte años de Vida, Veinte años de Historia*
Araceli Erdozia Anso
2006
39. *De herradores, albéitares y veterinarios municipales de Zumarraga (Gipuzkoa)*
José Manuel Etxaniz Makazaga
2006
40. *Etnografía del Enclave de Treviño, II*
Autores Varios
2006
41. *Olentzeroren tradizioa Lesaka eta Euskal Herriko Eguberrietan / La tradición de Olentzero en la Navidad de Lesaka y Euskal Herria*
Zenbait Egile
2006
42. *Vascos en Chile 1520-2005. Euzko Etxea de Santiago*
Varios Autores
2007
43. *Bermeo y la Guerra Civil. La Batalla del Sollube*
Francisco Manuel Vargas Alonso
2007
44. *Urnietako irakaskuntzaren historia laburra (Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean) / Breve historia de la enseñanza en Urnieta (En el centenario de Pedro Viteri Arana)*
Aitziber Salinas Elosegi; Juan Aguirre
2007
45. *Elizak eta Estatua bereizteko legea. Ondorioak Euskal Herrian (1905-1906) / La Séparation des Eglises et de l'Etat. Les Inventaires en Pays Basque (1905-1906)*
Zenbait Egile
2008
46. *Gemika Lumo (1873-1937). Sarrera historikoa*
Ander Delgado Cendagortagarza
2008
47. *El tiempo detenido. Viejas fotografías del Condado de Treviño. 1900-1975*
Ainara Miguel Sáez de Urabain
2008
48. *Elías Amézaga. Vida y obra*
Abraham de Amezaga
2009

49. *500 aniversario de las Ordenanzas Municipales de la villa de Plentzia (1508-2008)*
Varios Autores
2009
50. *Alfonso Ugarte (1879-1937) eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian / Alfonso Ugarte (1879-1937) y la reforma de la música sacra en territorio vasco-navarro*
Ainhoa Kaiero Claver
2009
51. *Jokoak, Kirolak eta Folklore-lkerketa Jardunaldiak. Basauri 2008 / Juegos, Deportes e Investigación Folclórica Jornadas. Basauri 2008*
Zenbait Egile
2009
52. *Otxandioko Toponimia*
Asier Astigarraga Zelaia
2009
53. *Elias Salaverria Memoriala. Euskal Herriko artearen historian istorioa*
J. Javier Fernández Altuna; M.ª Pinar Matey Muñoz
2010
54. *Karmeldarren eragin kultural eta soziala Markina-Xemeninen. 1960-1980 hamarkadetan herrikokultur bizitzari emandako bultzada eta babesa*
Xabier Larrañaga Gisasola
2010
55. *Gerra Zibila Otxandion*
Zigor Olabarria Oleaga
2011
56. *Urnietako emakumeak XX. mendean*
Mujeres de Urnieta en el siglo XX
Iñigo Imaz Martínez
2011
57. *Historia de Plentzia: dinámicas sociales s. XVI-XIX*
Gonzalo Duo (coord.)
2011
58. *Iglesia de Andra Mari de Erandio. Estudio histórico-artístico*
Juan M. González Cembellín, Raquel Cilla López, Jesús Muñiz Petralanda
2011
59. *Hermilio de Olóriz o la Navarra Olvidada*
José L. Nieva Zardoya
2012



Busturiako lan honen helburua da tokiko erakundeen bilakaera politikoa aztertzea Berrezarkuntzatik Gerra Zibila amaitu arte. Bertako bilakaera instituzionala ahaztu barik, ikerketa II. Errepublikarekin eta Gerra Zibilarekin lotutako udalerriko hainbat alderdi sozialetan zentratzen da, hala nola ideologia ezberdinen ezarpena, gatazka sozialak, mobilizazio militarra, erbesteak edo errepresioa.

Este trabajo sobre Busturia tiene como objetivo el análisis de la evolución política de las instituciones locales desde la Restauración hasta el final de la Guerra Civil. Sin olvidar esta evolución institucional a nivel local, el estudio se centra en diversos aspectos sociales relacionados con la II República y la Guerra Civil en el municipio como la implantación de distintas ideologías, la conflictividad social, la movilización militar, el exilio o la represión.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, argolana, bien común



Busturiko Udala